

Ahituak / Agotados:

Euskera: 1956, 1957, 1958, 1959, 1960, 1961, 1962, 1963-64, 1967, 1968, 1971, 1972, 1977 (2).

* * *

Salgai / En venta:

Euskera: 1969-70, 1973, 1974, 1975, 1976, 1977 (1), 1978, 1979, 1980, 1981, 1982, 1983, 1984, 1985, 1986, 1987, 1988, 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008.

EUSKERA
LIII, 2008, 3

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



2008
3

2008, 3
53. liburukia (2. aldia)
BILBO

Bilduma/Colección

Revista EUSKERA Agerkaria

Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala, 1920. urtetik argitaratzen dena. Hemen biltzen diren agiri eta Euskaltzaindiaren emaitzak ezagutzeko beharrezkoak dira. **Euskera** agerkariaren **Aurkibideak** ere badira, 1920tik 1979ra artekoa (1980, 1) eta 1980tik 1996ra (1997, 1-2), egile eta gai zerrendaz argitaratua, edonori bertako agirien eta lanen bilaketa errazteko.

Órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, que se publica desde 1920. En él se han acumulado materiales que hoy se consideran indispensables para la consulta e investigación sobre lengua y literaturas vascas y la evolución de la institución académica. Existe un **Índice de Euskera**, por autores y materias, que abarca desde 1920 hasta 1979 (1980, 1) y desde 1980 hasta 1996 (1997, 1-2), el cual facilita la búsqueda documental.

* * *

Euskera, 1919-1953

Euskaltzaindiaren agerkari ofizialaren berrargitalpena.
Órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia.
Reedición.

17 liburuki / 17 tomos, 1919-1953
23 x 16,5 cm.; guaflex azala

* * *

Euskera, 1965-66

Berrargitalpena / Reedición

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2008, 3
53. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefona: 94 415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net • web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua: Andres Maria Urrutia Badiola

Kideak: Beñat Oihartzabal, Xabier Kintana, Andoni Sagarna, Andres Iñigo, Jose Antonio Arana Martixa eta Joan Mari Torrealdai

Eragile eta idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Lege-gordailua BI-1.244-58

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: Emfasis
Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

IKER SAILA

ONOMASTIKA

TOPONIMIA ADMINISTRAZIOAREN EGUNEROKO JARDUNEAN IKASTAROA

Toponimia ikerketen oinarri teorikoak, <i>Patxi Galé</i>	601
Euskaltzaindia eta onomastika, <i>Andres Iñigo</i>	613
Toponimia gizarteratzeko bideak. Erabilera administrazioetan, <i>Felix Mugurutza Montalban</i>	633
Legedia, eskumen eta administrazio prozedurak, <i>Jose Luis Lizundia Askondo</i>	655
Toponimia ikerketak: prozedura eta urratsak, <i>Mikel Gorrotxategi Nieto</i> . .	663

TOPONIMIA ADMINISTRAZIOAN Euskaltzaindia - EUDEL

Kale izendegiak. Izenak hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko arauak, <i>Mikel Gorrotxategi</i>	695
* * *	
Irizpenak, <i>Mikel Gorrotxategi</i>	705
Arkaia , <i>Onomastika Batzordea</i>	707
Olabarri , <i>Onomastika Batzordea</i>	709
Egileta , <i>Onomastika Batzordea</i>	713
Sobre el topónimo mayor Zúñiga , <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	715
En torno al origen y denominación vasca de Juslapeña , <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	721

**BERMEOKO TOPONIMIA LANAREN
AZTERKETA KRITIKOA**

Bermeoko toponimia lanaren azterketa kritikoa, Patxi Galé. 727

JAGON SAILA

XII. JAGON JARDUNALDIAK

<i>Agurra, Andres Urrutia.</i>	809
<i>Ongietorri, Javier Baztarrika</i>	811
Nafarroa Oinez , 2008, <i>Unai Arellano.</i>	813
Nola konspirazioa garaitu genuen (Nafarroako euskal literatura garaiki- deaz), <i>Aingeru Epaltza</i>	815

**XIII. JAGON JARDUNALDIAK:
EUSKARA, KONTSUMOA ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEAK**

«Euskararen legea, 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan» jardunaldien emaitza <i>Euskera</i> agerkarian argitaratu	831
<i>Aurkezpena, Andres Iñigo.</i>	833
XIII. <i>Jagon</i> Jardunaldiak: kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza- -eskubideak. Kontsumoa, hizkuntza gutxiagotuen indarberitzearen perspektibatik, <i>Erramun Baxok.</i>	835
Zer gertatu da euskal kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubi- -deekin azken 120 urteotan?, <i>Patxi Juaristi.</i>	847
Euskaraz mintzatzen da, <i>Sagrario Aleman</i>	873
Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntzaz Ipar Euskal Herrian: adibi- -de batzuk, <i>Jean-Baptiste Battittu Coyos.</i>	879
EAEko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen 123/2008 Dekretua. Zerta- -rakoak, aldekoak eta kontrakoak, <i>Erramun Osa.</i>	889
Kontsumoaren araubide linguistiko berria, zuzenbidearen ikuspuntutik: 123/2008 Dekretuaren nondik norakoak, <i>Andres Urrutia</i>	907

Drets lingüístics dels consumidors i usuaris, <i>Jordi Anguera</i>	929
XIII. <i>Jagon</i> Jardunadiak: euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak. <i>Ondorioak</i>	957

**JAGONET:
2008.URTEKO EMAITZAK, KONTSULTAK**

Jagonet: 2008.urteko emaitzak, <i>Joxe Ramon Zubimendi</i>	961
--	-----

**EUSKALTZAINDIAREN
AGIRIAK**

BATZAR-AGIRIAK

Bilbon, 2008ko irailaren 26an.	967
Iruñean, 2008ko urriaren 6an	969
Donostian, 2008ko urriaren 31n	971
Bilbon, 2008ko azaroaren 28an	973
Pasaian, 2008ko abenduaren 19an	975
Euskaltzaindiaren 90. urteurrena	979
Euskaltzaindiko Zuzendaritzako karguak hautatzeko batzar berezia	981
Euskaltzaindiak, Arantzazuko frantziskotarrek eta Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena sinatu	985
Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetz hitzarmena	987
Euskaltzaindiak eta <i>Berria</i> egunkariak hitzarmena sinatu	989

**EUSKALTZAINDIAREN
ARAUAK**

155. Nafarroako udal izendegia.	993
156. Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema	1013
157. Europako hiriak	1027

BERRIAK

Txomin Peillenek <i>Agosti-Xaho</i> saria jasotako	1047
Bizkaiko bertsolari txapelketa: 50. urteurrena	1049
Durangoko 43. Euskal Azokarekiko kontu-errendapena, <i>Ricardo Badiola Uriarte-Jon Artza Bikandi</i>	1051
Euskaltzaindiak bere Webgunea berri du	1053
Bilboko Udalak Euskaltzaindia omendu: <i>90. urteurrean</i>	1055
Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarrekin Henrike Knörr omendu	1057
Gasteizko urrezko domina Henrike Knörr-i, <i>Manu Ruiz Urrestarazu</i>	1059

D-MAILAKO AGIRIAK

D-mailako hizkuntza gaitasun agiria: 2008-VII-18	1063
D-mailako hizkuntza gaitasun agiria: 2008-XI-28	1065
Euskaltzaindiaren adierazpena, «D» mailako hizkuntza gaitasun agiria emateari uztean	1067

EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPEN AURKEZPENAK

<i>Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)</i> . Aurkezpena	1071
--	------

EUSKALTZAINDIA-BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA: LITERATURA SARIAK

Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa: Literatura sariak	1075
Mikel Zubeldia. <i>Txomin Agirre</i> saria. Eleberria	1077
Pako Aristi. <i>Toribio Altzaga</i> saria. Antzerkia	1079
Amaia Jauregizar. <i>Felipe Arrese Beitia</i> saria. Olerkia	1081

HIL BERRIAK

Henrike Knörr Euskaltzaindian, <i>Jose Luis Lizundia Askondo</i>	1085
Iratzeder, <i>Jean Haritschelhar</i>	1089
Karmelo Etxenagusia (1932-2008), <i>Adolfo Arejita</i>	1097
Jose Ignazio Telletxea Idigoras (1928-2008), <i>Joseba Intxausti</i>	1107
Telletxea Idigorasi omenaldi liburua, <i>Jose Antonio Arana Martixa</i>	1119
Jacques Isidore Etcheverry Unanue (1921-XII-16) – (2006-III-22), <i>Piarres Xarritton Zabaltzagarai</i>	1121
Milagros Bidegain (1922-2006), <i>Maria Pilar Lasarte</i>	1127
* * *	
Aurkibidea / Índice / Index, 2008	1139

IKER SAILA

ONOMASTIKA

TOPONIMIA ADMINISTRAZIOAREN
EGUNEROKO JARDUNEAN IKASTAROA

Durango, 2008-XI-08

TOPONIMIA IKERKETEN OINARRI TEORIKOAK

*Patxi Galé,
Onomastika Batzordea
Euskaltzaindia*

TOPONIMIA ZERGATIK IKERTU BEHAR DEN

Udal batek bere eskumena den eremuko toponimia ezagutu behar du, batez ere bere eguneroko jardunean lekuak izendatu behar dituelako. Toponimia beharrezkoa da bai udaletxeko funtzionamenduan eta bai herriko jendearen bizitza arruntean ere: kale-izendegia, herri-lan berriak, industrialdeak, lur-eremuen ustiaketa... Baina hau gutxi balitz, leku izenek kultur ondarearen atal bat osatzen dute eta, hartakotzat harturik, erakundeen eta hiritarren babesa merezi eta behar izaten dute. Nolabait esateko, udalen eginbehar eta arduren artean, herriko toponimiaren ezagutza eta babesa ere badago.

Gure ondare toponimikoaren zati handi bat euskal izenez osatua dago. Dakigunez, euskara luzaro bizi izan da gure artean inolako ofizialtasunik edo administrazio erabilerarik izan gabe. Baina jadanik administrazioan erabil daiteke –ez dago guztiz debekaturik, alegia– eta leku izen horiek ez dira beste hizkuntza ofizialaren itxura grafikoaren pean ezkutatu behar, beren hizkuntza propioaren arau ortografikoak bete behar dituzte grafia horiek nahiz, paradoxikoki, leku horietako askotatik euskara gaur egun desagertua den. Gainera, euskararen estandarizazio eta normatibizazioaren prozesua aurrera doa, mantsu bada ere, eta grafia horiek irizpide homogeen batzuen arabekoak izatea komeni da. Hortaz, gure toponimia normalizatu beharra dago euskararen beraren normatibizazioaren eta normalizazioaren prozesuaren barruko atal bat bezala, agian atzeratuenik daramaguna.

TOPONIMIA IKERKETEN AURREKARIAK

Toponimia ikerketen historia Euskal Herrian ez da oso luzea. XIX. mendetik zetorren bolada etnografiakale erromantikoarekin lotu behar ditugu lehenbiziko saioak eta, gurean, XX. mendearen aurreneko urteetan hasi ziren gauzatzen. Leku izenak maiz agertzen dira aipatuak lehenagoko idazlanetan, hala euskarazko

tetuetan nola hizkuntza jasoagoetan idatziriko dokumentazioan. Baina leku-ize-nak ikergai gisa ulertuta, ez zaizkigu agertuko XIX. mendera arte.

Euskal Herriko lekuen izenen bilketa edo azterketa sistematikoaren lehen-biziko saioak Iparraldean aurkitzen ditugu. 1826an argitaratutako Lécuseren euskal gramatika, mugaz bestaldeko herri batzuen euskal izenak jaso ziren sistematikoki¹. 1863an Raymondek ere bere hiztegi topografikoan² Bearno eta Euskal Herri kontinentaleko herrien izenak jasotzen zituen, bertako hizkuntzen aldaerak ere agerturik. Aita Hatanek³ 1895ean ipar Euskal Herriko herri izenen zerrenda ez ezik, haien etimoa ere azaltzeko egin zuen lehenbiziko saioa.

Hegoaldean piztu zen, ordea, euskal toponimia bildu eta jasotzeko lehenengo egitasmo handi eta sistematikoa, ageriko helburu etnografiko eta euskaltzaleekin. Horretarako, Luis Eleizalde euskaltzainak abian jarri zuen Euskal Herrian zehar laguntzaileen sare handi bat eta, 1922an hasita, euskal toponimoen zerrenda alfabetikoak argitaratzeari ekin zion. Asmo eta prozeduraren ideia bat egiteko, egitasmoaren aurkezpena eta deialdia plazaratzen zuen artikulua «A los vascos de buena voluntad» zeukan izenburua⁴. Zerrenda hauen argitalpena Espainiako gerrak eten zuen, baina 1964an ikusi zuten argia azkeneko lerroka-dek eta, guztira, 21340 leku-izen daude han jasorik⁵. Aintzat hartzeko corpusa da, beraz, izen bakoitzaren izaera eta kokapena ere ematen dituen aditza.

Zerrenda hauen balioa gutxietsi nahi izan gabe, urte batzuk pasatu behar izan ziren helburu zientifiko argiagoekin lehenbiziko egitasmoak planteatu zitezten. Euskal onomastikaren ikerkuntzan jauzi hau eman zuen Julio Caro Baroja izan zen. Bere *Materiales* izeneko lana⁶ inoiz izan da aipatua erromantikotasunetik zientifikotasunerako urrats bezala. Ildo beretik eta berme horrekin berarekin,

¹LÉCLUSE, Fleury de: *Grammaire Basque*, J.M. Douladoure, Toulouse-Baiona, 1826. Ikus, halaber, LAKARRA, Joseba Andoni & URGELL, Blanca: «Lécuse-ren Hiztegia. Euskalaritzaren historiarako lanabesak (II)», *ASJU*, XXII-1 (1988), 99-211.

²RAYMOND, Paul: *Dictionnaire topographique, Béarn eta Pays Basque*, Imprimerie Impériale, Paris, 1863. Gure egunetan ere argitara emana: Ekaina-Amalur, Donibane Lohizune, 1983.

³HATAN, Abbé Jean: *Explication des principaux noms propres de villages du Pays Basque français et des provinces basques*, Vignancourt, Pau, 1895.

⁴CAMPIÓN JAIME-BON, Arturo & BARAIBAR ZUMARRAGA, Federico & VELASCO LÓPEZ-CANO, Eduardo & ARRIANDIAGA GOROCICA, Manuel de & ELEIZALDE BRENOSA, Luis de: «Patronimia y toponimia vasca. A los vascos de buena voluntad», *Euskalerrriaren alde*, V (1915), 242-246.

⁵ELEIZALDE BRENOSA, Luis de: «Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas», *RIEV*, XIII (1922), 113-128, 420-438, 493-509; XIV (1923), 128-144, 315-328, 442-456, 558-571; XVIII (1927), 625-633; XIX (1928), 77-87, 381-392, 614-626; XX (1929), 24-35, 218-227; XXI (1930), 178-201, 518-546; XXII (1931), 288-303; XXIII (1932), 408-437; XXIV (1933), 283-303, 387-404; XXV (1934), 418-429; XXVI (1936), 168-176 eta *BRSBAP*, XIX-3 (1963), 241-273; XX 1-2 (1964), 103-159.

⁶CARO BAROJA, Julio: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamancako Unibertsitatea, Salamanca, 1945. Berrikiago argitaratua: Txertoa, Donostia, 1990.

Caro Barojak hein handiagoko egitasmo baterako lehen lerroak zehaztu zituen aspaldisko artikuluan⁷: «Proyecto para la elaboración del fichero de toponimia y antroponimia vasca medieval». Izenburua irakurtze soiletik uler daitekeenez, helburua filologiko eta historiko hutsekin abiatutako egitasmoa izan zen, euskararen normalizazioa eta leku-izen horien gizarteratzea aintzat hartzen ez zituena. Gauzatu ez zenez gero, Ricardo Zierbide ere saiatu zen, zenbait urte beranduago, era horretako egitasmo bat diseinatzen eta abiatzen. Ideia horren hazia «Onomasticon Vasconiae» izeneko artikuluan irakur daiteke⁸.

Euskararen eta euskal toponimiaren araupetzea eta gizarteratzea kontuan izaten zituen lehenbiziko egitasmo mardula, José María Jimeno Juríok abiatu eta zuzendu zuen Nafarroan. Haren helburuak, ibilbidea eta, bereziki, metodologia aztertu nahi dituenarentzat, Euskaltzaindiak antolaturiko I. Onomastika jardunaldietako aktetan dago jasoa haren ponentzia⁹.

EUSKAL TOPONIMIAREN IKERKETA ETA NORMALIZAZIOAREN HISTORIA

Gure garai hauetan euskararen egoerak aldaketa esanguratsu batzuk izan ditu, leku-izenen tratamenduan ondorioak izan dituztenak. Alde batetik, euskarak berak arautze prozesu luze eta sakon batean dago sartuta. Euskara estandarren diseinuak, abiatzeak eta –egia esan dezagun– izan duen arrakastak, orain arte bere historia luzean inoiz ere ezagutu ez duen loraldi literarioa ekarri diote euskarari. Euskara batuari esker, orain arte ia eragoztirik zeukan maila idatzia konkistatu du gure hizkuntzak. Beste alde batetik, Hegoaldeko erkidegoetan marko autonomikoen abiatzea edo erreforma ere eragingarriak izan dira euskararen egoerarako. Euskal Autonomia Erkidego osoan eta Nafarroako alde euskaldunean nahiz, beste neurri batean, mistoan, euskarak estatus ofiziala omen du eta administrazio hizkuntza bezala erabilia izateko atea irekitzen dizkio horrek neurri zabalago edo murriztago batean. Besteak beste, euskal toponimoak euskal grafia arauzkoan agertzea dagoeneko ez dago debekaturik eta gure herrien izen ofizialak, errepide eta kaleetako seinaleztapenak, bulego ofizialeko errotulazioa... euskaraz ere jartzea ohikoa da gaur egun. Batez ere beharrian hauei erantzuna emateko, administrazioek abiatu dituzte, beste zenbait inizatibaren artean, toponimia ikertzeko egitasmo batzuk.

⁷CARO BAROJA, Julio: «Proyecto para la elaboración del fichero de toponimia y antroponimia vasca medieval», *BRSBAP*, V-3 (1949), 381-385.

⁸ZIERBIDE MARTINENA, Ricardo: «Onomasticon Vasconiae, consideraciones metodológicas», *FLV*, 45 (1985), 175-182.

⁹JIMENO JURÍO, José María: «Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra», *I. Onomastika jardunaldien agiriak, toponimia*, Gasteiz, 1986ko apirila, *Onomasticon Vasconiae* 4, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 99-110.

Neurri handiko lehenbiziko egitasmoa Nafarroan abiatu zen 1980ko hamarkadaren amaieran eta lehen aipatu dugun Jimeno Juríoren diseinu harekin lotu behar da. Nafarroako Gobernuak behar hori ikusirik, ikertzaile hari eman zion lanaren zuzendaritza eta 1992tik 1999ra bitartean *Nafarroako toponimia eta mapagintza* izeneko bilduma joan zen plazaratzen¹⁰. Lan horretan, Nafarroako Foru Erkidegoko lur eremu guztia joan zen arakatzen, eskualdez eskualdeko ikerketen bidez eta lan-talde nahiz laguntzaile sare handi baten parte hartzearekin. Eskualde bakoitzeko liburuki bat argitaratu zen, leku-fitxa bilduma moduan eta eskala zehatzeko mapez lagundurik, bertako toponimia nagusi eta txiki guztia jasoz. Bilduma 59 liburukiz osatua dago eta guztira 99000 leku-fitxa baino gehiago kontsulta daitezke bertan, bakoitzean dokumentaturiko erak, ahoz bildutako lekukotzak eta milaka ohar etnografiko, historiko nahiz linguistiko agertzen direlarik. Izen horiek izaera ofiziala ere jaso zuten Nafarroan.

Jimeno Jurío aipaturiko egitasmoa ideatzen ari zen garai berean, jadanik 1986. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak enkargaturik, Deustuko Unibertsitateko Ikerkuntza institutuak (Deiker) Bizkaiko toponimiaren lehen inbentarioa egin zuen, Nerea Mujika irakasleak zuzendu eta hizkuntza alorra Alfontso Irigoien euskaltzainak gainbegiraturik. Iniziatiba honek segida izan zuen Araban eta Gipuzkoan 1991 eta 1993 bitartean. Hasierako corpus hau oinarri, berriz ere Eusko Jaurlaritzak eman zion Deiker institutuari toponimia hori guztia arautu eta 1:5000 eskalako mapetan jartzeko mandatua. Bizkaia egin zen lehenik (2001-2003), gero Araba (2005-2006) eta azkenik Gipuzkoa (2007-2008). Ideia bat egiteko, lan horretan Euskal Autonomia Erkidegoan 78200 toponimo baino gehiagoren arauzko grafiak eman ziren. Datu dokumentalak eta ahozkoak ugariagoak ziren arren, eskala hartako kartografian errotulatu beharreko lekuen hautespen bat egin zen. Lan hauen emaitzak Jaurlaritzako Web orrian kontsulta daitezke¹¹ eta Aldundien esku ere jarri dira beren kartografia lanetan erabiliak izateko, eskaintza horri oso erantzun desberdinak eman bazaizkio ere¹².

Iparraldeko legezko egoera zeharo desberdina izanik ere, gauzak ez daude pintatu ohi dizkiguten bezain ilun. Frantziako Errepublikan Institute Géographique National izaten da mapak egitearen ardura duena. Mapa hauek oso ongi banatzen dira –edozein liburu-denda nahiz kioskotan aurki daitezke– eta benetako tresna normalizatzaileak izaten dira. Baina beste alde batetik, gauza jakina denez, Frantziako hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Gainerako hizkuntzei duela gutxi ukatu egin zaie bestelako estatuserako bidea. Hala ere,

¹⁰ JIMENO JURÍO, José María (zuz.): *Nafarroako toponimia eta mapagintza / Toponimia y cartografía de Navarra*, LIX liburuki, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992-1999.

¹¹ *EAEko toponimia*, http://www.euskadi.net/euskara_toponimia

¹² Neurri handi batean lan honen emaitzak jasotzen dituen lehen argitalpena hau dugu: *Bizkaiko gidaliburua / Guía de Bizkaia*, 2004, e. 1:20000, Bizkaiko Foru Aldundia, Hirigintza eta Udal Harremanen Saila, Bilbo, 2004

urrats xume batzuk eman dira errepublika horretan ere, euskara eta gainerako hizkuntza gutxituak «babestu beharreko ondare»tzat hartuak izan baitira. Iparraldean Euskararen Erakunde Publikoa izenekoak jarri da abian eta, besteak beste, euskal toponimoak euskaraz ere errotula daitezzen zaintzeko egitekoa du. IGNk berak ere, Euskaltzaindiari eman zion bere mapetako toponimia euskarazko grafia propiora pasatzeko mandatua eta egitasmoa aurki amaituko da, Iparraldeko euskaltzainek eta Onomastika batzordearen parte hartzearekin. Guztira 12000 leku-fitxa baino gehiago biltzen ditu datu base honek, corpus dokumental xume baten eta egindako ahozko bilketaren bermearekin.

TOPONIMIA ARAUTZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

Euskara batua edo estandarrerako oinarriak jarri zirenean, ondare amankomuna lehenetsi edo, baliabideen ugaritasunaren aurrean, euskalki-aldaeren arteko hautua egiteko eredu onartu zen nolabait. Hala ere, badirudi bide estandarizatzaille hauek hizkuntza arrunterako direla baliagarriak eta ez onomastikaren alorrerako. Hala, *Aretxabaleta*, *Sorholüze*, *Uribarri* eta *Aizkorri* idazten dugu gaur egun, eta ez *Haritzabaleta*, *Soroluze*, *Hiriberri* edo *Haitzgorri*. Adibideetan ikus daitekeenez, leku-izenetan –eta orobat deituretan–, aldaera dialektalak onartzen dira erabilera jasorako ere.

Euskara batuaren hasierako garaietan, ez ziren gutxi izan euskaltzaleen artean gertaturiko eztabaidak, borrokak eta ezinikusiak: *H* letra dela eta, euskalkien gainbehera zela eta, hizkuntza artifiziala ote zen estandar hura... bakoitzak bere txokoan (euskalkian, herrian, auzoan, etxean...) erabiltzen zena defenditu nahian ari zen. Hizkuntza arruntean nola edo hala debate hura gaindituta dagoela ematen duen arren, badirudi eredu populista –*jatorrista*– haren defendatzaileak gaur egun plaza berria aurkitu dutela dema zaharkitu honetarako: toponimia. Euskara estandarren eredu jasoaren arrakasta inor gutxi eztabaidatzen duen garaiotan, joera zahar haiek alibiatzeko irteera toponimian aurkitu dute. Hitz arruntak ez, baina leku-izenak, bakoitzak esaten dituen erara idatzi behar omen dira. Eta hori gainera, aipatu sistema estandarrean integratzeko. Horregatik, oraindik badago *Ibarla*, *Izal*, *Olazti* edo *Seani* bezalako herri-aldaeren erabilera defenditzen duenik (*Ibarrola*, *Idiazabal*, *Olatzagutia* eta *Zeanuri*).

Kontrako muturrean, paperetan idatzirik ageri dena erabili behar dela dioenik ere ez zaigu falta. Euskaraz *Bilbao*, *Huarte*, *Sopelana* edo *Rentería* aldaeren aldekoek argudiatzen dutenez, izen horiek dokumentazioan beti ageri omen dira horrela idatzirik. Lehen esan dugun bezala, paperetan era horiek aurkitzea eta ez besterik, ez da harritzekoa, euskara ez baita inoiz ere izan administrazio hizkuntza eta, eremu tematiko mugatu batzuk kenduta, ia itxita izan duelako idatzizko erregistroko bidea. Halako argudioen atzean, historizismo elitistaren moduko jarrera sakonagoak ezkutatu ohi dira. Hautzat *Bilbo*, *Uharte*, *Sopela* edo *Errenteria* dioena *aldeano* bat da eta *aldeanadak*

ez dira idatzi behar. Euskara iletratuen hizkuntza zela irakur daiteke iturri historiko zaharretan («lengua vulgar vascongada»), baina gaur egun jarrera horietan tematzeak ez dirudi zentzu handirik duenik: euskarak ere badu –edo izan behar du– bere erregistro kulta.

Eta nola ezartzen dira toponimoen arauzko era jasoak idazteko irizpideak? Irizpide nagusia emanda dago dagoeneko. Euskalkiak errespetatu egin behar dira onomastikaren alorrean. Euskalki gehienak erabili izan dira –zein gehiago zein gutxiago– literatur lanetan eta, beraz, badute beren eredu idatzia, formalki gehienetan urrun samar geratzen bazaigu ere. Grafia kontu batzuk gora behera (*tx-ch-tch*, *x-sh-ch*, *ñ-in*, *ll-il*, *y-j*, *h-Ø*...), era dialektal arauzkoak nola edo hala ezarrita daude *de facto*, hots, badakigu idazkera zaharra gaurko usadioetara moldatzen. Euskalki batzuek, gainera, badute barneko batasun hori babesten duen kultur-talde edo erakunderik. Baina kontuz. Euskalkitzat ez da hartu behar edozein herritan edo auzotan «esaten den» guztia. Bistan da, aldagarritasunaren alderdi askoren atzean ez dagoela euskalkien babeserako borondate legitimoa, bereizi nahi antzu eta kaltegarria baizik. Argi dago toponimia lurrari bereziki lotutako iker-eremua dela. Beharbada horregatik, lekuan lekuko biztanleek bereziki propioa den ondareztat daukate beren inguruko leku-izenak. Maizenik, beren gurasoengandik berengana emandako jauzi itzelaz ere ez dira ohartzen eta jatoritasunaren mukurua «bertakoena» gaurko esanetan dagoela sinesten dute irmoki. Hori ez da tradizioa jagotea.

Tradiziozko euskalki literarioek erakutsitako ondarearen babesa ez ezik, Onomastika batzordearen irizpideetan euskara estandarrean jarraitu ohi direnekin bat etor daitezkeen irizpide «orokorrak» defenditzen dira. Adibidez, ez da *Madarixa* idazten euskara batuaz *mendixa* edo *haundixa* idazten ez diren arrazoi berberetatik. Haren ordean, idatzizko *Madariaga* hobesten da eta bakoitzak ahoska dezala bere eskualdean egiten den moduan. Kontrara, *Urioste* eta *Irigibel* toponimoak euskalki desberdinetako aldaera jator eta babestekotzat hartuko ditugu, esanahi berbera badute ere. Euskara ultraestandarrean *Hiriitze* eman beharko ote genuke?

Toponimia biltzean dialektologia arruntean hain erraz aurkitzen ez diren hainbat eta hainbat fenomeno autonomo eta bereiz aurkitzen dira, eskualdez eskualdeko ezaugarri interesgarri askorekin batera. Guk ez dugu defendituko halakoak ez direnik arakatu eta ikertu behar. Baina hizkuntza estandarretako toponimia arauzko bat behar dugu. Eta behar dugu ez daukagulako. Eta ez daukagulako gertatzen zaigu jendeak ez dakiela zer-nolako seinaleztapenak jarri, ez dakiela nola deklinatu behar diren urruneko nahiz etxe ondoko leku-izenak, ez duela asmatzen toponimoa eta generikoa josteko tenorean...

Horiek guztiak araupetzeko eta euskara estandarren idatzizko erregistroan integratzeko ari da lanean Onomastika batzordea. Askok uste dutenaren kontra, toponimia arautzeko prozeduran ez dira lehenik irizpideak jartzen eta gero toponimoen grafiak erabakitzen. Metodologia egokiaz egindako toponi-

mia ikerketetan aurkitzen eta identifikatzen diren fenomeno guztiak, hala dokumentazio idatzian aurkitutakoak nola ahozko bilketan jasotakoak, tipifikatu behar dira eta bakoitzari komeni zaion soluzio grafiko egokia bilatu behar zaio. Eta segurtasunez egiteko, fenomeno bakoitzaren neurria, tradizioa eta hadadura geografikoa ezagutu behar dugu lehenik.

IRIZPIDEAK NONDIK HELDU DIREN

Toponimian aurkitzen ditugun hizkuntza-gertakari asko Euskal Herri osoan zehar kausi daitezke, orainean nahiz iraganean eta gehienetan soluzio grafikoa bat bakarra izatea da egokiena. Adibidez, bokalarteko *-n-* hotsaren erorketa, beste zenbait hizkuntzatan ez ezik, euskararen barietate guztietan ere gertatzen den fenomeno da, eta tradizio luzeko fenomenoa. Hortaz, aski dugu *-n-*rik gabeko aldaeraren berri xume bat aurkitzea, euskal era arauzkotzat *Berrrikao*, *Gauza*, *Gindao* edo *Sopela* aldaerak hobesteko (gaztelaniaz *Berricano*, *Ganuza*, *Guindano* eta *Sopelana*).

Beste zenbaitetan, ordea, euskalki zehatz bati dagozkio ezaugarriak eta orduan, aintzat hartzekotan, bakarrik eremu geografiko horretan onartzen dira, irizpide bezala, grafia horiek. Adibidez, *Olabarri* izena da arauzkoa Bizkaiko Fruizen, baina *Olaberria* Gipuzkoako Goierrin nahiz Nafarroako Eugin.

Maiz gertatzen da fenomeno bakar batek tradizio desberdina duela eremu geografiko bitan. Kasu hauek askotan eztabaidatuak izaten dira, baina badirudi zuhurrena tradizioa errespetatu eta azken erdiko analogieiei merezi ez duten mailarik ez ematea dela. Halaxe, mendebaldeko eredu idatzietan oso ondo dokumentatua eta gure egunetara arte heldu den *-ena* etxe-izenen atzizkia (jatorriz edutezko genitibo hutsa baino ez dena) gordetzearen aldeko jarrera erakutsi du Onomastika batzordeak, nahiz eta gaur egun (XIX. mendetik datorren bolada) Bizkaiko eta Debarroko leku askotan *-ene* esaten den. Hauen defendatzaileek Gipuzkoako ekialdetik harantz aurkitzen den eta tradizio luzeagoa duen *-enea* ezaguna erabiliko dute ahotan argudio bezala. Baina Bizkaian ez bezala, Nafarroan-eta XVII. mendean jada dokumenta daitezkeela isilpean gordeko dute. Gure iritzian, *Arotzena* arautu behar da izen horretako etxea mendebaldean eta *Arotzenea* ekialdean.

Fenomeno bakoitzaren aurrean nolako soluzioak eman daitezkeen proposatu, eztabaidatu eta ondoko irizpideen formulazioa ez dira egin hutsaren gainean. Horretarako bidea gorago aipatu diren corpus toponimikoak eta, bereziki, haien datutegi dokumental eta ahozkoak izan dira oinarria. Hau da, arauzko soluzio grafikoak beti proposatu dira datu multzo aberatsen bermearekin eta Euskal Herri osoaren perspektiba zabalara begi aurrean edukita. Lehen aipatu diren lanek beren ekarpena izan zuten irizpideen eremuan eta goian aipaturiko ordenean joan ziren ekoizten eta argitaratzen. Nafarroako toponimia bilduma plazaratu ondoren, Onomastika batzordeak ordura arteko irizpideen

bilduma atera zuen¹³, lan hartan zehar aurkitutako problematikak eta bilatutako soluzioak aditzera emanik.

Deustuko Unibertsitatean Bizkaiko toponimiaren ikerketari ekin zitzaienez, irizpide haiek berak izan ziren abiapuntua baina, euskalkiaren berezitasunagatik problematika berri eta desberdin asko aurkitu ziren eta irizpide zehatz ugari proposatu, eztabaidatu eta ezarri behar izan ziren. Irizpide hauek ere Onomastika batzordearen oniritzia jaso zuten eta Eusko Jaurlaritzaren Web orrian eskura daitezke¹⁴. Arabako arautze lanak ere bere ezaugarri bereziak izan zituen, bereziki euskara desagertu den lurraldeetako euskal toponimia arautu behar izan zelako, sarritan guregana desitxuratu samarra heldu dena. Gipuzkoaren kasua ez zen hain aberasgarria izan irizpidegintzaren aldetik, jakinaenez, gipuzkera eredu estandarretatik hurbilago dagoelako.

Gaur egun Iparraldeko toponimia lanaren lehen fasea amaitzen ari delarik, garrantzi berezia ematen ari zaio lurralde haietako leku-izenetan erabili behar diren arautze irizpideei. Maiz Iparralde errealitate bakun eta simple baten moduan irudikatzen badugu ere, euskalkien aldetik konplexu samarra da eta tradizio nahiz usadio dialektal horiek babesteko soluzio plural eta egokiak bilatu dira eta halaxe aplikatu. Iparraldeko lan hori burututakoan, komeniko litzateke irizpide horien guztien bilduma sistematizatu eta ondo ordenatu ondoren, modu didaktiko eta erabilgarrian nola edo hala plazaratzea, baina hori etorkizunerako beste kontu bat da...

Aipatu diren lan hauek eta beraien aurrekariak, nolabait esatearren, ikuspegi «makro» batetik egin dira eta, horrenbestez, hedadura handiko helburu horrekin bat datozen metodologia «makro» batzuk erabili dira. Lan hauek ez dira, hala ere, azken muga edo helburua. Haien ondoren sakontasun handiagoko lan «mikro»en txanda dugu. Lan metodologia zehatzagoak eta arakatzeko lan exhaustiboagoak ekar ditzakete lan hauek. Bigarren urrats honetan koka ditzakegu nolabaiteko boladan dauden herri monografiak. Sakontasun, zehaztasun eta exhaustibitate handiagokoak izanik ere, badute arrisku berezi bat ikertzaileek begi-bistan eduki behar luketena: toponimiaren kontua gai identitarioekin lardaskaturik egon ohi da gure irudimenean eta, sarri askotan, hizkuntza aldaeren aberastasunak non amaitu eta txokokerien nahaskeria antzua non hasten den ez dago nahi eta behar gure bezain garbi. Bakoitzak bere herriko produktuak promozionatu nahi izaten ditu eta ikertzaile asko aurkitu uste izaten dituzte izugarritzko altxorak etxe ondoko toponimian eta auzokide diren informatzaile jatorrengan. Orain arte beste inork erpreparatu ez dituen fenomeno fonologikoak identifikatzen dituzte, inoiz euskararen jatorria eta protoeuskeraren sekretuetan argia egingo dutenak...

¹³ GORROTXATEGI NIETO, Mikel & SALABERRI ZARATIEGI, Patxi: «Toponimia txikia arautzeko irizpideak», *Euskera*, XLV (2000-1), 273-314. Separatan ere argitaratua.

¹⁴ Toponimia arautzeko lan-taldea: *Euskaltzaindiaren irizpideak. Erabilera eta oharra*, http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6511/eu_2418/adjuntos/IrizpideakHPSDeikerZuzendua20051.pdf

TOPONIMIA IKERKETA BATEN URRATS NAGUSIAK

Gure eremu geografikoan lanean ari diren ikertzaileen lan ildoetan bi joera nagusi antzematen ditugu. Alde batetik, *Euskal Etnografia Eskola* zahar-raren ondorengo jo genezakeena eta, bestetik, eskola historiografiko tradiziozalea deit genezakeena. Lan ildo huts eta garbi hauek idealak dira, noski, errealitatean beren ezaugarriak nahasten eta konbinatzen dituztenak. Hala ere, edozein toponimia lan harturik, erraza da egileak zein muturretatik hurbil dauden antzematea.

Joera etnografiazaleak beti lehenetsiko ditu ahozko informatzaileengandik landa-lanean lorturiko datuak eta mesfidantzaz –bigarren mailako osagarri bezala– aztertuko du dokumentazio idatzia. Halako ikertzailea populismorantz makurtuko da segur aski arauzko eren grafia erabakitzerakoan. Ondorioz, ezaugarri dialektalak ez ezik, txoko bakoitzeko aldaerak eta fonetismo «jator» guztiak ere babestu nahi izango ditu idazkera estandarra medio. Eskola folklorista honek, XIX. mendeko erromantizismoan du azken sustraia eta, beste toki batzuetan modaz pasatu bada ere, gurean oraindik *ospe ona* izaten segitzen du. Egia da 1920. urteen hamarkadan Arantzadik eta Barandiaranek bultzatutako metodologia etnografikoak zaharkiturik daudela gauza askotan, bereziki beren oinarri teoriko eta ideologikoetan. Hala ere, onartu behar dugu oraindik gaur egun balio handia duten zenbait prozedura diseinatu zituztela duela ia ehun urte. Metodo horiek ezagutu, baloratu, iragazi eta erabil daitezke gure alorreko landa-lana egiterakoan. Euskararen eremuan horren aitzindariak izan ziren sasoi bertuan Resurrección María Azkue, Arturo Campión eta, toponimiari gagozkiola, gorago aipatu dugun Luis Eleizalde ere.

Kontrako muturrean historizismo elitista izango genuke. Lan ildo hauen zaleek «toponimia historikoa» dute gustuko. Aztertzen duten lur eremuko biztanleengandik informazioa biltzea ez dute beharrezkoa ikusten, «egiazko» datuak dokumentazio historikoan agertzen direnak direla uste dutelako. Dokumentalista jakintsuaren informazioak du lehentasuna, eta herritar xumeek darabiltena haren desitxuraketa baino ez da. Honen atzean, eskola historiografiko enpiristen metodoak eta jakintzaren banaketa elitistaren ideologia gorde ohi dira. Gaur egun –bereziki «adituen» elitismo hori– oraindik indartsu daude joera hauek gure arteko zenbait kultur erakundetan, nahiz beste herrialde batzuetan aspaldi zaharkiturik gelditu diren. Eskola honetakoez ez dute euskararik aurkituko arakatutako dokumentazioan eta, ondorioz, euskara apenas existitu ere ez dela egin aterako dute konklusio zientifiko bezala, are gutxiago euskal toponimoen euskal grafiarik... Hala ere, onartu beharra dago haien metodo enpirikoen hainbat prozedura, oso baliagarriak direla gure ikerketen datu dokumentalen bilketan.

Bi muturreko joera hauek aipatuta, gogora ekar dezagun zein ote den toponimia ikerketen helburua. Ikerketan zehar interes nahiz balio handiko pila bat informazio batu, aztertu eta aurkeztu ahal den arren, euskarak *faltan* due-

na eskaintzea da, gure ustez, bilatu behar dena. Ahozko errek, definizioz, bizi-rik dagoen toponimiaren berri ematen digute. Baina ahozko erregistroa zein ote den ez da gure gabezia nagusia. Batez ere idatzizkoa falta zaigu. Gure problema da idatzizko toponimiarik ez dugula edo, bestela esanda, euskal toponimia beste hizkuntza batzuen arau grafikoekin idatzi dela orain arte eta, beraz, ez dakigula leku-izenak euskaraz nola demontre idatzi behar ditugun. Toponimia maila guztietan erabilgarri bihurtuko badugu, arauzko era grafikoa zein den erabakitzea da toponimia ikerketa baten helburu nagusietakoa. Helburu horren premia argi ikusten badugu, onartu beharko dugu idatzizko datuek garrantzi edo pisu handiagoa izango dutela erabaki beharrekoak erabakitzeke. Ordea, idatzizko leku-izen horiek gehienak euskara ez diren beste hizkuntza batzuetan jasota eta egokituta agertuko zaizkigunez, ahozko datuek informazio hutsune hori betetzen lagunduko digute.

Baina helburuak helburu, ohiko ikerketa batek honako urrats nagusi hauek izaten ditu¹⁵, neurri batean edo bestean ikerketa prozesuaren oinarriak izango direnak: 1 Datu dokumentalen jasoera, 2 ahozko informazioaren bilketa, 3 toponimoen arautze grafikoa eta 4 izenen normalizazioa.

1. Fondo dokumental, kartografiko eta bibliografikoen inbentarioa eta ondoko erauzketa.

Denboraren arabera ordenaturik, dokumentazioan, mapetan eta abarretan idatzirik aurkitzen ditugun leku-izenek, beren historia idatziaren berri ematen digute. Ez dira inpresioak edo memoria ariketa espekulatiboak, datuak baizik eta, horrenbestez, bilketa honetatik aparte utzi behar dira iritzi, uste, interpretazio, herri etimologia eta era honetako gauzak. Horrek ez du esan nahi halakorik ez dela jaso behar, daukaten balioa eman eta dagokien sailean gorde behar direla baizik. Datu hotzak izanik ere, kontuan izan behar dugu iturri dokumental guztiek ez dutela fidagarritasun maila bera eta jasotako lekukotzak garai bakoitzeko baldintzetara egokituta aurkituko ditugula ezinbestez (eskribuen irizpideak, administrazio hizkuntzaren ortografia, unean uneko moda eta prestigioa...).

2. Ahozko informatzaileen bilaketa, identifikazioa eta informazioaren bilketa.

Laburbildurik, helburua gaurko erabilera mintzatuaren berri jasotzea dela esan daiteke. Herriko leku-izen horien erabiltzaileei galdetzean, izaera desberdineko arrazoi askorengatik, gertatuko zaigu aurreko fasean lortu ditugun era dokumentalak eta ahoz jasotzen ditugunak, ez direla izango nahi genituzkeen bezain *antzekoak*. Hala ere, ahozko

¹⁵ Ikerketaren faseen deskribapen hau, ohar metodologiko gehiagor horniturik, honako honetan kontsulta dezake interesa duenak: GALÉ GARCÍA, Patxi: «Toponimia ikerketak», *FLV*, XXXIX (2007), 104. zkia., 161-172.

informazio hau izango da antzina erabilitako izen dokumentatuak eta gaurko eremu geografiko izendatuak erlazioan jartzeko biderik seguruen eta, gehienetan, bakarra. Informazio horien eramale fin eta egokiak bilatu behar ditugu, beraz. Informatzaileak bilatzeko irizpideak kualitatiboak izaten dira, errepresentatiboak baino gehiago, hau da, informatzaile egokia ez da herriko batez besteko *tipo* kulturala, kultura zaharrean edo jatorrean jantzia dagoena baizik. Arrazoi beragatik, esan behar dugu jasotako datuek ez dutela balio errerepresentatiborik zentzu soziologikoan, hau da, ez dira derrigor izen *erabili*enak. Nola edo hala, aurreiritzen dugu *jatorrena* bilatu behar dugula, ez erabiliena. Iritzi hori zalantzan jartzen ez dugunean, ia inkontzienteki ari gara hautu metodologiko zehatza egiten –ideologiaz zamaturik dagoena, segur aski–. Hainbat galderari erantzuna ematea komeniko da, onestasunez lan egingo badugu: Nortzuk bizi dira herri horretan?, nortzuek erabiltzen dituzte izen horiek?, nola egokitzen dituzte esaldi arruntetan?, zein hizkuntzatan txertatzen eta ahoskatzen dituzte?, nortzuek daukate *gure lekuak* izendatzeko edo bataiatzeko eskubidea?...

3. Toponimoen arautze fasea eta normalizaziorako proposamenak.

Lanaren sustatzaileek ikerketa lanaren prozedura zuzena eta emaitzaren kalitatea zainduko duen kultur erakunde bat aukeratu ohi dute. Kontrol akademiko honexek emango dio lanari nolabaiteko bermea. Erakunde akademikoek, ustez –behintzat hala egin ohi du Euskaltzaindiak–, irizpide batzuk dituzte toponimoen idazkera arauzkoa zein den erabakitzeko. Irizpide horiek, bereziak izanik ere, euskararen normalizazio korapilatsuan emandako urratsekin bat etorri ohi dira, euskal toponimiaren normalizazioa euskararen beraren normalizazioaren atal bat baita eta halaxe ulertzen ikasi behar baitugu. Gaztelania edo frantsesa bezalako hizkuntza normalizatu batean, oro har, hiztunek sistema ortografiko egokia ezagutu eta erabiltzen dute apenas desbideratzerik gabe. Hizkuntza horien akademiek emandako irizpideak ez dira zalantzan jartzen eta estatu boteretsu horien administrazioek ere, irizpide horiek onartu ez ezik, haien normalizazioa bultzatzen dute ere oso modu eraginkorrean. Euskararen egoera, tamalez, guztiz da bestelakoa. Horregatik oso ohikoa da erakunde, ikertzaile, erabiltzaile edo zale bakoitzak bere gustuko idazkerak proposatzea, hobestea edo jo-ta-su defenditzea. Sakabanatze hori gure hizkuntzaren egoera ez-normalaren ondorio da alde batetik, baina egoera horretan jarraitzeko lagungarri aktibo ere bihurtzen da, azken hau beti bilatutako helburu kontziente eta agerikoa ez bada ere.

4. Arauzko toponimia horren gizarteratzea eta normalizazioa.

Laugarren fase hau ikertzaileen eskuetatik kanpo gelditu ohi da. Jasotako informazio guztia ordenatu, mapetan kokatu, oharrak erredaktatu,

arauzko proposamenak egin –guk *proposamen* deitu ohi ditugu, azken erabakia erabiltzaileen esku baitago– eta material hori guztia entregatutakoan, lana *amaitutzat* eman ohi du ikertzaileak. Ondoko fasea da, ordea, garrantzitsua, prozesu osoaren pizgarri eta azken helburua delako. Ikerketaren emaitzak eta egindako proposamen horiek gizarteratu behar dira eta gizarteak bere egin arte, ez da gure helburua erdietsiko. Badago afera honen inguruan, intereseko ideia bat ikertzaile eta aditu guztiek etengabe buruan atxiki behar luketena. Proposatzen diren toponimo arautu hauek herritarrengandik jasotako informazioaren emaitza elaboratua dira eta, horregatik, *deboluzio* bat bezala ulertzen hasi behar dira. Informatzaile/erabiltzaile hauek izango dute azken hitza, zeren arauzko proposamenak *normalizatu* egin direla esateko, erabiltzaileen eguneroko praxian sustraiak luzatu behar baitituzte. Eta horrek denbora eskatzen du.

EUSKALTZAINDIA ETA ONOMASTIKA

Andres Iñigo

1. ATARIKOA

Euskara hizkuntza bat eta bakarra da, eta hizkuntza horren Akademia Euskaltzaindia, nortasun juridiko osoa duen erakundea. Hortaz, berari dagokio gizartearen harreman guztietarako hizkuntza egokitzearen ardura eta gidaritza.

Baina euskara egokitzea ez da bakarrik gramatika egiturak, hiztegia edo ortografia landu, batu eta arautzea. Badago hizkuntza guztietan, eta euskararen kasuan zer erranik ez, bertze alor aberats bat, izenen alorra, alegia. Gainera, kontuan izan behar da Euskal Herriko eremu zabal batean euskara galduaren aztarna bakarra Onomastika dela eta, hortaz, alderdi horiek euskaldunak izan direla adierazten digun lekuko bakarra onomastika dela, toponimoak eta deiturak, batik bat.

Euskal literaturaren lehen liburuak XVI. mendea arte agertzen ez badira ere, izenak anitzez zaharragoak ditugu; izenak baitira gure hizkuntzaren lekukorik zaharrenak, pertsona izenak (antroponimoak), jainko izenak (teonimoak) eta leku izenak (toponimoak)¹, I. eta II. mendeez geroztik Akitanian batez ere agertzen direnak². Geroago, IX-X. mendeetatik aitzina, agirietan agertzen zaizkigu, Nafarroakoetan bereziki. Izenak herriaren izanaz mintzo zaizkigu; hortik, bada, euskal onomastikaren garrantzia.

Garrantzi horretaz, gure herriko idazle eta ikertzaileez gainera, kanpokoak ere jabetu izan dira eta hor ditugu XVII. mendean hasi eta Baltasar Etxabe eta Arnaud Oihenart(e) eta geroago Wilhelm von Humbolt, Pablo Pedro Astarloo, Arturo Campión, Achille Luchaire, Julien Vinson, Sabino Arana, Luis Eleizalde, Henri Gavel, Ramón Menéndez Pidal, René Lafon, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Joan Corominas, Alfonso Irigoien... –izen batzuk bertzerik ez aipatzeagatik–, beren idatzi eta ikerketa lanetan onomastikaz arduratu direnak.

¹Mitxelena K. (1964: 15).

²Gorrochategui Churruca, J. (1984).

Aipamen berezia merezi du euskararen alorrean izan dugun maisurik handienak, Koldo Mitxelena. Haren lanetan argi ikusten ahal da onomastikarekin zuen interesa, *Apellidos Vascos* liburuan erraterako eta, kontuan hartzekoa da, *Fonética Histórica Vasca*-n toki eta pertsona izenei ematen dien lekua eta garrantzia. Seriotasun eta bide zientifikoa markatu zion Koldo Mitxelena onomastikari, bai eta Alfontso Irigoienek eta orain dela sei hilabete utzi gintuen Henrike Knörrek ere. Berme zientifiko hori du, hain zuzen ere, goiburutzat Onomastika batzordeak bere lanetan.

2. EUSKAL ONOMASTIKA ARAUTU BEHAR DA?

Hizkuntza landu guztiak lehentxeago edo geroxeago egin izan duten bezalaxe, Euskaltzaindiak ere, 1968an Arantzazuko Biltzarrean, hizkuntza batua-ren aldeko apustua egin zuen; argi ikusten zelako hizkuntza estandarizatuaren beharra, batez ere irakaskuntzarako eta idatziz komunikatzeko³.

Kontua da hizkuntza baten onomastika ez dela bi alor horietara soilik mugatzen. Onomastikaren esparrua ezin da inola ere alor bakar batzuetara murriztu. Arrazoiak begi bistakoak badira ere, labur azaltzearen bi hauek aipatuko ditut:

- a) Alde batetik, pertsona guztiak izenei lotuak gaude. Denok ditugu gure nortasuna adierazten duten izen-deiturak, denok bizi gara izena duen herri edo hiri batean, izena duen etxe edo baserri batean edo, gutxienez, izena duen karrika bateko pisu batean. Gure eguneroko bizitzan, segur aski, gehien erabiltzen dugun erreferentzia izenena da. Zenbat pertsona eta leku izen ez ote dugu aipatzen egunaren buruan? Ez dakit beharrezkoa ote den arrazoi gehiago bilatzen aritzea gure izenak bildu, sailkatu eta ikertu ondoren forma arautua eman behar zaiela ikusarazteko.
- b) Bertze aldetik, euskal izenen erabilera ez da bakarrik euskara dakitenetara edo hizkuntza honetan mintzatzen direnetara mugatzen. Erran beharrik ez dago:
 - Euskara ez dakitenek ere egunero entzuten, irakurtzen, idazten edota ahoskatzen dituzte izen horiek.
 - Euskal Herriko mugetatik kanpo, gero eta hedadura zabalagoa hartzen ari dira gure ponte izenak eta, egungo hedabideak eta informatika direla medio, gure deiturak eta toponimoak munduko xoko guztietan ageri dira.

Hortaz, gure onomastikaren errepertorioa, *izana duen herriaren izendegia den heinean*, neurri batean behintzat, gure herriaren berezitasun eta nortasuna-

³Villasante, L. (1978: 443-444).

ren adierazgarri da⁴, mundu zabalean gure hizkuntzaren prestigioaren erakusleihoa. Beraz, ukaezina da duen balio historikoa eta estetikoa⁵.

Gauzak horrela, argi dago euskal onomastikaren *Corpuseko* izenen aldea arautua ezartzearen garrantzia eta beharra; izen horien erabilera zuzena izan dadin, gure hizkuntzaren prestigiorako eta gure herriaren nortasuna behar bezala agerrarazteko⁶.

Onomastikaren erabilera okerra edo finkatu gabea ez da gure herriaren nortasunaren alde mintzo, ez eta gure hizkuntzaren prestigioaren alde ere. Gramatika, hiztegi eta ortografiaren alorretan bezalaxe, onomastikarenean ere, erabilera zuzena hizkuntzaren prestigioaren seinale da. Gainera, kontuan izan behar da onomastika dokumentu eta xafla ofizialetan agertzen denez, gure euskal izenak denek irakurtzen dituztela, bertako euskaldunek eta ez euskaldunek eta kanpotik etortzen direnek.

Horregatik diot onomastikaren erabilera, neurri handi batean behintzat, gure hizkuntzaren osasunaren eta prestigioaren adierazle dela, eta begi bistakoa da alde handia dagoela osasuntsu agertzetik gaixorik eta ahul agertzera.

Azpitarratu nahi dut, bada, hizkuntzaren zuzentasunak, eta zuzentasun horren barruan onomastikarenak, garrantzi handia duela, zenbaitek ematen diotena baino handiagoa, eta gertatzen ahal dena da –eta gure Herrian oraindik ere maiz aski gertatzen da– ezjakintasun, axolagabekeria edo utzikeriagatik zenbait jende garrantzi horretaz ez jabetzea.

3. EUSKALTZAINDIAREN ARDURA ETA LANA ONOMASTIKA ALORREAN

Euskaltzaindia 1918-19an sortu zen eta berehala jabetu zen bere eginbeharretako bat onomastika ikertzea eta lantzea zela; alde batetik, altxor kultural aberatsa delako eta, bertzetik, izenak zuzen erabiltzearen garrantzia –arautzearen premia– ikusi zuelako. Euskaltzaindiak bere sorreratik agertu zuen berariazko batzordea eratzeke beharra. Kontuan izatekoa da Oñatin 1918an egindako lehendabiziko Biltzarrean Julio Urkixok zioen

⁴Leku izenei dagokienez, honela dio GENUNG (Groupe d'experts des Nations Unies pour les noms géographiques) erakundeak: «les noms géographiques proclament notre identité nationale, notre patrimoine culturel». *Bulletin d'information toponymique*, 1. zenbakia.

⁵Moran i Ocerinjauregui, J. (1996: 7-8). Onomastikaren bi atalei buruz (antroponimia eta toponimiari, alegia) hau dio: «No solamente aporten una información científica, lingüística i humana considerable, i per aquest motiu s'han dedicat i es dediquen molts lingüistes a l'estudi etimològic i diacrònic d'aquests noms, sino que també posseeixen un valor estètic considerable».

⁶GENUNG-ek hau dio: «un nom écrit de façon correcte est une source très importante pour toute recherche linguistique, historique et culturelle». *Bulletin d'information toponymique*, 2. zenbakia.

hau: «según indiqué en el Congreso de 1911, un estudio que tiene gran importancia para la vascológia es el de nuestra toponimia, pues como los nombres de lugares en Euskalerrria se refieren, con frecuencia, a la configuración de los montes, de los valles y de las casas; a su situación, a los árboles y plantas, su estudio proporciona datos de gran interés»⁷. Gainera, euskara Administrazioaren hizkuntza ofiziala inoiz izan ez zenez, eskribau eta funtzionarioek euskal izenak erdal grafian idazten zituzten eta, anitzetan euskara ezagutu ez eta nolanañi idazten zituzten, edo erdarara itzuli. Horretaz gainera, kontuan izan behar da, ordurako, zenbait pertsona eta erakundetan nolabaiteko lurrikara sortu zuela Arana-Eleizalderen *Deun-ixendegi euzkotarrak*. Egile hauen ekarpena aipagarria da eta ukaezina urratu zuten bide berriak gizartean izan zuen onarpena; baina, aldi berean, erabat eztabaidagarria, aurreko tradizioarekin *tabula rasa* eginez, izenak euskaraz emateko aplikatu zuten zenbait irizpiderengatik. Hori guztia zela eta, Azkue lehendabiziko euskaltzainburuak hasiera hartan bertan, 1920an, sortu zuen «Toki eta giza izenak atala» («Sección de toponimia y patronimia»)⁸.

Ibarrangelu	15,63	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Idiazabal	29,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Igorre	17,42	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ikaztegieta	2,12	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Irun	42,58	10.419,29 €	13.892,38 €	2.222,78	16.115,16	5.695,88 €
Iruña Oka/Iruña de Oca	53,12	10.770,51 €	14.360,68 €	2.297,71	16.658,39	5.887,88 €
Irura	2,80	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Iruraiz-Gauna	46,87	10.562,36 €	14.083,15 €	2.253,30	16.336,45	5.774,09 €
Ispaster	22,68	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Itsasondo	8,88	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Iurretza	14,68	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Izurtza	4,15	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Karrantza Harana/Valle de Carranza	137,44	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Kortezubi	12,08	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Kripan	12,59	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km ²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	23,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Murueta	5,48	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Muskiz	20,62	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mutiloa	8,68	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mutriku	27,54	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Muxika	50,15	10.671,80 €	14.229,07 €	2.276,65	16.505,72	5.833,92 €
Nabarniz	11,62	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Navaridas	8,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Oiartzun	59,50	10.983,30 €	14.644,40 €	2.343,10	16.987,51	6.004,20 €
Okondo	29,81	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Olaberria	7,02	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ondarroa	3,58	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Oñati	107,23	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Ordizia	5,60	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Orendain	6,39	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Orexa	5,77	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Orio	9,69	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ormaiztegi	6,76	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Orozko	102,56	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €

Izena*	km ²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Sukarrieta	2,31	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Tolosa	37,45	10.248,42 €	13.664,56 €	2.186,33	15.850,89	5.602,47 €
Trucios-Turtzioz	30,94	10.031,46 €	13.375,28 €	2.140,04	15.515,32	5.483,86 €
Ubide	2,86	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ugao-Miraballes	5,29	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Urduliz	7,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Urduña-Orduña	33,45	10.115,02 €	13.486,69 €	2.157,87	15.644,56	5.529,54 €
Urkabustaiz	60,23	11.007,75 €	14.677,00 €	2.348,32	17.025,31	6.017,57 €
Urniet	22,44	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Urretxu	7,56	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Usurbil	24,81	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Valdegovía	243,44	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Valle de Trápaga-Trapagaran	13,13	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Villabona	17,74	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Villabuena de Álava/Eskuernaga	8,47	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Vitoria-Gasteiz	276,36	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Yécora/Iekora	18,75	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zaldibai	11,59	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zaldibia	16,30	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km ²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Zalduondo	11,98	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zalla	30,67	10.022,36 €	13.363,14 €	2.138,10	15.501,25	5.478,89 €
Zambrana	39,70	10.323,38 €	13.764,51 €	2.202,32	15.966,83	5.643,45 €
Zamudio	18,51	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zaratamo	9,99	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zarautz	14,36	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zeanuri	66,91	11.230,21 €	14.973,62 €	2.395,78	17.369,40	6.139,18 €
Zeberio	47,27	10.575,70 €	14.100,93 €	2.256,15	16.357,08	5.781,38 €
Zegama	35,11	10.170,50 €	13.560,66 €	2.169,71	15.730,37	5.559,87 €
Zerain	10,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zestoa	43,97	10.465,75 €	13.954,33 €	2.232,69	16.187,03	5.721,28 €
Zierbena	9,01	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zigoitia	102,00	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Zizurkil	15,54	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zuia	122,57	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Zumaia	11,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zumarraga	16,63	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

* Izendapen ofizial izandakoak, gaur den eguneko ofizialtasunera egokitu gabe.

Nafarroako Foru Komunitatean, ez dago udaletan edo antzekoetan toponimia mapak egiteko laguntzarik, Gobernutik bertatik zentralizatutako zeregina delako. Bada euskararen inguruko ikerketak egiteko diru-laguntza bat (2008-05-23 eguneko Nafarroako Aldizkari Ofizialean), oso eskasa –bere osotasunean 15.000 euro– eta, gainera, geroko ebazpen batez (2008-09-15eko Aldizkarian) 7.000 euroko gehieneko gastura murriztua. Antzeko egoera, berriazko laguntzarik ezarena, dugu Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Norekin, zein enpresarekin egin gure herriko mapa? Ez dira gehiegi baina badira gure mapa bat egiteko beharra aseko diguten mapa enpresak. Laguntzen ebazpena argitaratzen den egunean, gainera, hasiko dira gureganatzen euren zerbitzuak eskaintzeko.

Bestela beti dago aholkua eskatzearen bidea.

Mapak bigarrenez, hirugarrenez... egin ahal izango dira, balizko okerrak zuzentzeko edo hobetzeko baina dirua banatzerakoan lehentasuna izango dute estreinako aldiz egiten dutenak.

Diru-laguntzaren onuradunak izateko, egingo den toponimia mapa topografikoa izan behar da –eskala, mailak adierazteko sestra kurbak, hipsometria...– eta ez edonolakoa. Bestetik paperezkoa izatea eskatzen da, hots, argitalpen lana egongo dela tartean. Azken hau, onuragarria da gure helburuei begira, etxe guztietara ale bat banatzea ahalbidetzen digulako.

Gogora dezagun, berriz, hori dela modurik onena toponimoak ezagutarazteko, finkatzeko eta iraunarazteko. Lehentasuneko zerbitzu honetaz gain, abantaila nagusia mapa bat izatea da, hortik aurrera edonon erabili ahal izateko: turismoa, hirigintza, irakaskuntzan, mendi-ibilbideak...

MAPAREN AURRETIKO LANAK

Mapa bat egin daiteke bai Jaurlaritzak duen herri bakoitzeko toponimiako datu-base soila erabiliz, bai aurrekoaz gain, bestelako ikerpen bat erabiliz.

Eta guztiarekin, oso gomendagarria da mapa editatu aurretiko toponimia erakusketa bat. Hori egin daiteke mapa izango denaren zirriborro batez, ortoargazki batez edo biak aldi berean. Erakusketara eraman behar da jendea, ahalik eta partehartzaileena izan dadin. Bertan herritarrek esango digute zein izen gehitu, zein kendu edo zein lekuz aldatu. Asko dira mapa egin aurretiko erakusketaren abantailak:

- Toponimia herriaren ondarea da, nahiz eta guk bildu eta antolatu. Herritarrek gertu-gertutik sentituko dute «euren» gauza bat egiten ari dela. Hurbilago izango dituzte maparen sentsazioak.

- Partehartzailea da. Herritarrek oso eskertzen dute kontsultatuak izatearena. Gerora, gainera, mapa eskuartean izatean, neurri batean, haien produktua dela sentituko dute.
- Mapa edo toponimia-lan perfektua ez da existitzen. Eta inongo herrian ez dago pertsona bat bere herriko izen guzti-guztiak dakizkiena. Horregatik, herritar askoren lan bateratuaren bitartez, perfekzioetik hurbilen izango gara.
- Ekintza kultural bat da, eta arrakastatsua eta harrera onekoa gerta daiteke gauzak ondo antolatuz gero.
- Azkenik, eta guri ikuspuntu praktikoa batetik oso interesatzen zaiguna, mapari legitimitate, sinesgarritasuna ematen dio. Mapa egin osteko balizko kritikak isilarazteko balioko digu erakusketak. Ez da gutxi.

NOLA KUDEATU MAPA EGIN AURRETIKO ERAKUSKETA BAT?

- Leku publiko eta ezagun bat aukeratu behar da
- Astebete edo bi izatea nahikoa izan daiteke baina saiatu behar gara egun batzuetan ahalik eta jende gehien biltzen.
- Gorago ezarritako gure helburu horiek erdiesteko, komenigarria da herritar guztiengana iristea gonbidapena: herriko aldizkariak, etxez etxeko banaketa... Herrian lagungarria izan daitekeen elkarerik balego, inplikatu behar proiektuan.
- Bertan eta erakusketa zaintzen eta azaltzen pertsona aditu bat egotea komeni da. Eta pertsona hori ez dagoen unetarako lagungarriak izan daitezke fitxa batzuk jakiteko zer kendu, gehitu edo aldatu nahi den, betiere iradokizuna egiten duen pertsonaren izen eta telefonoak bilduz, geroko elkarrizketetarako.
- Ikastetxeetako ikasleek ere parte har dezakete, alde aurretik izenen bilketa, nahiz eta txikia izan, egin baldin badute.

MAPAREKIN BATERA ARGITARATZEA KOMENI DENA

Eskualde batzuetan toponimoen idazkera zuzena eta errealitatearen artean egiten denaren artean ezberdintasun nabariak egon daitezke, toponimoak identifikatzeko arazoak ere sor ditzaketenak. Horrelako egoeretan, komenigarria da horrelako zalantzak edo itxuraldaketak azaltzen dituen esku-liburu sinple bat ematea. Irakurria izatea denez helburua, modu arinean, argazki askorekin eta testu labur-laburrekin planteatu behar dugu, alde batera utzita azalpen filologiko sakonagoak edo era dokumentalen zerrenda luzeak. Gaine-

ra, jendeari gauzak azaltzen zaizkionean, aldaketak onartzeko joera du; ez ordea, komunikaziorik ez badago.

Zer esanik ez, bestelako liburu sakonagoak ere gomendagarriak dira oso.

TOPONIMIA BILDUTA, MAPA EGINA ETA ZER EGIN?

Hortik aurrerakoa gure esku eta gure irudimenaren esku dago. Beti ere, aintzat hartuta gure helburuak izan behar direla

- a) toponimoak ahalik eta jende gehienaren esku egotea eta
- b) toponimoak ahalik eta jende gehienak erabiltzea

Eta kasu bietan arreta berezia ezarriz, belaunaldi gazteagoei begirako iragan-lanetan.

HAINBAT IDEIA

Era guztietako jolas interaktiboak egin daitezke. Badira horretarako enpresak. Baina baliabide eskasagoak baditugu, nahikoa izan daiteke udalaren webean mapa edo eta toponimoen gaineko informazioa. Ondo dago, webaren bitartez mapa geoerreferentziatuta jaisteko aukera ematea, eskuko GPSekin batera erabili ahal izateko.

Ibilbide toponimikoak antolatu edo bestelako mendi edo antzerako ibilbide bat antolatutakoan, tokian tokiko izenen berri ematea.

Toponimoen seinaleztapena. Jakina, kaleen izenak identifikatu behar direla ohiko xafren bitartez. Komenigarria da, bestetik, auzo edo baserri-eremuetarako bideak ondo adieraztea. Identifikatzeko arazoak egon daitezkeenean, oso zilegia ez bada ere, erabili daitezke toponimo normatibizatua eta herrian erabiltzen dena aldi berean, nahiz eta azken honek agerpen apalago bat izan. Ez dugu ahaztu behar seinaleak lekuak identifikatzeko eginak direla. Azkenik toki ezberdinetako izenen seinaleak egin daitezke.

Mapei dagokienez, haietako batzuk tolestu gabe enkargatuko ditugu, poster moduan erabili ahal izateko. Horiek oso efektiboak dira, leku publikoetan –tabernak, erakundeetako eraikinetan, txokoetan, elkarteetan... jartzen direnean. Klean jartzeko ere material berezietan inprimatu daitezke.

Umeei eta irakaskuntzari begira ere hainbat dira egin daitezkeenak.

- Mapa argitaratu aurretik, izenik gabeko bertsio bat ematea, beraiek modu antolatu batean izenak bildu ditzaten. Gero emaitzak kontrastatu beharko lituzkete egingo den toponimia erakusketarekin.

- Unitate didaktikoak. Umeei «bilduma» edo «album» bat bezala planteatzeko lana. Izen batzuk eman –ikasle talde bakoitzari batzuk– eta, fitxa batzuetan, lekuaren deskribapena egin, elementuaren neurriak, etxearen jabearen izena eta sinadura bildu, edo harekiko talde argazkia... edozein gauza bermatzeko umeak bertan izan direla eta leku horren gainean gutxieneko informazioa ere bildu dutela. Egokia oso, bestelako elementu etnografikoak –karobi, errota, burdinola, teileri edo antzeko izenek gogora dakarkigutena...–, ingurumenekoak –iturrien fitxak esate baterako– eta abar ezagutarazteko. Tokian tokiko biztanleekin adostu daitezke. Izenen eta tokien «bilduma» egiten egotearen sentsazioa transmititu behar diegu, motibazioz egin dezaten. Hori dena, jakina, banatu dugun mapan integratua.
- Eskuko GPS batzuk izanda, leku batzuetako UTM koordenadak eman eta leku horren izena eta argazkia lortu behar izatea. Ekintza hau, lehiaketa moduan planteatzea ona da, parte hartzeko motibazioan eragiteko.
- Leku-izenak dituen maparen edo atzeko ortofotoarekin puzzle batzuk egin daitezke. Kostuei begiratu behar diegu, trokel bereziak behar direlako.
- Umetan gutako askok ikasi genituen Madrilgo kaleen izenak *Monopoly* jolasaren bitartez. Harrez gero ez ditugu ahanzi bertan ikasitakoak: Lavapiés, Glorieta Cuatro Caminos... Beraz, horretarako ahalmena probaturik dago: balia dezagun, beraz.

Ideiak edonolakoak izan daitezke, eta edonork asmatuak. Baina beti gure ondarearen atalik barneratuena, toponimiarena hain zuzen ere, guk jaso bezala edo hobeto, besteei helaraziz.

LEGEDIA, ESKUMEN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURAK

Jose Luis Lizundia Askondo

LEGEDIA

Duela 40. urte, III. Euskal Liburu eta Disko Azokaren inguruan Euskaltzaindia bildu zen Gerediaga Elkarteak gonbidatuta bere Urre Ezteiak ospatuz. Osoko bilkura egin zuen Akademiak eta, hilabete lehenago, Arantzazuko Biltzarrean onartutako erabaki-adierazpena, orduan, ez hemen, bertan, baina hurbil, Merindadearen Auzitegian, berretsi zuelako pozgarria da niretzat zuon aurretan txosten hau irakurtzea.

Euskal toponimia, administrazio desberdinen eskumenen arabera normalizatzeko, ezin bestekoa da Legedia jakitea eta, ondorioz, euskararen mesedetan betearaztea. Hemen, Euskal Autonomia Erkidegoko lege eta lege garapenetara mugatuko naiz gehienbat, nahiz eta Nafarroaz ere aipamen pare bat egin.

Gure autogobernuaren Estatutuak, bere 6. artikulua erregulatzen du euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasuna eta, orain interesatzen zaigun puntuan, 4. lerrokadan hau dio:

Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da aholku-emaile ofiziala.

Eskumen honek garrantzia izugarria izan du, geroago azalduko dugunez.

Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Oinarrizko azaroaren 24ko 1982/10 Legea, hots, Eusko Legebiltzarrak onartutakoa, da hurrengo kontuan izatekoa, hain zuzen, 10 artikulua:

1. Autonomia Erkidegoko lurralde, udal, herri geografia-gorabehera, hiribide eta, orohar, toki izen guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek edo toki-Erakundeek finkatuko dituzte, bakoitzak berari dagokion aginte-eremuaren barruan eta, beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantzezko edo gaztelaniazkoan, hizkuntza bakoitzari dagozkion idazkera akademikoari men eginaz.- Toki-erakundeari eta Eusko Jaurlaritzaren artean aurreko atalean esandako izen ofizialei buruzko auziren bat gertatuz gero, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du, Euskaltzaindiañ bere irizpena eskatu ondoren.

2. Kale-bideetako seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, nolatan ere nazioarteko arauetara eta baliatzaileekiko ulergarritasunari eta segurantzari atxikiz.

3. Izen hauek oso ezberdinak izanez gero, bide seinaleei buruzkoetarako, besteak beste, biak ofizialtzat joko dira.

Nafarroako 1985/16 Foru Legeak, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoak, gaur dagokigun gaian, honako hau dio 8. artikuluan:

1. Foru Komunitatearen toponimoak gaztelaniaz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala honako arau hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskaraz izanen da, non ez den beste izen bat gaztelaniaz, kasu honetan biak erabiliko dira.
- b) Eremu misto eta euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohiko izen bat baldin badute, biak erabiliko dira.

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren aldiz aurreko txostenari jarraiki eta artikuluko honen lehendabiziko atalean aurreikusitakoaren arabera, Foru Komunitatearen toponimoak erabakiko ditu, baita lurralde, herri eta hiriarteko bideen izen ofizialak ere, eta honen berri eman beharko dio Parlamentuari. Hiriko kaleen izenakjartzea Udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, Nafarroako lurraldearen barruan eta ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira eta errotuluak haiekin bat etorriko dira. Nafarroako Gobernuak errotulazioaren normalizazioa arautuko du, Estatuak onetsi dituen nazioarteko arauak beti errespetatuz.

Beste lege jakingarri bat, Estatu guztirako indarra duena, «Ley de Bases de Régimen Local», Gorteak onartutako 7/1985 Legea da. 14 artikuluan hau dio:

Los cambios de denominación de los Municipios sólo tendrán carácter oficial cuando, tras haber sido anotados en un Registro creado por la Administración del Estado para la inscripción de todas las Entidades a que se refiere la presente Ley, se publiquen en el «Boletín Oficial del Estado». – La denominación de los municipios podrá ser, a todos los efectos, en castellano, en cualquier **otra lengua española oficial** en la respectiva Comunidad Autónoma o en **ambas**.

Bere garaian, Lege honen Oinarrizkotasunaren kontra Euskal Herritik zuzenketa bat idatzi nuen bakarra izango nintzen, seguru asko, hain zuzen, Talde Mistoko Juan Mari Bandresen bidez. Bistakoa dena, ez zen onartua izan. Oinarrizko Lege horren garapenez, oraindik, tamalez, Eusko Jaurlaritzak ez du aurkeztu «Euskadiko Udal Legea» eta, ondorioz, ez da eztabaidatu, ez onartu Eusko Legebiltzarrean. Nafarroak bai, ordea, baina, zoritxarrez, gaurko gairako mesedegarri ez dena (Ikus: 1990/6 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Administrazio Lokalarri buruzkoa).

Aipaturiko «Ley 7/185» delako horren garapenez indarrean ezarritako dekretu bat oso jakingarria da gaurko gairako, hots, «Real Decreto 1690/1986 de 11 de julio, del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales» eta, konkretuki bere III. Kapitulua:

Del nombre y de la capitalidad de los municipios

eta, zehatzago oraindik 28. artikulua, zeinek hau dioen:

La aprobación por el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma

(Euskal Autonomia Erkidegoaren L.T.H.ren ondorioz, Batzar Nagusien eskumena da salbuespen bakarra)....

previo informe de la Real Sociedad Geográfica o de la Real Academia de la Historia, según proceda, o de las instituciones especializadas de la Comunidad Autónoma, si existieren (Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, bietan, legez, Euskaltzaindia, zorionez), y de aquellos otros Organismos que se consideren oportunos.

Puntu honetan esan behar da, garaiz, jadanik trantsizio garaian katalanak lortu zutela Institut d'Estudis Catalans izatea irizpen emaile ofiziala eta, segidan, guk, Euskaltzaindia izatea. «Ley 7/1985»ko proiektutik «Consejo de Estado» eta «Real Academia de la Historia»ren irizpen emaile monopoliotatuna kentzen ahalegindu ginen batzuk, baina, gehienbat indar politiko katalanei esker, aitor dezadan. Bidenabar, gurekin dauden Iparraldekoek jakingo dute zer oztopo larri den Frantses Errepublikan «Conseil d'Etat» delakoaren eskumen jakobinoa.

Lege mailakorik ez, foru arau mailakoak, ordea, bai, baditugu. Hauek erregulatzan dute udal izenen ofizial bihurtze Euskal Autonomia Erkidegoan eta indarrean daude. Antzerakoak dira, ia berdinak Gipuzkoa eta Bizkaikoak. Eskura dudanetik, hara hor, hitzez hitz, «Bizkaiko Udal Mugarteei buruzko uztailaren 7ko 1993/8 Foru Arauak, bere 72. artikulua:

PROZEDURA. Udalerrri edo udal entitate txiki baten izenaren aldarapena ondoko prozedura honen arabera burutu beharko da:

a) Udalaren osoko bilkurak edo egokia den auzo batzak hartutako aldeko erabakiak emango dio hasiera.

b) Espedienteari buruzko jendaurreko berriematea hogeita hamar astegun baino gutxiagokoa ezin izan daitekeen epealdian, Bizkaiko Egunkari Ofizialean eta, gutxienez, Lurralde Historikoan alerik gehien saltzen duen egunkarietako baten, egunkari horrek zabalkundea justifikatzeko kreditutako kontrolpean egon behar duela, iragarkiari argitaratuz. Aldi berean, hala denean, haren mugapeko udalerriri entzunaldia eskainiko zaio.

c) **Euskaltzaindiko txostena.** Hirurogei astegunetako gehiegizko epealdia bukatu aurretik eman beharko da, bestela aldeko erabakia emanez egintzat joko baita.

d) Proposamena onetsi edo ukatuko duen udal batzaren osoko bilkurak edo, hala denean, auzo batzak hartutako ebazpena.

e) Espedientea, auzo erakundearena bada, Foru Aldundiari aurkeztea onetsia izan dadin, edo Bizkaiko Batzar Nagusien ebazpenean jartzea, baldin eta udale-

rriarena bada. Ebazpen hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuko da eta ukituriko Entitate Publikoei jakinaraziko zaie dagozkien administrazio errekursoak eskainiz.

f) Bizkaiko Auzo Erakundeen Foru Erregistroan inskribitzea eta Autonomia Erkidegoko eta Estatu Administrazioari bidaltzea, ondore beretarako.

Foru arauetan agertzen ez den kontu bat aipatu nahi nuke, ez udalerrriaren izenaz, baizik eta «udalburu»z, hots, gaztelaniaz «capitalidad o cabecera del municipio» deitzen denaz, zeren eta uste baitut, 1980 geroztik Euskal Autonomia Erkidegoan, udal-hiriburu zenbait Udaletxez eta izenez aldatu direla, lege eskumen eta prozedura erratuz, Euskaltzaindiaren irizpen barik eta R.D. 1690/1986 delakoaren III. Kapituluari kasurik egin gabe, alegia, besteak beste «Registro de Entidades Locales»era igorri gabe. Ez dakit euskal udal asko konturatu diren horrek erakunde eta organismo artean sortzen dituen kontraesanez. Ezagutzen dut, bestalde, kasuren bat iaz arte erdal izenaz funtzionatu duen «udalburua» nahiz eta euskal izen peto petoa euskaldunen artean bizirik iraun mendez mendetan.

Foru arauak erregulatzen dute baita ere, Bizkaian eta Araban, behintzat, Mankomunitate edota Koadrilen erakundetzea. «Bizkaiko udalez gaindiko erakundeko erakundeak araupetzeari buruzko martxoaren 30eko, 1995/2 foru-arauak Mankomunitate eta Partzuergoena, hain zuzen. Izenari dagokionez honako hau dio:

MANKOMUNITATEAK... 9.2. Estatutu horietan, gutxienez, honako inguruabarrok konstarazi beharko dira: a) Mankomunitatearen **izena** eta egoitza... PARTZUERGOAK... 30. artikulua.- Estatutuak Estatutuak Partzuegoen funtzionamendu araubidea ezarriko dute eta, gutxienez, honako hauek edukiko dituzte: a) Partzuergoaren **izena** eta egoitza...

Beraz, aipamen xumeegia, edozein izen har dezakete, euskal izena, erdal izena, elebiduna.

Errepideen izenez, ordea, «Bizkaiko Errepideei buruzko otsailaren 18ko 1993/2 Foru Arauak 7. artikuluan honako hau dio:

Errepideen izendapena edo izen jartzea Euskal Herriko Errepidei buruzko Egitamu Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 89/2 Legeak ohartemandakoaren arabera eta hori aldatzen duen azaroaren 8ko 91/2 Legearen arabera egingo da, baita **azaroaren 24ko Euskararen Erabilpena Arauzotzeko Oinarriko 82/10 Legearen 10. atalean ezarritakoari jarraituz ere.**

Artikulu hau onartzea baldintza bezala jarri nuen, zeren eta, adibidez, Araban, ez errepide ingeniari batek ez eta Foru Herrilan legelariak ez zekiten Euskararen Legerik zegoenik ere indarrean, bai, ordea, Estrasburgoko Parlamentuaren direktiba bat zeinetan erregulatzen den letra gotikoa ez erabiltzea eta horrekin baliatu omen ziren «euskal letra tipikoak» ezabatzeko. Gipuzkoako Batzar Nagusiak aspaldian izan dute tramitean «Errepide Foru Araua» baina, ez dakit, izendapenari buruz ezer sartu duten.

ESKUMENAK

Udalen eskumen propioak badituzte izendapen alorretan, aipaturikoak goragoko instantzietan berresten badira ere. Zeintzuk dira horiek: udalerriko auzo –udalaren auzoburu edo kontzeju mailakoak izan ezik–, kale, parke, pasealeku, industrialde eta besteren izendapenak. Hara zer dion legeriak.

«Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Regimen Local» delakoak, III. kapituluan, hots, Eskumenetakoan eta 25. artikulua d) le-
 rrokadan dioenez baliatzen direla uste dut Udalerriak izendapen horietarako:

Ordenacion, gestion, ejecucion y disciplina urbanística; promocion y gestion de viviendas; parques y jardines, pavimentacion de vías públicas urbanas y conservacion de caminos y vías rurales.

Lege honen garapenez, Udalak badu, ene ustez, eskumen osoa gorago aipaturiko izendapenetan. Besterik da, arbitrarioki erabili behar duen eskumen hori edota prozedura jakin batzuekin, zeintzuek bermatuko duten, besteak beste, euskal toponimiaren kalitate akademikoa, beste edozein hizkuntza normalizatuetan bezalaxe. Eta hau da azpimarratzea nahi duguna ikastaro honetan, bai nire txosten honetan, baita segidan datozen lankideenetan ere.

PROZEDURA

Ez dagoena zehaztuta, Euskal Autonomia Erkidegoan «Euskadiko Udal Legearen» ezaz edo, bere garapenez, nola izan behar duen tramitatzeko bame prozedura. Galizian, ostera, badago, Xuntaren dekretu bidez:

Decreto 132/1984, do 6 de setenbro, da Xunta de Galicia, polo que se establece o procedemento para a fixación ou recuperación de toponimia de Galicia (DOG do 21 de setembro de 1984.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskararen Aholku Batzordean nengoela, Mari Karmen Garmendiaren garaian, 80. hamarkadaren amaiera aldean eta, Erdaide eta Badiola legelari andereekin batera, burutu genuen Toponimia finkatzeko eta berreskuratzeko egitasmo bat. Quebec-eko «Commission de Toponymie» delakoan oinarriturik eta hemengo erakundetze berezira egokiturik hamaika kide zituen: 3, Jaurlaritzatik; 3, Diputazioetatik, bakoitzetik bana; 1, EUDELetik; 2; EHU/UPV eta Deustutik, unibertsitate bakoitzetik bana eta beste 2, Euskaltzainditik, berauetako bat idazkari-teknikari legez. Porrot egin zuen, tamalez, egitasmoak, Jaurlaritza eta Aldundi biren arteko akordiorik ezaz. Ez dut, orain, haren xehetasunetan sartzeko modurik.

Prozedura ez erregulatzeak dakar, prozedura anabasa, udal bakoitzeko indar korrelazioen, edota, agintarien kapritxoan arriskuan egotea. Oraintsu irakurri dugu nola hiriburu baten, Euskaltzaindiak egindako ikerketari jaramo-

nik egin gabe, Alkatezjak dekretuz izendatu dituela auzo bateko kaleak. Ene ustez, udalbatzaren osoko bilkurari dagokio, «Real Decreto 2568/1986 de 28 de diciembre, del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales» delakoaren 50. artikulua araberara. Beste batzuetan Gobemu Batzordeak izendatzen omen ditu, gehienik ere, Udalbatzak berretsiz. Durangoko kasua ezagutzen dut, izendapen askotan aholkulari izan naizelako: Bulego Teknikoko buruak, alegia, udal arkitektuak proposamena Hirigintza Batzordera eramaten du eta, edo Euskara Zerbitzuko S.A. Atutxa teknikariaren bidez, edota, zuzenean Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzura edo, azken orduan, zuzenean niri, iritzia eskatu eta osoko bilkura eraman. Arkitektu euskaltzale baten prozedura txalogarria bada ere, ziurtasuna prozedura erregulatu batek emango lioke, nonahi eta, orokorki segurantzara juridiko eta linguistikoa.

Bada, nik dakidanez, hirigintzako Arau Subsidiarioetan gaurko gaiaren eskumena erregulatzen duen udal bat, Bakiokoa, hain zuzen. «Sukaldaritz» lanetan ibili nintzelako Kepa Uriarte alkate ordearekin eta Joseba Terreros Euskara Zerbitzuaren arduradunarekin ezagutzen dut testua. Hara zer dioen 2001ean onartutako 214 artikulua:

Hirigintza proiektuak

Urbanizazio proiektuetan Lurzoruari buruzko Legeak eta haren araudietan garatu diren zehaztapenak eta proiektu horiek garatzeko eta aplikatzeko xedapenak azalduko dira.

Hirigintza proiektuetan jasoko dira hiri edo landa aldeko egoitzalde, eremu, kale berri, plaza eta gainerakoen izenak, 10/1982 Legearen araberara (azaroaren 24ko Legea, Euskararen Erabilera Araukotzekoa). Helburu horrekin, proiektua erredaktatzen duenak udalaren bidez bilduko ditu Bakioko udalerriko leku-izenak eta onomastika. Zalantzarik izanez gero –leku izena berria izateagatik edo dena delakoagatik– udalak euskara zerbitzuaren bitartez, irizpena eskatuko dio **Euskaltzaindiari**. Oro har, kontuan izango da udalak egindako toponimia azterketa, Akademiaren batzordeak ikuskatua.

Euskararen Udal Ordenantza batzuetan ere ikusi dugu prozedura erregulatuta. Bat, aipatzearren eta, batzuk ezagutuko duzue, Euskararen 1982/10 Legearen 10.artikulua garatuz, honako hau da:

Kale edo auzoen izenak agertzen dituzten plakak, trafiko seinaleak, bide eta zeharbideen adierazgarriak eta, oro har, udalak jarritako herri-bideko iragarki guztiak edo ele bietan idatziko dira, betiere ulergarritasuna eragotzi barik eta nazioarteko arauetara jaramon eginez.

Horietan guztietan ager daitezkeen toki izen guztien izen ofizialak udalak berak finkatuko ditu, betiere izenaren jatorrizko hizkuntza eta egungo idazkera arauak errespetatuz. Alabaina, izen ofizialok ezarri aurretik, udalak **irizpena** eskatuko dio **Euskaltzaindiari**.

Era berean, hirigintza proiektu berrien ondorioz gerta daiteke hiri edo landa aldeko egoitzalde, eremu, kale berri, plaza eta gainerakoen izen ofiziala ezarri behar izatea; halakoetan ere, udalak **irizpena** eskatuko dio **Euskaltzaindiari**.

Jakingarria litzateke zenbat udaletan onartuta dagoen Ordenantza hau, edota eztabaida proiektuan. Alde batera utzita trafiko seinale generikoen elebitasuna eta toponimoen euskal elebakartasuna, hobeto bereiztea, eredu interesgarritzat jotzen dut. Besterik da, ordea, udaletxe barruko prozedura, hots, Hirigintza Batzordetik, Euskara-Kultura Batzordetik, Gobernu Batzordetik, Alkatetzatik edo zer bide jarraitu behar duen. Nire ustez, osoko bilkurak onartu edo berrestea ezinbestekoa da. Eta zein batzordetik? Hirigintzakotik, nahiz eta onuragarria izan daitekeen Euskara & Kultura Batzordeari entzutea ere. Gainera, udalek barne organigrama desberdinak dituzte, normala den bezala.

Gauza jakina da zenbait etxegintza enpresak eta beraien arkitektuek aurreproiektua egin bezain laster hasten direla urbanizazio berriaren publizitatea egiten, euskal izenik barregarriena, erdal izen topiko bat ez denean, bultzatuz, Udalaren eskumen eta prozedurak, lotsagabeki, baldintzatuz.

Hau guztiarengatik, udal ordenantzetan, hirigintzakoan edo euskarakoan, edota bietan, prozedura argi eta zehatz bat finkatzea litzateke bidea. Ene aburuz, lege>eskumen>prozedura hauek segituz:

1. Eusko Legebiltzarreko 1982/10 Legea.
2. «Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases del Régimen Local», udalaren eskumenak bermatzeko, batez ere, goragoko Administrazioen aurrean.
3. Batzar Nagusietako Foru Arauen ezagutza zehatza udal eta kontzeju izen, errepide eta gainontzeko seinalizapen arloetan, bai udaletxe barruan erabakitzeko orduan eta, baita ere, diputazio eta gobernuei udal dermioan, bete dezatela eskatzeko ere.
4. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, nahiz Espainiakoak, euskal toponimiaren normalizatzeko indarrean jartzen dituzten dekretuen artikulua eskuratzeko. Ezinbestekoa da udal idazkariaren, edota, udalak hitzartuta duen aholkularitza juridikoaren partaidetza eta laguntza.
5. Udal bakoitzaren ordenantza edota ordenantzek, gai honetaz, konkretuki, diotenez jabetzea. Ordenantzak diodanean, bereziki arau subsidiarioetakoak, euskarari buruzkoak edota udalaren barne ibilbidekoak aztertu beharko lirarteke, alde batetik, euskal toponimiaren mesedetan eta elkarrekiko kontraerriak ez daitezen izan.
6. Udal bakoitzean zer prozedura segitzen den kontzeju, hiriburu, biztanle entitate, auzo, kale, industrialde, parke eta beste izendatzeko jabetzea. Arbitrarietatea erabiltzen bada ere, ezagutu behar da.

7. Guztiarekin, Euskara Zerbitzuak, teknikariak edo itzultzaileak, puntu huez *vademecum* bat izan beharko luke beti, beste edozein zerbitzuz bezalaxe.

Zeren eta nago ni, amaitzeko diot hau, euskara zerbitzuek, dauden udal-letan ere, ez ote diren «maria» gisakoak hirigintza zerbitzuekin konparatuz, edota, euskara teknikariek, euskal filologian lizentziatuak izan arren, ez dutela arkitektu teknikoaren mailarik, nahiz eta hauek diplomatura soilak izan. Hau behin baino gehiagotan aldarrikatu dut, egia esan, arrakastarik gabe. Utz dezagun gai hau beste egun baterako.

TOPONIMIA IKERKETAK: PROZEDURA ETA URRATSAK

Mikel Gorrotxategi Nieto

EUSKALTZAINDIAREN EGINKIZUNA TOPONIMIA LANETAN

Euskaltzaindia dugu Euskal Herri osoko hizkuntza erakunde bakarra, nahiz eta Frantziako eta Espainiako egoerak desberdinak izan. Legezko aholkularia da Nafarroan eta EAEn. Azken honetan irizpenak eman behar ditu, udal edo kontzeju izenak aldatzeko baina, harrigarria bada ere, ez da irizpena esaten dena bete behar. Ondorioz, badira erakundearen iritziaren kontra onartutakoak *Eskuernaga* edo *Ekora*, esate baterako.

Lehenago Lizundia jaunak azaldu duen bezala gainontzeko izenen idazkera finkatzeko eskuduntza oso nahasia da.

Azken urteotan gero eta erakunde gehiago jarri da harremanetan Akademiarekin toponimia dela eta. Batzuk (IGN, FEVE, Gobernu eta diputazioak...) batez ere erabiltzen dituzten izenen egokitasuna bermatzeko; beste batzuk, udalak bereziki izendegiak zuzentzeko edota ikerketatan laguntzeko.

Batzordeak 1986an egin zituen lehenengo Onomastika Jardunaldiak eta orduan hasi zen udalekin batera toponimia ikerketetan parte hartzen. Lankidetzatza honetan egindako horrelako lan batzuk *Onomasticon Vasconiae* bilduman ageri ziren geroago¹. Beste batzuk, berriz, herrietako kartak egiteko erabil izan ziren. Azkenik, inoiz lanak argitaratu dira aipatutako bildumatik kanpo.

Horrelako lanak gero eta ugariagoak izanik Akademiak sortu berri zuen Onomastika Zerbitzuaren barruan sartu behar izan zuen udalei aholkularitza ematea; herri agintariei, bereziki udalei, behar bezalako aholkularitza eman eta horrelako lanek batasuna eta maila akademiko antzeko izateko. Aholkularitza zerbitzu hau EUDEL eta Euskaltzaindiak duen hitzarmenaren barruan kokatzen da eta hiru atal nagusitan banatzen:

- Udalei onomastika alorrean zer egin dezaketen eta nola burutu azaldu.
- Ikerketa aurrera ateratzea erabakitzekotan udalari lagundu.
- Ikertzaileak trebatu eta gainbegiratu hasi aurretik eta ikertu bitartean.

¹Lehenago Angel M^a Elortegik eginiko *Pasaia*ko toponimia izan zen eta azkena Kristina Pavok idatzitako *Antzuolako toponimia* Onomasticon Vasconiae bildumako 8. eta 25. zenbakidunak.

Euskal Herrian betidanik izan da toponimiarekiko zaletasuna eta zaletasun hau loturik egon da euskararen aldeko jarrerarekin. Horregatik aspaldian ekin zitzaion toponimia bilketa lanak egiteari. Tamalez, ikerketa asko helburu zehatzik gabe egin ziren eta, horrek, askotan, lanen erabilgarritasun txikia eta, zergatik ez, maila akademiko eskasa ekarri du. Horregatik holako lan bati ekin baino lehenago udalekoek, langile zein zinegotziek jakin behar dute zer egin daitekeen onomastika alorrean eta zertarako. Ez du balio horrelako lanei ekitea modan dagoelako edo ondoko herrikoek ere egin dutelako.

Helburuak eta abar finkatutakoan administrazio lanak hasi behar dira. Horrelakoak Felix Mugurutzak azalduko ditu, baina azpimarratu nahiko nuke udalek egindako dokumentazioa, eta udalek deus ere egiten ez dutenez, teknikari batzuek egindako lanak direla guk ditugun eredu-oinarria (CDan ditzue):

- Beka deialdia.
- Enpresa bat kontratatzeko oinarriak.
- Euskaltzaindiarekin burutu beharreko hitzarmena.
- Eusko Jaurlaritzari duen materiala eskatzeko gutuna.

Azkenik, lan berari ekiteko Patxi Galék sortu zuen aplikazio bat *access*² programan. Aplikazio hori horrelako ikerketak bideratzeko sortu zen eta erabat bateragarria da Euskaltzaindia egiten ari den ECO egitasmoarekin.

1. IKERTZEKO ETA ARAUTZEKO ERAGOZPENAK

Ezaguna denez Euskal Herrian euskara ez da eremu guztian berdin erabiltzen; leku batzuetan baldin dago, beste askotan baldin izan ez arren, ez da gehien erabiltzen dena, eta beste batzuetan, aski ongi dagoela pentsa genezake, nahiz eta hizkuntza bakarra oso eremu txikietan (auzoetan) izan. Egoera, honek baldintzatzen du toponimoak jasotzeko lanak eta toponimoen arautzea.

Oro har, Euskal Herria lau zati nagusitan banatu ahal dugu:

A) Eremu euskalduna

Inguru honetan arazorik handiena izaten da araututako izenaren onarpena. Patxik esan duen bezala, sarritan, ahoz erabiltzen den toponimoa eta estandarizatuta urrutitik egoten dira eta joera dago ahozko bertsioa jatorragotzat jotzera. Hau begi bistakoa da sekula ofizial izan ez diren izenekin. Herri batean auzo batek izen ofizial ezaguna izan duenean jendeak badaki ahoz erabiltzen bertsioa

²Baten batek galde lezake zer dela eta hautatu den programa hau. Orain arte erabili dugu eta ez genuen diru baliabiderik enpresa bati berri bat agintzeko. Hala ere, prest gaude iradokizunak entzuteko.

ahozkotasunari dagokiola, eta *Iburre*, *Iborla* edo *Satamo* esan arren, zein den izena galdetuz gero *Ibarruri*, *Ibarrola* eta *Zaratamo* direla esango dizute. Hau da, munduko gainontzeko leku zibilizatueta gertatzen dena eta *Güerba*, *Zebiya* edo *LA* esaten dutenek *Huelva*, *Sevilla* edo *Los Angeles* idazten dute.

Egoera hau bereziki zabaldua dago Iparraldean bertako izen ofizialak eta euskarazkoak, jatorri berekoak izan arren, urrutiago baitaude, idatziz eta ahaz: *Ibarrolle* («*Ibarol*») <> *Ibarrola* («*Ibarla*»).

B) Azken mendeotan erromantzatutako ingurua (XVIII, XIX y XX)

Euskal Herriko eremu zabalenetakoa da hau, bertan sartzen da Arabako lautada osoa, *Gorbeialdea* eta *Aiaraldea*; Nafarroako eremu handia Sakanatik Erronkariraino eta Bizkaiko mendebaldeko zati bat. Inguru honetan euskal izena oso gardenak izaten dira eta arazorik handiena euskal espezifikoz eta erdal generikoz osatutako toponimoek osatzen dute: *Otxaran de Abajo*, *Peña de Apuko...* Izenak arautzean sortzen diren aldaketen onarpena ere ez da berbera eremu osoan, mendebaldean eta Araban askoz ere handiagoa baita.

C) Espaldian erromantzatutako gunea

Inguru honetako egoera korapilatsuena da, garai eta bilakaera desberdinak baitugu. Soziologikoki aurrekoa baino heterogeneoagoa da. Inguru batzuetan euskararen aldeko joera nabaria dago eta prest leudeke edozein aldaketa egiteko, handia izan arren. Beste batzuetan, berriz, jarrera ez da hain zalea eta ez dute aldaketarik onartuko, bien artean legoke nolabaiteko elebitasuna onartzen duena. Bizkaian, esaterako, euskararen aldeko joera da nabaria –batez ere herri txikitik– eta ez dute eragozpenik jartzen.

D) Eremu erromantzea

Ezaguna denez hegoaldean eta mendebaldean badira aspaldian erdaldundutako eremuak eta agian sekula euskaldunak izan ez direnak.

1) Udal ikerketak

Argi dago hemen aurkezten dugun metodologia ez dagoela itxita eta tokian tokiko beharrizan eta baliabideen arabera moldatu behar dugula. Nolabait esateko, hemen aurkezten dugu egin behar den lanik osatuena, baina errealtateak erakusten du sarriegi diruak baldintzatuko duela ikerketa hasiera-hasieratik.

Proposamenok ez dira Batzordean besterik gabe sortu, urte askoren eskarmentuaren ume dira eta etengabe osatzen eta egokitzen ditugu. Lana, beraz, ez da bakarrik Akademiarena, barruan txertatu dira ikerle askoren urteetako lanak eta esperientziak, ikerlari horiei guztiei eman behar dizkiegu gure eskerrik beroenak.

1) Zertarako ikertu?

Hizkuntzalaritzan zein biologian edozein ikerketari edo lani ekin baino lehenago argi eta garbi eduki behar dugu zertarako egiten dugun, zer den jakin edo aurkitu nahi duguna. Gure kasuan, beka deialdietan horrelakoak ikusten dira:

Kontuan izanik Obabako toponimia oraindik jaso gabe dagoela, eta gure kultur ondarearen zati garrantzitsu bat dela eta bertako hainbat toki, baserri, iturri, mendi izen eta abar desagertu aurretik jaso eta aztertzea komeniko litzatekeela, Udal honek, beka eskainiz deialdia zabaltzen du ondoren azaltzen diren oinarrien arabera:

Baina, hitz eder horien atzean zer dagoen argi eta garbi izan behar dugu lanari ekin baino lehenago. Ezin dugu egin modan dagoelako, euskaltzaleak garelako eta herri administrazio batek diru-laguntzak ematen dituelako, inoiz gertatu bezala. Are gutxiago ondoko herriek egin zutelako, inoiz ahopean esan didaten bezala.

Toponimia ikerketak Unibertsitatetik zuzendu direnean, antzina *tesina* delakoetan eta gaur egun Doktore Tesietan, helburua inguru zehatz baten toponimia ahalik eta ondoen **ezagutzea** izan da. Normalki honelako ikerketan emaitza unibertsitate munduari eskainitako liburu handi, eta gehienetan zaila, izaten da eta ikertutako toponimia horren erabiltzaileak ikerketatik kanpo gelditzen dira, antropologoek Afrikan egiten zituzten ikerketetan bezalaxe. Lan hauetan bildutakoa aztertzen zen hizkuntzalaritzaren ikuspegitik ikertutako ingurua hobeki ezagutzeko, baina helburuen artean ez zegoen tokian tokiko toponimia indarberritzea edo gizarteratzea. Neurri batean esan dezakegu liburukote hauek delako inguruaren toponimiaren harlauzak direla, baina harlauza usaina duten lan hauek unibertsitateak egiten ditu eta ezin zaio eskatu erakunde horri udal edo diputazio bati dagokion lana egitea.

Hasieratik argi izan behar ditugu **helburuak**, eta ez helburua, horrelako lanetan anitzak izan behar baitira. Egia da helburu nagusi bat dagoela, kultura ondarea den toponimia babestea; baina helburu nagusi hori betetzeko bitarteko asko daude. Lehengo eta behin ikerketa dugu, ezin baita ikertu gabe ezer sendoa egin eta azkenik herritarrek ondarea ezagutu eta erabiltzea, azken puntu bi hauek ezinbestekoak baitira toponimia, zein hizkuntzaren beste alorrak, salbatzeko.

Kasu honetan herri agintariak bideratutako ikerketaz ari gara eta ezin dugu alde batera utzi herri diruaz egiten denak sortu duen gizartean izan behar duen oihartzuna. Ezin dugu aiantzi udalak batzuek ikertzen duenean udal horretarako biztanleentzat ari da lanean.

Babeste horretan ezinbestekoak diren epeak, geroago Felix Mugurutzak garatuko dituenak atal nagusi bitan bana ditzakegu:

- A) Administrazioaren erabilera. Izenak finkatutakoan administrazio guztiek erabili beharko lituzkete eta eremu pribatua egitera behartu.

- B) Biztanleen artean zabaltzea behar diren baliabideak jarriz erabilia izan dadin.

2) Ikerketa motak

Ikerketa aurrera eramateko era bat baino gehiago egon daitekeen arren, hiru mota nagusi azpimarratuko ditugu:

- a) Boluntarioen bidezko ikerketa
- b) Beka deialdia
- c) Enpresa baten kontratazioa

Hirurak erabili izan dira eta hirurek dituzte alde on eta txarrak.

Boluntarioen bidezko ikerketa

Inoiz egin da, batez ere antzinako garaietan eta baliagarria izan daiteke, batez ere eremu urriko udaletan. Herriko talde bat integratzekotan inongo emaitzarik onena lor liteke ez baita goitik beherako ekintza izanen eta herritarren babes handiena izango du. Barrundian, esaterako zeintzuk izen seinaleztatu behar ziren kontzejuetako bileretan eztabaidatu zen. Arautze lana Onomastika batzordeak egin zuen, baina herriz herri azaldu ziren aldaketa guztiak. Azkenean, toponimoak lekuan jartzean herritarren aholkua bildu zen. Egitasmoari amaiera emateko parte hartu zuten guztiekin bazkaria egin zen. Horrela lortu da herritarrak toponimiak duen garrantziaz jabetzea eta bere egitea. Inoiz estakaren bat erortzekotan herritarrak arduratuko dira berea den ondarea babesteaz.

Beka deialdia

Ohikoena eta merkeena, eta bereziki gaur landuko duguna, nahiz eta enpresa baten bidez egindakoaren antza handia izan. Bekak duen onurarik handiena formazioan datza, bide ematen baitu ikerlariak sortzeko.

Enpresa baten kontratazioa

Kasu honetan gonbitea erabiltzen da gehienetan ez baitago lan hau aurrera eraman dezakeen enpresa gehiegi. Horrela egiteak baditu alde onak, baina arriskutsua izan daiteke aurkezten den enpresak ez badu behar bezalako mailarik, ez baita gauza bera herriko karta edo mapa egitea, beste batek emandako datuak erabiliz, edo ikerketa bat burutzea.

Bestelakoak

Azkenik ezin da ahaztu batzuetan unibertsitate ikerketa eta udalarena uztartzen ahal direla eta udalek lagundu beharko liekete herriko toponimia ikertzen edo ikertzeko asmoa dutenei.

3) Lanaren epeak

Hau oso inportantea da. Udal batek bideratutako lanak hasiera eta amaiera izan behar du. Ez da posible amaitzen ez den lan bat planteatzea. Udal batek, diru baliabide ugari dituelako behin betiko ikerketa egitea erabakiko balu tarteko geldituak egin behar izanen ditu lana amaitu arte itxaron gabe.

A. Deialdia

Arruntena izaten da oinarriak Aldizkari Ofizialean argitaratzea, baina toponimia ikertzea ez da lan arrunta eta hori baino ez egitekotan normalena izanen da inortxo ere ez aurkeztea; karrera amaitu berri den jendeak ez baitu izaten bere irakurgaiaren artean bere lurraldearen Aldizkari Ofizialia. Beraz, deialdia egin baino lehenago berria zabaldu behar da ahalik eta hautagai gehienek honen berri izateko. Hau ez da txantxetako gaia, inoiz gertatu baita deialdia hutsik gelditzea.

- Beka egingo dela zabaltzeko bide arruntenak honakoak dira:
- Historia eta filologia departamentuak.
- Ikertuko den inguruko egunkari eta aldizkariak
- Inguruko elkarte kultural eta euskalgintzakoak.
- INEM
- Udal bandoa
- Inguruko ezagunak, bereziki herri txikietan

Dena dela jakinarazpenarekin batera laguntza ere eskaini behar da. Normalki jendeak ez du gaia ezagutzen eta aurkezteko beldur izaten da. Beldurrak usatzeko laguntza eskaini behar zaie eta esan Onomastika Zerbitzua prest dagoela hasiera-hasieratik laguntzeko.

Behin egingo dela ongi zabaldu eta gero, orduan bidaliko dugu Aldizkari Ofizialera.

B. Adjudikazioa

Oinarrietan biltzen da hautagaiak aztertuko dituen epaimahaiaren osaketa. Bertan, zentzuzkoa den bezala, horrelako ikerketen eta metodologia ongi ezagutzen duen jendeak egon behar du, horien eginbeharra kurrikulua eta aurkeztutako txostena aztertzea izanen baita. Hau behar beharrezkoa da, inoiz gertatu izan baita aurkeztutako eskarmentua edo txostena zeharo baztergarria izatea.

Oinarrietan biltzen da baloratuko dela inguruko euskararen ezagutza, eremu eskalduna baldin bada, eta inguruaren ezagutza. Hau, ez da huskeria; askoz ere harrera hobea izango baitu antzeko euskararen erabiltzailea denak, ahozko inkestetan esaten dena askoz ere hobeki ulertzeaz gain, gogoan izan behar baitugu ahozko bilketa adineko jendeari egiten zaiola.

Hori dela eta sarri kontatzen dudan gertaera azalduko dizuet.

Maite, ene orduko emaztegaia eta gaur egungo emaztea, eta biok Gorlizera joan ginen, Butroe ibaiaren inguruan kokatutako *Isusqui*za baserriaren euskal ebakera ezagutzera. Iruditu zitzaigun zuhurren zela errekez beste aldean eta gorago dauden baserrietara jotzea, handik zuzen-zuzenean ikusten baitzen. Hori egin, eta aipatuko ez dudan baserri batera heldu ginen. Kanpoan zegoen berrogeita hamar urte inguruko gizonarekin hasi ginen berriketan.

Ezaguna denez, baserri horren lurretan txalet auzune berria eraiki zuten aspaldian eta leku turistikoetan egin eta egiten den bezala, izen «salgarriagoa» eman zioten: *El Abanico de Plencia*. Jatorrizko izenaren etimoa argia da, *itsuski* landare izena, *Genista sp*, eta *-tza* ugaritasun atzizkia. Hala ere, Bizkaian ez da ohikoa *Itsuskitz*za moduko izena, eta horregatik ikertu nahi genuen bertako ahoskera.

Etxearen aurreko aldean geunden berbetan eta datu asko eman zigan inguruaz, baina baserriaren izenaz galdetzean *Abanikue* zela erantzun zigan. Geuk beste izenik ezagutzen ote zuen galdetu genion eta ezetz erantzun. Ez genuenez erantzuna kutsatu nahi ez genion izenik proposatu, eta azkenean etxean beste inor ote zegoen galdetu genion. Gizonak baietz erantzun eta etxera hurbildu ginen. Etxera heltzean sukaldeko atea ireki eta barruan zegoenari haxe esan zion: *Ama, suk selan esatensu Isúkitze?*

Horrelakoak gertatzea arrunta da, batez ere euskara sozialki oso bazterturik egon den inguruetan, baina ez da bakarrik euskararen auzia, askotan herri->hiri arteko harremanetan kokatu behar da egoera hau. Sarritan herrikoak badaki haiek darabilten izena ez dela ezagun eta kanpokoek erabiltzen dutena erabiliko du elkar hobeto ulertzeko edota tontotzat ez hartzeko.

b. Ikerlaria

Euskal Herrian ohikoena izaten da horrelako ikerketak euskal filologian edo historian lizentziatuei eskaintzea, ikerlari trebeak ahandi gabe. Horrelakoak ezin dira alde batera utzi eta, esate baterako, liburu on batzuen egilea den Goio Bañales Arte Ederretan dago lizentziatua. Baldintza hau, zer esanik ez, enpresen bidez egitekotan ere baliagarria da oso.

Baldintzetan biltzen da onomastika alorreko lanek edota ezagutzak puntuak ematen dituela, baina zail izaten da horrelako bat aurkitzea, ez baita Euskal Herrian onomastikari buruzko eskolarik ematen.

Behin ikerlaria hautatu eta gero, behar beharrezkoa da tutorea ikerlariekin biltzea trebatzean hastekoa. Normalki ikerlariak pentsatuko du bilketaren oinarria dela berehala egin behar den ahozko bilketa, eta ongi azaldu behar zaizkio lanaren metodologia eta epeak guztiaren arrazoiak ongi emanda.

Karrera amaitu berriko jendea baldin bada, ez du ezer ezagutuko toponimiaz, artxiboaz eta abarrez; baina lanari ekiteko gogo handia izango du.

c. Ikerlarien trebatzea, lekuan oinarritutako ikerketa

Normalki era biko ikerlari-gaiak ditugu, karrera amaitu berriak eta toponimian «zaletuadituak». Badirudi toponimian zaletuak diren horiek onenak izango direla, baina zoritxarrez, batzuetan zail da hartutako bizioak bere onera eramatea. Orain dela urte pare bat herriko toponimia 15³ urte ikertzen aritu den ikerlari batek lortu zuen bertako beka ahozko bilketa egiteko, eta sekula egin den lanik txarrena egin zuen. Besteak beste kokapenak eta ahoskatutako izenak zuzentzen zituen bere ustez egokiena zena jarrita. Hain zen lotsagarria portaera, ezen ikerketan lagundu zion batek salatzeaz gain uko egin baitzion kobratzeari, harrigarria bada ere udalak ordaindu egin baitzion. Geroago, Udalak herriko karta egiteko bertako euskara teknikariak egin behar izan zuen bilketa berriro.

Honek ez du esan nahi toponimian ikertzen aritu direnak baztertu behar direla, gaia ongi ezagutzen duen bat lortzekotan inoizko emaitzarik onena lor baitaiteke. Horrela suertatu zitzaion, esaterako, Leioa eta Erandiori.

Baina kasu gehienetan zerotik hasten den ikerlaria trebatu behar da, eta hori izanen da Euskaltzaindiaren ordezkariaren eginbeharra. Lehenengo eta behin ikerlariari azaldu behar zaio ikerketaren ardatza lekua dela, eta ez, Euskaltzaindiak berak aspaldian egiten zuen bezala, izena. Kasurako, *Donostia*, *San Sebastián* edo *La Bella Easo* leku bat dira eta ondorioz fitxa bakar batean ageriko dira eta ez hirutan. Geroago askoz ere zailagoa den toponimoa zer den azalduko dio. Zaila benetan askotan geuk ere ez baitakigu non dagoen leku-izen eta izen arruntaren arteko muga.

Esate baterako, *Arrigunagako iturria* zer da? Toponimoa, *Durango* edo *Zabala* bezala, edo *Arrigunaga* inguruan dagoen gauza baten azalpena, *ambulatorioa* edo *udaletxea* bezala? Erantzun zaila. Horrelakoetan, hizkuntza bien arteko harremanak lagunduko digu eta erdaraz idatzikoetan la «*fuelle que llaman Arrigunagaco iturri*» aurkitzen badugu leku-izena dela esan dezakegu. Baina zoritxarrez, gauzak ez dira hain argiak eta gure herri honetan *Castillo* edo *La Casería de Arriba* modukoak irakur ditzakegu gaur egun bizirik dauden *Gaztelu* eta *Goikoetxea* izenen orde.

Baina ez da horretara mugatzen tutorearen lana, horretaz gain zein artxibo dagoen, non dauden nola joan eta bestelako zehaztasunak eman behar dizkie.

Horrekin batera aurkeztuko dizuedan datu-base erabiltzen ere trebatu behar dira. Lan hau ez da, ikusten denez, egun edo aste batera mugatzen, etengabe sortzen baitira zalantza eta galderak.

Baina beste arlo bi ere landu behar dira. Batetik inguru geografikoaren ezagutza. Ezinezkoa da toponimia ikerketa bat burutzea inguruaren nolabaiteko ezagutza izan gabe. Beraz, lanaren hastapenetan herritik ibili behar dira, minuta geografikoa lagun, topatuko dituzten izenak ulertzen eta kokatzen jakiteko.

³ 37,56 kilometro zabal.

Horrekin batera mapak irakurtzen ere ikasi behar dute ikerlariek, ordena-gailua bezain garrantzitsua baitira mapa hauek toponimiarako. Gaur egun toponimia ikerketak ez dira bakarrik toponimo zerrendak, izenak bere «testuinguruan» egon behar dute, mapetan ageri behar dira ahalik eta era errealisten, ez bakarrik paper zati baten gainean; eta hori egin ahal izateko ezinbestekoa da mapak irakurtzen jakitea.

d. Oinarrizko datuen bilketa

Zail da gaur egun horrelako lan bat zero-zerotik hasia, zorionez; leku gehienetan egoten baita oinarri bat. Komeni da, beste administrazioek egindakoa ezagutzea eta hori erabiltzea oinarri bezala geroko estandarizazioan laguntzeko. EA Eren kasuan HPSri eskatuko diogu Deiker Informatika berarentzat egindako lanaren kopia. Lan horretan hainbat toponimoren aldaera arautuz gain dokumentazioa eta mapak daude.

e. Jarraipen batzordea

Orian dela urte batzuk, aipatuko ez dudan udal batean, bertako euskara ikertzeko beka eman zitzaion ikerlari bati. Urtea pasatutakoan itzuli zen ikerlaria lana egiteke eta dirua itzuli behar izan zuen. Ondorioz, herri hartako hizkera jaso gabe gelditu da.

Hau ez da kasu bakarra izan, zorionez, baina bai txarrena. Erabiliko den dirua publikoa izanik behar da egiaztatu ongi erabiltzen ari dela eta horretarako baliabideak jarri behar dira. Horregatik aspaldian erabaki genuen ezinbestekoa dela lanaren egoera egiaztatzeko bideak sortzea, eta ondorioz, ikerlariek aldi-aldi aurkeztu behar duten txostena aztertzeko jarraipen batzordea antolatzea.

Batzorde hau hiru edo lau hilabeteetan behin bilduko da eta betebeharrak izango ditu.

- Ordura arte egin den lana egiaztatzea eta ondorioz ordainketa onartu.
- Aurrerantzean egingo den lana zehaztu.
- Ikerlariei lagundu lekukoak edo baliabide desberdinak lortu.
- Zalantzak argitu.

Beraz, batzorde honetan ez dira bakar-bakarrik udal eta Akademiaren ordezkariak egotea, ezinbestekoa da herria ondo ezagutzen duten pertsonak ere egotea. Herritar hauek lagunduko dute zalantzak argitzen, hutsak zuzentzen eta ikerlari eta jendearen arteko zubi egiten.

Ohiko partaideak hauek izaten dira:

Udalaren ordezkariak (zinegotzia, euskara teknikaria, hirigintzako ordezkaria), Euskaltzaindiaren ordezkaria eta tutorea, udalak izendatutako herriko aditu batzuk eta ikerlariak, jakina.

f. Ikerketa

Lanik ederrena, egiten dutenentzat eta ingurukoentzat ere, ikerketa bera gauzatzea da. Ikerketan zehar gora behera asko egongo dira. Bereziki zaila da dokumentazio lana sarritan ez baita ezer aurkitzen. Hala ere inoiz altxor batu ezinaren aurrean egongo dira eta pozaren pozez lan egin. Lanaren erdialdean datu asko bilduta daudenean ikerketa bidera ezina irudiko zaie eta Mongolia-ra alde egiteko gogoia izanen dute. Baina hasiko dira txukuntzen eta berehala ohartuko dira lanak merezi izan zuela. Azkenik, ikerketa ongi egin badute, lana udalari ematean beste 12 hilabete behar dituztela sentituko dute.

Ikerketaren epeak

Lanari ekin baino lehenago kronograma zehaztu behar dugu. Ezin dugu itsu-itsuan bete, baina ezinbestekoa da azkenean itolarri ibili nahi ez bada.

Kronograma

1. Iturrien balorazio eta hautaketa: liburuak, mapak, eskuizkribuak, artxibategiak...
2. Minuta toponimikoa: inguruari buruzko mapen hustuketa.
3. Argitaratutako liburuen hustuketa.
4. Artxibategien hustuketa.
5. **Hausnarketa eta datuen txukunketa.**
6. Ahozko bilketa.
7. Bildutakoaren azterketa eta hutsen bilketa eta zuzenketa.
8. Tutoreari lehengo idazkia ematea.
9. Tutorearen azterketa eta arautzea.
10. Jendurreko aurkezpena.
11. Lanaren aurkeztea.

Segidan aztertuko ditugu puntu hauek bana banan.

1. Iturrien balorazioa eta hautaketa

Lehenengoko urratsa erauzi eta kontsultatuko diren iturrien hautaketa eta erauzketa izango da. Iturriak oinarrian hiru motakoak izango dira:

- Argitaraturiko iturriak edo iturri dokumentalak: argitaratuak diren lan ezberdinek osatzen dute mota honetako iturri multzoa. Historiari buruzko lanak edota dokumentazio historikoa biltzen dutenak dira.
- Artxiboetako dokumentuak: artxiboetan batik bat biltzen diren dokumentu ez argitaratuak dira hauek.
- Iturri kartografikoak: hauek argitaraturiko iturrien barruan sar genitzake, baina izaera berezia dutenez banatu egin nahi zian ditugu.

Argitaraturiko iturrien artean badira toponimia bilketetan aski ezagunak direnak eta erabili ohi diren liburuak. Ezagunak eta erabiliak izan diren neurrian, hautagaiak lirateke ere lan honetarako. Bestalde, izan litezke inguruari buruzko lan monografikorik, eta horrelakoak ere iturri bezala erabiltzeari ezinbestekoa deritzogu.

Argitaratu gabe dauden dokumentuak, aipatu bezala, artxiboetan daude batik bat. Dokumentazioa ugaria izan ohi da, are gehiago Erandioko Elizatea bezalako herriaren kasuan, beraz hautaketa eta mugaketa egitea ezinbestekoa gertatzen da. Horretarako artxiboetako arduradunen iritzi eta gomendioei jarraituko diegu. Oinarritzko irizpidea izango dugu, jakina, dokumentuetan ager litekeen toponimo kopurua. Era berean garai ezberdinetako dokumentuak aztertuko dira, lehenetsuna zaharrenek dutelarik.

2. Minuta toponimikoa

Ezagupen geografikoarekin batera, eta jadanik argitaratua den maparen laguntzaz, minuta toponimikoa osatuko dugu. Minuta toponimikoa, toponimoez osaturiko kartografia iturri hutsa da. Honen laguntzaz inguru geografikoarekiko harremana estutu egiten da. Bilketa honek lagunduko digu ikerketan aurkituko ditugun izenak non kokatu ahal ditugun.

Izenak maparen gainean kokatzean koloreez baliatu ahal gara iturri desberdinak bereizteko, askotan mapen kalitatea ez baita beti berdina. Mapen hautaketa egitean bereizi behar dira lehen eskuko lanak, ikerketa baten ondorioz zuzenak direnak, esate baterako 1926an BFAk egindako mapak, edo bigarren eskukoak. Azken hauek beste batzuen kopia izanik ez dira hain garrantzitsuak eta gainera nahasgarriak izan daitezke. Esate baterako, toponimo bat hamar mapetan aurkitu ahal dugu eta ondorioz erabat fidagarria dela pentsatu eta erresultatu guztiak direla hasierako huts baten kopia.

3. Argitaratutako iturrien erauzketa

Minutarekin batera argitaratutako iturrien erauzketa egingo dugu. Erauzketa hau nahiko azkarra izaten da, eta erraza, ez baitu interpretazio paleontologikoen beharrik. Gainera askotan historia edo etnografiarekin loturik dagoenez, toponimia ulertzeko baliagarria izan daiteke. Esate baterako, *Historia de Getxo* irakurtzean ulertuko dugu zer dela-eta San Martin kalea San Nikolas elizaren aurrean dagoen eta ez San Martin elizaren aurrean, eta horri ezker *San Martinaldeak* izeneko alorra dagokion auzoan kokatuko dugu.

Liburu edo iturri hauetan ageri den informazioa oso heterogeneoa izaten da, baina ahalik eta zehaztasun gehienez bilduko da. Azalpen geografiko edo historikoak ematen baditu, azalpen osoa bilduko genuke. Gainera lan berean behin baino gehiagotan agertzen bada toponimo bera, guk ere hala jasoko dugu, hainbatetan alegia.

4. Artxiboetako dokumentazioaren erauzketa

Artxiboetako dokumentazioa kontsultatu eta datuak erauztea da hurrengo lana. Lan honek denbora luze emango du, ikerketaren bi eren izaten baita. Baina jakina, hemen hautaketa zehatza egin behar da gehienetan ezin baita artxibo osoa epearen barruan aztertu.

Udal edo kontzejuaren artxiboa: Egotekotan emankorrena eta zenbait lekutan aztertzeke handiegia ere izan daitekeena. Segida diakronikoa egoteaz gain izenak testuinguru zehatzean ager daitezke. Ezin bada osorik aztertu zaharrenari emango diogu lehenetsua eta beste mendeotan lagin batzuk egingo ditugu.

Foru artxiboa: Bizkaiko kasuan korrejimendua da emankorrena Sutegiak eta Baso Liburuaz⁴ gain. Sutegiak bi aldiz argitaratu dira baina argitalpen bi horiek bigarren mailako iturriak dira.

Protokoloak: 1900 baino lehenago Notarioek egindako dokumentuak dira. Kasu batzuetan Jabetza Ganbara izango zenaren aurreko zerrendak daude. XVI. mendetik aurrera oso aberatsa izan daiteke, nahiz eta sarri astun samarra izan.

Jabetza Ganbara: XIX. mendearen erdialdean sortu zen. Lehenengo eta behin zerrenda alfabetikoak azter daitezke, eta gero beharra eta denbora izatekotan sarrerak. Hala ere, bertan sartzea ez da beti erraza izaten eta Akademia eta udalaren gutuna behar izaten da sartu ahal izateko.

Osagarri gisa beste artxiboak erabil daitezke, elizbarrutiarena, Valladolid edo Simancas. Elizbarrutiarena emankorra izan daiteke elizaren ondarez gain, eta ezin dugu ahanzi eliza lur askoren jabe izan zela, sarritan baserrien zerrendak agertzen direlako. Hala ere, genealogiazalez beterik egoten da, eta alde zurretik eskatu behar da txanda. Guztiarekin ere, Euskal Herrian ezin gara kexatu txukun eta kontsultagarri daudelako. Santanderreko elizbarrutiko artxiboa *Santillana del Mar*-en zegoen, astean hirutan irekitzen zen goizez. Sartzen lortzen baldin bazenuen, oso leku urria baitzegoen, artxibozainarekin mintzatzeko tornua zenuen klausurako moja baitzen.

Ezin dugu ahanzi lana ahalik eta zehatzen izan behar dela eta izenak idatzirik agertzen diren moduan jasotzeaz gain testuingurua ere bildu behar dugula ikerketarako baliagarria izan daitekeela uste baldin badugu:

[...] las heredades [Gardena baserriarenak] Sausolo, Seiguialana, lauguialana, Arteondoa y Amaguialana, que se hallan en un perímetro ó conjunto que contienen diez y siete mil setecientos metros cuadrados, confinnado por saliente con heredad de Aguirre barria [...] las heredades llamadas Madariaga-ondo, bosguialana, seiguialana y lauguialana que se hallan en un perímetro conjunto

⁴XVIII. Mendean eginiko *Libro de Montes* izenekoa.

[...] la heredad llamada Ugalde Solo que contiene cuatro mil ciento cuarenta y seis metros cuadrados de superficie y la sierra argomal Ugalde Sarra, que contiene cuatro mil ciento cuarenta y seis metros cuadrados, hallándose las dos en perímetro, confinan por saliente con pertenecidos de la casería llamada Echechu, correspondiente [...] y con iguales pertenecidos a la casería llamada Echechu, y con iguales pertenecidos de la casería llamada Mendoza osteingoa, correspondiente al referido Francisco de Barcena y de Echebarrisarra, del citado Bolloqui, por poniente con heredades de la casería de Madariaga propia de la misma [...]⁵

5. Hausnarketa eta datuen txukunketa.

Idatzizko iturriak hustean, ahal den neurrian datuak atontzen joango gara. Baina ikerketaren zati hau noizbait amaitu behar da eta aurrera segitzeko denboratxo bat behar da datuak txukun eta argi jarri eta aztertzeko. Azterketa honek balioko digu, batetik, hutsunerik dugun ala ez jakiteko, eta bestetik hurrengo zatia, ahozko bilketa, prestatzeko.

Txukunketa lana amaitzean izango dugu bildutako toponimo asko kokatuta bai hasieran egin genuen minuta toponimikoaren bitartez, bai testuinguruaren bidez, gorago ikusi bezala. Baina izango ditugu izen batzuk, edo asko, kokaturik gabe. Agian izango dugu baserri bat dokumentatuta, baina izen hori ez denez gaur egun erabiltzen ezin mapan kokatu.

Getxon, badira XVI. mendetik oso ongi dokumentatzen diren *Larrazabalatzekoa* eta *Larrazabalaurrekoa* baserriak. Gaur egun *Moreagatze* eta *Moreagaurre* deitzen dira, izen berri hauen lehenengo aipua 1939ko dela.

6. Ahozko bilketa

Ez dago ahozko bilketa egiteko erregela finkorik, norberak bere erarik erosoena asmatu edo aurkitu behar du, baina badira segitu behar diren puntu batzuk eta eman daitezkeen aholkuak.

Kronograma honetan argi utzi dugu ahozko bilketa, jendeak kontrakoa uste badu ere, ezin dugula hasieran egin, arrazoa erraza da ulertzen. Galdetu Mungiako bati zeintzuk udal daude Txorierrri eta Uribe Kostan edo Goierriko bati zeintzuk herrik osatzen dute eskualde hori. Nekez esango ditu guztiak ezagutzen baditu ere, bat-batean ez direlako izen guztiak gogoratzen. Beraz, ahozko bilketa ez da arratsalde batean egiten den solasaldi lasaia oso ongi presaturik eraman behar den lana baizik.

Informatzailearen hautaketa:

Urte batzuk jarduera honetan daramatzagunok Corominas eta bere garaiko ikerlari handiengandik ikasi genuen herri bateko toponimia biltzeko herrian

⁵Iratxe Lasak Erandion egindako bilketa.

bertain jaiotako gizona hautatu behar zela, ahal zela artzaina eta herritik irten ez zena. Konturatu behar gara nekazarien munduan emakumea ez zela basomutil, olagizon edo artzain izaten eta ondorioz ez duela basoa ezagutzen. Hau ez da toponimia ikerlarien uste hutsa. XX. mendearen hasieran egin ziren dialektologia lanetan arau bat zen emakumeei ez galdetzea, suposatzen baitzen basolan edo artzaintzaren ezagutza faltak galdera batzuk hutsik agertzea lekarkeela. Gure kasuan, gainera, euskalduna, nahiz eta euskara desagertzeko zorian egon.

Hau ez da zuzena!

Argi dago horrelako informatzaileak izaten direla neutroenak eta garai bateko toponimiaren isla emateko egokiak direla. Ondorioz, horrelakok izango dira gehienak. Baina haratago joan behar dugu. Dialektologian aritu direnek aspaldian deskubritu zuten emakumeen mintzairak gordetzen zituela gizonetzkoenak ez zituen berezitasunak eta horiek ere entzun eta ikertu behar zirela. Gure kasuan ez dirudi emakume eta gizonen toponimia desberdina denik eta lanean sexu banaketa egon den arren, ez dago bereizketa egiteko arrazoirik.

Oso interesgarria, baina bereziki zaila izango litzateke gizartetik alde batera bizi direnen toponimia ikertzea. Herri askotan egoten da familiaren bat gizartetik alde batera bizi dena. Sarritan bere euskara arkaikoagoa izaten da, eta modetatik urrunago bizitzean toponimia ere arkaikoagoa izan daiteke. Horiekin batera joan zirenen ahotsa ere entzutea aberasgarria litzateke. 18 edo 20 urterekin alde egin zuenak bere gaztaroko toponimia eraman zuen eta ez badu harreman handiegirik izan orain dela urte asko desagertu zen mundu baten berri emango digu. Neuk gogoan dut orain dela 20 bat urte, orduan 95 urteko aitaren osaba zaharrak Mexikotik bidaltzen zituen gutunetan txikitako oroitzapenak biltzen zituen. Gutun batean 1898 inguruan egindako bidaia baten berri ematen zigun, eta meatzariek jandako mendi bat deskribatzen zigun, benetan harrigarria izan zen guretzat gaur egun zulo ikaragarria dagoen lekuan haitz gorri bat zegoela jakitea.

Baina toponimia ez da hilda dagoen zerbait, bizi-bizirik dago eta horregatik komeniko litzateke beste iturri batzuk ere aztertzea.

Lehenago eta behin herriko erdaldunak. Herri guztietan, edo gehienetan, egoten dira familia batzuk bertakoak izan arren, erdaldunak direnak; batzuk azken belaunaldian erdaldundu dira eta beste batzuk berriz aspaldian. Interesgarria da oso horrelakoek euskal toponimia nola erabiltzen duten, euskaratik hartua edo erdaratik eta nola ahoskatzen dituzten, esaterako, erdaraz ez dauden soinuak. Seguruenik *Zarauz* gaztelaniaz esango dute, baina gerta liteke baserri izenak euskaraz erabiltzea eta *Imatzenea* edo *Beamakoselaya*.

Horiekin batera etorkinak ere aztertu beharko genituzke. Leioan Iratxek izan zuen lekuko on bat umetan Andaluziatik etorritako gizon bat izan zen. Erdalduna izan arren, baserri izenak euskaraz erabiltzen zituen.

Azkenik benetan interesgarria izango litzateke azken etorkinek nolako toponimia ikasi duten jakitea.

Horrenbeste lekuko aurkitzeko ezinbestekoa da herritarrek parte hartzea, eta hau bideratzea da Jarraipen batzordearen eginkizunetako bat. Baina ez bakarrik batzordearen lana, udalak lagundu egin behar dio batzorde honi behar diren baliabideekin. Udal batzuetan gutun bana igorri zitzaaien adin batetik aurrerako guztiei, besteetan aski izan zen Jarraipen batzordekoek ezagutzen zituztenekin sare bat antolatzea. Azkenean sare bat osatzen bada eta urliak emanda etortzen bazara

Metodologia:

Ero bakoitzak bere erotasuna dio esaera zaharrak eta hemen ere hala bada ere badira, gorago esan dudan bezala, bete behar diren gutxieneko baldintza batzuk.

Minuta toponimiak izen multzo bat eman zigun kokatuta, baina ezin dugu inondik inora pentsatu guztiak ongi kokaturik zeudenik. Kokaturik ditugun horietaz gain, badugu beste multzo bat dokumentazioan bildua. Batzuk kokatuta daude, lehenago ikusi dugun bezala; beste batzuk, berriz, erdi kokatuta eta azkenik banaka batzuk zeharo galdurik.

Beraz, izenak biltzera goazenean lau lan egin behar ditugu:

- Lehenengo eta behin egiaztatu behar dugu kokaturik ditugunak ongi kokatuta ditugula.
- Bigarrenik gutxi gora behera kokaturik ditugunak kokatu.
- Hirugarrenean zeharo galdurik ditugunak kokatzen ahalegintzea.
- Azkenik, izen berriak biltzea.

Eta praktikan nola egiten da lan hori?

Ez-jakinak pentsatuko du ahozko bilketa egitea baserriaren aurreko aldean solasean aritzea dela, baina erabat oker dabil. Bilketa hau fase desberdinetan egiten da eta gehienetan emankorrakoa da pertsona bi edo hiru, sekula ez gehiago, batera elkarriketatzea.

Gauzatzen den lehengo inkesta librea izango da, baina ez gara esku hutsen agertuko. Komeni da bi pertsona joatea, bat elkarriketaz arduratuko da eta bestea datuen bilketaz. Ahal dela elkarriketatutakoak adin berekoak eta ezagunak izan behar dira.

Leku izenak mapan dagozkion lekuetan kokatzeko hobe da kalean egotea, baina elkarriketa egiteko leku erosoak, eta mahai bat, behar da paper asko edukiko baitugu eskuartean. Beraz, ezin dugu arineketan eta edonola burutu. Lehenago lotu behar dugu lekukoekin eta patxadaz egin.

Izenak biltzeko bi euskarri erabil daitezke, ohiko mapa sestrakurbekin eta ortoargazkia. Biek dituzte alde on eta txarak. Pinuz landatutako leku menditsuetan zail da ortoargazkia erabiltzea, baina beste aldetik lursailak eta abar kokatzeko oso erabilgarria da.

Inportantea da, mapa edo argazkia den alde batera utzita, izenik ez agertzea lekukoek irakurtzeko eta ontzat emateko joera baitaukat. Gainera, zail izaten da lekukoek mapak ongi irakurtzen jakitea, eta hori dela-eta hobe da maparen gainean lanik ez egitea. Osagarri moduan mendi edo leku altuetatik egindako argazki panoramikoak eraman daitezke eta ordenagailuan ikusi. Eramango dugun mapan markaturik edukiko ditugu kokaturik ditugun izenak baina idatzi gabe, aski da dagokion zenbakia jartzea eta horrela kokapena egiaztatu ahal izango dugu. Kokatu gabekoez edo guk kokatuta ditugunak jaso ez ditugunez geroago galdetuko ditugu.

Izenez galdetzean zabaleraz ere galdetu behar da eta ahal bezain zehatzen adierazi mapa, toponimoen arteko jerarkia ongi azalduz. Ohikoa da mapen leiendan mailaketa txiki bat agertzea eta izen batzuk *aurkintza* direla esatea, sarritan tontorretatik berezita, baina hori ez da aski toponimia bilketa egitean. Mendian dauden izenen arteko harremana ez da beti berdina eta badira mendi malda osoa hartzen duten izenak eta oso eremu murrizta dutenak; hori ere islatu behar da, beti ere mugak oso zalantzakakoak direla ongi gogoratuz. Horrelako lehenengo saioa Jose Antonio Gonzalez Salazarrek eginiko *Cuadernos de Toponimia Alavesa* liburu sortan ikus dezakegu.

Aurrekoarekin batera leku mota ere bildu behar dugu, baina gehiegi larritu gabe, sarritan inortxok ere ez baitaki leku bat zer den. Horren ondorioz sailkapenak oso malguak izan behar du. Esate baterako jauregi izandako baserri bat gaur landetxea baldin bada nola arautuko dugu? Zentzuzkoena etxe moduan sailkatzea litzatekeela dirudi. Baina horrelako lanetan inoiz horrelako aukerak eman dira: *eraikuntza isolatuak, baserri, etxe, txalet, dorre, aterpe, borda, txabola; etxola, ukuilu, bestelako eraikuntzak* eta *aurria*. Eta gutxi balitz *errota, dorrea* eta *jauregia*. Aukera ez da makala!!!! Baina zailagoa da *lur-erabilerak* atala bertan honelako aukerak ditugu:

Basoak, baso edo oihan, zuhaitzi; arboladi, ibarbaso; zaldu, pagadi, harizti, artadi, ezkamezti, amezti, pinudi, pinu-sail, eukalipto-sail, bestelako landaketak, mintegi, sastraka, sastraka, etze; alfer-lur, otadi, ezpeldi, txilardi, abarizti, gurbizti, elordi, iratze-leku, lahardi, larre eta belardiak, larre, belardi; belai, saroi, soil-gune, kortabaso, lur landua, soro; alor, lehorreko lur, lur ureztatu, fruta-arbolak, olibadi, mahasti, ibar, baratze edo ortu eta larrain.

Argi dago hor agertzen diren erabilera batzuk oso zalantzakakoak direla eta gainera oso aldagarriak eta egiten ari garen lana amaitu baino lehenago bi aldiz alda daiteke eta pinudia zena egun ardentza edo sagastia izatea. Beste aldetik, Urkiolan dauden pagoei zein generiko dagokie? Zuhaitz motena: *pagadia*; erabilera: *atsedenlekua*; edo orografikoa: *ordokia*.

Aurrekoa ikusita askoz ere erabilgarriagoa den sailkapena proposatzen dugu. Hori bai, ahal dela benetako generikoa bildu behar da ahozko bilketa egitean, baina argia ez bada larritu gabe.

Gai hau huskeria dela pentsatu behar dugu, baina sailkapen honek auke-
ra ematen digu gero zerrendak sortzeko eta horregatik behar dugu.

Bilketa, ongi egin nahi badugu ezin da behin egin. Lehengo saioa izango da luzeena, baina gero etxean landu behar da ahoz bildutakoa eta horretarako dago grabagailua. Makinan honen erabilera ere landu behar dugu, komeni da «markak» jartzea, izenak arinago aurkitzeko eta geroago ulertu ahal izateko pistak ematea. Hau da ikerlariak azalpenak ematea bertan: *Madariaga zer da mendi horen magalean dagoen baserria?* Hori egiten ez badugu grabaketan *hor, han, atzean* eta abar ehundaka aldiz entzungo dugu.

Ahozko bilketan egoten den arazoetako bat kaletar eta baserritarren artean dagoen munduaren ikusmoldea da. Esate baterako, kaletar batentzat *Gorbeia* gurutzea duen lekutxo da; baserritar batentzat, berriz, leku hori *gaina* izango da *Gorbeia* osotasuna delako.

Landu eta gero ikusiko dugu gure zalantza asko argitu direla, baina beste batzuk ez daudela argitua horretarako dago bigarren saioa. Bigarren honetan galdera zuzenagoak egin ditzakegu eta izen zehatzez galdetu, ahal dela bertako hizkuntzara moldatuta. Esate baterako *Madariaga* izeneko lekua dokumentatu baldin badugu galdetzean *Madarixa* edo *Madaria* izenekorik ezagutzen ote duten galdetuko diegu.

7. Bildutakoaren azterketa eta hutsen bilketa eta zuzenketa

Bilketa amaitutzat ematean datu guztiak aztertuko ditugu eta lanaren behin behineko idazkia egin.

8. Tutoreari lehengo idazkia ematea.

Ikerlariak prestatuko du lanaren behin-behineko testua eta tutoreari pasatuko dio. Honek aztertuko du bildutako eta osatu behar dena azalduko dio. Horretaz gain, izenak ongi loturik ote dauden egiaztatu eta arautzeari ekingo dio.

9. Arautzea

Toponimiaren inguruan dagoen nahasketarik handienetako bat *arautzea* eta *normalizatzea* da, askotan gauza bera balira bezala erabili izan baititugu. *Arautzea* izenak nola idatzi behar diren zehaztean datza eta Akademiaren lana da. *Normalizatzea* izenak egoki erabiltzea da eta guztion lana da, bereziki herri agintariena eta Euskal Herrian euskaltzaleon lana.

Baina zer da izena normalizatuta egotea? Azaltzeko izen bi hartuko ditugu *Portugalete* eta *Aretxabaleta*. Izen bi hauek normalizatuta daude jendeak,

dagokion hizkuntzan, jakina, *Portu* edo *Atxabalta* baitarabil ahoz; baina idatzi behar duenean dagokion era arautua erabiltzen du. Ondorioz, izena normalizatuta egotea ez da mundu guztiak era arautua erabiltzea, izena egoki erabiltzea baizik. Hau erraz ikusten da mendez mende ofizialak izan diren hizkuntzetan, gaztelania edo ingelesean, esaterako. *Birmingham*, adibidez, erabat normalizatuta dago eta horregatik, normala den bezala, lagun artean *Bren* aldaera erabiltzen da. Batzuetan hizkuntza horietan ageri dira arauen kontrako izenak erabileraren poderioz araututa daudenak, adibidea da Nafarroako *Cordovilla*, etimologiaren ikuspuntutik *-b-* behar duena *Cordoba*-ren oihartzuna baitu.

Arautze lana askotan erraza da eta neurri handi batean eztaba daezina, baina kasu batzuetan zalantza egon daiteke, eta hori dela eta, behin-behinekoa izanen da gizartean aurkeztu eta adostasuna lortu arte. Proposatuko diren izen batzuen idazkera gogorra izan daiteke, baina jendea orokorrean uste baino azkarragoa da, eta ongi azalduz gero, prest egoten da idazkera horiek onartzeko. Jendeari esan behar zaio toponimia guztion ondarea dela eta ezin dugula galtzen utzi. Baina ezinbestekoa da proposamenak eta azalpenak hasiera-hasieratik ongi ematea.

10. Jendaurreko aurkezpena

Lana herriko toponimiaren harlauza izatea nahi ez badugu jendeak erabili behar du eta erabiltzeko horren berri izan behar du. Gainera, jendaurreko aurkezpen honek balio du, oraintsu esan legez, arautzea zabaltzeko.

Dena dela puntu hau geroago jorratuko du Felix Mugurutzak

Baliabideak: programa, grabagailua eta mapak

1) Access eta ECO

Urte hauetan ikasi dugun gauzetako bat ikertzailea tresna egokiez hornitzea da. Era berean, lan guztiak antzera egin behar dira, eta ahal den neurrian bateragarriak izan behar dute. Hori dela eta, Patxi Galé batzordekideak *access* erabiliz programa bat sortu zuen. Programa hau bateragarria da Euskaltzaindiak duen *ECO (Euskal Corpus Onomastikoa)* egitasmoarekin. Azken ikerketetan espresuki biltzen da ikerketa datutegi horretan biltzea.

Baina programa ez da soil-soilik sortu ikerketa egiteko, ahal den neurrian geroago erabiltzeko ere aurrakusi da.

Programaren sarrera



Hau da gure programaren sarrera, zazpi ataletan banatuta

Botoietan dagoen lekua oso mugatua denez ageri den testuak oso laburra izan behar du eta ikasi arte apur bat ulergaitza izan daiteke.

1. **Lan Tresnak.** Bertan aukera hauek ditugu:
 - a. **Leku fitxa.** Fitxa nagusia da eta hor ageri da lekuaren informazio guztia...
 - b. **Fitxak iragazi.** Aurreko fitxen gainean egiten dira iragazkiak kokapena, entitate mota edo hizkien bidez.
 - c. **Bilketa dokumentala 1.** Datutegi hau zuzen zuzenean erabiltzeko.
 - d. **Bilketa dokumentala 2.** Datutegira *excell*, *word* edo *accessen* bildutako datuak ekartzeko.
 - e. **Era zurtzak lotu.** Guk dokumentu batean izen bat topatzean biltzen dugu datutegian, honi **era** deitzen diogu baina ez dago dago-kion leku fitzarekin lotuta, horretarako erabiltzen da tresna hau.
 - f. **Id barrutika:** Aurrekoaren aldaera eremu zabaleko udalerrietan erabiltzeko.
 - g. **Loturak kudeatu.** Era eta leku fitxen arteko lotura kudeatzeko balio du. Besteak beste era bat leku birekin lotzeko aukera ematen du.
 - h. **Ahozko bilketa 1.** Datutegi hau zuzen-zuzenean erabiltzeko.
 - i. **Ahozko bilketa 2.** Datutegira *excell*, *word* edo *accessen* bildutako datuak ekartzeko.
 - j. **Ahozko zurtzak lotu.**

2. **Iturriak.** Bertan aukera bi daude:
 - a. **Iturri dokumentalak.** Iturrien fitxa da eta bertan *laburdura, zenbakia, egilea, izenburua, argitaletxea, lekua, data, oharrak, mota* eta *hustuta dagoen ala ez* biltzen da.
 - b. **Ahozko informatzaileak.** Aurrekoaren berdina.
3. **Iturrien txostenak.** Erabiltzen ari garen iturrien txostena automatikoki sortzeko prestatuta. Barruan ahozkoa eta idatzizkoak bereizten da:
 - a. **Idatzizko iturriak**
 - b. **Ahozko iturriak**
4. **Txostenak.** Barruan ondoko aukera daude:
 - a. **Leku guztiak.** Fitxa osoa eta jasotako eren laburpena sortzen ditu.
 - b. **Markatutako lekuak.** Markatu ditugun fitxa osoa eta jasotako eren laburpena sortzen ditu.
 - c. **Iragazitako txostenak.** Aurrekoak bezala baina aukera batzuk eginda: *kokapena, entitate geografikoa* (etxea, erreka...), aurreko biak batera, *aurrizkia, atzizkia* eta *hitz zatia*.
 - d. **Lekuen zerrenda.** Lekuen zerrenda alfabetikoa. Izenaz gain matrikula eta entitate mota ageriko da.
5. **Irudiak.** Argazkirik baldin badugu non dagoen jakiteko.
6. **Kodeketak.**
 - a. **Objektu geografiko(en) txostena.** Objektu geografikoen txostena oso lagungarria da datuak biltzen fitxa betetzeko.
 - b. **Barrutien txostena.** Euskal Herriko herri eta auzo guztiak agertzen dira. Normalki herri baten ikerketa egiteko herria eta ingurukoak baino ez dira agertzen erosoago lan egiteko.
7. **Glosarioa.**
 - a. **Sarrerak.**
 - b. **Glosarioa.**
 - c. **Glosarioa adibeduna.**

Leku fitxa

Ikerketaren oinarria da eta hasieran nahiko erabilgaitza bada ere geroago lana erraztuko du.



Fitxa honetan lekuaren datu guztiak biltzen dira. Barruan ageri diren leihotxoetan ahoz eta idatziz bildu diren erak ikusi eta kontsultatu ahal dira.

Fitxa honetan honako datuak ager daitezke:

- **Izena:** leku horrek izango duen izen arautua. Lana egiten den bitartean behin-behineko maila izango du: **Barrena (-a)**.
- **Matrikula:** Eskuinaldean ageri den zenbaki grisa. Ordenagailuak ematen du eta ezin da errepikatu.
- **Sinonimoak:** Leku horrek izan ditzakeen beste izenak, batzuetan jatorriaren aldaerak baina ez beti: **Arteaga, Barrenetxea, Mirandaetxea**.
- **Erdal era:** egotekotan gaztelaniazko izena.
- **Izen ofiziala:** Ez da gehienetan agertzen baiian zenbait kasutan izan dezakegu.
- **Objektua:** zenbakiaz eta azalpenaz osatuta: *1.301 Etxebizitza (Eraikuntzak)*.
- **Generikoa:** Bertan erabiltzen den izen generikoa. Iragazteko oso baliagarria.
- **Hizkuntza:** Hizkuntzalaritza alorreko oharrak jartzeko gunea.
- **Oharrak:** Historia, etnografia edo beste edozelako oharrak jartzeko lekua.

Eskuinaldean eta azpiko aldean beste informazio osagarriak agertzen dira: UTM koordinadak, maparen zenbakia, kokapena, araututa dagoen ala ez eta *marka*. Azken honek txosten bereziak sortzeko aukera ematen digu.

Lanaren hastapena administrazioak ofiziala duena izanen da eta leku berriak sortu ahala fitxa berriak egingo ditugu.

Bilketa dokumentala 1



Datuak sartzeko menu bi ditugu. Lehenengoa, datu solteak sartzeko erabiltzen da eta, bigarrena, berriz, beste programa erosoagoetan (*word* edo *excell*) egindako bilketa handiak sartzeko.

Testuingurua	Era	Iturrikoa	Urtea	Erreferentzia	Oharrrak	Non	Zer
...por la parte de avaxo el camino rreal que ba a las heredades de Ocorro e mas otra pieça que esta plantada mañanal en Boquçamendia.	Boquçamendia	25	1538	CO MEJ 308		3.4.00.110	1.600
...por arriba con eredades de la casa de Boquçamendia y sus dos castaños...	Boquçamendia	25	1614	CO UEJ 190		3.4.00.110	1.301
Yten el mañanal que assimismo tienen en el termino de boquçamendia que alinda con heredades...	Boquçamendia	25	1620	CO EEJ 642		3.4.00.110	1.600

Testuinguruak oso luzeak direnean hobe da testu sortzailea erabiltzea datutegietan deserosoa baita.

Era zurtzak lotu

Esan bezala bildu ditugun erak ordenagailuaren barruan egon arren lotu gabe daude «umezurtz» eta dagozkien leku fitxekin jarri behar ditugu harremanetan. Ahoz bildutako eretarako ere antzeko menua dago.

Menu honetan **Leku fitxaren** zati bat daukagu eta beheko aldean loturik ditugu eren ordeaz umezurtz dauden era guztiak ditugu. **Lotu** azpian dagoen botoia sakatuz gero eskuinaldeko laukitxoan leku fitxan ageri den matrikula azalduko da eta aurrerantzean era hori eta leku fitxa loturik agertuko dira.



Lotura gaizki egitekotan ez dago ardurarik. Fitxa nagusian askatu ahal dugu eta.

Leku fitxa eta era fitxa

Leku fitxen beheko aldean erak ditugu, baina ez ditugu azpi-fitxa horiek osorik ikusten pantaila mugatuta dagoelako. Ageri diren botoitxoetan sakatzen badugu fitxa osoa ikusteko parada izango dugu.



Beste horren beste egin ahal dugu **era**-ren fitxa bibliografikoarekin

Loturak kudeatu

Menu honen bidez loturak kudeatzen dugu eta aukera dugu aipu bat leku fitxa birekin lotzeko. Gogoratu behar dugu askotan izen batek gauza bi izendatzen dituela, baserria eta auzoa esaterako eta argi ez dagoenean leku biekin lotu behar dela.



Fitxa honetan garrantzitsuena ez da **Leku Fitxa**-an ageri den izena, dokumentatutako era baizik. Behean zein lekurekin lotu dugun ageri da eta eskuintaldean fitxaturik ditugun guztiak.

II) Erabiltzailearen programa

Lana amaitzen denean errazago erabiltzen eta aldatzeko aukera ematen ez duen bertsioa ematen zaio udalari nahi duen leku guztietan jartzeko. Bertsio hau txostenak errez sortzeko asmatu zen.

2. Beste baliabideak

Erabateko garrantzia duen beste baliabideetako bat grabagailua du. Deiker-ek Eusko Jaurlaritzarentzat burutu zuen Bizkaiko toponimia azken bilketan *Mindisk Sony* erabili zuten duen kalitate paregabearengatik. Tamalez, erabilera konplexuegia izan zen eta hiru ikerlarietatik batek arazoak izan zituen grabaketak eginahal izateko eta talde batek hirutan egin behar izan zituen grabaketak. Gaur egun ordenagailuan zuzen zuzenean konekta daitekeen Mp3 erabil daiteke lana merkatuz eta erraztuz.

Honetaz gain argazki kamara digitala behar da geroagoko lanak errazteko eta bilketa egiten laguntzeko.

Azkenik, mapak gogoratu behar ditugu. Orain arte ohikoena izan da toponimoak paperezko mapa baten gainean ematea, inoiz *pos-it* erabiliz. Gaur egun badira doako programak lan hau informatizaturik ematea bideragarri egiten dutenak, hala nola *Inkscape*.

g. Gizarteratze lanak

Puntu hau Felixek garatuko duenez ez naiz luzatuko. Bakar bakarrik azpimarratu nahi dut altxor hau zein dugula, inondik inora, udaletxean usteltzen utzi eta herritarrek ezagutzea eta erabiltzea lortu behar dugula.

Amaiera bano lehen eta gizalegeak agintzen duen bezala eskerrak eman nahi dizkiot Onomastika batzordekideei eta bereziki Patxi Galé eta Iratxe Lasari dokumentu hau garatzen emandako laguntza bikanrengatik.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

ARANBERRI ODRIUZOLA, FERNANDO. (2002): *Ermua-Eitzaga: Leku-izenak. Gure izanaren barrena*, Onomasticon Vasconiae 20, Euskaltzaindia, Bilbo.

BAÑALES, GOIO & GORROTXATEGI, MIKEL (2007): *Toponimia Histórica de Barakaldo*, San Antonio, Barakaldo.

- BAÑALES, GOIO & GORROTXATEGI, MIKEL (2008): *La pérdida de latoponimia vasca en el Valle de Somorrostro*, Salgai Editorial SL, Abanta-Zierbena.
- BARRENGOA ARBERAS, FEDERICO (1990): *Onomástica de la Tierra de Ayala* [3 tomos], Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.
- BELASKO ORTEGA, MIKEL (1999): *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*, Pamiela, Iruñea.
- CARO BAROJA, JULIO (1990): *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Txertoa, Donostia [1. edición (1945) Universidad de Salamanca].
- EHEVARRÍA ISUSQUIZA, ISABEL (1999): *Corpus de toponimia carranzana*, tesis doctoral, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- ELEIZALDE, KOLDO: «Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas» *RIEV* (192230) y *BRSVAP* (1963-1974).
- ELORTEGI, ANGEL M^a. (1992): *Pasaiako Toponimia*, *Onomasticon Vasconiae* 8, Euskaltzaindia, Donostia.
- ERRASTI, ALBERTO (2005): *Zaldutik Zaldibarrera toponimian barrena*, *Onomasticon Vasconiae* 24, Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA / REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA (1991): *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia*. Vitoria-Gasteiz, Abril de 1986 / *I. Onomastika Jardunaldien Agiriak, Toponimia*. Gasteiz, *Onomasticon Vasconiae* 4, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1991): *Actas de las II Jornadas de Onomástica*, (Orduña, septiembre de 1987). *II Onomastika Jardunaldien Agiriak* (Urduña, 1987ko iraila), *Onomasticon Vasconiae* 17, Euskaltzaindia, Bilbo.
- FURUNDARENA SALSAMENDI, JOXE JAVIER (2002): *Hondarribiko toponimia*, *Onomasticon Vasconiae* 23, Euskaltzaindia, Donostia
- GALÉ GARCÍA, PATXI (2000): *Catálogo de Cimas de Bizkaia / Bizkaiako Gailurren katalogoa*, BFA, Bilbo.
- (2007): Toponimia ikerketak, *FLV*, 104, 161-172 or.
- (2008): Los Mapas representación o ficción (II). El estudio de la toponimia, *Pyrenaica* 232.
- GOIKOETXEA GAZPIO, IRMA (2007): *Tolosako leku izenak*, Tolosako Udala.
- GONZALEZ SALAZAR, José Antonio (1985): *Toponimia menor de Treviño*. (Cuadernos de Toponimia, 1), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

- (1986): *Toponimia de la Montaña Alavesa* (Cuadernos de Toponimia, 2), Diputación Foral de Álava, Servicio de Publicaciones, Gasteiz.
- (1986): *Toponimia menor de la Rioja alavesa* (Cuadernos de Toponimia, 3), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.
- (1987): *Toponimia menor de Salvatierra* (Cuadernos de Toponimia, 4), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.
- (1988): *Toponimia menor de Vitoria/Gasteiz* (Cuadernos de Toponimia, 5), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.
- *Toponimia menor de Añana* (Cuadernos de Toponimia, 6), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.
- (1996): *Toponimia menor de Zuia* (Cuadernos de Toponimia; 7), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.
- (1998): *Toponimia menor de Ayala* (Cuadernos de Toponimia; 8), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.
- GORROTXATEGI NIETO, MIKEL (2008): «Metodología en trabajos de toponimia local, la experiencia de Euskal Herria», *III Seminari de Metodologia en Toponimia i Normalització Lingüística (2007)*. Universitat de les Illes Balears, Palma, 2008.
- GORROTXATEGI NIETO, MIKEL & SALABERRI, PATXI (2001): «Toponimia txikia arautzeko irizpideak», *Euskera* 45, 273-314.
- GORROTXATEGI NIETO, MIKEL & SUSO OTXOA, SOFIA (2005): *Getxoko Leku Izenak*, Getxoko Udala / Ayuntamiento de Getxo.
- IÑIGO, ANDRES (1996): *Toponomástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín*, Gobierno de Navarra, Iruñea.
- (2000): «Nombres de oficios en la oiconimia navarra», *FLV* 83, 139-149.
- JIMENO JURÍO, JOSÉ MARÍA (1987): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Onomasticon Vasconiae 2, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1989-B): *Toponimia Histórico-etnográfica de Tafalla (THET)*, 1987, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.
- (1989-c): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Onomasticon Vasconiae 3, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1990): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Onomasticon Vasconiae, 6, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (zuzendari) (1991): *Nafarroa. Toponimia eta Mapagintza. Navarra. Toponimia y Cartografía*, 2. argitalpena, Iruñea.

- (1991-b): *Estudio Toponímico de Burlada*, Burlatako Udala / Ayuntamiento de Burlada, Iruña.
- (1992): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoáin*, Onomasticon Vasconiae 9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1993): «Arga et Runa flumen», *FLV* 64, 1993, 507-519.
- (1997): *Navarra. Historia del euskera*, Txalaparta, Tafalla.
- (1998): «Estella / Lizarra. Toponimia», *FLV* 77, 133-162.
- JIMENO JURÍO, JOSÉ MARÍA & SALABERRI ZARATIEGI, PATXI (1994): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Onomasticon Vasconiae 12, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1998): *Artajona. Toponimia Vasca / Artaxoa. Euskal Toponimia*, Al-taffaylla Kultur Taldea & Nafarroako Gobernua & Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona.
- KEREXETA GALLASTEGI, JAIME (1992): *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Estudios de etnología y etnografía 2, Labayru ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo.
- KNÖRR BORRÁS, HENRIKE: «Para una delimitación etno-lingüística Álava antigua. Ensayo de cartografía a partir de pruebas toponímicas *La formación de Álava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga 1982*», AFA, Gasteiz, 1985, I (Ponentziak), 691
- LÓPEZ DE GUEREÑU, G. (1989): *Toponimia alavesa seguido de mortuorios y despoblados y pueblos alaveses*, Onomasticon Vasconiae 5, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989.
- MITXELENA ELIZALT, KOLDO (1997): *Apellidos vascos*, Txertoa, Donostia [primera edición (1953) Biblioteca Vascongada de Amigos del País, Donostia].
- MUGURUTZA MONTALBÁN, FELIX (1997): *Laudioko 200 izen: luces y sombras de nuestra toponimia*, BAI, 17, Arabako Foru Aldundia & Laudioko Udala & Vital Kutxa, Laudio.
- ORMAETXEA, JOSÉ LUIS (1996): *Arrasateko Toponimia*, Euskaltzaindia, Onomasticon Vasconiae 15, Euskaltzaindia, Bilbo.
- PAVO NUÑEZ, KRISTINA (2005): *Antzuolako toponimia*, Euskaltzaindia, Onomasticon Vasconiae 24, Euskaltzaindia, Bilbo.
- SALABERRI ZARATIEGI, PATXI (1994): *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*, Onomasticon Vasconiae 11, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1994-b): «Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskarazko ize-naz-II», *FLV* 67, 451-466.

- (1996): «Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan: Artaxonako jabego genitiboaz eta bestez», en *FLV* 72, 223-234.
- (1997): «Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)», *FLV* 74, 7-39.
- (1997-c): «Nafarroako Toponimia Nagusiaren Normalizaziorako Irizpideak», *Euskera* 1997-3, 653-666, «Criterios para la Normalización de la Toponimia Mayor de Navarra» izenpean itzulua, *Fontes Linguae Vasconum* 79, 1998, 363-376.
- TELLABIDE, JOSU (1995): *Donostiako Toponimi Erregistroa / Registro Toponímico Donostiarra*, Gipuzkoa-Donostia Kutxa, Donostia.
- TERRADO, JAVIER (1999): *Metodología de la investigación en toponimia*, Zaragoza.
- UGARTE, JOSE LUIS (1998): *Urretxu eta Zumarragako toponimia*, *Onomasticon Vasconiae* 18, Euskaltzaindia.
- USABIAGA, AMAIA (1993): *Andoaingo toponimia*, *Onomasticon Vasconiae* 10, Euskaltzaindia & Andoaingo Udala.

TOPONIMIA ADMINISTRAZIOAN

Euskaltzaindia - EUDEL

Durango, 2009-VI-04

KALE IZENDEGIAK

Izenak hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko arauak

Mikel Gorrotxategi

0. ATARIKOAK

Testu honen helburua udal agintari, langile zein hiritarrei kale izendegiak erabiltzeko tresna ematea da. Lehengoan kasuan arautzeko eta finkatzeko baliagarriak diren hainbat aholku eta arau emango zaie. Bigarrenei berriz erabiltzeko oinarri batzuk. Oinarria Onomastika batzordeak irizpideak badira ere oraingo idazki honetan haratago joateko asmoa izan dugu eta araez gain bestelako aholku eta nazioarteko erabilerak ere aipatuko ditugu, lagungarriak izango direlakoan.

Beraz, ez dugu hemen hizkuntza araugintza soilik landuko, bestelako aholku eta gomendio ere emango baitugu.

a) Izenen aukeraketa, Toponimoak <edo> pertsona izenak?

Izendegi bat osatzean lehenengo puntua izenen aukeraketa da. Euskal Herrian ez dago hori arautzen duen legerik, baina nazioartean badira lege batzuk nola edo hala alde hau ukitzen dutenak.

- **Gomendio nagusia tokian tokiko izenak (toponimoak) erabiltzea da.** 2007an Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuen 9. Konferentziak ebazpenean toponimoak kultura-ondare ukiezinaren parte direla zehazten du.¹
- **Ondorioz pertsona izenen erabilera murriztu beharko litzateke,** Nazio Batuen aholkuz jarraiki. Aipatutako erakundeak bi proposamen ditu, bizi diren izenak ez erabiltzea eta heriotzatik erabili arte epe bat jartzea.²

¹(UNGEGN, *United Nations Group of Experts on Geographical Names*). <http://unstats.un.org/unsd/geoinfo/>

²Noting that little guidance exists on the practice of adopting a personal name during the lifetime or shortly after the death of a person,

1. Recommends that the appropriate national authorities discourage the use of personal names to designate a geographical feature during the lifetime of the person in question;

Bigarren arau hori leku askotan dago indarrean EE.BB-etan eta Kanadan, besteak beste, debekatuta dago legez bizirik dagoen inoren izena erabiltzea. Lehenengo kasuan hamar urte eman behar dira hiltzen denetik izena erabili arte, Kanadan berriz urte osoa nahikoa da espedienteari ekiteko. Suitzan eta Nicaraguan ere antzeko legediak daude. Lege hauen helburua jende ezagunaren, kirlarrien, kantarien eta abarren heriotzak dakarren beroaldia baretzea da.

Espainiako Erresuman, ostera ez dago horrelako araurik eta nahiko arrunta da apur bat ezaguna den edonori jatorrizko herrian kaleak eskaintzea, maiz omenduak berak inauguratzen duena.³

b) Estandarizaioa zertarako?

Toponimia hizkuntzaren esparru berezia da arrazoi askorengatik. Herritarrengandik oso hurbil egonik jendeak «bere» egiteko ohitura du eta ondorioz, sarriegi, txokokerietan erortzeko arriskua dago. Hau saihestu behar eta jendea-ri izenak arautu behar direla jakinarazteaz gain arautze hori ez dela nork bere etxean egin beharreko zerbait azaldu behar zaio. Baina, gure herrian maizegi pentsatu izan dugu arautzea dela helburua eta ahoz erabiltzen zena baztertu behar zela. Hau, jakina, ez da horrela.

Baina Nazio Batuek azpimarratu dute estandarizazioaren beharra, besteak beste, arrazoi praktikoengatik. Baina ez da bakarrik, eta hemen aipatutako gomendio horiek labur gelditzen dira, arautu behar, **normalizatu** ere egin behar da.

Aurreko ikastaroan aipatu genuen arautzea ez dela normalizatzea eta kontzeptu bi horiek argi eduko behar dira.

Arautzea maila landuari dagokio, idazteari batik bat, eta izen horiek erabilera estandarra finkatzean datza: *Bilbo* edo *Idiazabal*.

Normalizatzea izenaren egoera soziolingusitikoari dagokio eta izen hori ongi erabiltzea litzateke. Lehen aipatutako kasuetan *Idiazabal* ongi normaliza-

2. Also recommends that the appropriate national authorities include in their guidelines clear statements on the length of the waiting period they wish to establish before using a commemorative name.

[http://unstats.un.org/unsd/geoinfo/uncsgn/RES%20\(UN\)%20E%20updated%20\(1-9%20CONF\).pdf](http://unstats.un.org/unsd/geoinfo/uncsgn/RES%20(UN)%20E%20updated%20(1-9%20CONF).pdf)

³Torrenjon de Ardoz herrian salbuespen moduan ikusten da bizi den bati kale bat eskaintzea: Con carácter general, deberá respetarse la denominación originaria de la nomenclatura de las vías públicas. (...)

Los nombres pueden ser personales. Así, se puede dedicar el nombre de una calle a personas en vida, aunque se considerará una excepción a la regla general, que consiste en dedicar los nombres de las calles a personas fallecidas.

<http://www.ayto-torrejondevelasco.es/docsBD/ordenanzas/31.pdf>

tuta dago, Hitzunek ezagutu eta erabiltzen dute, nahiz eta inguruan ahoz *Izaal* modukoak arruntak izan. Izena ofiziala ere bada. *Bilbo*, ere, nahiko normalizatuta dago, nahiz eta, harrigarria bada ere, ofiziala ez izan.

Nazio Batuetako Izen Geografikoetako Aditu Taldearen arabera (GENUNG), nazioarteko esparruan ez ezik, esparru nazionalan edo lokalean ere izen geografiko zuzenak izatea funtsezkoa da, datu geografikoak zenbait tes-tuingurutan hobeto ustiatzeko⁴:

- plangintza jasangarriko estrategietan
- garapen ekonomikoan
- ingurumen-kudeaketan
- banaketa-zerbitzu kolektiboen azpiegiturretan
- biztanleriaren erroldetan eta estatistiketan
- jabetza-eskubideetan eta katastroan
- larrialdi eta giza laguntzako zerbitzuen koordinazioan
- merkataritzan eta turismoan
- ondare kulturalaren eta naturalaren sustapenean
- komunikabideetan mapak, atlasak eta nabigazio-mapak egitean.

c) Proposamenak egiteko aukerak

Sarritan udalak kale bat eraikitzean izenaren hautaketa prozesuaren amaieran gauzatzen da arin eta irizpiderik gabe. Herriko toponimia bilduta dagoen kasuetan erraza izaten da izen egokia aurkitzea bai lanean bertan begiratuta bai egileari berari kontsulta egin eta gero, baina beti ez dago aukera hori.

Biderik eraginkorrena Hirigintzara jotzea da. Bertan, kalea eraikitzeko espedientearen barruan edukitzen dituzte espropiatutako lurren dokumentazioa eta izenak agertzen dira. Bat baino gehiago ageriko balitz egokiena hautatu beharko litzateke. Izena aukeratze lan horren barruan idazkera egokia zein den ere aztertu beharko dugu horretarako Euskaltzaindiak argitaratu zituen irizpideak hartuta edo, zuzen zuzenean Onomastika zerbitzura joz.

Baina batzuetan horrela ez dugu ezer lortuko, izenak ez dagoelako edo agertzen direnek erabiltzeko aukerarik ematen ez dutelako. Bai jadanik erabiltuta daudelako, bai generikoegiak direlako (*Etxaurre*, *Etxazpi*...) Horrelako egoeretako beste bidea eduki behar da. Eredua izan zen garai batean Getxo. Bertako toponimoak erabiltzen zituzten kale berriak izendatzeko eta izenik ez zegoenean herrian bertan galdutakoak berreskuratzen zituzten, hala nola de-

Txosten hartan, normala den bezala, Onomastika batzordeak emandako arautze-irizpideak hartu ziren oinarri bezala⁴. Irizpideok liburuaren bibliografian (22. or.) eta ohar argigarriren batean aipatzen badira ere (v.g. 27. or., 37. oharra), modu anekdotikoan baizik ez ziren aintzat hartu leku-izenen arauzko proposamenak formulatzean. Aitzitik, ikertzaileek nahiago izan zuten ikasketetan jasotako ezagutzetan oinarri hartu –nahiz, jakina denez, Filologia fakultateetan onomastikari garrantzi eskasa ematen zaion– eta lan zehatz honetarako

³Bermeoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2005eko azaroaren 7an hartutako erabakia, azaroaren 21ean Euskaltzaindiari jakinarazia (5342 irteera erregistroa). Jakinarazpeneko laugarren aurrekarian, 2004ko udan ikerketa lana «ia» amaitu eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordera bidali zela esaten da eta «hizkuntza erispidetan» [sic] zenbait desadostasun direla eta, «horrek ia urtebeteko etena ekarri» duela.

⁴GORROTXATEGI NIETO, Mikel & SALABERRI ZARATIEGI, Patxi: «Toponimia txikia arautzeko irizpideak», *Euskera*, XLV (2000, 1), 273-314, Euskaltzaindia, Bilbo.

beren beregi irizpide multzoa osatu. Beste nonbait kritikatu egin dugu iker-tzaileek bakardaderako duten joera hau, baita arautze irizpideak nahiz meto-dologiak *ex nihilo* sortu nahi izate hori ere, eta ez gara, beraz, ostera ere han esandakoak errepikatuko⁵.

Metodologia izenburua daraman atal oso bat dugu liburuaren hastapeneko orrietan. Hala ere, beharrezko hausnarketa metodologikoak aurkeztu ordez, datu iturri izango diren informatzaileak eta lanak nahiz multzo dokumentalak lerrotatzen dira, batez ere, atal horretan. Iturriak ordena horretan aipatuak izatea bera ere oker metodologiko baten isla da. Eta orobat esan daiteke, leku-fitxetan ahozko informazioa datu dokumentalak baino lehenago –eta letra molde handiagoz– aurkezteaz. Argi erakusten du lanaren egileen espiritua «etnografikoa» izan dela, normalizatzailea baino gehiago, hots, kezka handi-goa izan dutela gaurko erabilera(k) jasotzeko, etorkizuneko euskara jaso eta normalizatuan leku-izen horiek izan behar duten tratamendua eta erabilera proposatzeko baino. Toponimia ikerketek, ordea, azken helburu hori izan ohi dute bereziki, ahozko erabilera, berez, bizirik dagoelako, baina euskara *de facto* ez dagoelako normalizatu edo, bestela esanda, ez daukalako erreferen-tziako eredu kulturik. Hizkuntza arruntean alor hori nahikoa jorratu den arren –uzta ere oparoa da, XX. mendearen bigarren erdiko literaturaren produkzioan ikus daitekeenez–, euskal izen berezien atala, oraingoz, oso urrun dago egiazko normalizaziotik. Lekuan lekuko bereizkeriak jasotzea ongi dagoela ez dugu ukatuko, baina euskarari falta zaiona eredu jasoa da. Eta horixe da eraiki behar duguna euskara hizkuntza normalizatu izatea nahi badugu bederen, euskal hiritarren komunikaziorako gai, alegia.

Bereziki esanguratsua da, *Normalizaziorako irizpideak* izeneko atalaren barruan, artikulua eta bokal paragogikoaren azterketa (78-102 orr.), urtebete lehenago idatzi eta argitaratu izana⁶. Bitxia egiten zaigu, halaber, Gidor Bilbaoren hitzaurrean (9. or.) bi gai hauetaz ari dela, «beste inongo datuekin egin gabe zegoen orain arte» irakurtzea. Hizkuntza Politika Sailburuordetzak Autonomia Erkidegoko toponimiaren ikerketa egiteko lan batzuetarako deialdia egin du 1986tik hona. Deustuko Unibertsitateko *Deiker* institutuak hartu ditu egiteko horiek bere gain, Nerea Mujika Ulazia irakaslearen zuzendaritzapean. Bizkaikoa zenbait epetan egin da eta azkenekoa 2001-2003 ekitaldia dugu. Lan haren ondorioz, Bizkaiko toponimia corpus zabal batean oinarri hartuta⁷, arau-tze irizpide zehatzago batzuk proposatu zituen bertan lanean aritutako hizkun-

⁵Informazio gehiago nahi duenak, honako artikulua honetan aurki ditzake lan honi egotz dakizkiokeen zenbait kontu: GALÉ GARCÍA, Patxi: «Toponimia ikerketak zergatik, zertarako», *FLV*, XXXIX urtea, 104 zenbakia, 2007ko urtarrila-apirila, 161-172. orr.

⁶ALLIKA AZPEITIA, Iruñe: «Artikulua eta bokal paragogikoa Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketatik abiatuta», *Uztaro, giza eta gizarte zientzien aldizkaria on line*, 56 (2006), 53-84. orr., Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea.

⁷Lan haren muntaz ideia bat egiteko, kontuan izan bedi Bizkaiko 25.000 leku-izenen arauzko grafia ezarri zela eta, haiek erabakitze, 106.000 ahozko lekukotza inguru eta 200.000 era dokumental jaso zirela datu-basean.

tzalari taldeak, mendebaldeko euskalkiaren ezaugarri askok ez baitziren ageri gorago aipatu dugun «Toponimia txikia arautzeko irizpideak» izeneko dokumentuan. Lana amaitutakoan, irizpide horiek emendatuak, osatuak eta zuzenduak izan ziren Euskaltzaindiaren Onomastika batzordean eta kontsultagai daude HPSren web orrian⁸.

Lanaren bertsio haren zuzenketarako egin genituen proposamenak eztabaidatu asmoz, 2005eko uztailaren 13an elkartu ziren Euskaltzaindiko egoitzan, Bilbon, Iruñe Allika eta Bitor Uriarte ikertzaileak, Onomastika batzordeko idazkari Mikel Gorrotxategi, txostenaren egile Patxi Galé, eta Bermeoko hizkuntza teknikari Maite Alvarez de Zarate. Egun horretakoa izan zuten Euskaltzaindiarekin ikertzaileek lehenbiziko eta azkeneko kontaktua. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko arautze-irizpideekin zenbait desadostasunen berri eman zuten egileek eta, zer egin erabakiko zutelakoan amaitu zen bilera. Aipatzekoa da, bilera horretan izan zutela Allikak eta Uriartek gorago aipatu ditugun Bizkaiko toponimiarako arautze-irizpideen lehenbiziko albistea. Bermeoko toponimia lanaz Euskaltzaindian izan genuen hurrengo albistea udalaren erabakia izan zen, zeinetan udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki baitzuen Euskaltzaindiak eginiko zuzenketa proposamenak baztertu eta lana «dagoen moduan ontzat hartzea, bekadunek egin daben proposamenaren arabera» eta «izen toponimoak horri jarraituta ofizialtzea eta argitaratzea».

Orduko alkate jaunak lanari egindako hitzaurrean, honako hau irakur daiteke: «Beste helburu bat da toponimoak normalizatzea eta egungo euskearearen arau eta moldeetara ekartea. Eta liburu honetan batu diranak izango dira, hain zuzen be, ofizialak eta normalizatuko diranak» (7. or.). *Normalizatu* hitzaren ostean, ordea, bi adiera ezkutatu eta, maiz, nahasi ohi dira. Alde batetik, hizkuntzaren arauak betearazirik, izen horien arauko idazkera eta erabilera da normalizatzea. Zeregin akademikoa, nolabait, euskarak bereziki behar duena eta, gure artean maiz *normatibizatu* edo *arautu* aditzez adierazi ohi duguna. Bigarrenik, normalizatzek badu berezko adiera soziologikoagoa, toponimiaren erabiltzaileen artean, izen batzuk *normal* bihurtzea iradokitzen diguna. Azken helburu honekin, izenak ofizial egitea, mapetan nahiz seinaleztapenetan paratzea, eskoletan irakastea eta abar, prozedura egokiak eta eraginkorrak izan ohi dira, hizkuntzaren normalizazioaren lagungarri. Bermeoko toponimiaren kasuan, ordea, araukoak ez diren izen batzuk bihurtu zituen udalak ofizial eta, horren ondorioz, zuzenak ez diren hainbat toponimoren idazkera *normal* bilakatzeko urrats eraginkorra eman zuen. Gure kritika honetan, hizkuntza nazionala erabili eta erabilgarri bihurtu nahi dutenentzat –haien artean bermeotar asko ere egongo direlakoan gaude–, Bermeoko leku-izenak euskaraz nola idatzi eta erabili behar diren eman nahi dugu aditzera.

⁸ «Euskaltzaindiaren irizpideak. Erabilera eta oharrak», http://euskadi.net/euskara_toponimia

Normalizazio soziologiko hartarako, balio handiko tresna izan daiteke toponimia ikerketa jasotzen duen liburu monografikoa ere. Eta bide horixe hartu zuen udalak, helburu traketsez izan arren. Nolanahi ere, lana paper euskarrian kalean ikusi artean ia bi urte pasatu behar izan ziren, edizioak 2007ko apirilko data darama eta. Geure aldetik, 30 €-tan erosi genuen ale bat Euskaltzaindiaren egoitzatik hurbil dagoen liburu dendan eta ale hori bera da esku artean erabili duguna lanaren azterketa kritiko hau egiteko.

METODOLOGIA

Gorago ere aipatu dugun bezala, izenburu hori daraman atalean (15-42. orr.) ez dugu aurkitzen metodologiekkin zerikusia duen apenas ezer. Datu iturrien lerrokada ematen da batez ere eta, beraz, egokiagoa izango litzateke *bibliografia* edo *datu iturriak* jartzea izenburu bezala. *Idatzizko iturrien metodologia* izenburupean, erauzitako iturrien zerrenda ematen zaigu bakarrik. Ez dago kontsiderazio metodologikorik bat ere. Honi gagozkiola, ez dugu aurkitu jatorri anitzeko idatzizko informazio hori guztia kudeatzeko baliabideen berririk: zer nolako datu-basea erabili den, nolako tresna aplikatuak sortu diren eta abarrak lagungarri izaten baitira beste ikertzaile batzuentzat, ikerkuntzaren aurrerapidea bilatzen badute behinik behin...

Informazioa fitxetan aurkezteko moduan –baita *ahozkoaren metodologia* (15-18. orr.) *idatzizko iturrien metodologia* (18-40. orr.) baino lehenago agertzeko hurrenkeran ere– oso nabarmena da ahozko informazioari eman nahi izan zaion lehentasuna. Begi bistakoa da ikerketan jasotako corpusaren atalik handiena eta iturri kopururik garrantzizkoena, idatzizko erregistroari dagokio. Gainera, idatzizko iturrien erauzketa ahozko bilketa baino lehenago egin ohi da, ahozko erabileran zer bilatu behar duen aurretiaz jakin behar baitu ikertzaileak. Kronologikoki ere, idatzizko erak ahozkoak baino lehenagokoak izan ohi dira, eta toponimoaren tradizio idatziaren berri ematen digute, azken hauek ez bezala. Hau guztia gutxi balitz, lanaren azken emaitza eta helburua toponimoen normalizazio proposamenak dira, idatzizko era zuzenak zeintzuk diren erabakitzea, alegia. Horiek horrela, ez da naturala itxurazko aurkezpenean ahozko erregistroari lehentasuna kosta ahala kosta eman nahi izate hori. Liburuak dakartzan fitxetan ere, buruan ageri den lema nagusiaren ondoren, lehentasun tipografikoa ahoz bildutako erei ematen zaie, «azpilema» balira bezala. Lehentasun tipografiko honek gauzak «esaten diren bezala» idaztea zilegi delako uste okerrera eraman dezake liburuaren erabiltzailea. Orain arteko argitalpenetan ez dugu inoiz halakorik ikusi.

Dena dela, ahozkoen kasuan berriemaileak nola bilatu diren eta grabazio lanak nola egin diren deskribatzen zaigu eta XX. mende hasierako folkloristek jarraituriko metodo etnografiko tradizionalen bideak aukeratu direla ikusten dugu. Hortaz, ez dugu ekarpen berririk aurkituko. Hala ere, metodo horien

bidez lortutako datuak baliagarriak izan ohi dira eta, beraz, ontzat eman daiteke metodologia hura. Gabeziak ere ekartzen ditu, ordea. Adibidez, zalantza gelditzen zaigu ez ote zen bermeotar erdalduunik elkarrizketatu behar. Lagin soziologiko hori⁹ aintzat ez hartzearen arrazoirik ez dugu aipatua ikusten lanean, baina kontuan ez hartzea bera metodologia baino harago doan hautua da... Edozein kasutan, toponimoen gaztelaniazko erabilera nolakoa den ezagutzeari ez da alferrikako datua, ezta izenen euskarazko grafia arauzkoa erabakitzeko ere, adibidez, generikoen lexikalizazio mailaren berri ematen digutelako¹⁰.

Metodologia alorreko teknika berri interesgarriak eza ere antzematen dugu, esan bezala, euskal etnografia eskola zaharkituaren parametroetan mugitu baitira ikertzaileak. Inkesten kontuan, adibidez, oso interes handikoa izan zitekeen aspalditik herritik urrun bizi den emigratutako informatzailearen bati galdeketa egitea. Gerraurrean Ameriketara joandako bermeotar bati herriko leku-izenak galdetzean, asko ahaztuak izango lituzke, baina seguru gaude, gaur egun Bermeon esaten diren izenetatik urrun samar egongo litzatekeela haren erabilera, tradizio idatzitik hurbilago, segur aski. Datu horiek, agian, ez ziratekeen ikertzaileen gustukoak izango, Bermeoko euskaldunen ahozko usadioak azken aldian zenbat aldatu diren –eta zergatik– ez dutelako ikergai... Teknologia berrien erabilera ere ez da behar beste aprobetxatu. Grabagailu modernoaz gainera, argazki digitalak ere erabil daitezke toponimia inkestetan, batez ere ikerketaren amaierako zalantzak argitze aldera. Toponimiaren normalizazioa eta haren gaineko *consensusa* erraztu dezaketen eztabaida taldeak eta baliabide partehartzaileak ere ez dira abian jarri Bermeon. Azken urteetako zenbait toponimia ikerketatan era horretako dinamika batzuk erabili dira eta emaitzak beti izan dira eskertzekoak. Ikerketaren emaitza plazaratu aurretik, aurkezpena eta mapen erakusketa publikoa egitea interesgarria izaten da, herritarrek beren ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Maiz uste baino datu berri gehiago jaso ohi dira halakoetatik. Erakusketa horrek proposatu nahi diren arauzko eren gaineko desadostasunak agertzeko ere balio dezake eta era honetan, eztabaida *adituen* esku eskusiboetan utzi ordez, kalera irteten da eta arrazoia trukatzeko foro aberasgarri bilaka daiteke. Zenbait kasutan, helburu desberdinak bilatzen dituzten erabiltzaile nahiz diziplina anitzetako ikertzaile estrategikoeekin ere eztabaida foroak antolatzea interesgarria gerta daiteke, optika eta arrazoibide desberdinak ezagutzeko aukera ematen baitiote elkarri... Dinamika partehartzaile horiek guztiak *normal* bihurtu nahi dugun herriko izendegia erabaki baino lehen abiatu behar lirateke, ez ondoren.

⁹2006an argitara emandako azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, Bermeoko erdalduen multzoa populazioaren % 12 eta 20 artekoa da.

¹⁰Adibidez, idatzizko datu historikoen argitara, baso baten arauzko izena euskaraz *Atxanarro* ala *Atxanarrobaso* bezala emateko aukera –eta zalantza– badugu, gaztelaniazko erabilerak aditzera eman diezaguke *-baso* generiko horren ezinbestekotasunaren berri. Euskal hiztunen erabilera ikusirik, *Atxanarrobaso* proposatu den arren (424. or.), agian ez genuke berdin jokatuko erdal informatzaile batek *monte de Atxanarro* izena eman izan baligu.

ARAUTZE IRIZPIDEAK

Gidor Bilbaoren *Sarrerako hitzak* izeneko atalean (9.orr.) egileek ondo hausnartu eta zehaztu omen dituzten «normalizazio irizpideen» balioa azpimarratzen zaigu. Gure ustez, ordea, ikerketa lan honetan *normalizazio* adierazpidearen atzean zer ote dagoen ez da behar bezala hausnartu. Era honetan, lanaren helburu nagusietarikoa izan behar litzatekeen izen berezi horien era jasoaren finkatzea, egin gabe gelditu ez ezik, beste irizpide batzuekin talkan dauden idazkerak ere eman dira arauzkotzat eta, ondorioz, gure toponimiaren panorama gehiago lardaskatzen datoz. Gauza jakina da euskara jasoaren «eraikuntza» eginbidean dagoen zerbait dela. Duela gutxira arte, euskara ikasketarik gabeko *aldeano* iletratuen hizkuntza zen. Gure nagusiek ondo barneraturik daukate sentipen hori, beren kulturaz lotsatuta sentiarazten zituen eta oraindion ere batzuk sentiarazten dituen. Baina egia da euskarak ez duela orain arte goi mailako egitekorik bete, hizkuntza jasoari dagozkion eginbeharrak betetzeko gaztelania izan dugulako eskueran. Arrazoi horregatik, ohikoa da gure historiografoen idazkietan «lengua vulgar vascongada» esaldia aurkitzea euskarari buruz aritzean. Euskararen normalizazio akademikoari ekin zitzaionean –eta ez da hainbeste denbora–, erdietsi nahi zen helburua euskararen erregistro kultua eraikitzea zen. Hitzunen ahotan hizkuntzak bizirik bazirauen ere, gauza jakina da hizkuntza baten iraupena laburra izango dela, idatzizko mailara ere hedatzen ez bada. Horrekin batera, hizkuntzaren beraren duintasuna errekuperatzeko modurik egokiena horixe bera da, goi mailako eginbideetarako gai den hizkuntza bilakatuko baita orduan, besteen neurri berekoa nolabait. Hori egin ezean, hizkuntzak bi arrazoi nagusirengatik lerratzen dira desagertzera: Lehenik, dispersio zentrifugoak dialektoak eta aldaerak gero eta gehiago bereizten dituelako, harik eta berbeta bakoitza bere zokoan bakarrik erabilgarri bilakatu arte; eta bigarrenik, etxe, auzo eta herriko muge-tatik harago komunikazio ariketa, identitate arrotzaren erakusgarri huts bihurtzen delako. Egoera deseroso hori saihesteko, eskueran dauden komunikazio-tresna eraginkoragoetara desbideratzen dira erabiltzaileak, gure kasuan, ondo garatua dagoen gaztelaniara. Agerian gelditzen da, beraz, tokian tokiko zokokeriak neurrigabe bultzatzea, herri-maitasunaren mozorroarekin jantzirik badoa ere, hizkuntzaren heriotza azkartzeko modu eraginkorra dela.

Euskal hizkuntzaren normalizazioaren bide horretan, estandarizaziorako urrats garrantzitsuak eman ziren XX. mendeko bigarren erdian. Euskara estandararen abiatzea, hala ere, ez zen erraza izan. Lehenbiziko erabakiak hartu zirenean, berehala piztu ziren iskanbila eta desadostasuna herri-hizkeren defendatzaileen aldetik. Bereziki gogorak izan ziren *h*- letraren onarpena eta euskal aditz batuaren estandarizazioaren kontuak. Euskara batuaren orduko etsai haiek isilduz joan dira apurka-apurka, euskara jasoaren eraikuntzaren arrakasta ukatzea errealitateetik at bizi-ze bailitzateke, hain da begi bistakoa. Hala ere, eta beste inon idatzi dugun legez, orduko dema hartako borrokalariek plaza berri bat aurkitu dute gaur egun onomastikaren alorrean. Euskaltzaindiak

emandako irizpideek onomastikaren eremuan euskalkiak errespetatzen ditu –edozein herritako berbetak ez du, ezinbestez, euskalki jasoaren maila–. Horregatik, euskara batuaren hasierako denboretan *Haitzgorri*, *Haritzabaleta* eta horrelako grafia estandarizatzaileak proposatu baziren ere, *Aizkorri* eta *Aretxabaleta* dira gaur egun toponimo nahiz deitura estandarrak euskaraz. Akademiak onomastikan onartzen duen euskalki-aniztasun hori aitzakia harturik, izenok nork bere herrian ahoskatzen diren erara idazteko joera hedatzen ari da orduko populista haien ondorengoen artean. Ondorioz, onomastikaren alorra da euskara estandarrak duen gairik atzeratuena¹¹. Izen bereziei dagokien arautze-irizpideetan bakoitza bere aldetik ibiltzeak kaltea baizik ez dakarkio hizkuntzari.

Bermeoko toponimia liburuan honako hau irakur dezakegu, arautze lanen atariko gisara:

«Normalizazioa, leku-izen beraren aldaerak edo grafia desberdinarekin adierazitakoak, forma bakarrera ekartzea da, forma bakar «egokienera», hain zuzen. Ezin bestean, lan honek alderdi subjektiboak ditu. Iritzi desberdinak izan daitezke. Nola normalizatu behar dira leku-izenak? Euskal Herria [sic] osoan era homogeneoan edo lekuan lekuko forma bereziak errespetatu behar dira?» (43. or.).

Iritzi ezberdinak egotea eta eztabaidatzea ez dago gaizki, baldin helburua guztiok jarraituko dugun bidea adostea bada. Eztabaida horretan alderdi subjektiboak ondo identifikatu behar dira, ez baita gauza bera iritzi zientifiko desberdina edukitzea eta subjektiboki normalizazioak edo hizkuntza-komunitateak nora edo hara jo nahi izatea. Eta azken hauen defentsa, zilegi izanik ere, ez da modu berean «zilegi». Orobat esan daiteke, hautu ideologikoak edo politikoak –identitarioak, beti ere– ezkutatzen dituzten jarrera pseudozientifikoak. Iritzi akademiko nahiz uste subjektibo izan, sakabanatzen gaituzten bideak urratzea ez da onargarria, fenomeno bat beraren aurrean modu desberdin anitzez jokatzera eramango gaituelako. Hots, irizpiderik ezak eramango gintuzkeen ondorio berberera, nola edo hala saihestu behar dugun egoera *anormalizatzaile*ra, alegia.

Euskalkiak babesteak ez du esan nahi edozein zokotako baserri ezkutu batean esaten dena jagotearren, ahoskera jator hori *arautzeko aldaera idatzian*

¹¹ Ez da oinarririk gabeko baieztapena. *Bermeoko toponimia* liburuaren egiten ari zen garai bertsuan argitaratutako pare bat lan aipatzearen, honako erabilera hauek aurkitu ditugu gure idazle ezagun batzuen praxian:

«Gaizki egin dut Allikene inguru horietara igandez hurbilduta» (ALVAREZ ENPARANTZA, Jose Luis 'Txillardegik': *Labartzari agur*, Elkar, Donostia, 2005, 46. or.).

«Maloenakoa. Klaro. Martinaren semea» (ELORRIAGA, Unai: *Vredaman*, Elkar, Donostia, 2005, 49. or.).

Bietan ikusten dugu *-ena* atzizki oikonimikoa, modu desberdinean erabilita, ordea. Txillardegik *-e* paragogikoa erantsita darabil eta Elorriagak *-a* amaiera hori mugatzailea ez baina berezkoa izango balitz bezala (azpimarra geurea da). Kontu egin dezagun idazle ezagunak direla hauek, eta ez soilik kazetari, esatari, idazkari edo hitzaren beste profesional batzuk... Halakoen arteko kaosa nabarmen handiagoa baita.

jaso behar dugunik. Jatorra den guztia ez baita idatzizko era jasoan islatu behar. Gainera «jatorra» –*etorri* aditzetikoa– dirudien edozer ez da beti hain jatorra edo hain tradizionala izaten. XIX. mendetik hasita, euskara «desitxuratzeko azeleratu» baten fasean sartu zen, haren desagertze hurbilaren zantzua eta elebitasunaren orokortzearen ondorio zuzena dena: edozeinekin komunikatzeko gaztelania badugu, zertarako behar dugu euskara? Gehienez ere, etxe ondokoekin hitz egiteko eta –aitor dezagun– haiekin *komunio identitarioan* sentitzeko baliatzen dugu euskara. Guk ez dugu hizkuntzaren eredu etnografiko-erromantiko-zokokeriazale hori babestuko, euskara biziko bada, komunikazio eta kalitatezko sormenerako benetako tresna baliagarri bilakatu behar dela sinesten dugulako. Gainera, egiteko hori Euskal Herri mailakoa izan behar da –berez, nahiko gune murrizta dena– eta horrek beste bide batzuk eskatzen ditu. Oso ondo dago herriz herriko ikerketak eta deskribapenak egitea, behar dugun hizkuntza hori aberasteko bide ziurretako bat horixe delako. Baina hizkuntza normalizatu –normal bihurtu– nahi badugu, eredu kultura bakarra behar dugu erreferentzia bezala. Horren kontra ari denak, nahita edo nahi barik, euskararen desagertze arinera lerratzen gaitu artez.

Eta nola babesten dira aldaera dialektalak orduan? Gorago emandako adibideek argi utzi dute zer den euskalki mailakoa. *Haritz-aretx, hiri-uri, berrri-barri, soro-solo, beltz-baltz...* mendebaldeko desberdintasun jatorrak dira, euskalki literarioan ere aurki ditzakegunak eta idatzizko tradizio onomastikoa eman dutenak. Beraz, gure babesa merezi dute. Horregatik hartzen dira aintzat izen berezien idazkera jasoan, era honetan idatziz: *Aretxabaleta, Uribarri, Solozarreta, Errekabaltza...* Horra hor, berriz ere, *Bermeoko toponimia* liburuen egileek egiten duten galdera: «Euskal Herria osoan [sic] era homogeneoan edo lekuan lekuko forma bereziak errespetatu behar dira?». Galdera modu zamatu samarrean dago formulaturik. Gauza bat da lekuan lekuko euskalkia errespetatzea eta beste bat, diferentea zeharo, lekuan lekuko aldakiak eta zokokeria guztiak kultutzat ematea.

Esan dugunaren harira, ulertu behar da lege fonologiko errekurtearen den guztia ez dela ezinbestez idazkera jasoan islatu behar¹². Onomastika batzordearen irizpideen eta zokokeriazaleen arteko aldeaz ohartzeko, adibide argigarri bat jarriko dugu. Esaterako, Euskal Herri osoko toponimian aurki daitekeen izena dugu *Areatza*. Era honetan idatzi da euskaraz literatura zaharrean ere, erabilitako sistema grafikoa gorabehera. Ahoz, dakigula, ez da beti modu horretan entzuten, ohikoak baitira *-ea-* hiatoak han hemenka pairatzen dituen desitxuratzeak. Oso urrun joan barik, *Ariatza* idatzi ohi da Muxikako

¹² Kontu honetaz adibide argigarri gehiago nahi duenak, honako artikulua honetan aurkituko dituzte intereseko materialak: GALE GARCÍA, Patxi & LANDA SERRANO, Aitziber & MUJICA ULAZIA, Nerea: «Toponimia alavesa: cuestiones de normativización», *Actas de las II Jornadas de filología vasco-románica, Universidad de Deusto 24-26/10/2007* / *Euskal-Erromantze jardunaldiak agiriak, Deustuko Unibertsitatea, 2007/10/24-26*, Eusko Ikaskuntza, Donostia (moldiztegia).

azune baten izena, *Areetza* Altzania mendian Altsasu, Ataun eta Idiazabalgo mugan, *Aritza-txu* proposatzen da Bermeoko hondartzarako... *Ariatza*, *Areetza* eta *Aritza* gure babesa eta kultu-maila merezi duten aldaera dialektalak ote dira? Toponimia ondarea babesteak zer esan nahi duen neurtu behar dugu horren aurreko irizpidea ezarri aurretik. Aldagarritasun horretan ez dugu guk aberastasun lexikorik ikusten eta *Areatza* idatziko genuke kasu guztietan, nekez defendi daitekeelako *-ea-* hiatoak eragindako bokalismo errenkada hori –eta hori azentua alde batera utzirik–, euskararen euskalkien aberastasunaren erakusgarri dela. Hots, leku bakoitzean ahoz esaten dena esaten dela ere, *Area-tza* idatzi behar dira horiek guztiak, *etxea* (eta ez *etxé*, *etxía*, *etxí...*) edo *erreal* (eta ez *erriál*, *errél...*) idazten dugun arrazoi beragatik.

Bermeoko toponimia liburuaren egileek kontrakoa uste ez ezik, adierazi ere egiten dute:

«Leku-izenek bi osagai izaten dute: izenaren alderdi espezifikoak (lekuaren berariazko izena) eta izenaren alderdi generikoa (bere izaera geografikoa adierazten duena: erreka, mendia, kalea, baserria, etab.). Generikoak hainbat erreferente geografiko berdinen aipamena egiten du, Burgo *mendia*, Gantxu *mendia*, Sollube *mendia*, etab., eta beraz, bere formaren batasuna eskatzen du, bestela nahastea besterik ez litzateke sortuko. Baina izen espezifikoari dagokionez, leku-izen bakoitzak bere testuinguru propioa izanik, bera bakarrik dena, ez da beharrezkoa hauek forma bakarrera ekartzea, ez baitute nahasmenik sortzen, are gehiago, argia ematen dute, toponimo bat bere antzeko besteetatik bereiztean» [MOREU-REY, Enric: «Recogida, clasificación, normalización y oficialización de un corpus toponímico: consideraciones críticas sobre su problemática según nuestra experiencia en Catalunya», *I. Onomastika Jardunaldien Agiriak. Toponimia, Gasteiz, 1986ko apirila*, Onomasticon Vasconiae 4, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 39-47. Or.] (43. or.).

GENERIKOAK

Aipu horrek berak komentatu beharreko beste kontu batera eramaten gaitu: espezifiko eta generikoaren arteko bereizketa. Liburuan aditzera ematen zaigun bezalaxe, beste egile askok ere zurruntasun handiaz aipatzen dute bereizketa hori, toponimoen generikoa saihestezina balitz bezala. Gure ustetan, eta zenbait leku-izenez osaturiko corpus batekin lan aplikatua egin ondoren, «osagai» generikoaren sailkapena modu honetara egin behar litzateke:

Generiko lexikalizatuak: Toponimoaren parte diren generikoak. Leku-izenaren parte direnez gero, ez dira itzulgarriak –beste hizkuntza batean ari garelako ere, jatorrizkoan erabili ohi dira–. Aldaera dialektalak ez izanik, bereiz idazten direnean salbu, ez dute estandarizazio beharrik. Halakoak dira, adibidez, *Altzurragako atxa* (1008. or.), *Ganeko landa* (1015-1016. or.), *Lauziriko arezti* (906. or.)... Maiz haien generikotasuna lausoago geratzen da, kasu markarik egon ezean, bat eginik idatzi ohi ditugulako: *Amorotosolo* (942. or.),

Atxanarrobaso (424. or.), *Etxebarrierreka* (1039. or.)... Beste askotan, jatorriz generiko izandakoak –leku-izenak oraindik deskriptibo arruntak zireneko garaian–, hain lexikalizazio maila altua jaso dute, ezen jadanik espezifikoa parte bezala somatzen baititugu, joskerak hala eskatuta, izen-sintagman dararmaten lekuagatik edo generikoak adierazten duenaz beste izendatzen dutelako. Hori gertatzen da, esate baterako, *Basogalant* (430-431. orr.), *Etxebarrilanda* (600-601. orr., baserria dena), *Infernuerreka* (720. or., parajea)...

Toponimo erreferentzialetako generikoak: Beste leku «nagusiago» baten izenari erreferentzia egiten diote. Ezinbestez erabili behar dira, haiek kenduta beste leku bat izendatuko genukeelako. Horregatik, toponimoaren zatitatz hartu behar ditugu, gehienetan lexikalizazio maila txikia duten arren. Normalean genitibo egituretan txertaturik doaz eta, usadioa hori delako, une bakoitzean erabiltzen den hizkuntzaren arabera itzul daitezke, lexikalizazio maila apal haren ondorioz. *Bermeoko toponimia* liburuan erabiltzen den hizkuntza bakarria euskaraz denez, ez da horretarako aukerarik ematen, baina halakotzat izango lirateke, adibidez, *Aportategiko zubia* (326-327. orr.), *Artikerreka* (1042-1044. orr.), *Mañuko mintegia* (911-912. orr.)..., gaztelaniaz *Puente de Aportategi*, *Arroyo de Artigas* eta *Vivero de Mañua* ere zilegi liratekeenak.

Generiko hautazkoak: Hauek ez dira toponimoaren parte bereiztezina eta, gure ustez, ez dira toponimia lan batean eman behar. Halakoak dira iker-tzaileek beren hitzaurrean ematen dituzten adibideak (43. or., gorago aipatuak): *Burgo mendia* (*Burgo* 1013-1015. orr.), *Gantxu mendia* (*Gantxu* 1016-1017. orr.), *Sollube mendia* (*Sollube* 1025-1026. orr.)... Generiko horiek hizkuntza arruntari dagozkio eta, beraz, euskaraz era estandarrek erabiltzea gomendatzen da. Hizkuntza beste edozein izanik, hartara isur daitezke (*Monte Sollube*, *Sommet de Gantxu*, *Burgo hill*...). Euskaraz *Gantxu mendia* ematea, hala ere, ez litzateke beharrezkoa, toponimoa bera jatorriz eremu semantiko horretako generiko ulergarria delako eta, beraz, generiko estandarra gehitzean, alferrikako erredundantzia sortzen dugulako nolabait.

Adibide gutxi batzuk aipatuta, agerian gelditzen da leku-izenen alderdi espezifikoa eta alderdi generikoaren bereizketa ez dela uste ohi den bezain erraza eta orokorra. Nolabaiteko fraudea da hirugarren saileko generiko «ge-zurrezkoak» aipatuta bereizketa horren unibertsaltasuna funtsatu nahi izatea¹³. Garai batean omen handia izan zuten Québec-eko toponimia bulegoko ikerketa toponimikoen ondorioa da espezifikogeneriko osagaien teorema orokor hori. Hango usadio kartografikoetan frantsesezko generikoa jartzen baitzitzaien leku-izen guztiei. Gure artean ez da ohitura hori asko hedatu eta, ahal dela, gure mapen errotulazioan eta seinaleztapenetan, generikoen erabilera saihestea gomendatu ohi dugu. Erkidegoko hizkuntza ofizialak bi direla kon-tuan izanik, horrek asko laguntzen du seinaleztapenak eta mapetako testuak

¹³ Honela hasten da gorago aipatu den 43. orrialdeko paragrafoa: «Leku izenek bi osagai izaten dute...».

arintzen. Leku-izenen arauzko erak ematean, beraz, ez dugu hautazko generikorik gaineratu behar eta halaxe jokatu dute *Bermeoko toponimia* liburuko egileek, aipatu testuan esaten dutena esaten dutela ere. Lan horretan aritzen denak generikoa, ageri baldin bada, toponimoaren parte den ala ez neurtu behar du, tradizio idatzian eta hiztunen erabileran oinarriturik.

Honen harira, eta toponimoen benetako zati diren generikoetara mugatuz, nor ausartzen da *Errekabaltze* (1054-1055. orr.) edo *Portuzarra* (274-276. orr.) bezalako toponimoen espezifikoa eta generikoa bereizten? Nork esango digu zein den espezifikoa *Beko zubitxu* (869. or.) edo *Goiko gaztañadi* (651. or.) bezalako leku-izenetan?...

NORMALIZAZIOA ETA HERRITARREN KULTURA

Liburuan erabilitako *Normalizaziorako irizpideak* izeneko atalaren barruan, honako hau irakur dezakegu:

«Normalizatzeko orduan, kontuan hartu beharreko beste aspektu bat, lekuan lekuko erabiltzaileen onespina da: Bermeoko toponimia ahoan erabiliko dutenak, batez ere bermeotarrak direnez, ez litzateke egokia izen normalizatuak herritarrek erabiltzen dituzten formatatik (okerrak ez badira behintzat) gehiegi urruntzea» (44. or.).

Aspaldisko hasi ginen Euskaltzaindiaren Onomastika batzordetik beretik ere, toponimia ikerketetan eta leku-izenen arauzko erak finkatzerakoan, lekuan lekuko herritarren parte hartzea bultzatzen. Ideia horren atzean, ordea, goiko lerroen egileek uste baino arrazoi sakonagoak eta konplexuagoak daude. Helburu hori bilatzen dugunean, gure asmoa ez da zehazki, albait eragozpenik gutxiena eragitearren, herritarrek gauzak esaten dituzten moduan idaztea.

Hizkuntzari orain arte izan ez duen duintasuna ematea eta hiztunek darabilten edozer kultutzat hartzea ez dira gauza bera. Euskara hizkuntza *normal* bihurtu nahi izatea eta kulturaren demokratizazio orokorra ez dira elkarren kontrako helburuak. Euskal Herrian, kontrara, muturreko bi joera nagusi antzematen ditugu euskararen normalizazioan lanean ari direnen artean:

- Herri-mailan erabiltzen dena erregistro kultu bezala hartu, hizkuntzaren eramaleak beren ohiko paradigma anormalizatuan eroso sentitzen segi daitezen,

ala

- Hizkuntza estandarizatu baliatu eta herri-erregistroak mesprezaturik, prestigiodun klase kultu berria sortu.

Hots, kulturaren demokratizazioa eta populismoa pintatzen zaizkigu alderdi batean eta adituen jarduna eta elitismoa kontrako muturrean.

Akats larria da dikotomia horretan nork bere burua kokatu eta borrokara abiatzea. Hizkuntzak eskaintzen dizkigun iturri guztietatik baliabideak harturik, hala idatzizkoak nola ahozkoak, euskararentzat orain arte ukatu zaion erregistro kultura eraiki eta erabiltzaileak kultura berri horretara erakarri behar dira. Adituen jarduna beharrezkoa bada ere, berauek ulertu behar dute herri xehearengandik jasotakoa «landu» baizik ez dutela egiten. Eta landutako ekoizpen hori herriari itzuli egin behar zaio, baina itzultze horretan gauzak behar bezala azalduz eta argituz. Bereziki, erregistro desberdinen berri eman behar zaio jendeari eta –ez izan dudarik– ulertu egingo du uste duguna baino askoz errazago. Kontuan izan dezagun, euskarak erregistro bakarra –bulgarra– izan duela orain arte eta egoera anormalizatzaile hori gainditzearren ari garela lanean. Euskarak duen gabezia «estruktural» hori ez da soluzionatzen ezkusiarena eginik...

Toponimia ikerketen emaitza gisa eskaintzen diren leku-izenen zerrendak ez dira, gure ustetan, *era normalizatuak* izendatu behar. Tentuz hautaturiko hitzak erabiliz, *arautze proposamenak* izendatu ohi ditugu guk. Normalizazioa, helburu urrunagoa da, hizkuntza *normalizatu* batean, erabiltzaileek *normal* joko dutena izango baita, zerbait izatekotan. Adituen jarduna eta berauen emaitza zientifikoak, beti ere gure ustetan, helburu horren zerbitzura paratzea eskergarria ez ezik, ezinbestekoa ere bada gure hizkuntzaren egoera ezagututa.

Esan bezala, itzultze horren arrakastaren gakoa, gizarteratze egokian datza. Adituen jarduna beharrezkoa ikusten dugula esan da gorago. Eta halaxe da. Ikertzaile adituak beharrezkoak dira, jasotako datu horien guztien argira arauzko leku-izen jasoen corpora sortuz joateko. Baina gero herriratu eta normalizatu behar da hori guztia. Ikerketen gizarteratze prozeduretan, saihestu beharreko kontu berezia da toponimia-aditua eta herri xehearen arteko troka sakontzera datorren «adituen diskurtsoa». Diziplina guztiek daukate beren berbeta berezitua, besteak beste nor dagoen barruan eta nor den arrotza bereizteko helburua duena. Hizkuntzalaritza ez da horretan desberdina. *Bermeoko toponimia* lanean, itxuraz joera populistaren alde jotzen dela ematen duen arren –adibidez, arautze proposamenetan herri ahoskerako fonetismoak neurrigabeki onartzean–, liburuaren atarian ematen diren *normalizaziorako irizpideak* (43-102. orr.), komunitate zientifiko adituarentzat daude idatzirik, eta inola ere ez herri xeheri euskal kultura jasorako sarbidea emateko helburuaz¹⁴. «*Epentesia, morfofonologiko, paragogikoa, ahostuntzea, disimilazioa...*» adituen diskurtsoaren berbeta hori da nagusi testuan zehar. Bermeotar jator batek liburu hartuta, egileak oso jakintsuak direla sinetsiko du, dudarik gabe, baina han esaten dena ulertu ez du egingo. Guk ez dugu hor ikusten kulturaren demokratizazioaren prozedura eredu...

¹⁴ Eta ez hor bakarrik. *Geografia eta geologia* atalean (123-127. orr.), bereziki lekuz kanpo aurkitzen duguna; *Bermeoko lurraldearen historia* kapituluaren (129-152. orr.), bere latinezko aipuekin eta ohar multzo neurrigabekoarekin; baita, oro har, leku fitxetan beretan ematen diren azalpenetan ere, gure iritziz, publiko hautatuaren mirespena bilatzen da bermeotar xehearen ulermena baino gehiago.

Beste alde batetik, guk ontzat ematen ez dugun beste kontu bat aipatzen da *Bermeoko toponimiaren* ikertzaileen atal hartan. Bermeon ere, gainerako leku guztietan bezalaxe, *toponimia nagusia* eta *toponimia txikia* sailetan koka genitzakeen leku-izenak ditugu¹⁵. Adituak ez dira horren inguruan ados jartzen eta bien arteko muga non dagoen ez da ahobatezko gauza. Adibidez, Kataluniako mapetako toponimiari, oro har, *toponimia nagusia* esaten zaio, mapan agertzeko merezimendua irizpide bilakaturik. Euskal Herrian, kontrara, *toponimia nagusia* esan ohi zaio herrien eta auzune nagusien izendegiari. Sail nagusi horretatik kanpo gelditzen dira, beraz, *Ibaizabal*, *Ebro*, *Oria*, *Pirinioak*, *Urbasa*, *Gorbeia* eta era honetako izen ezagun eta hedatuak, *toponimia txikia* omen baitira. Gure ustez, Bermeoko ikertzaileek ukitu duten gaia litzateke *toponimia nagusia* eta *txikia* bereizteko irizpiderik egokiena. *Toponimia nagusia* eremu lokaletik kanpo ere erabiltzen diren toponimoak direla pentsatzen dugu guk. *Toponimia txikia*, kontrara, eremu lokal horretan erabiltzen dena litzateke. *Bermeo* izena, adibidez, ez da Bermeon bakarrik erabiltzen. Areago, askoz ere erabiltzaile gehiago ditu izen horrek Bermeotik kanpo Bermeon bertan baino. Eta beste horrenbeste esan daiteke, hango beste hainbat izenez. *Burgoa* edo *Garbola* mendiak, adibidez, Euskal Mendizale Federazioko Katalogoan ageri dira eta federazio horrek 25000 bazkide ditu gaur egun... Toponimo horiek, beraz, ez dira gehienetan erabiliko bermeotarren ahotan, kanpotik joandako mendizaleenetan baino. Toponimo *nagusiak* dira.

Ikerketak eremu lokal batean fokalizatzek dakarren akatsa izan ohi da ikertzaileen jarrera hori. Norberaren herriko toponimia ikerketa corpus bezala edukitzeak –ondo mugaturiko aztergaia–, hortik kanpo zer gertatzen den ezkutatzera eraman ohi gaitu edo, behinik behin, ez ikusiarena egitera. Baina ikerketa zehatza bere testuinguru zabalean kokatu behar da eta, kasu honetan, euskararen normalizazioa da unibertso hori, Euskal Herri osoa duena kokaleku. Susmoa dugu, hala ere, norberaren herriko toponimoen arauzko grafiak erabakitzean, bereziki gaizki hartuak izaten direla kanpoko adituen interbentzioak. Sakonean dagoen afera, beraz, ez da nork erabiliko dituen gehiago ala gutxiago, arrotz sentitzen dugun inposizio bat bezala somatzen dugu arautze lan hori: kanpotik etorri behar ote zaizkigu esatera *geure* lekuen izenak nola idatzi behar diren?

LANAREN ZIENTIFIKOTASUNA

Gidor Bilbaok idatziriko *Sarrerako hitzak* atalean honako hau irakur daiteke:

¹⁵ Gorago kritikatu dugun adituen berbeta harroputza erabiliz, zenbaitek *makrotoponimia* eta *mikrotoponimia* izendatu ohi dituzte hurrenez hurren, era horretan gauza «inportanteago» eta «zailago» batez ari direla aditzera eman nahirik, herri xeheak ezin konpreni ditzakeen kontuez, alegia.

«Bermeoko toponimia guztiaren azterketa linguistiko osoa dago, eta azterketa hori hizkuntzalaritzako parametro zientifikoetan egingo da. Badakigu makina bat buruko min eragin dietela normalizaziorako harturiko erabaki batzuek, baina garrantzikoena da datuen azterketa zintzoa dagoela erabaki guztien oinarrian» (9. or.).

Lanaren aurkezlearen animoan, dirudenez, Bermeoko toponimia ikergai bezala ahiturik dagoela adieraztea dago. Hori gehiegitxo esatea bada ere, onartu behar da datuen corpus bezala lortutako maila nekez gaudituko dela etorkizun hurbilean. Hala ere, corpus murriz batekin lan egiteak dakarren fokalizazio mugatua kontuan ez izanak, zalantza eragiten digu aipatzen den zintzotasunaren baieztapenaren aurrean. Adibidez, ez da zintzoa ez eta euskararen onerako erabaki zuzena *-e* paragogikoa eta mugatzailearen tratamendua, Nafarroako eta EAEko corpusak –eta irizpideak– kontuan eduki gabe aztertu, erabaki eta aplikatzea. Euskararen kalterako akatsa da egin dutena, helburu hori bilatu barik egin badute ere. Euskal Herriko hizkuntzaren normalizazioaren klabearen eginiko ikerketa horien emaitzak eskueran daude nahi duenarentzat, baina ezjakinarena egitea dauka norberak, segur aski, ezkutuan bestelako helburu identitarioak daudenean.

Datuen azterketa zintzoaren beste erakusgarri bat dugu *Toponimiaz* izeneko aurkezpenxoan, testu zientifikoa baino gehiago, literarioa bada ere, honako hau dakarrena:

«Bermeo aldeari dagokionez, kasu batzuetan, gehienetan esango genuke, izenok oso antzinakoak dira, ertaroko garaietan sortuak, agian, beste batzuk modernoagoak» (13. or.).

Hori baieztatzeke garai horietako datuak aurkitu eta –argiena– zenbatu egin behar dira. Liburuko corpus dokumental aberatsean ez dago Erdi Aroko datu askorik, Bizkaian XVI. mendea baino lehenagoko datuak aurkitzea zaila izaten baita. Baieztapenaren atzean ere oso asmo sakon «ez-razional» eta antropologikoa dago, berriz ere, kontu identitarioekin lardaskaturik: «gu bermeotarrak hemen gaude oso aspalditik eta Bermeo geurea da». Ulergarria da halako sentipen, nahi, gogo, iritzi... subjektiboak edukitzea, baina toponimia ikerketa serio eta zientifiko bat ez da halako kontu emozionalerako kantxa egokia.

Metodo zientifikoaren aplikazio zehatza toponimiaren alorrean, ohikoan, *aurretiazko datuak* > *formulaturiko hipotesiak* > *datu corpusak* > *azalpen zientifikoak* –edo «egiak», beti ere komatxo adierazgarriekin–. Allikak eta Uriartek bildutako datuen kudeaketa ustez zintzoaren analisirako, oso gomendagarria da leku-fitxen ohar linguistikoaren irakurketa arretatsua. Apur bat zurturik, *hipotesi* hitza oso gutxitan erabiltzen dela ohartu gara. Ematen diren azalpen guztiak modu irmoan adierazten dira. Denak dira «gertakari» hotz frogatuak: eman diren bilakaeren hurrenkera, bilakaera horien sailkapena, etimologiaren azalpenak... Dar-dar egin gabe idatzitako deskribapenak dira, zalantzarako ihesbiderik ere uzten ez dutenak. Ondorioz, liburuak ematen duen impresioa segurtasun osoarena da –zenbat dakiten aditu hauek!–. Emandako

azalpen hauetako batzuk komentatu egingo ditugu ondoko ohar zehaztuetan –tamalez, bakarrik arautze kontu okerrekin zerikusia dutenetan–, geure inpresioa oso bestelakoa delako.

Adibide gisara, mugatzailearen kasua eredugarria izan daiteke, sakonean mila interferentzia ezkuta ditzakeelako. Hala Bermeoko toponimo dokumentalen corpusak nola EAEkoak eta Nafarroakoak, oro har, leku-izenetan mugatzaileak denboran zehar desagertuz joan direla erakusten dute. Zuzendu beharreko arauzko aldaerak jorratzen ditugunean aipatuko ditugu banan-banan baina, erakusgarri bezala *Bengoetxea* > *Bengoetxe* (696-697. orr.), *Fradua* > *Fradu* (798-799. orr.), *Intxaustia* > *Intxausti* (eta orobat bere aldaera den *Landatxua* > *Landatxu* 206-209. orr.) ikus daitezke. Lana egin aurretik, mugatzailearen jatorri berantiarraren berri zeukaten ikertzaileek, Unibertsitatean jasotako ikaskuntzak direla eta. Hipotesi horiek datuekin sustatu nahirik, gusatuko zitzaien jasotako corpusean horren aldeko datuak bildu izana. Baina ez zen hala gertatu. Eta ikertzaileek beren hasierako hipotesian atzera jo beharrean, aurrerako ihesa hartu zuten: idatzizko datuetan ageri diren mugatzaileak ez omen dira euskaraz inoiz ere ibili eta eskribau erdaldunek bultzatutako *-a* arrotz batzuk dira. Konprobatu nahi duenak, aipatu adibideen corpus dokumentalak ikusi eta, ondoren, irakur dezala honako paragrafo hau:

«Artikulua leku-izenetan pixkanaka sartu da. Leku-izen ugarik ez dute inoiz artikulurik izan, eta artikulua hartu izan duten leku-izenek, generikotasunetik sortuta espezifikotasunerako bidean galdu egin dute. Gaur egun artikulua gabeko leku-izenak erabiltzen dira. Generikotasunetik hurbil daudenak baino ez dute artikulua mantentzen, baina deklinatzean, baita inesiboan ere, artikulua galdu egiten dute. Idatzizkoan, baserri-izenetan eta zenbait paraje esanguratsuetan artikulua, edo beharbada hobeto legoke *-a* bukaera esatea, sistematisatukoago jaso da. Hau da, eskribauek eta notarioek *-a* bukaeradun aldaerak errazago erabiltzen dituzte, *-a* bukaera gabekoa eta, kontsonantez bukatutako izenetan, bokal paragogikodun aldaerak baino. Kasu batzuetan, *-a* amaieradun aldaera hauek gaztelaniaren arautatik hurbilago daude, azentuazio aldetik» (101. or.).

Gure ustez, euskal mugatzailearen sorreraren kontuak toponimiaren gaurko arautze grafikoarekin nahasten saiatzea okerra da. Hizkuntzaren historiako estrato diferenteetan gertaturiko gauzez ari gara eta testuko lehenengo baieztapenaren frogarik ez dago. Ez behintzat Bermeon bildutako toponimo dokumentalen corpusean. Datuek beste zerbait erakusten dute. Gure ustez, toponimo horiek mugatzailedun jaio ziren eta apurka-apurka artikulua galduz joan dira. Galera honen arrazoia, lekuzko desinentzia gehienak jasotzean *-a* hori ezkutatzean bilatu behar da batez ere (*Fradua* baina *Fradutik*, *Fradura...*), horrek *-a* gabeko aldaerak nagusitzera eramaten duelako, baita inesiboan ere (*Fraduan* > *Fradun*, zeinetan *-ua-* > *-u-* hiato sinpleketa –bokalismo arrunta Bizkaiko kostaldeko leku askotan– ere gertatu den). Akademiaren –eta hizkuntza estandarren– jagole funtzioagatik, mugatzaileak duela gutxi galdu badira edo oraindik bizirik dirauten zantzurik erakusten badute, eutsi egin ohi zaie arauzko grafian, beti ere, sistema deklinatiboaren paradigma mugatzaileduna

erabili behar delarik (*Fradua (-a) > Fradua, Fraduan, Fraduko, Fradutik, Fradura...*). Allikak eta Uriartek mugatzailearen desagerketa «gertatu» egiten dela konprobatzean, bermeotarrek toponimo horiek mugatzailegabe betidanik erabili dituztela sinestarazi nahi izan digute, *-a* horiek gehienak eskribauen kontua direlako azalpen sinesgaitza ehundurik. Arauzko grafiak ematean, noski, *-a* gabeko erak hobetsi dituzte, hizkuntzaren neurrigabeko bilakaera «naturalak» galgatu ez, baina azkarrago mugiarazi nahirik¹⁶.

Orobat esan daiteke *Bermeoko toponimia* liburuaren egileek *-e* paragogoarekin jarraitu duten bidez. Gauza jakina da kontsonantez amaituriko lekuizenetan *-eta* berdin kontsonante + mugatzaile amaiera dutenetan *-e* bat gehitzeko joera dagoela euskaraz. Joera horren kausa, berriz ere, euskal deklinabide sisteman bilatu behar dela ematen du. Kontsonante amaiera duten izenek tarteko *-e-* bat hartzen dute desinentziarako lotura gisa lekuzko kasuetan. Eta hori berdin gertatzen da izen berezietan zein deklinabide arruntean. Hortaz, *Etxezar* lekuizena eta *etxe zahar* adierazpide arruntak antzeko eran deklinatuko ditugu lekuzko kasurik gehienetan, hau da, *-za(ha)rreko, -za(ha)rretik, -za(ha)rrera...* Salbuespena, gaur egun, inesiboan dugu, *-zarren* izango baikenuke izen berezi mugagabean eta *-zaharrear* izen arrunt mugatuan (94-95. orr).

Iruñe Allikak Bermeon gertakari honen aintzinakotasuna frogatuztat ematen du espresuki, dioenez, «Bokal paragogikoa eransteko joera hau ez da berria; XVII.-XVIII. mendeetako erreferentziak jaso izan dira Bermeon» (96. or.). Hala ere, liburuaren irakurketa arretatsuak ez du halakorik berresten eta, kontrara, dagoeneko bagenekiena baieztatzerako dator Bermeoko corpus dokumental aberats hau: Bizkaian amaierako *-e* hori gehitzearen kontua XIX eta XX. mendeetan hedaturiko fenomeno da. Salbuespen bakarrak *Akatxe* eta *Salbatxe* toponimoak izango genituzke (978-979. orr. eta 277-278. orr.). Lehenbizikoaren aurreneko lekukotza 1634ko *Aqueche* da. Ondoren ere, 1793an *Aqueche* ageri zaigu eta gero, 1895etik aurrera *Aquech* hasten da agertzen. Antzeko zerbait gertatzen da *Salbatxe* izenarekin (*Salbaiche* 1754an). *Akatxe* hori Bizkaian beste bitan aurki daiteke, guk dakigula, Basaurin eta Leioan, behinik behin. Basaurikoaz ez dugu datu dokumental zaharrik, baina Leioakoari dagokionez, XVIII. mendeko Bizkaiko fogerazioetan ere amaierako *-e* eta guzti ageri zaigu (*Aqueche* 1704an, 1745ean eta 1796an¹⁷), auzo izen bezala nahiz baserri izenen parte gisa. Etimologiaz mentura daitezkeen hipotesi errazak gora behera, Bermeoko laneko datuek erakusten dutena da bere lehen agerpenetan *-e* amaiera zeukan toponimo horrek geroago galdu egin zuela. Eta horri ez zaio *paragoea* esaten, *apokopea* baizik. Beste hitz batzuetan esanda,

¹⁶ Hizkuntza estandarren galga-funtzioaren ideia honen gainean interesa duenak, aita Villanteren maisu-lan honetan aurkituko ditu hausnarketarako materialak: VILLASANTE KORTABITARTE, Luis: *Hacia la lengua literaria común*, Colección Eleizalde 1, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1980.

¹⁷ KEREXETA, Jaime de: *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Estudios de etnología y etnografía 2, Instituto Labayru, Bilbao, 1992.

itxura guztien aurka, toponimo horren amaierako osagaia *-atx* dela zalantzan jarri behar dela uste dugu. Garai haietako erabileraren berri izanik, aipatu ditugun XVIII. mendeko fogerazioetan nekez aurkituko da paragogerik, ezta Leioako baserri izenetan ere: *Mendibil*, gaur ahoz *Mendibile*; *Basañez*, gaur ahoz *Basañese*... Lerrokada horretan bertan *Aqueche* izena aurkitzea, izenaren etimoaz adierazi dugun zalantza berrestera dator.

Onomastika batzordearen irizpideen arabera, tradizio motz hori dauka mendebaldeko *-e* horrek eta, gaur egun ere Bizkaiko eskualde zabaletako hitzun adinduek ez dute eransteke joerarik. Lehen aipatutako jagole-funtzioa dela eta, Akademiak mendebaldeko onomastikan, *-e* amaiera hori gabeko aldaerak hobesten ditu, arkaikoak izan gabe, Bizkaian tradiziozkoak direlako.

Fenomenoaren deskribapena egin eta haren idazkeraren aldeko jarrera justifikatzen duten testuan esaten zaigunez (94-101. orr.), Euskal Herri osoan gertatzen den zerbait da eta hainbat tokitan arauzko grafian ontzat emandako ezaugarria da *-e* paragogikoa. Lehengo arrazoi berberengatik, eta beste leku anitzetan bildutako corpus dokumentalei esker, badakigu *-e* paragogikoak «adin» desberdina duela euskalki batzuetan. Adibidez, Allikak Bermeorako nahi lukeena Nafarroako dokumentazioan aurki daiteke, alegia, XV. eta XVI. mendeetan paragogedun aldaerak: *Amorenea* (1706 Elbeten¹⁸), *Caualea* (1676 Eguesen¹⁹), *Olatzeberdea* (1568 Izaban²⁰)...

Lanean aipatzen diren beste ikerketa gehienek haxe berau berrestera datoz, hots, Bizkaian ez dela paragogea XIX. mendea baino lehenago apenas dokumentatzen eta, kontrara, handik ekialderago XVIII, XVII eta are XVI. mendeko lekukotzak aurki daitezkeela. Fenomenoak, beraz, ez dira alde batean eta bestean «adinkideak». Hori aski ez balitz, idatzizko lekukotzen bilketa masiboak erakusten digu halaber –eta horretan Bermeoko ikerketa maisu-lana da–, mendebaldeko tradizio idatzia *-e*-rik gabekoa dela, ekialderago kontrakoa erakusten digun bitartean²¹.

Arauazko aldaerak proposatzean, *Bermeoko toponimia* lanean Euskal Herri osoan irizpide berbera aplikatzeko deliberoa hartu dute beren kasa ikertzaileek,

¹⁸ *Amorenea* arauzko grafia daraman etxe-izena. JIMENO JURÍO, José María (zuz.): *Nafarroako toponimia eta mapagintza*, L-1 liburukia, 201. or. Mendebaldean *Amorena* izango genukeen, nahiz eta gaur egun Bizkaiko leku askotan *Amorene* jaso genezakeen ahoz.

¹⁹ *Zabalea* arauzko grafia daraman leku-izena. Op. cit., XXXVII liburukia, 109. or. Mendebaldean *Zabala* hedatua izango zen.

²⁰ *Olatzeberdea* arauzko grafia daraman leku izena. Op. cit., XIV liburukia, 125. or. Gogoan izan mendebaldean *Olatz* tradiziozkoa ere badugula, Mutrikun.

²¹ Interes handikoak dira Irune Allikak aipatzen dituen Hondarribiko eta Urretxu-Zumarragako lanak. Donostiakoek, tamalez, ez dute apenas XIX. mendetik haragoko dokumentaziorik ekartzen. Aipatzen diren Bizkaiko lanak Bermeokoa baino pobregoa dira datu dokumentaletan eta ez dute ekarpen berri handirik egiten kontua argitze aldera. Azkenik, Euskaltzaindiak hartutako zenbait erabaki ere zalantzan jar liteke, *-e* paragogikoak iparraldeko euskalkietan duen presentzia eta izan duen tradizioa ez daudelako oraingoz behar bezain sakonki ikerturik.

nahiz eta jaso dituzten datuetan argi ikusi paragoea oraindik Bizkaian guztiz hedatu gabeko fenomenoa dela. Berriz ere, balizko populismoak bultzaturik, tradizio laburreko ahozko erabileren bilakaera galgatu ez baina azkarrago hedatzearen aldeko hautua egin dute. Ez da hori Akademiak duen helburua ezta, horrenbestez, hobetsi duen irizpidea ere.

Paragoearen kontu honen gaineko oharrekin amaitzeko, uste dugu ez dela sobera lanaren egileei zientziaren filosofo Karl Raimund Popperren lanen irakurketa iradokitzea²². Honen arabera, «egiak» ezin dira segurtasun osoaz baieztatu beren aldeko datu ugariak metatze soilaren bidez. Kontrara, hipotesi bat gezurtatzeko, aski da haren kontrako lekukotza bakar bat jasotzea. Horren ondorioz, ikertzailearen lana da, batez ere, bere hipotesiak faltsuak direla frogatzen duten datuak bilatzea. Ez aurkitzean, hipotesiak sendoago egiten dira eta, aurkitutakoan, hipotesiak birformulatu behar izaten dira, datuek ezarritako oztopo horiek gainditzeko gai izan daitezen. Hipotesi berri horiek aurrekoak baino sendoagoak izaten dira eta errealitatearen formulazio segurukoak ditugu. Gure diziplinetako ohiko sinesmen eta dogma erosoetan gehiegi tematu barik, hori egiten dugunean «egia» zientifikoetara hurreratzen ari gara.

ARAUZKO PROPOSAMENEN GAINEKO ZENBAIT OHAR

Toponimia ikerketa guztietan baina, bereziki, sakontasun historikoa duten lanetan, normalizazio proposamena hautatu behar denean, sarritan gertatzen da, garai desberdinetan jasotako izen batzuk baztertu behar izaten direla ego-kiagoa deritzogun bakar baten mesedetan. Azken hau izaten da leku-fitxa bakoitzeko lema nagusia eta, nola edo hala, hobesten dugun izena. Lema honen aldaki izan gabe, beste izen batzuk aurkitzen baditugu leku baterako, horren arauzko idazkera ematea ere beharrezkoa izan daiteke. Bigarren mailako deizio hauek izen historiko, alonimo edo sinonimo huts, erabilera murrizteko toponimoak, herri-goitzenak e.a. izan daitezke eta leku-fitxetan berauek emateko eremu bat edukitzea izaten da onena. Haren faltaz, oharretan aipatzen dira era honetako batzuk *Bermeoko toponimia* lanean. Gure ustez, bildu den informazio dokumentalaren aberastasunagatik, maizago eman behar zen bigarren mailako izenen berri leku-fitxetan. Geure ekarpen kritikoetan saiaticu gara neurri apal batean gabezia hauek identifikatzen eta, ahal dela, proposamen horiek formulatzen.

Liburuan aurkezten diren arautze-proposamenetan ez da behin ere (-a) oharra gehitu, mugatzailea daramaten leku-izenen kasuan. Honela egitean, izen horiek deklinabidea nola jaso behar duten adierazten ari gara. Adibide bat aipatzearen, *Talagutxi* (233-236. orr.) izenak erabilera desberdina du mugagabea izanik (*Talagutxi*, *Talagutxin*, *Talagutxiko*, *Talagutxitik*, *Talagutxira*...)

²² *La lógica de la investigación científica*, Tecnos, Madrid, 1985.

edo mugatzailea badu (*Talagutxia, Talagutxian, Talagutxiko, Talagutxitik, Talagutxira...*). Bokalez amaitutako izenek buruhauste gutxiago ematen dute, hala ere, kontsonantez amaitutakoek, sarritan, *-e-* epentesia hartu behar izaten dutelako. Esaterako ikus *Baztarre* eta *Baztarreko gotorlekua* (183-186. orr.). *Bazterra (-a)* erak eta *Bazter* hutsak oso paradigma diferentekin jorratu behar bailirateke (*Bazterra, Bazterrean, Bazterreko, Bazterretik, Bazterrera...* vs. *Bazter, Bazterren, Bazterko, Baztertik, Bazterrera...*). Bereziki konplikatua goak dira amaierako kontsonantea afrikatua, *-l* edo *-n* dutenak, mugatzailek ez badute, beste kontsonantismo batzuei aurre egin behar izaten dietelako. Adibidez, *Karatx* (985. or.), *Karatxen, Karaxko, Karaxtik, Karaxera...* mugagabea vs. *Karatxa, Karatxean, Karatxeko, Karatxetik, Karatxera...* mugatzaileduna; eta *Areatzatxugan* (363. or.), *Areatzatxuganen, Areatzatxugango, Areatzatxugandik, Areatzatxuganera...* mugagabea vs. *Areatzatxugana, Areatzatxuganean, Areatzatxuganeko, Areatzatxuganetik, Areatzatxuganera...* mugatzaileduna. Mugatzailea daramaten ala ez adieraztea, beraz, ezinbestekoa da toponimia lanetan, helburua izen horien normalizazioa bada bederen. Geure ekarpen kritikoa gabezia hori duten izenak exhaustiboki aipatzen ez baditugu ere, proposatutako zuzenketa eta iradokizunetan jartzen saiatu gara.

Ohar hauek irakurri eta ongi ulertzeko, gomendatzen da liburua aurrean edukitzea, gehienetan bertan ageri diren datuak izaten direlako egindako kritiken oinarri. Oharretarako liburuaren segida berbera erabiliko dugu baina, gertakari errekurrenteen kasu gehienetan, azalpenik aberatsena duen fitxara bideratuko dugu irakurlea.

1. HIRIGUNEA

Bermeo (164-170. orr.): Jatorrizko *Bermeio* erak gaztelaniaz *Bermeo* eta euskaraz *Bermio* eman zuela esaten da ohar linguistikoetan (165-166. orr.). Gure ustetan ez da hala gertatu eta sobera daude *-io* «morfema»ren gaineko ohar guztiak, begi bistakoa baita emandako adibideetan jatorri ugaritako leku-izenak biltzen direla. Gure ustetan, *Bermeio* erak bai euskaraz eta bai gaztelaniaz modu berean laburtu zuen hiru bokaletako multzo hori eta *Bermeo* eman zuen hizkuntza bietan. Euskarak gero *Bermeo* > *Bermio* bokalismoa eragin zuen, *etxea* > *etxia* egiten den bezalaxe. Azken bokalismo hau aurreko monoptongazioa (*-ei-* > *-e-*) baino beranduago gertatu zen dudarik gabe, XVI. mendeko euskal testu mendebaldarretan ez baita, adibidez, *-ea* > *-ia* aldaketarik aurkitzen²³. Liburuak dakarren hipotesia egia balitz, gaurko bermeotarrek *Bermio* > **Bermiijo*

²³ Cf. frai Juan Zumarragakoaren gutunean, mende horretako Durangoko euskaraz *-ea* amaiera argiak, oraindik *-ea* > *-ia* aldaketa pairatu gabekoak. TOVAR, Antonio & OTTE, Enrique & MITXELENA, Luis: «Nuevo y más extenso texto arcaico vasco, de una carta del primero obispo de México, Fray Juan de Zumarraga», *Euskera*, XXVI (1981, 1), 5-14. orr.

esango lukete, *mendia* > *mendijja* edo *Bakio* > *Bakijjo* zeharo automatikoki esaten dituzten bezalaxe.

a. Alde zaharra

Areskurenaga (177-178. orr.): Dokumentazioa ikusirik, zalantza dugu ez ote gauden eraikuntza imajinatiboegi baten aurrean. *Axkunaga* edo *Askunaga* aldaerak kontsideratuko genituzke, tradizio onomastikoa ere badutelako. Lehen osagaiaren balizko -z- horretaz, ikus beherago *Arezti* eta *Areztisolo* (422-423. orr.). Ikus, beherago ere, *Trake kalea* (310-311. orr.) sarreran aldaera honetaz dioguna.

Aroztegi eta **Aroztegi kalea** (178-182. orr.): Bere horretan utz daitezke, baina bistan da *Arostegi* aldaerak duela tradizioirik handiena, deitura gisa ere.

Baztarre eta **Baztarreko gotorlekua** (183-186. orr.): Bistan da paragoge moderno baten aurrean gaudela, alde batetik. Kasu honetan oso argi ikusten da fenomeno hau mugatzailea galdu barik ere gerta daitekeela, euskal deklinabidearen sistemarekin bat, hau da, *Bazterra*, *Bazterrean*, *Bazterreko*, *Bazterretik*, *Bazterrera*... deklinatzen delako. *Pisukalea* jorratzean, *Bazterra* aldaera proposatzen da liburuan bertan (224-225. orr.). Mitxelena dioena dioela ere, *baztar* aldaerak ez du tradizio zaharrik men-debaldeko euskalkian, ez behintzat *barri*, *garri*, *txarri* eta era horretako errotazismodun eren modukorik. Gure ustez, asimilazio bokalikoa ikusi behar da hor (-a-e- > -a-a-) errotazismoa baino gehiago. Beste alde batetik, jasotako era dokumental gehienak *Baster-* dira, gure ustea sendotzen dutelarik. Honez gainera, gogoan izan behar genuke, osagai honen tradizio onomastikoa -s-duna dela, Bermeoko dokumentazioak berresten duena. Guk *Bazterra* (-a) eta *Bazterreko gotorlekua* (-a) proposatuko genituzkeen edo, nahi balitz -s-dun aldakiak.

Beiportale kalea (188. orr.): Neurri batean edo bestean *Labradores* (*Nekazari*?) eta, agian, *Intxausti* izenei ere arauzko irteera bat eman lekieke.

Denderiakalea (190. orr.): *Erretereria* (198-200. orr.), *Pesk(ad)eria* (220-222. orr.), *Karnazeria* (? 212-215. orr.), *Zesteria* (243-244. orr.), *Eskabetxeria* (331-332. orr.)... badauden arren, guk azken hauek gaztelaniazko hitzen mailegu bezala ulertzen ditugu (-a organikoa dutenak). Ez ditugu modu berean ulertzen *Dendari-* eta *Errementari-* hitzen eratorriak, hirietako kaleen izenetan maiz ageri direnak. Hauek -ari euskal atzizkia daramate eta amaierako -a hori, beraz, mugatzaile kengarria da. Hortaz, ez genituzke *Denderia-* eta *Errementeria-* aldaerak euskaraz ontzat emango eta, kontrara, *Dendarikalea* (-a), *Errementarikalea* (-a)... hobetsiko genituzke, ofizioa barik, artisaua bera aipatzen duena. Cf., halaber, *Merkatarietxe* (333. orr.), zeinetan erdal *Mercadería* batek interferentzia eragin zezakeen.

Kasu honetan, zuzen jokaturaz, ez da *Merkaterietxe* erarik sortu, agian, *-a- > -e-* hori gertatzeko arrazoi gutxiago daudelako.

Errenteriaportaleko plazatxo (200. or.): *Gerrako Andra Maria* adbokazioa ahanzturan gal ez dadin aukera bat izango genuke, bigarren izen hau historiko gisa proposatuz gero.

Eskolakalea (203. or.): *Ospital(e)kalea (-a)* aldaera historikoa ere eskain liteke.

Goiko plaza (204-205. orr.): Guk *Plazagoiena (-a)* aldaera hobetsiko genuke, hori baita jatorrena. Liburuan proposatutakoa herri-itzulpen eguneratua izan daiteke, gaurko edozein euskaldunentzat gardenagoa, baina ez «hain toponimo».

Karnazeria kalea (212-215. orr.): *Karnazeria* aldaera asimilatuari ez deritzogu itxurazkoa. Itzulpena (*Harakinkalea, Harategikalea...*) ez bada egoki ikusten, *Karnizeria* jarriko genuke. Gainera, *-zarra (-a)* osagaia gehitzea ere egoki ikusiko genuke, sarri ageri baita *vieja* hori dokumentazioan.

Korreokalea (215. or.): Bistan da hori ez dela kalearen izen jatorra, herri-mailan erabiltzen den goitizena baizik. *Escusada* aldaera dokumentuari euskarazko irteera bat bila zekioken edo, bestela, *Armendurua (-a?)* hobetsi.

Kukunkalea (216. or.): *Kuinkunkalea (-a)* izango litzateke, noski.

Landatxuko etxea (217-218. orr.): Oharretan aipatzen den bigarren mailako deizioa *Bazterreko etxea (-a)* edo *Basterreko etxea (-a)* idatzi behar litzateke. Ikus gorago *Baztarre*.

Mendozarteaga (218-219. orr.): Txistukari hori, Bizkaiko toponimian bederen, afrikatua da. Cf. *Mendotza* Gamizko auzoa, ahoz *Méntza. Mendoza de Arteaga* esapideak, *Arteagamendotza* hurrenkera har lezake euskaraz. Hala egin ohi da euskaraz baserriekin behinik behin: *Magumagoikoetxea, Sagastaetxebarría* eta orobat iparraldean *Hazparne Etxegaraia...*

Mundakana (219. or.): *Mundakaena (-a)* jarriko genuke guk, normalena *Mundakena (-a)* ematea izango litzatekeen arren, deklinatzean *-a-e- > -e-* izaten baita ohikoena. Izen horretako etxe nagusia bada (San Migelgo *Mundakatxu* izenekoari kontrajarria), *-nagusia (-a)* osagaia ere gehi lekiok, nahiz eta horren ondorioz *-na-na-* kakofonikoa sortuko litzatekeen.

Peskaderiakalea (220-222. orr.): Gaztelaniaz *Pescadería* bezala, beste hiri batzuetan *Pesquería* ere ageri izan da. Cf. Bilbon, *Peskeriakalea* edo *Belostikalea* (bere osoan, *Belaustegikalea* litzatekeena). Bermeon, ordea, ez da halakorik dokumentatzen. Itzulpena ere irteera bat izan liteke, *Arraindegikalea (-a)*, alegia.

Pisukalea (222-225. orr.): Aldaera nagusitzat, dudarik ere gabe, guk *Pisueta* emango genuke, ahozko herri-goitizena *Pisukalea (-a)* bada ere. *Bazterra* aldaera zuzena proposatzen da liburuan, apur bat lehenago erabakitakoaren kontra (ik. *Baztarre*, 183-186. orr.). Hartaz diogun bezala, berau ere *Basterra (-a)* idatz zitekeen.

San Migel plazatxoa eta **eskillarak** (226. or.) eta **Sannigelportale** (231-232. orr.): Kontuan izan dezagun, euskara jasoan adbokazio hori *Done Mikel* dela, *Mikel* ez baita Aranaren izendegiaren ondokoa, tradiziozko euskal izena baizik. Leku izen horiek bere horretan utziko genituzke guk ere, baina bitxia egiten zaigu, hagianimoen aldaera jaso horiek onartzeko joera handiagoa dela euskara galdu duten Euskal Herriko eremuetan, eskualde euskaldunetan baino.

Sanfrantziskoportale (227-228. orr.): *Herrerros* aldaera historikoari euskarazko irteera duina bila zekiokoen (*Errementari?*), *Guadalupe* eta *Sokorro* izenekin egin den legez.

Sanjuankalea eta **Sanjuanportale** (228-231. orr.): *Donibane* irteera ere onargarria izan zitekeen, ahoz ere hala jaso baita. Ikus gorago *San Migel*.

Talagutxi (233-236. orr.): XX. mendean oraindik dokumentatzen da amaierako mugatzailea eta, horregatik, eutsi behar litzaiokeela uste dugu, *Talagutxia (-a)* arazukoa emanik. Irizpideen iruzkinean «artikulua leku izenetan pixkanaka sartu» dela defendatzen den arren (101. or.), corpus dokumentalak argi erakusten digu gauzak alderantziz gertatu direla, alegia, leku-izen askok mugatzailedun jai zirela eta erabilerarekin, batez ere azken denboretan, galdu egin dutela (ikus, adibidez, liburuan bertan, jadanik XIX.aren amaieran mugatzailea galdua zeukat *Intxausti(a)* eta *Landatxu(a)* 208-209. orr.), segur aski lekutasunezko kasu gehienetan deklinaturik *-a-* hori ezkutatu egiten delako (*Talagutxia*, *Talagutxian*, baina *Talagutxiko*, *Talagutxitik*, *Talagutxira...*).

Torrintero (237-239. orr.): Gure ustez, arauzko *Torrintero-* proposatu behar litzateke normalizaziorako, *-o-e- > -o-o-* asimilazioa ez baita idatzi behar. Gainera, ahozko lekukotzek aditzera ematen dutenez, mugatzailea eraman du euskaraz ere eta, bizirik dirauenez, eutsi beharko litzaioke, *Torrintero-a (-a)* alegia.

Torrंतरeroko eskillarak (239-241. orr.): Aurrekoa bezala, *Torrंतरeroko eskillarak (-ak)* idatziko genuke, noski. Oharretan esaten zaigu –ez dakigu zein datutan oinarriturik–, Bermeon *Errotxela* erabili zela euskaraz. Bordeletik iparrera dagoen *La Rochelle* portuaren euskal izena, Lapurdiko itsasgizonen ahotan, ordea, *Arroxela* omen da²⁴ eta berau hobetsiko genuke.

²⁴ Joanes Leizarragak 1571ko bere obrako azalean bertan bokal protetikorik gabeko *Roche-lla* erabili zuen, Jose Inazio Iztuetak (*Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, La Gran

Uriartezurbituaga (242. or.): Lekukotza dokumentalak ikusirik, deitura biren elkarketa da eta, badirudi arauen aplikazioa apur bat bortxatuz bada ere²⁵, *Uriarte-Zurbituaga* idaztea litzatekeela egokiena.

Zubigane (244. or.): *Zubigan* da izen horren arauzko grafia. Paragoge horien hurrengo urratsa antzeman daiteke ahozko lekukotzen artean, haren ondoren mugatzailea jarrita ere *Subigánie* jaso baita, hots, *Zubigan* > *Zubigane* > *Zubiganea*. Esan gabe doa azken honek ez duela ekialderago hain ugaria den *-enea* atzizki oikonimikoak duen tradizioa, nahiz eta formalki gauza bat bera izan.

b. Portua, Lamera eta Gaztelu

Artza (245-247. orr.): Batere tradizio idatzirik ez duen mugatzailea jartzen dio informatzaileetako batek: *Ártzie*. Azken hau *Artzea* idatzi behar litzateke, baina guk ez dugu halakorik proposatuko eta *Artza* utziko genuke, Bermeoko ikertzaileek egin duten bezala.

Bañera (248-250. orr.): Gure ustez mugatzaile eta guzti proposatu behar litzateke, dokumentazioan gaztelaniaz artikuluz jaso delako eta ahoz euskaraz mugaturik, *Bañérie*. Hortaz *Bañerea* (-a) litzateke arauzko era. Ondo adierazi behar da, ordea, horrek honako deklinabide hau ekartzen duela bizkaiera jasoan: *Bañerea*, *Bañeran*, *Bañerako*, *Bañeratik*, *Bañerara* (ez **Bañerean*, ezta **Bañereko*, **Bañeretik*, **Bañerera* ere). Berezko -a duten toponimo mugatzailedunekin era honetan jokatu behar da Euskal Herriko mendebaldean behintzat. Bitxia da tradiziozkoa den eta oso bizi-rik dirauen ezaugarri hau baztertzeko joera nabarmena agertzen dutela zenbait giro populistetan ere, euskara estandarraren paradigmetera makurtuz (*Bañera* + -a > *Bañera*).

Barra (250. or.): id.

Bonitoatxe (252-253. orr.): Paragogearen ahozko lekukotzarik ez da jaso eta dokumentazioan behin bakarrik ageri da, 1912an. Datuek diotenaren kontra liburuan ematen den azalpen-sistema sustatu nahirik egin da arauzko proposamen paragogeduna baina, dudarik ere gabe, arauzko grafia *Bonitoatxe* da.

Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1975 [1847], 463. or.) *Rochela* dakar eta Koldo Mitxelenak (*Euskal idazlan guztiak, Literaturaren inguruan 2*, Euskal editoreen elkarte, Donostia, 1988, 78 eta 80. orr.) *Errotxela* erabili zuen. Euskaltzaindiaren exonomastika batzordearen 36 eta 151. arauetan finkaturiko exonimoa, hala ere, *Arroxela* da.

²⁵Euskaltzaindiaren 141. arauan ezartzen denez (*Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoan erabilera*), leku biren elkarketaz sorturiko toponimo konplexuak marratxo batez idatziko dira: «Bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean, bi izenak beti marratxo (-) baten bidez bereiziko dira, izendegi, zerrenda, seinale eta abarretan: *Arratzua-Ubarrundia (A)*, *Beintza-Labaien (NG)*, *Ezkio-Itsaso (G)*, *Gamiz-Fika (B)*, *Labetze-Bizkai (NB)*, *Maule-Lexstarre (Z)*...».

Frantzunatxeta (256-258. orr.): Dokumentazioa ikusirik, guk izen nagusi bezala *Santaklaraoste* emango genuke. Liburuan aukeratu den lemako -tz- hori ere ezbaizkoa da. Ikus beherago (*Frantzun-* batzuk, 715, 837 eta 1045. orr.). Guk *Frantxuen-* idatziko genituzke hauek guztiak.

Gaztelu (258-261. orr.): Gotorlekurako bada ere, *Santa Eufemia* hagianimoa ere aipatu behar litzateke, azken finean, utzi den izena generiko hutsa da eta.

Gaztelupe (262. orr.): Mugatzaile eta guzti erabiltzen dute informatzaile gehienek. Era dokumentatu bakarra dago eta, beraz, guk *Gaztelupea* (-a) aldaera hobetsiko genukeen. Hori argitze aldera, interesgarria izan liteke inesiboaren erabilera bizia ezagutzea.

Iruiturriak (262-263. orr.): *Santa Klara* izena ere eman lekiok e alonimo bezala, dokumentazioan halaxe ageri baita gehienetan.

Lamera (266-268. orr.): Ahozko lekukotzek argi eta ahobatez erakusten dute mugaturik ibiltzen dela euskaraz, *Lamera* (-a) alegia. Guk azken hau emango genuke arauzko era bezala, baina kontuan izan bedi deklinatzean horrek ondorio batzuk dituela (ikus gorago *Bañera*, 248-250. orr.). Maillegu bitxia da, baina euskaldunek beren usadioetara moldatu dutela frogatzen du -ea amaiera horrek eta, hortaz, ontzat eman daiteke. Salbuespen gisa, hemen horrela utziko genukeen arren, ohikoan haplologiaz ezabatutako silaba errepikatuak berrartzen dira arauzko grafietan (cf. Bizkaian ere *Momoitio* > ah. *Moitxixo*, *Lapurerreketa* > ah. *Lapurriketa*...) eta leku-izen honetan hala gertatu dela aipatu behar litzateke hizkuntza-oharretan (*La-la-* > *La-*).

Portuzarra (274-276. orr.): Guk *Portugitxia* (-a) edo *Portutxikerra* (-a) bezalako aldaera bat nahiago genuke, *Puerto Menor* edo *Puerto Chico* dokumentatuenen euskal ordain gisa. Gainera, era honetan *Portunagusari* (276-277. orr.) kontrajarrita egongo litzateke modu argiagoan. *Portuzarra* (-a) bigarren mailan herri-goitizen bezala utziko genuke.

Ronpiolas (277. orr.): Izen hori, idaztekotan, *Ronpeolas* idatzi behar litzateke, *Bermeo* idazten dugun arrazoi berberetatik (-eo- > -io- bokalismoa ahoz ondo dagoke, baina ez da idazten). Bokal protetikorik eza bere modernotasunaren froga dela uste dugu. Nolanahi ere, gure iritzian, ez gaude egiazko *toponimo* baten aurrean²⁶ eta ez zaigu mailegu «serioegia» iruditzen. Itzulpena ere egin liteke, *Olatu horma* edo honelako zerbait.

Salbatxe (277-278. orr.): 1754an *Salbaiche* dokumentatzea arraro egiten zaigu eta konprobatu behar litzateke haren egiazkotasuna, iturri sekundario bate-

²⁶ Era honetako adierazpide generikoak (*eskola*, *faroa*, *kanposantua*...) ez dira egiazko leku-izen lexikalizatutak, adierazpide kartografiko arruntak baizik. Lekuan lekuko ezaugarriak kontuan har badaitezke ere, hizkuntza estandarretik hurbilago egon ohi dira eta maiz euskara estandarrean idazten dira (*ikasatexea*, *itsasargia*, *hilerria*...).

tik jasoa baita²⁷. Hau da XVIII. mendeko *-e* paragogikotzat hartzen den bigarren kasua (bestea *Akatxe*, 978-979. orr.). Hizkuntza-oharretan ezer esaten ez bada ere, azalpen zailekoa iruditzen zaigu aipatu lekukotza dokumentalean ageri den tarteko *-ai-* hori *-ea-* batetik eratorrtzea ez baita ohikoa (**Salbe-atx(e) > Salbaitxe*). Horrek, balizko beste etimoren baterako bidea irekiko luke, apokopearen kausa herri-etimologia batean bila litekeelarik. Beste daturik ezean, hala ere, guk *Salbeatx* emango genuke.

Txinbelaneko etxea eta ***etxartea*** (285-286. orr.): Guk *Txinbelaeneko...* era arauzkoa emango genuke. *Txinbela* izenetik eratorritako oikonimoa *Txinbelena (-a)* edo *Txinbelaena (-a)* izan daiteke. Bermeon gal litekeen *-a-* hori ahoskatzen denez gero, idazkeran eustea ontzat eman daiteke. Aukerarik seguruenak, hala ere, *Txinbela* hutsa uztea litzateke.

c. Morondo

Morondo (288-292. orr.): Hizkuntza oharretan ematen den azalpena egokia izan daiteke, baina dokumentazioan ez da behin ere *Muru-ondo* edo antzekorik jasotzen (1896ko *casa llamada Portaloste o Mureondo* salbu). Lekukotza hori 1856ko dokumentuan ematen den esanahia zalantzan jartzeko arrazoirik nahikoa izan liteke. Gainera, sinesgaitza egiten zaigu aipatzen den «asimilazioa»: *-u-o-* > *-o-o-*. Gure ustez, hor asimilazioa gertatzekotan emaitzarik normalena *-u-u-* izango zen. Edozein kasutan, ez genuke arauzko beste grafiairik proposatuko.

d. Artalde

e. Dolareaga eta Esparru

Esparru (298-299. orr.): Ahoz generiko hutsa erabiltzen den arren, guk toponimoa ere daramaten *Dolareaga(ko) esparru* edo *Anituesparru* osoagoak hobetsiko genituzkeen.

f. Adoberia eta Ondarre

Adoberia (300-302. orr.): Oraindik bizirik dagoen *Trakeko errebala (-a)* alonimoa eta *Telleriaga* aldaera historikoa ere aipatuko genituzke, arauzko bigarren mailakoan artean behinik behin.

²⁷ SESMERO, Francisco: «Tres siglos de toponimia bermeana», *Jaietako programa*, Bermeo, 1971.

Adoberiako zubia (302-303. orr.): Bistan da dokumentazioan maizago aurkitzen dela *Trakeko zubia (-a)* eta guk horri emango geniokeen lehenetsuna. *Telleriagako zubia (-a)* aldaeraz gain, *Ondarreko zubia (-a)* ere eskaini behar litzateke.

Fondazarre (304. orr.): Ahoz ere euskal era normala jaso da, hots: *Fondazarra (-a)*, eta berau da arauzkoa. Mugatzaile barik ere onar liteke, *Fondazar*, baina honek deklinabidean ondorioak izango litzatekeela jakinik (inesiboan *Fondazarrean* mugatua vs. *Fondazarren* mugagabea, baita epentesirik gabeko *Fondazarko*, *Fondazartik* ere). Bermeoko informetzaileek ahoz inesiboan nola erabiltzen duten jakitea ez legoke, beraz, sobera.

Kakallo (304. orr.): Dokumentazioko *Cacadillo* batetik heldu zaigu toponimo hau. Bokalarterko *-d-* baten erorketa, ahoz ohikoa izanik ere, ez da idazkera jasoan aintzat hartzen eta arauzko era osorik eman behar genuke, *Kakadillo* alegia.

Ondarre (304-306 eta 306-307. orr.): Dokumentazioak argi erakusten duenez, tradizio motzeko paragoge baten aurrean gaude eta *Ondarra* idatzi behar da, mugatzaile eta guzti, *(-a)* ohar argigarria daramala, beraz.

Ondarreburu (307. orr.): *Ondarburu* litzateke emaitzarik logikoena, baina *Ondarraburu* da ahoz maizenik jaso den aldaera, paragogezaileen amorrurako. Beraz, azken hau proposatuko genuke guk arauzko era bezala. *Bermeoko toponimia* liburuaren egileek, beren teoriak datuen gainetik inolako konplexurik gabe nola para daitezkeen erakusten digute kasu honetan argi-argi.

Telleriagaburu (307-309. orr.): Sarrera honek dakarren dokumentazioak ez du *-aga* hori behar bezala bermatzen eta hau guztia *Adoberia* (300-302. orr.) sarreran jaso denarekin batera neurtu behar litzateke *Telleriaga* ala *Telleria* hobetsi behar ote den erabakitzeko. Gu ere, ahal dela, galduz doazen *-aga* horiek babestearn alde gaude eta, beraz, ez dugu *Telleriaburu* aldaerarako aukera proposatu besterik egingo.

Trake kalea (310-311. orr.): *Arreskuenaga* aldaera (edo antzeko zerbait) ere eman behar litzateke, bereziki *Trake* nahasgarria izan daitekeela jakinik²⁸. Gorago proposatu den *Areskurenaga* (177-178. orr.) izenarekin erlazioan egon daiteke eta, hala balitz, bien dokumentazioa amankomunean baloratu eta erabaki bakar bat hartu behar litzateke zalantzazkoak diren *-rr-* eta *-r-* hotsen grafiaz eta bestez: *Ares-*, *Arres-*, *Ax-* ala *As-*; *-kuren-* ala *-kuen-*.

²⁸Toponimoen helburua lekuak identifikatzea den aldetik, eta arrazoi gehiagoz kale izendegiaz ari garela, ez da komeni herri bereko bi lekuk izen bat bera izatea.

g. Portale

Portale (313. or.): Aipatzen den *Beko plazie* alonimoaren arauzko grafia, noski, *Beko plazea* (-a) da. Horren deklinabideaz, ikus gorago *Bañera* (248-250. orr.). *San Frantzisko* hagianimoa ere ondo dokumentatzen da, baina izen horrek ez dauka galtzeko arriskurik, komentua ere hor dagoelako.

h. Almikabidea eta Erregiñazubi

Almikabidea, Almikakalea, Almikaondo (317-318. orr.): Kasu hauetan guztietan *Almika-* ala *Almoika-* eman behar den zalantza dugu, bigarrena osoagoa delako. Ikus beherago *Almika* (628-632. orr.). Dokumentazioa ikusita, badirudi -oi- > -i- monoptongazioa zaharra dela, baina hango informatzaile batzuek oraindik gordetzen dutela ere frogatu dute iker-tzaileek (631. or.). Toponimo «nagusi» samarra da eta, agian, egokiena gauzak dauden bezala uztea izango litzateke.

Matsorriane (324. or.): Dokumentaziorik ez dago. Egileek oharretan aditzera ematen dutenaren arabera *Matsorria* + -ne da jatorria eta *Matsorriane* eman behar du. Era horretan defenditu nahi duten sistema hipotetikoa (-n genitibo desinentzia eta -e paragoge tradizionala) zutik mantenduko litzateke. Informatzaileek ordea, besterik adierazten dute: *Matsorri* + -en + a > *Matsorriena* > *Matsorrijene*. Bizkaiko tradizioarekin bat datorren *Matsorriena* (-a) idatzi behar da, noski. Bistan da, paragoge modernoa artikulua egonik ere pairatu duela toponimoak.

i. Erribera

Martzana (332-333. orr.): Durangaldeko elizate ezagun baten auzoa ere bada eta euskaraz *Martzaa* eman du, espero zitekeen bezala. Guk euskal aldaera hori hobetsiko genuke. Deitura legez, ordea, -n-dun aldaera ontzat eman du Euskaltzaindiak²⁹...

j. Zarragoiti

k. Kurtzio eta Santa Mariña

Bildosola (336. or.): Toponimo berri samarra dela dirudi eta ez gara ausartzen besterik proposatzen, baina euskaraz espero behar zena *Bildotsola* da. Cf.

²⁹GORROTXATEGI NIETO, Mikel (par.): *Nomenclátor de Apellidos Vascos / Euskal Deituren Izendegia*, Justizia Ministerioa & Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila & Euskaltzaindia, Madril, 1998, 209. or.

Arteaga Arratiako auzo izenkidea, ahoz ere *Bildosola* esan ohi dena; orobat herri berean *Sarasola* gana aurkitzen dugu, *-ts-* eman behar baina ematen ez duena. Afrikatuaren galeraren arrazoia zein izan daiteke, gartzelaniaren sistema fonologikoa ez bada?

Kurtziogane (337. or.): Paragoge modernorik gabeko *Kurtziogana (-a)* mugatzaileduna da arauzko era.

l. Txibitxiaga

m. Tala

Txirritea (362. or.): Gehienetan bazterrean utzi den arren, kasu honetan oso modu egokian proposatu da arauzko grafian *-a* organikodun hitz horri mugatzaileak eragindako disimilazio bokalikoa. Ezaugarri zahar eta bizi honen babeserako neurriak hartu behar dira arauzko toponimoetan. *Bañera* (248-250. orr.) lekuaz esan den bezala, kontu egin, deklinatzean zer erabili behar dugun: *Txirritea* baina *Txirritan*, *Txirritako*, *Txirritatik*, *Txirritara...*

n. Sanjuanbidea

Aritzatxubidea (363. or.): Arauzko era *Areatzatxubidea (-a)* da. Ikus beherago *Aritzatxu* < *Areatzatxu* afera (979-980. orr.).

Aritzatxugane (363. or.): Dударik ere gabe, *Areatzatxugan* da arauzko grafia, nahi izanez gero, mugatzailea ere har lezakeena, *Aritzatxugana (-a)*. Ez hartzekotan, deklinabiderik egokiena *-ganen*, *-gango*, *-gandik*, *-ganera...* litzateke, hala ere. Mugatzailea hartuz gero, *-ganean*, *-ganeke*, *-ganetik*, *-ganera...* izango genituzke. Lehen osagaiaz, ikus beherago (979-980. orr.).

Itsasgane (365. or.): Toponimo berria den arren, *Itsasgan* idatziko genuke guk, mugatzailearik eta paragogerik gabe. Horrek deklinabidean dituen ondorioez ikus *Aritzatxugane* (363. or.) toponimoaz esandakoa.

Mendiluzeko hilerria (367 or.): Guk *Mendiluzko hilerria (-a)* edo *kanposantua (-a)* jarriko genuke, oinarriko toponimoa *Mendiluz* delako, ez *Mendiluze*. *Kanposantua* –eta orobat *ortusantua*– generikoa ere jatorra eta egokia da, gure ustez.

Uriatziti (371-373. orr.): Beste proposamenik ez dugu egingo, baina gauzak ez daude nahi bezain argi. Ematen den etimorako zenbait oztopo ikusten dugu. Hasteko, oso arraroa da toponimia zaharrean *-atze-* osagaia aurkitzea eta kasu honetan *Vriachiti* 1236tik aurrera ageri zaigu. Normalean,

idea bera adierazteko, gaur erabiltzen ez den tokietan ere *-gibel-* aurkitu ohi da eta, mendebaldean, normalagoa *-oste-* aldaera. Bigarrenik, ia beti dokumentatzen da *-ch-* grafia. Oinarrian *-atze-* forma egotekotan, erdal eskribauen transkripzio zaharra *-eta* baditugu era dokumental zahar samarrak *-c-* izango zen. Horren aurka, *-tz-* transkripzio salbuespen bat aurkitu da 1646an. Azkenik, *-achi-* da ia beti aurkitzen den era eta oso modu banatuan kausitzen dugu *-ache-* gardena izan zitekeena. Hurrengo atzikiaren hots bokalikoarekiko asimilazioagatik esplika liteke hau, baina lekukotza zaharrenetan ere ia invariableki *-i-* agertzea oso arraroa da. Guk, zuhurtasunez, azalpen horren balio hipotetikoak azpimarratuko genuke.

o. Ibarreta eta San Martin

Baratzeder (374. or.): Toponimoak itxura ona duen arren, ez dugu uste oinarri nahikorik duenik. Dokumentatzen den era bakarra *Badacher-eder* da (1938-1939) eta ahoz jaso den bakarra *Etzegorri* edo *Etzegorrijé*. Nahiz eta guk datu dokumentalei lehentasuna eman ohi diegun, kasu honetan seguruagoa litzateke herri-goitzena den *Etzegorria* (*-a*) proposatzea.

Ibaigane (374. or.): Zalantzarik gabe, *Ibaigan* edo *Ibaigana* (*-a*) da arauzko era. Mugatzailea jartzearen ondorio deklinatiboez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).

San Martin (377-380. orr.): Guk ere bere horretan utziko genuke, baina kontuan izan bedi, adokazio horren forma jasoa *Done Martie* dela³⁰. Euskal era tradiziozko horien normalizazioaren mesedetan, hori aipatu behar litzateke ermitari dagokion fitxan bada ere.

p. Bilbobidea

Batxiarriene (382. or.): Paragogerik gabeko *Batxiarriena* (*-a*) da arauzko grafia.

Txopueta (385-386. orr.): Izen hori *Txopoeta* idatzi behar da, oharretan oso modu egokian esplikatzeko den disimilazio hori ez baita euskarazko grafia kultuan jasotzen. Hala ere, azalpen zaileko *-o-* > *-u-* disimilazio simplea ez baina ohiko harmonizazioa ikusten dugu guk *-oe-* > *-ue-* bokalismoan, gero hiato sinpletzea (*-ue-* > *-u-*) ere pairatzen duena. Zuhaitz horren izenaren era estandar jasoa *makal* bada ere, toponimian ohikoa da *txopo* mailegua nahiz bere eratorria den *txopodi* kolektiboa, ez **txopu(di)*.

³⁰ *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

Dibio

Dibiobidea (389-390.orr.): *Sanmigelbidea* (-a) eta *Kakadillobidea* (-a) ere eskaini behar lirateke aldaera bezala. Azken horren era osoaz, ikus gora-go *Kakallo* (304. or.).

q. Aranondo**r. Artikabidea****s. Portuburu**

Errosako zubia (401 or.): *Lamiarango zubia* (-a) ere eskainiko genuke guk aldaera bezala.

t. Zehaztu gabeak

Burgo (409. or.): Bistan da *Burgoa* behar duela izan, azken -a hori artikulua den ala ez hain garbi ez badago ere. Ikus beherago ere *Burgo* (1013-1015. orr.).

San Migel (409-410. orr.), **San Salvador** (410. or.) eta **San Sebastian** (411. or.): Adbokazioen era jasoak, hurrenez hurren, *Done Mikel*, *Salvatore* eta *Done Sebastian* dira³¹.

2. ARANE AUZOA

Arane (414-415 eta 419-421. orr.): Dударik ere gabe arauzko grafia *Arana* (-a) mugatzaileduna da. Dokumentazio ugarian ikus daitekeenez, mugatzailezik gabeko aldaeratik pasatu gabe pairatu du paragogea. Kontuan izan, hala ere, deklinabiderako mugatzailedun paradigma arrunta erabili behar dela: *Arana*, baina *Aranean*, *Araneko*, *Aranetik*, *Aranera*...

Abaroane (415. or.): Dudatu ere gabe *Abaroena* (-a) da arauzko grafia. Oharretan ezer azaltzen ez bada ere, bistakoa da ahozko *Abárune*, *Abaroena* > *Abaruena* bilakaeratik heldu zaigula, ondoko hiato simpleketaz. Fenomeno hau oso ohikoa da Bizkaiko kostaldean zehar, Bermeotik ekialderantz behinik behin.

Albarezene (416. or.): Paragogerik gabe, tradiziozko -ena atzizki oikonimikoa bere horretan idatzi behar da. Hortaz, *Albarezena* (-a) izango genuke

³¹ *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

arauzko grafia. Hala ere, guk *Basogalant* dokumentatuagoari emango genioke lehentasuna.

Aranburukoerreka (419. or.): Erabileran beti konplikatuagoa den genitibo egitura saihets zitekeen, dokumentazioan ere aurkitzen den *Aranburue-rreka* proposatuz.

Araneko larre (421. or.): Generikoari *larre* itxura ematea, joera estandarizatzaileria da, euskara batuaz ematea alegia. Bizkaiko hizkeren usadio tradiziozkoan behintzat –oraindik ere bizirik–, izen horren era mugagabea *larra* da, mugatzailea jasotzean *larra* + *-a* > *larrea* disimilatu bilakatzeko dena. Hala balitz, deklinabide jatorrerako, *larrea*, baina *larran*, *larrako*, *larratik*, *larrara*... erabili behar da. Hala ere, ditugun lekukotza urriek argi erakusten dute kasu honetan mugatzailerik ez dagoela eta, beraz, arauzkoa *Araneko larra* mugagabea da.

Arbaltze (421-422. orr.): Paragoge moderno hori ez da jarri behar. Ikus daitekeenez, Bermeon ere hura gabeko aldaera jatorra bizirik dago oraindik. Aurreko osagaia ahoz *Ar-* jasotzen da, baina idatziz beti *Atx/As-*. Guk *Asbaltz* hobetsiko genuke.

Areaga (422. or.): Oso da sinesgarria *-aga* atzizkiarena, baina ditugun datuekin ezin da segurutzat eman. Guk, badaezpada ere, *Area* emango genuke, Demikuko leku izenkidearekin erlazioan ezin jar badaiteke behintzat (789-790. orr.). San Pelaioko *Areagako basoa* (944. or.) eta *Areagako landa* (944-945. orr.) izenek ere ez dute *-aga* horren lekukotza sendorik. Ikus beherago.

Arezti eta **Areztisolo** (422-423. orr.): Mendebaldean *Aresti-* da arauzko grafia. Euskalki horretan *Aretx* da aldaera jatorra (< *Areitz*). Eratorrietan, haren ondoren kontsonantea dagoenean *-x-* > *-s-* gertatzea oso normala da, tradizio onomastiko ugaria ekarri duena. Deitura horren tradizio onomastiko bakarra *Aresti* da. Kontrara, nekez aurkituko dugu *-z-z* eskualde hauetan.

Axgane (424-425. orr.): 1851n dokumentatzen den arren, paragogerik gabe eman behar da arauzko grafia, *Axgan* alegia. Honen deklinabideaz, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.). Hala ere, *Telleria*, *Plantatxu* edo *Etxezuri* ere eskain litezke, agian lehentasunez.

Axmontorre (425. or.): Txistukariaren despalatalizazioa oso arrunta da inguru foniko horretan eta arauzko eretan ere horrela onartu ohi da (cf. *Elespe*, *Aresti*, *Aspunta*...). *Axgane* (424-425. orr.) toponimoarekin ez bezala, hemen *As-* jaso da ahoz eta hala emango genuke guk arauzko grafian. Paragoge berria, ordea, ez da arauzko idazkeran islatu behar eta, beraz, *Asmontor* proposatuko genuke.

Basoillun (431.or.): Dokumentazioak erakusten duenez, *Basa-* aldaera disimilatu jatorra erabiltzen zen lehen (1680ra arte). Guk horixe hobetsiko genuke, *Basoillun* alegia.

Berjele (433-434. orr.): Paragogerik gabe proposatu behar litzateke arauzko grafia. *Berjel* hitzaren lekukotza asko aurki daitezkeen arren, etimo hori hipotesi mailan utziko genuke guk, ahoz *Breijjele* eta dokumentazioan *Berdela* baizik ez direlako jaso. Tarteko *-d-* horren bustidura baten ondorio ere izan liteke gaurko *-j-* hotsa... Hala ere, dokumentazioko *Berdela (-a)* edo egileek proposatutakoarekin bat datorren *Berjela (-a)* emango genuke guk.

Bidekoetxe (435. orr.): Mugatzailea 1948ra arte dokumenta daiteke eta ahoz ere *Andikoetxea* jaso da. Hortaz, *-a* horri eutsi behar zaio arauzko grafian. *Bidekoetxea (-a)*, beraz.

Etxabarria (Arotza) (437. orr.): Egokiena formarik osoena ematea izaten da, erabileran era laburtuak zilegi badira ere. Kasu honetan ez dugu argi aldaera osatu hori *Etxabarriarotza (-a)* ala *Arotzaetxebarria (-a)* izan behar ote den, baina etxe-izenekin normalena bigarren hau litzateke. Dokumentazioan *Echabarria de Aroça* jasotzen da 1703an.

Etxebarri (437-438. orr.): Gure ustez forma osatua lehenetsi behar litzateke, hots, *Oruetxebarri*, era laburtuaren ahozko erabilera oso normala den arren. Horrek beste *Etxebarri* batzuetatik bereizteko aukera ematen du.

Galdizko kantarak (443. orr.): Asimilazio bokaliko horrek (*-a-e-a- > -a-a-a-*) ez du idatzizko tradiziozirik eta generiko arrunta den aldetik, *kantera* idatzi ohi dugu beti. Mugatzailea nola erabili behar den adierazteko (*-ak*) oharra behar luke.

Galdizko kantarak (444-445. orr.): Generiko horretaz, ikus aurreko izenkide-rako esandakoa. Hala ere, dokumentazioak argi erakusten du *Gibeledko kanterak (-ak)* eman behar litzatekeela.

Garimeta (445. orr.): Dokumentazioak dakarren bakarra *Gavimeta* da. Ustezko etimoagatik eman zaio eman zaion itxura baina hori, gure ustez, ez da metodologikoki zilegi. Guk *Gabimeta* utziko genuke, nahiz toponimo ilun bezala gelditu.

Gibeled (446-448. orr.) baserria eta parajea: Guk *Gibela (-a)* utziko genuke, mugatzaile eta gutzi, halaxe dokumenta daitekeelako 1922ra arte. Paragogearen lehen lekukotza 1857koa da eta parajerako ez da *-e* hori behin ere dokumentatzen.

Goikoetxe (449. orr.): Dauden datu urrien aurka, toponimoak duen *-a* mugatzailea kendu egin zaio, segur aski ikertzaileek mugatzaileaz ehundu dituzten azalpenekin bat eratortzearren. Dударik gabe, *Goikoetxea (-a)* da leku horren arauzko era.

Gorostadi (449-450. orr.) baserria eta parajea: Lekukotza dokumentalek erakusten dutenez, *Gorostegi* hobetsiko genuke guk, baina segurtasun handirik gabe, hala ere.

- Gorostiape** (450-451. orr.): Tarteko *-a-* horrek *-aga* atzizki bat salatzen du, gure ustez. Agian *Gorostadi* etxerako (449-450. orr.) XVIII. mendean jaso den *Gorostiaga* aldaera egon daiteke atzean. Hori posible izanez gero, *Gorostiagape* litzateke normalena.
- Grandene / Aritzatxugane** (451. orr.): Izen zaharra *Mikelaenaetxebarri* zen eta arauzko itxuran eskaini behar litzateke. Hautaturikoak, ordea, paragogerik gabe *Grandena (-a)* eta *Areatzatxugan* idatzi behar lirateke. Azken izen horretaz, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. orr.) eta beheago *Aritzatxu* (979-980. orr.). Hala ere, guk lema bakarra jarriko genuke, gainerako alonimoak aparte aipaturik.
- Grandene** (451-452. orr.): Aurrekoa bezala, *Grandena (-a)* idatzi behar da, Bizkaiko tradizio oikonomikoa babestearren. Bermeon bertan dauden etxe izenkideak bereizteko toponimiak baditu tresnak eta, gure kasu honetan, bazegoen *Kabogoikoa (-a)* aukera alternatiboa ere.
- Itsasalde** (452-453. orr.): Lema nagusi bezala ez bazen ere, etxe horren izenik dokumentatuenari kasu eginik, *Buenavista* aldaerari lekua egin behar zitzaiokeen. Gaztelaniazko izenak erabiltzea, behiala, prestigioa adierazten zuen, baina gaur egun izen horiek ezkututzen saiatzen gara, hartaz lotsatuko bagina bezala.
- Itsasgane** (453-454. orr.) baserria eta larrea: Toponimo modernoak diren arren, guk paragogerik gabe idatziko genituzke biak, *Itsasgan* alegia. Honek deklinabidean dituen ondorioez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. orr.).
- Iturricane** (456. orr.): Paragogerik gabeko *Iturricane* da euskal era jatorra. Honek deklinabidean dituen ondorioez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. orr.).
- Iturrisolo** (456. orr.): Izen bereko bi leku daudenez gero, lehenengoari dokumentatzen den izen alternatiboa emango genioke guk, *Iturriondokoa (-a)* alegia.
- Joakintxu** (458-459. orr.): Guk *Joakintxuena (-a)* emango genuke, hala dokumentatzen delako eta Bizkaiko tradizio oikonomiko jatorrarekin bat datorrelako.
- Juliane** (459-460. orr.): Guk *Vistalegre* izen dokumentatua hobetsiko genuke, bigarren maila batean *Juliana (-a)* (*Julia* izenaren gainean eraikitako goitizena) edo *Julianena (-a)* (*Julian* izenaren gainekoa) utzirik.
- Kantarabaso** (460. orr.): *Kanterabaso* idatzi behar da, idatzizko tradiziorik gabeko asimilazio modernoa baita. Ikus *Galdizko kantarak* (443. orr.) toponimoan esandakoa.
- Karlotana** (460. orr.): Guk dokumentazioan jaso den *Karlotena (-a)* erregularragoa emango genuke arauzko era bezala.

- Kasakane** (460. or.): Guk tradizio luzeagoa duen *Bistaederra* (-a) izenari emango genioke lehentasuna eta, idazkera egokiaz, bigarren mailan utziko genuke behin dokumentatzen den *Kasakena* (-a) era. *Mandalu(n)* iz. izenak bestelako buruhausteak ekarriko lituzke, ordea.
- Kastane** (460-461. orr.): Badirudi atzean *Kasta-ena* eduki lezakeela, segur aski *Kasta* andre izenaren eratorria. Guk *Kastena* (-a) edo *Kastaena* (-a) emango genuke, noski, paragogerik gabe eta mendebaldeko usadioari segiturik.
- Kerizeta** (461. or.): Bizkaiko aldaera jatorra *Kerexeta* litzateke, eta ahoz *Keríseta* baizik ez dugun arren, halaxe idatziko genuke guk. *Kerizeta* zeharo estandarizatzailea da eta ez dugu uste egokia denik. Ikus beherago *Leixartxueta* (466. or.), kasu berean egon arren, bestelako soluzioa eman zaiona.
- Larrañe** (463. or.): *Larraña* (-a) proposatuko genuke guk, nahiz dokumentaziorik ez den bildu. Generiko hutsa denez gero, *Larraina* (-a) grafia estandarra ere ontzat eman liteke.
- Lauziriko aresti** (463. or.): Dokumentazioak ondo erakusten duen bezala, arauzko grafia *Lauziriko aresti* da. Ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.).
- Leixartxueta** (466. or.): Bizkaiko arauzko aldaera tradiziozkoa *Lexartxueta* da eta guk honela idatziko genuke. Honekin lotuta, ikus gorago *Kerizeta* (461. or.), soluzio grafiko antzekoa eskatzen duena.
- Leixarreta** (466 or.): Dokumentazio gutxi duen arren, diptongorik gabeko lekukotzak ditugu hemen, Bizkaiko tradizioarekin bat datozenak eta *Lexar-* hasiera hobestera bultzatzen gaituztenak. Ikus gorago *Lexartxueta* (466. or.) eta *Kerizeta* (461. or.).
- Luberri** (466. or.): Bizkaiko leku askotan honela esaten den arren, tradizio idatzirik gabekoak dira bokalismo horiek, bigarren osagaia *-barri* baita. Dudarik ere gabe, bokale itxitura aurreko *-u-ri* zor dio *-baita*, agian, ondoko *-i-ri* ere-, Bermeon *berri* osagaia sinestezina delako (ikertzaileek agian, errotazismoa gertatu aurreko aldaera arkaikoa Bermeon bizirik aurkitu dutela pentsa lezakete, hala ere). *Lubarri* idatzi behar da, asimilaziozko bokalismo horiek ez baitira inoiz idazten. Cf. *Gernika* eta ez *Gernike*, *Maguma* eta ez *Magume*...
- Madari** (466-467 eta 467. orr.) baserria eta parajea: Guk *-aga* atzizkia berreskuratzea kontsideratuko genuke, emaitza «toponimoagoa» izango bailitzateke horrela.
- Makatze** (467. orr.): *Makatza* (-a) da euskarazko hitza edo, nahi balitz, mugatzaile gabeko *Makatz* ere bai. Azken honek deklinabidean ondorioak izango lituzke, hala ere, paradigma mugatu arruntan ordez, *Makatz*, baina *Makatzen*, *Makatzko*, *Makatztik*, *Makatzera*... erabili beharko litzateke eta.

- Mallukisolo** (468. orr.): Ahoz hala jaso bada ere, dokumentazioak *Mallukitza* iradokitzen digu eta guk honelaxe emango genuke. *Telleripeondo* ere har liteke lema nagusi bezala, baina lema bikoitzak saihestuko genituzke edozein kasutan ere. Populismo zantzua antzematen da alternatiba posibleen aurrean, idatzizko era jasoak ahozko lekukotzetara makurtu nahi horren atzean...
- Marinone** (468-469. orr.): Aldaera hori *Marianoena* (-a) idatzi behar da. Hala ere, dokumentazioan oinarri hartuta, *Etxebarri(txikerr)ja* (-a) edo antzeko zerbait izango litzateke lehenetsi beharrekoa. Guk aldaera osatuena nahiago genuke.
- Muskerritxune** (474. or.): Aldaera hori *Muskerritoena* (-a) idatzi behar da eta, lema nagusi bezala ez bada, sinonimo legez behintzat *Andikoetxebarri* ere eskainiko genuke.
- Otaebagia** (475. or.): Oso litekeena da planteatzen den hipotesi etimologikoa, baina egia eztabaidezin bezala azaltzea ez da oso zuhurra. 1910eko *Ota-veise* pare bat baizik ez daukagu eta *Otaebagia* (-a) proposatzea ausarta egiten zaigu. Hala ere, bere horretan utziko genuke, erreserba horiek guztiak aditzera emanik, badaezpada ere. Ikus beherago ere *Iraebagia* (723. or.).
- Otsolarre** (475. or.): *Otsolarra* mugagabea da arauzko grafia jatorra. Bigarren osagai generiko horren gainean, ikus gorago *Araneko larre* (421. or.) izenez esandakoa.
- Patxotene** (475-476. orr.): Bitxia da paragogedun aldaera lehenagotik dokumentatua aurkitu izana (1847-1874koa da lehen agerpena). Seguraski, ikertzaileen eskema esplikatiboen arabera, *-ena* amaieradun lekukotzak eskribau erdaldunen asmazioak izango direla esango da. Guk, ordea, aldaera horiek jatorrizkotzat hartzen ditugu eta mendebaldean hobetsi egiten ditugu. Ondorioz, lehenbizikoz 1895ean ageri den *Patxotena* (-a) idatziko genuke.
- Pedrualde** (476. or.): Guk *Pedruondo* hobetsiko genuke.
- Pepetolarre** (476. or.): Ikus gorago *Araneko larre* (421. or.). Hala ere, guk kasu honetan *Pepetolar* emango genuke, ahoz jasotako *-e* hori paragoge arrunta baita eta, jakina denez, toponimian *lar-* oso sarri ageri den osagaia delako. Cf. *-aur*, *-luz...* ere amaierako *-e* hori galdu ohi dutenak leku-izen eta deituretan.
- Peruareztí** (477. or.): Dudarik ere gabe *Peruaresti* idatzi behar da izen hori. Ikus gorago *Areztí* (422-423. orr.).
- Piku** (478. or.): Bizkar bat izanik *-pe* atzizkiak oso «propio» ematen ez duen arren, halaxe ageri da dokumentazioan eta guk *Pikupe* proposatuko genuke.

Sartzailleku (482-483 eta 483. or.): Dokumentazioari kasu eginik *Sartzalleku* idatziko genuke guk, *-ai-* diptongo hori, inoiz egon bada, desagertua baitago lehenbiziko lekukotzen garaietatik.

Solozarre (483. or.): Oraindik ere, erarik erabiliena euskarazko jatorrena da Bermeon, paragogerik gabekoa, hots, *Solozar*. Horixe idatzi behar da arauz.

Txankane (487. or.): Badirudi jatorrizko izena *Buenavista* (edo *Vistalegre*) dela. Bigarren mailako herri-aldaera *-goitizena*, azken finean *-aipatze*kotan, *Txankaena* (*-a*) idatzi behar litzateke, paragogerik islatu gabe alegia.

Txopitene (487. or.): Mendebaldeko tradizio oikonimikoari kasu eginik, paragogerik gabeko *Txopitena* (*-a*) idatzi behar da.

Urkitzeta (488. or.): Ez dugu honetarako beste proposamenik. Hala ere, dokumentaturiko era eta ahoz jasotakoaren arteko lotura oso ezbaizkoa da, batetik besterako jauzia esplikatzeko ez bada bederen.

Zitza (488. or.): Guk *Sitza* idatziko genuke, noski, halaxe baitator dokumentazio urrian.

3. AGIRRE AUZOA

Agirre / Auzoko (491-492. orr.): Gure ustez, bigarren aldaerak ez dauka oinarri nahikorik, ahoz baizik ez baita jaso. Guk lema nagusi bezala *Agirredikoa* (*-a*) emango genuke bakarrik eta *Obi(a)koena* (*-a*) bigarren aukera gisa. Ahoz jasotako goitzenaren ostean, segur aski, **Agirreauzokoa* (*-a*) hipotetiko bat egon liteke.

Agirrebarrenengo (493. or.): Artikulua duela gutxira arte idatzi da eta ez genuke galdutzat emango. *Agirrebarrenengoa* (*-a*) idatziko genuke, beraz.

Agirreigoiko / Pellune (493-494. orr.): Mugatzaile eta guzti dokumentatzen da beti duela gutxira arte eta, beraz, *Agirreigoiko* (*-a*) emango genuke lema bakun bezala. Ematen den bigarren deizio horren grafia arauzkoa *Pelloena* (*-a*) da eta alonimo mailan utziko genuke. Gure ustez, *-oe-* > *-ue-* > *-u-* bokalismoak ez dira arauzko idazkeran jasotzeko moduko fonetismoak eta paragoea ere ez.

Areztinagusi (495. or.): *Aresti-* da lehen osagaia. Ikus gorago *Arezt* (422-423. orr.)

Arrietane (495-496. orr.): Izen horren arauzko grafia dokumentatzen den *Arrietena* (*-a*) da, paragogerik gabea. Izen bereko beste etxe batzuetatik bereiz-

teko, *Agirrearrietena* (-a) osoagoa ere onar liteke, 1922ko lekukotza dokumentalean oina harturik. Agian *Agirre*- osagaia daraman beste izenen bat ere eskain liteke (*Agirreerdikoa*, *Aldauriagirre*, *Zurbituagagirre*...).

Artone (496. or.): Guk *Etxezuribidekoa* (-a) proposatuko genuke arauzko lema gisa. Goitizena eman nahi izatekotan, *Artoena* (-a) izango litzateke arauzko grafia.

Bastegieta / Igartuko etxezarre (496-497): Guk *Bastegieta* edo *Bastegietabarrenekoa* (-a) emango genuke soilik. Ahoz batu den aldaera hori eman nahi bada, paragogerik gabeko *Igartuetxezar* edo atondu behar litzateke. Edo etxe-izentzat hartzen da eta bat eginik idatzi, edo ez da toponimo bat eta «esapide arrunta» da. Azken hau balitz, gure ustez ez litzateke ezta alonimo bezala ere eskaini behar eta *Igartuko etxe zaharra* idatziko genuke. Beste aukera batzuk ere badaude, hala ere, dokumentaziotik abiatuta: *Ametzorma*, *Kanteraetxebarria* (-a)...

Bizkargane (497. or.): Guk *Bizkargan* idatziko genuke, noski. Ikus honen gainean, *Aritzatzugane* (363. or.) izenerako esandakoa.

Errotatxu (498. or.): Luzea den arren, *Etxebarrimotzenaerrotatxu* proposatuko genuke arauzko idazkerarako. Bistan da, *Errotatxu* ez dela izena, generikoa baizik, eta ahoz hori bakarrik erabiltzea zilegi eta logikoa da. Dirudienez, -aga- bat egon zen hor erdian, baina XVIII. mendean galdutzat eman daitekeela uste dugu, batez ere, hurrengo izenaren dokumentazioa ikusirik.

Etxebarrimotzene (499-500. or.): Arauzko *Etxebarrimotzena* (-a) dio dokumentazioak desbideratzerik gabe eta XX. mendeko azken lekukotzetara arte. Guk noski, paragogerik gabeko era tradiziozko hori hobesten dugu. Dirudienez, -aga- bat egon zen hor erdian, baina XVIII. mendean galdutzat eman daitekeela uste dugu.

Fiolene (501. or.): Beharbada *Fielena* (-a) litzateke egokiagoa, baina -ie- > -io- bokalismo harrigarria esplikatuz behar litzateke eta ez da erraza. Nolanahi ere amaiera -ena idatzi behar da.

Igartu (501-502. or.): Mugatzailea ez da galdutzat eman behar, XX. mendearen erdialdeko lekukotzetan oraindik hala ageri baita. *Igartua* (-a), beraz.

Kalene (503. or.): Guk *Frantsesena* (-a) proposatuko genuke. *Kalena* (-a) izen berria, nahi bada, bigarren aukera gisa eskain liteke, beti ere paragogerik gabe, noski. *Agirrebekoa* (-a) eta *Julianena* (-a) ere aipatu behar lirateke maila historikoan edo bestelakoan.

Kantara (504. or.): Bitxia da XIX. mendeko lekukotza zaharrenetatik (1827) *kantara* aldaera asimilatua gailentzea. Bokalismo horretaz, ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.) izenean esandakoa. Nolanahi ere, guk informazio gehiago ematen duen *Kanteragoikoa* (-a) emango genuke arauzko lema bezala.

Kantaraburu, Kantarape (504 .or.): Id. *Kantera-*, beraz.

Kantarazarre (504. or.): Id. Gainera, paragoge berri hori ez da onargarria eta *Kanterazar* emango genuke.

Kerizeta (505. or.): XX. mendeko dokumentazioa baino ez dago, baina *Kerihasiera* erakusten du. Hala ere, guk *Kerexeta* tradiziozkoa hobetsiko genuke arauzko idazkerarako. Ikus gorago *Kerizeta* (461. or.) izenerako esandakoa.

Kurtzeanondo (505. or.): Ez dugu alternatibarik formulatuko. Ondo deritzogu ematen den bokalismoen gaineko azalpenari. Oso ondo, halaber, idatzizko era proposatzean, gertatutako fonetismoak desegin nahi izateari. Hala ere, *Kurtzean-* horren aurretik beste zerbait egon behar litzatekeela uste dugu eta horren gaineko zalantzarik ez da aditzera ematen oharretan. *Kurtzeanondo* ez da nahi bezain gardena, atzean zer dagoen ikusten ez dugularik: *Kurtzearen ondo-?*, *Kurtzeaganondo?*...

Larrañe (506. or.): Oinarri bakarra du 1910eko *Larrane* era dokumentalean eta ausart samarra iruditzen zaigu *Larrañe* proposamena. Hala balitz, *Larraña (-a)* edo *Larraina (-a)* idatziko genuke guk. Ikus gorago *Larrañe* (463. or.).

Laumariko (506. or.): Forma osoagoren bat jarriko genuke guk, baina ez gaude seguru noraino berreraiki behar ote dugun. Muturreko aukera *Laumarabediko* bera izango litzateke, baina *Laumaraiko* behintzat emango genuke. Onartu behar da biek *laumarai* eta *laumari*-k badutela euskal hiztegi gintzan tradizioa.

Mamatzane (510. or.): Dударik ere gabe, Bizkaiko tradizioarekin eta era dokumentalekin bat datorren *Mamatzena (-a)* da arauzko era.

Masotze (510. or.): Segur aski *-tza* amaiera behar luke.

Pedru (511. or.): Dokumentazioak erakusten duenez, amaierako *-a* izan du duela gutxi arte. Guk horrela emango genuke, hots, *Pedrua (-a)*.

Pintxesgane (512. or.): *-gan* amaiera hutsa lagako genuke, paragogerik gabe. Ikus horretaz, gorago *Aritzatxugane* (363. or.).

Sagargane (513. or.): Id.

Saitu / Foteroane (513. or.): Galera moderno samarra da eta *Saitua (-a)* utziko genuke guk lema bezala. *Galartza*, *Baporenekoa*... aukerak oharretan agertzeari ondo deritzogu, baina ahoz jaso eta bigarren aukera gisa ematen dena *Foteroena (-a)* idatziko genuke guk, oharretara bazterturik.

Saitu (514. or.): *Saitua (-a)* dударik ere gabe, dokumentatu ez ezik, halaxe ere erabiltzen baita. Ikus aurrekoa ere.

- Solobiribile** (514. or.): Guk paragogerik gabe emango genuke arauzko grafia, *Solobiribil* alegia, lekukotza urriak moderno samarrak dira eta. Honen deklinabidez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.) izenerako esandakoa.
- Tontorre** (515. or.): Id. Paragogerik gabeko *Tontor* hobetsiko genuke arauzko grafia jaso bezala.
- Txaoletabeko** (515. or.): Mugatzailedun *Txaoletabekoa* (-a) jarriko genuke guk, galera berria baita. Bigarren aukera arautzekotan, *Zezipioena* (-a) izango litzateke, baina lema bikoitza ez da egokia.
- Txaoletaerdiko** (516. or.): Mugatzailea kendu zaio arrazoirik gabe eta *Txaoletaerdikoa* (-a) da arauzko era.
- Txaoletagoiko / Paulogorri** (516-517. orr.): Guk lema bakarra emango genuke, mugatzaile eta guzti, hau da, *Txaoletagoikoa* (-a). Bigarren aukera aparte aipa liteke.

4. SAN MIGEL AUZOA

- Alagarre** (521. or.): Paragogerik gabeko *Alagar* idatzi behar litzateke, dokumentatutako erarekin bat.
- Algane** (522. or.): Dauden lekukotza guztiak moderno samarrak diren arren, guk *Algana* (-a) emango genuke arauzko grafia bezala. Deklinabidez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.) izenean esandakoa.
- Arkiene** (524. or.): Ditugun datu guztiak berri samarrak dira baina, sail bat izanik ere, guk *Arkiena* (-a) emango genuke arauzko era bezala.
- Arkotze** (524. or.): Izen horrek badu tradizio onomastiko nahikorik –Zarata-moko toponimo nagusia eta deitura– eta guk ez dugu arrazoirik ikusten horren kontra jotzeko. Beraz, *Arkotxa* jarriko genuke leman. *Arkoetxe* aldaera dokumentala ere kontsidera liteke, baina zalantza dugu herri-etimo erraz baten ondorioa ez ote den.
- Arkotzepe** (524-525. orr.): Aurrekoari jarraiki, *Arkotxape* litzateke arauzko era egokia.
- Arlobiribile** (525. or.): Guk paragoge berri hori gabeko *Arlobiribil* idatziko genuke, jakina.
- Arloluze** (525. or.): Lehenasuna emango genioke dokumentatutako izenari, ahoz ere jaso dena, eta *Konstantza* idatziko genuke. *Arloluze* hori, zerbait izatekotan, herri-goitizena izango litzateke.
- Artetxu** (526. or.): Mugatzailea ondo dokumentaturik dago duela gutxira arte eta *Artetxua* (-a) jarriko genuke guk lema bezala edo, nahi bada, «toponimoagoa» den *Artetxueta*.

- Atxagane** (527. or.): Ez dakigu zergatik aurreiritzi behar den horren ostean *Atxa* dagoela eta ez, adibidez, *Etxa*-. Bestalde, paragoea ez genuke inola ere ontzat emango. Toponimo «hiperbilakatu» litzateke, *atx*- hitzari *-a* organikoa onartzen diona eta *gan* generikoari *-e* paragoea. Zalan-tzaren aurrean *Txagan* (edo *Txogan* are ilunagoa) utziko genuke.
- Axpaltxu** (527. or.): *Ax*- palatalaren iraupenik ezaz ikus gorago *Axgane* (424-425. or.). Izan duen bilakaeraz ematen den esplikazioa korapilatsu samarra da. *Aspaltxu* bezala, guk *Aspaltzu* ere kontsideratuko genuke: *Atx-baltz-zu*, *Atx-baltz-tza* aldaeraren sinonimo izan litekeena.
- Baltzane** (529-530. orr.): Lehen aukera gisa *Bedarzurietta* dokumentatuagoa emango genuke eta, bigarren hau, *Baltzena* (*-a*) idatziko genuke arauz, noski.
- Basabetxune** (530. or.): Goitizen hau *Basabetxuena* (*-a*) idatzi behar litzateke Bizkaiko usadio oikonimikoari jarraiki.
- Beasko** (531-532. orr.): Erabiltzen den era laburtua ahoz zilegi bada ere, guk *Morterutzabeaskoa* (*-a*) emango genuke izen jaso bezala.
- Egi** (533-534. orr.): *Egia* (*-a*) da arauzko era osoa, mugatzailerik gabe behin ere dokumentatzen ez da eta.
- Eguzkitxune** (534. or.): Horren ostean, *Eguzkitxuena* (*-a*) izen arauzkoa dago dudarik ere gabe.
- Elizbide** (534. or.): Dokumentazioan ageri den aldaera da mendebaldeko euskararen tradizio idatzia duena, hots, *Elex*- hasiera duena. Guk *Elexbide* idatziko genuke, nahiz despalatalizaturiko *Elesbide* edo *Elespide* ere arauzkoak izango liratekeen.
- Ermetxiobeko** (536. or.): Dokumentatu ez ezik ahoz ere jaso den mugatzailea behar du arauzko grafiak, *Ermetxiobekoa* (*-a*) alegia.
- Ermetxioerdiko** (537-538. orr.): Aurrekoaren moduan, *Ermetxioerdikoa* (*-a*) litzateke arauzkoa, ahoz jaso ez bada ere.
- Ermetxiogoiko** (539-540. orr.): Ahoz ere mugatzaile eta guzti jaso da eta dokumentazioak hala dakar duela gutxira arte. Beraz, *Ermetxiogoikoa* (*-a*) eman behar da arauzko aldaera gisa. Gainera, *Ermetxionagusia* (*-a*) ere eskain liteke bigarren aukera bezala.
- Errematzane** (540. or.): Dokumentazioak oso argi erakusten du *-ena* atzizki oikonimikoaren tradizioa zein den. Lehen osagaiaren txistukaria nola idatzi behar den ez dugu argi, *Errematzena* ez ezik, *Errematxena* ere izan litekeelako, beti ere (*-a*) oharra daramala. Oharretan aipatzen den *-e* > *-o*- «disimilazio»rako arrazoirik ez dugu ikusten, ez behintzat ohiko bokalismoen artean.

- Etxebarrierrekabeko*** (542-543. orr.): Dokumentaturiko bereizgarria, ordea, «mayor» izenondoa da eta, beraz, *Etxebarrierrekanagusia* (-a) izango litzateke egokiena lehen aukera gisa.
- Etxebarrierrekagoiko*** (543-544. orr.): Arrazoi beragatik, *Etxebarrierrekaxikerra* (-a) litzateke egokiena.
- Etxebarrierrekako aretxeta*** (545. or.): Arautze irizpide zehatza dago kasu hauetarako eta, beraz, generikoak -*eta* amaiera duelako, bat eginik idatzi behar da, *Etxebarrierrekakoaretxeta*. Hala ere, *Etxebarrikoaretxeta* laburragoa da dokumenta daitekeen bakarra eta guk horixe hobetsiko genuke.
- Galtzarre*** (546. or.): Guk *Gantzarre* zaharragoa hobetsiko genuke. Oharretan aipaturiko -*l-* / -*n-* txandakatzea ez da batere ohikoa eta eskertuko litzateke azalpenen bat...
- Garazondo*** (546. or.): Guk ere ez daukagu argi, baina *Garatzondo* ere proposa zitekeen.
- Gaztañape*** (547. or.): Toponimoak dituen oinarri urrietan -ahoz bitan- beti dugu mugatzaileduna eta *Gaztañapea* (-a) idatzi behar litzateke, beraz.
- Gaztañazabale*** (547. or.): Dударik ere gabe, *Gaztañazabala* (-a) da arauzko grafia. Ahoz ere halaxe jaso den arren, dokumentazioan behin ageri den paragoea gehitu zaio.
- Gaztañazarre*** (547-548. orr.): Arauzko aldaera *Gaztañazarra* (-a) da, mugatzaile eta guzti.
- Iratzgorri*** (552-553. orr.): Oharretan aipatzen den alonimoa *Atxuena* (-a) idatzi behar da.
- Itubizkartxikerre*** (559-560. orr.): Ahoz *Itubizkartxiki* jaso da. Nolanahi ere, *txiker* aldaera hobestekotan -eta guk ere hala nahiago genuke-, paragogerik gabe egin behar litzateke, *Itubizkartxiker*, edo mugatzaileaz, *Itubizkartxikerra* (-a).
- Iturrandiaga*** (561. or.): Lehen osagaiaren *Itur-* aldaerak berri samarra dirudi, gehien dokumentatzen dena *Iturri-* osoa baita. Guk *Iturrandiaga* proposatuko genuke grafia jasorako. Ikus beherago ere, *Iturbide* (605. or.).
- Iturriko beresi*** (562. or.): Dударik ere gabe, genitiboa saihestu eta *Iturriberesi* proposatuko genuke, erabilera errazagokoa da eta.
- Jeronimone*** (563-564. orr.): Dokumentazioaren arabera, etxearen izena *Ormatza* dela ematen du. Goitzenaren era arauzkoa ere eskaini nahi bada, arauzkoa *Jeronimoena* (-a) da. *Ormatzajeronimo* edo *Ormatzajeronimoena* (-a) konplexuagoak ere onar zitezkeen.

- Josune** (564. or.): Guk *Etxebarribeotegi* hobetsiko genuke izen jaso bezala, bigarren aukera gisa *Jesusena (-a)* emanik. *Josu* era ponte-izen horren aldaera modernoa da eta, hautatzekotan, *Josuena (-a)* idatzi behar litzateke. Guk ez genuke, hala ere, ontzat emango.
- Kaballogane** (565. or.): Paragogerik ez genioke jarriko. *Kaballogan*, beraz. Honen deklinabideaz, hala ere, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Kakallosolo** (565. or.): Lehen osagaiaren era osoa *Kakadillo* da eta, beraz, *Kakadillo* idatzi behar da leku-izen hau. Ikus gorago *Kakallo* (304. or.).
- Kantarape** (565-566. orr.) eta **Kantarapeko iturria** (566. or.): *Kanterape* jatorria ongi dokumentatua dago eta halaxe idatzi behar litzateke kasu bietan. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).
- Kerizazpi** (566. or.): Ikus *Keriza*- honi buruz gorago *Kerizeta* (461. or.) toponimoan esandakoa. Gainera, honako honek mugatzailea ere behar du, hala esaten baita. Hortaz, gure ustez, arauzko aldaera *Kerexazpia (-a)* izango litzateke.
- Landa** (567. or.): Dokumentaturiko *Landatxu* aldaera «osoagoa» da gure ustez, eta halaxe hobetsiko genuke.
- Larrezarre** (567. or.): Dokumentazioan ageri den *Larrazar* hobetsi behar da. Bizkaiko euskaran *Larra*- da mugatzailearik gabeko hitza. Ikus honen gainean *Araneko larre* (421. or.) toponimoan esandakoa.
- Morteruza** (569-570. orr.): Gure ustez *-tza* atzizkia darama eta, beraz, txistukari afrikatua behar du, hau da, *Mortertza*. Ikus gorago *Beasko* (531-532. orr.) izenez esandakoa.
- Mundakatsu** (570-571. orr.) baserria eta parajea: Guk *-ena* atzizkia ere jarriko genieke, dokumentazioan eta ahozko bilketan ageri da eta. *Mundakatsuena (-a)*, beraz.
- Ormako solo** (572 or.): Guk *Ormakoa (-a)* hobetsiko genuke, *solo* hori generiko hautatzekotzat hartuz. 572-573. orrialdeetako, ordea, bere horretan utziko genuke.
- Ozkirriene** (573. or.): *Ozkirriena (-a)* edo *Ozkirrienekoa (-a)* da arauzko grafia. Azalpenetan ematen den hiatoaren bilakaera ez da, inola ere, segida horretan gertatu, *-iena* > *-ijjena* > *-ijjene* baizik, hots, *-a*-rik ez da inoiz ere egon hor.
- Sakone** (575. or.): Dударik ere gabe, *Sakona (-a)* mugatzaileduna da arauzko era.
- San Migel** (575-577. orr.): Bere horretan utziko genuke baina, gorago esan den bezala, *San Migel* (409-410. orr.) adokazioaren aldaera jaso *Done*

Mikel da³². Horregatik, auzo honen izenerako Euskaltzaindiak³³ *Donemikel* izena proposatu du aspaldian.

San Migeleko zelaia (578. or.): Epentetikorik gabeko *San Migelgo zelaia* (-a) hobetsi behar da, paragogearen sorrera hor datza eta. Ondorio hauetaz, ikus ahoz jasotako *Sanmigele* era, paragogeak desitxuratua (577 or.).

Santunatxe (578-579. orr.): Azalpenetan ematen den bilakaera nahita aldrebestu du egileak, euskal deklinazioaren protodesinentzien teoria hipotetikoak sustatu nahirik. Tamalez, toponimo honi dagokion dokumentazioak eta, halaber, euskal literatura klasikoak, oso argi erakusten dute genitibo marka zein den euskaraz (-en eta ez -an). Interpretazioak egitekotan, guk hor *Santu-ena* ikusten dugu lehen osagai konplexu bezala, bigarren osagaia jasotzerakoan, mugatzailea galtzen duena. Horren ostean ez dago, beraz, genitiboazko erlazio sintagmatikoa (*Santuen* izen-laguna + lagundutako izena: ‘santuen haitza’), elkarketa arrunta baizik (*Santuena* jabego-izena + beste izen bat: ‘*Santuena* etxeko haitza’). Arrazoi horregatik idatzi behar da bat eginik. Guk, beraz, *Santuenatx* emango genuke arauzko era bezala, nahiz toponimo moderno samarra izanik, *Santuenatze* ere izan litekeen.

Sapotxune (579. or.): Lehen osagaiak ikertzaileek dituzten erreserbekin bat gatoz, baina arauzko amaiera *Sapotxuena* (-a) da, nolana ere.

Solozarre (579-580. orr.): Dokumentaturiko aldaerei eutsiko genieke, zaharrak izan arren, eta *Solozarra* (-a) emango genuke arauzko era bezala. Beste aukera egoki bat *Solozarreta* «toponimoagoa» izango litzateke.

Tontorre (580. or.): Beste daturik ezean, guk *Tontor* hutsa idatziko genuke, bilakaera modernizanterik gabe.

Torre (580-581. orr.): Generikoa ez baina izena jartzea ahaztu zaie ikertzaileei. Dorreak ez dira eraikuntza ugariak eta normala da herri-erabileran izena aipatu behar ez izatea, generikoarekin aski baita identifikaziorako. Horrek ez du esan nahi izenik ez dutenik. Kasu honetan, *Gaztañagatorre* izen arauzkoa jarriko genioke guk eta, bigarren aukera gisa, *Aldauriatorre*. Mugatzailea galdutzat emango genuke dagoeneko.

Trinkone (582. or.): Guk era osoa emango genuke, nahiz eta osagaiak sakanaturik agertzen zaizkigun bildutako datuen artean. *Trinkoenabeaskopea* (-a) emango genuke, alegia.

Txaliñene (582. or.): Dударik ere gabe *Txaliñena* (-a) emango genuke arauzko era bezala.

³² *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

³³ Onomastika batzordea: *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak*, Eudel, Bilbo, 2001. Hala ere, *San Migel* onartu du parentesi artean emanik.

Txapoane (582-583. orr.): Dagoen lekukotza dokumental bakarra benetan leku horri badagokio, guk *Txaparroena* (-a) idatziko genuke zalantzarik ere gabe.

Txumelatxune (583. orr.): *Txumelatxu* hutsa lagako genuke, nahiz eta hor, segur aski, -ena atzizkia dagoen. Horri eutsi nahi izanez gero, *Txumelatxuena* (-a) idatzi behar genuke.

5. SAN ANDRES AUZOA

Aldatze (589. orr.): Paragoge berri hori gabekoa da arauzko era idatzia, noski. Ahozko era atzo goizekoa da duda barik. *Aldatza* (-a), beraz. Euskara estandarerako *aldats* hitza aukeratu den arren, Bizkaiko toponimian tradiziozkoa txistukari horzkaria da.

Ametze (589. orr.): Paragoea ez da egokia arauzko eran, begi bistakoa denez, tradizio laburreko fenomeno delako. Dokumentazioak erakusten duenaren arabera, -u amaieradun aldaera erabili da. Baliteke *Ametz-tza* eta *Ametz-zu* multzokari esanahikideen aurrean egotea. Nolanahi ere, *Ametza* emango genuke arauzko lema bezala (-a berezkoa duena) eta *Ametzu* bigarren aukera gisara, nahiz kontziente izan *Ametz-txu* ere egon daitekeela atzean.

Amutxu (589-590. orr.): Ez da behin ere dokumentatzen eta ahoz -e-dun aldaera ere jaso da (*Amentzú*). Susmoa dugu atzean ez ote den aurrekoan agerturiko *Ametzu* (*Ametz-zu*) bera egongo. Ikus gorago *Ametze* (589. orr.). Erlazio hori jarterik ez balego, bere hartan utziko genuke.

Arestierreka (591-592. orr.): Guk *Arestierreka* proposatuko genuke normalizaziorako. Txistukari horretaz, ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.) izenean esandakoa. Kasu honetan ahoz jaso den generiko mugatzaileduna (*errèkie*, hots, *errekea*) azken ordukua da eta ez dugu idazkera jasoan mugatzailek hartu behar.

Artikene (592. orr.): Dударik ere gabe *Artikena* (-a) idatzi behar da, paragoge desitxuratzailerik gabe.

Berdantza (593. orr.): Arauzko idazkera ondo emanda dago, baina azalpenetan ematen den «lege fonologiko» berri hori apur bat gehiago esplikatzen behar lukete, guk dakigula, testuinguru horretan -e- > -i- gertatu beharrik ez baitago. *Berdantza* > *Berdentza* aldaketa uler genezake, baina *Berdentza* > *Berdintza* ez da bokalismo ezaguna.

Elizalde (597. orr.): Hemengo lekukotzen arabera, proposatutako era litzateke egokiena. Dena dela, mendebaldeko aldaera tradiziozkoa *Elex-* da eta

horrek *Elexalde* emango luke. Ikus honi buruz, *Elizbide* (534. or. eta 597-598. orr.) izenatarako esandakoa.

Elizbide (597-598. orr.): Dokumentazioa kontuan izanik, arauzko *Elesbide* proposatuko genuke, ahoz ere hala jaso da eta. Ikus gorago *Elizbide* (534. or.) eta honen aurreko *Elizalde* (597. or.). Mugatzailea (*-bidié*) informatazailleak azken orduan jarritakoa dela ematen du.

Eskiribanu (599. or.): Dokumentazioko *Escribano* eta ahoz jasotako *Eskiriburu* aldaeren arteko lotura segurua izanik ere, zalantza dugu idatzizko proposamenarekin, hitz horren euskal aldaera arruntak bokalarteko *-n-a* galdu ohi baitu: *eskribau*.

Gaztañadi (603. or.): Dokumentazioak aldaera «osatuagoa» ere ematen digu, nola edo hala arauzko grafian eskaini beharrekoa, gure ustez. Guk *Gaztañagaztieta* proposatuko genuke.

Iturbide (605. or.): Garrantzi handikoa ez bada ere, badirudi *Iturribide* aldaera «osoa» dela tradizio handiagokoa eta, beraz, arauzko grafian lehenetsi beharrekoa. Ikus gorago ere *Iturrandiaga* (561. or.). Hala ere, era horretako elkarketa-aldaerak babestu beharrekoak dira oro har.

Jardinondo (606. or.): Oro har, liburuan bustidurak idazteko irizpidea segitu da eta hemen ere, hala egin behar litzateke, hots, *Jardiñondo*.

Kerezondo (607. or.): Guk lekukotza dokumentalak ikusi eta mendebaldeko aldaera tradiziozkoari eutsiko genioke toponimo honen arauzko grafian. Hortaz, *Kerexondo* proposatuko genuke. Ikus gorago *Kerizeta* (461. or.) leku-izenean esandakoa.

Luberri (609. or.): Bitxia da dokumentazioak ere *Lurberri* ematea (1944 eta 1950ean), gipuzkerazko forma alegia. Gure ustez, ordea, izen honen –eta lekukotza berantiarren– ostean dagoena bokalismo arrunta da, (*-u-a-i > -u-e-i*) eta hau ez da arauzko idazkeran jaso behar. Ikus gorago *Luberri* (466. or.) eta aurreko *Lubarri* (609. or.) ere, ahoz *Luberri* jaso dena.

Mendiondo (611-612. orr.): Lekukotza dokumentalek diotenez, *Berdantza* izeneko paraje bera da, gorago emanda zegoena (593-594. orr.) eta, beraz, hau ere hari dagokion beste izen bat dela pentsa liteke.

Nardiz (612-614. orr.): *Nardiztxikerre* (615-616. orr.) ere ematen denez gero, dokumentatzen den *Nardiznagusia* (*-a*) aldaera «osatuagoa» proposatuko genuke honetarako.

Nardiztxikerre (615-616. orr.): Paragoge modernorik gabeko *Nardiztxikerra* (*-a*) izango litzateke arauzkoa, mugatzaile eta guzti.

Pastitxu (617. or.): Gure ustez, toponimo horri dagozkion lekukotza dokumentaletan erreparatuta, desitxuraketa edo bilakaera ez da hor esaten den

segidan gertatu. Guk arauzko era *Pasteitxu* idatziko genuke eta, gure ustez, horretatik heldu dira beste bi aldaerak (-ei- > -i- eta -a-ei- > -a-ai-). Hala ere, ikus beheerago *Astazabaleburu / Pastitxuburu* (1012. or.) izenean esaten dena.

Pozubaltze (618. or.): Izen horren mendebaldeko aldaera jatorra eta toponimian oso errepikatua, Bermeon ere bizirik, *Pozo-* da, ez *Pozu-*. Paragoge hori ez da idatzi behar eta tokiari arauzko izena *Pozobaltza* (-a) idatziko genioke, iturriari bezala³⁴.

Sagasti (618. or.): Ahoz jaso ez den mugatzailea duela gutxira arte (1983) idatzi da eta guk hala emango genuke idazkera jasoan, *Sagastia* (-a) alegia.

Sakone (619. or.) parajea eta saila: Dударик ere gabe, paragoge desitxuratzailerik modernorik gabeko *Sakona* (-a) litzateke arauzko idazkera, mugatzailea eta guzti.

San Andres (620-621. orr.): Ermitaren izena honela utziko genukeen arren, adbokazioaren aldaera jasoan Done Andere da³⁵ eta horren berri non edo non ematea ez legoke gaizki. Arrazoi honengatik Euskaltzaindiak auzo izenerako *Doneandere* proposatu du³⁶.

Solozarreta (621-622. orr.): Dokumentazioan bildu dena aintzat harturik, aldaera zaharra *Sotozar* da. Ahozko *Solosárreta* nahiz 1910ean jasotako *Solozar* haren desitxuraketak izango lirateke, onartu behar ez litzatekeen herri etimologia, azken finean. Guk *Sotozar* emango genuke edo, gehiezez ere, *Sotozarreta*.

Tontorreta (622 or.): Arauzko aldaera *Dondorreta* da, dударик ere gabe. Hitz hasierako ahoskabetzea azken orduko «lege fonologiko jator» modernoa da (cf. *Korosti, Katike...*), baina ez da idatzi behar. Kasu honetan herri etimologiak ere lagundu du desitxuraketan.

6. ALMIKA AUZOA

Almika (628-632. orr.): *Albonica* > *Alboinka* > *Albeinka* > *Albinka* > *Almika* > *Almike* segida ez dago ondo ordenatuta. Kontsonante sudurkarien eboluzioa eta berauetarik bokalarrekoen eraginak eta ondorioak ez ditu ondo ezagutzen egileak eta sekula gertatu ez den balizko «metatesi» batekin abiatzen du bere azalpena. Ez da hala gertatu. Lehenengo urrats batean, bokalarrek -n- hotsaren erorketa daukagu, ohi bezala, bokaletan sudurka-

³⁴ Bitxia da oharretan ematen den azalpena: «Tokia *Pozubaltze* deitzen da, iturria *Pozu baltza*».

³⁵ *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

³⁶ Onomastika batzordea: *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-enititateak*, Eudel, Bilbo, 2001. Hala ere, *San Andres*era onartu du, parentesi artean emanik.

ritasunaren ezaugarria utzirik, hots, *-ôi-* diptongo sudurkaria³⁷. Bigarren urrats batean, *-b-* > *-m-* ezpainbikoen nahastea etorriko litzateke, berau ere zeharo normala Euskal Herri osoan. Hortik heldutako *Almoika* guztiz erregularra litzateke arauzko idazkerarako, baina aldaerarik hedatuena urrats bat harago doa, *-oi-* > *-i-* monoptongazioa eginik³⁸. Horixe da *Almika* erregularrera heltzeko bidea.

Aingeruarda (634. or.): Bistan da euskarazko erabiltzaileek beti ematen dutela mugatzaile eta guzti (baita hurrengo erregistroa ere). Guk *Aingeruardea* (-a) emango genuke. Deklinabidea nola erabili behar den ikusteko, ordea, ikus gorago *Bañera* (248-250. orr.).

Aldatzeta / Birjiñean beresia (635-636. orr.): Guk ez genuke leman bigarren izenik emango, hots, lehenetsitako izena *Aldatzeta* izan dadila. Bigarren aldaera edo alonimoa, konplikatuagoa da, noski. Genitibo egitura gorde nahi balitz, *Birjiñaren beresia* (-a) eman liteke. Guk, ordea, hura gabeko aldaera hobetsiko genuke, *Birjiñaberesia* (-a) alegia.

Almikape (639-640. orr.): Guk *Solobiribillalmikape* emango genuke, ez baitugu ikusten zer dela eta edeki behar den leku izenaren hasierako atala.

Areztixu (641-642. orr.): *Arestitxu* idatziko genuke. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Astalarre (642. or.): Mugatzaierik gabeko *Astalarra* idatziko genuke guk, nahiz eta hasierako osagaiak *-e* amaiera izan lezakeen, *Astalarra* alegia. Bigarrenaz, ikusi *Araneko larre* (421. or.) izenean esandako.

Astalarrepe (643. or.): Ibid. *Astalarrape* edo *Astelarrape*, aurrekoarekin bat, noski.

Bakereseana (643. or.): Ondo legoke oharretan toponimo hau apur bat komentatzea, genero adierazlea den *-sa* atzizki ezohikoa daramalako. Bokalen dantza dagoen arren, guk arauzko grafia *Bakeresaena* (-a) edo, arruntena, *Bakeresena* (-a) proposatuko genuke.

Bidartemotzene (644-645. orr.): *Bidartemotzena* (-a) da aldaera jatorra, berrikeriarik gabekoa.

Galartzane (650-651. orr.): Aldaera horren era tradiziozkoa oso argi ikusten da dokumentazioan, *Galartzena* (-a) alegia. Guk *Almikondo* alonimoa ere emango genuke eta, agian, lehenetsi ere bai. Oharretan aipatzen den txistukariaren neutralizazioa (*-r-z-* > *-r-tz-*) ez da hor gertatu, toponimoak berezko afrikatua duen *-tza* atzizkia daramalako, beste edozein testuingurutan ere hala ageri dena (*Apiotza*, *Pagotza*, *Urkitza*...).

³⁷ Sudurkaritasun horrek eragingo du ondoko *-n-* hotsaren berreraiketa, *kanpai*, *ard(a)o*, *area*... hitzen eratorrietan *kanpan-*, *ardan-*, *arean*... ageri direnak.

³⁸ Oharretan aipatzen den *-oi-* > *-ei-* «asimilazio»rako arrazoiren bat bilatu beharko zen...

Goiko atxea (651. or.): Berrikeria izanik ere, onartzen da liburuan *-a* (pseudo-organikoa) + *-a* (mugatzailea) > *-ea* amaiera. Guri ez zaigu oso normalizatailea iruditzen, *atx* hitzak sekula ez duelako euskaraz *-a* organikorik izan baina, hala ere, onartuko genuke, beti ere behar bezala deklinatzen bada, hots, lekuzko desinentziak *atxa-* gaiari erantsirik. Horretarako argigarri, ikus gorago *Bañerea* (248-250. orr.). Hala ere, beti geratuko zaigu zalantza bigarren osagai hori *-atzea* ez ote den izango. Nolanahi ere, euskalkien ezaugarri tradizionalen onerako, prestutasun berbera erakutsi behar litzateke *-a-a* > *-ea* disimilazio guztiakin...

Ikazulo (651-652. orr.): Bistan da toponimoaren jatorrian *Ikatz* hitza egongo balitz, txistukari hori afrikatua izango litzatekeela Bermeoko euskaldunen ahotan. Atzean dagoena *Ika-* gaia da, 'piku'aren mendebaldeko *iko* berbaren elkarketa-aldaera, alegia. Cf. *Ikazurieta* auzunea Nabarnizen, zeinetan ez dagoen, noski, 'ikatz zuri'rik, 'piku zurixka' baizik, zuhaitz horren hostoen atzealdeari erreferentzia arrunta.

Iturrizarregane (655. or.): Dudatu ere gabe *Iturrizargan* emango genuke arauzko idazkera bezala. *Iturrizarre* (1051-1052. orr.) errekaren fitxan ez dugu dokumentaziorik, baina baliteke *-aga* edo antzeko zerbait ere egotea hemen epentetiko suertatu zaigun *-e-* paragogiko horren ostean.

Kalene (655-656. orr.) baserria: Dudarik ere gabe *Kalena* (*-a*) da arauzko era idatzia, dokumentazioan hain argi ikus daitekeena.

Kalene (656. or.) parajea: Aurrekoarekin nahasean, izen hori *Kalena* (*-a*) idatzi behar litzateke baina, agian, dokumentazioan ageri den *Kalenaurre* osoagoa ere kontsidera liteke, beti ere lekukotza dokumentalek leku horri egiten badiote erreferentzia. *Ereñotzalde* alonimoa ere arauz eman eta aipatu behar litzateke non edo non.

Kantarako aritzeta (657. or.): Toponimia txikia arautzeko irizpideek argi esaten dute *-eta* atzizkia daramaten generikoak bat eginik idazten direla genitibo egituretan. Gainera *Kantara* aldaera ez da idazkera jasoan islatzeko modukoa, nahiz onartu behar den hemen 1895etik dokumentatzen dela lekukotza guztietan. Honi buruz, ikus *Galdizko kantarak* (443. or.). Edonola ere, guk *Kanterakoaretxeta* idatziko genuke, bigarren osagaia *-areatzeta* ez dela aurreiritzita. *Aritz-aretx* gaiaz, ikus gorago *Aretzi* (422-423. orr.); beste aukeraz, ikus beherago *Aritzatxu* (979-980. orr.).

Kantarea (657. or.): Arauzko aldaera *-a-e-* > *-a-a-* asimilaziorik gabekoa da. Ikus *Galdizko kantarak* (443. or.). Kasu honetan, gainera, mugatzailea darama eta *-a-a* > *-ea* disimilazio jatorra gertatzen da. Beraz, *Kantarea* (*-a*) dugu arauzko era. Honen deklinabide zuzenez, ikus gorago *Bañerea* (248-250. orr.).

Katuen erreka (658. or.): Sail bat den aldetik, ahozko lekukotzetan oinarrituriko *Katuenaretxa* edo dokumentazioan oinarriturik, *Katukoasoloa* ere

atundu liteke. Lekukotza horiek aintzat hartuta, pentsa daiteke atzean ez dagoela genitibozko egitura simple bat, idazkera bereziaz eskatuko lukeena, *Katuena* edo *Katukoa* etxe-izena eta generiko baten elkarketa baizik (*aretxa*, *erreka* edo *soloa*). Esanahia ez da, beraz ‘katuen erreka’, ‘*Katuena* (edo *Katukoa*) etxeari dagokion erreka’ baizik. Eta hori *Katuenerreka* idatzi behar da, hitz batean.

Larregane (659. or.): Generikoa daraman aldaeran, ahozko *Larra*- mugagabe jatorra jaso da eta halaxe ageri behar da arauzko grafian. Amaierako paragoea, ordea, ez genuke aintzat hartuko eta *Larragan* emango genuke. Ahoz jasotako bestea, kontrara, mugatzaileduna da: *Larra+a* > *Larrea*, ahoz *Larrié*. Honi buruz, ikus gorago *Araneko larre* (421. or.).

Maisuan etxea eta **saila** (659-660. or.): Dударик ere gabe *Maisuen etxea* (-a) eta *saila* (-a) edo, mendebaldeko tradizioari segiturik, *Maisuena* (-a) ere eraiki zitekeen, bereziki propioa etxea eta saila izendatzeko.

Motzene (661. or.): Dokumentazioak argi erakusten digu nola idatzi behar den, paragoge modernorik gabeko *Motzena* (-a) alegia.

Orratzane (662-663. or.): *O-a* > *o-o*- asimilazioa ez da idazkeran onargarria (*Durango* > *Durungo* idatzi behar ote genuke?). Amaierako atzizki oikonomiko tradizionala jagon beharrekoa da eta, beraz, *Orratzena* (-a) litzateke arauzko era.

Sabinetxe (664. or.): Mugatzailea behar duela dirudi, *Sabinetxea* (-a) alegia.

Sakone (664. or.): *Sakon* idatz liteke edo, nahi bada, mugatzaile eta guzti *Sakona* (-a), aski generiko ohikoa izaten baita. Hautu honek, hala ere, ondorio bortitzak izango lituzke deklinabidean. Ikus honi buruz *Aritzatxugane* (363. or.) izenean esandakoa.

Txarakane (665. or.): Guk *Mikeleteburu* hobetsiko genuke. Ahoz bakarrik jasotzen den izena eman nahi bada, *Txarakena* (-a) idatzi behar litzateke.

7. ARTIKA AUZOA

Almikerrota / Utzuene (675-677. or.): Bigarren aldaera aparte aipatuko genuke, lema bakarra uzte aldera. Hasierako *U-* lehenago dokumentatzen den arren, *Otxoena* (-a) aukera ere kontsideratuko genuke azken honetarako. Edozein kasutan ere, *-ena* (-a) amaiera behar du arauzko grafiak.

Almikerrota / Utzuenondo (677. or.): Ibid. Bigarren aldaerarako, aurreko erregistroan erabakitakoaren arabera jokatu behar da, noski.

Altzadi (677. or.): Guk eutsi egingo genioke mugatzaileari, dokumentazioan eta erabileran jaso delako, *Altzadia* (-a) alegia.

- Antonion iralekua** (678. or.): Hori euskaraz *Antionioren iralekua (-a)* idazten da, noski, beti ere *Antonioena (-a)* izeneko etxe baten eratorria ez bada. Kasu horretan *Antionioeniralekua (-a)* idatzi behar genuke, hitz batean alegia.
- Arestia** (679. or.): Arauzko idazkera *Arestia (-a)* da. Ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.).
- Aritza** (679. or.): Sinestezina da Bermeon *aretx* zuhaitzaren aldaera hori aurkitzea. Gure ustez, horren atzean beste zerbait ezkututzen da, segur aski *Areatza*. Cf. beherago *Aritzatxu* (979-980. orr.).
- Aritzibiribille** (679. or.): Paragogerik gabeko era hobetsi behar da arauzko idazkerarako. Gainera, tarteko *-z-* horretaz, ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.). Mendebaldeko aldaera jasoa *Arestibiribil* litzateke.
- Arroleuneta** (680. or.): Jaso diren datu urriekin guk *Arroleuneta* hautatuko genuke, bestea, gehienez ere, hipotesi bezala aipaturik.
- Atsoarene** (684-686 eta 686-687. orr.): Paragoge modernorik gabeko aldaera emango genuke dudarik ere gabe, *Atsoaren* alegia. Amaiera hori genitibo marka zaharra dela esatea ez dago ezinbestez gaizki, baina eztabai-dagarria da.
- Atsoareneburu** (687. or.): Aurreko izenean egindakoari kasu eginik, hau *Atsoareneburu* idatzi behar da, idatzizko lekukotzekin ados.
- Atsoareneko zubia** (687. or.): Deklinatzeko moduan, guk *-e-* epentesirik gabeko aukera hobetsi ohi dugu, paragogearen jatorri izan ohi delako bokal hori eta, beraz, toponimiaren desitxuraketarako akuilu. Hortaz, hemen *Atsoarengo zubia (-a)* proposatuko genuke erabilera jasorako.
- Aurreko larre** (688. or.): Ez dakigu zergatik estandarizatu behar den Bermeon hain ondo erabiltzen den aldaera dialektal jatorra. Mugatzailearik gabeko Bizkaiko aldaera, ahoz eta dokumentazioan jaso den bezalakoa da, *Aurreko larra* alegia. Ikus honen gainean gorago *Araneko larre* (421. or.).
- Barruti** (689-691. orr.): XVI. mendeko pare bat lekukotzetan bera barik ageri bada ere, guk mugatzaileari eutsi egingo genioke, haren galera, gertatu izatekotan, berria bailitzateke. Hortaz, *Barrutia (-a)* emango genuke arauzko era gisa.
- Basabe / Txukene** (691-692. orr.): Guk arauzko idazkerarako *Basabe* hutsa lagako genuke, lema bakarra. Bigarren aukera *Txukena (-a)* izango litzateke, paragogerik gabea, eta berdin *Kontzena (-a)*.
- Beledrone** (694-696. orr.): Dokumentazioak argi erakusten duen legez, *Beledronea (-a)* idatzi behar da izen hori. Bigarren aukera bakarra emango genuke, *Errotabarri* alegia.

- Berriz-solo** (697. or.): Marratxoa «lekuen elkarketak» adierazteko erabiltzea da egokia³⁹ eta, txistukarien metaketa arraro eman dezakeen arren, *Berrizsolo* idatziko genuke.
- Bibero** (698. or.): Ez dugu ukatzen agian euskaraz ere ibili denik, baina *guk Vivero* idatziko genuke, euskaldunek ez dutelako ezertan ere moldatu beharrik izan. Moderno samarra den aldetik –1944an lehen agerraldia–, neotoponimotzat hartu eta euskal aldaera estandarra ere proposa liteke, hots, *Mintegi* edo antzeko zerbait.
- Bidezabale** (698. or.): Paragoge berri hori ez genuke onartuko. Beraz *Bidezabal* proposatuko genuke. Hala ere, mugatzailerik ezak ondorioak ditu deklinabide jasoa. Horren gainean, ikus gorago *Aritzatzugane* (363. or.).
- Bidezarre** (698. or.): Paragogerik gabeko *Bidezar* proposatuko genuke hemen ere, nahiz eta deklinabiderako ekarriko dituen ondorioak samurragoak izan: *Bidezar*, *Bidezarren*, *Bidezarko*, *Bidezartik*, *Bidezarrera*...
- Brankille** (699. or.): Beharbada *Brankil* hutsa edo mugatzailedun *Brankilla* (-a) izango lirateke zuzenak, baina mugatzailea duen ala ez erabakitzeko ez dago datu nahikorik.
- Enparane** (700-702. orr.): Ahozko bilketak erakusten duenez, -n- horren gailera suertatu da, berez bokalartekoa ez den arren. Fenomeno hau errepikatzen da beste lekuren batean (*Lagran* > *Lagrabide*, Arabako Mendialdean). Hortaz, besterik gabe, paragoge gertatu dela esatea ez da, gure ustez, zehatza. Edonola ere, *guk Enpara* proposatuko genuke eta horrek ondorioak izango lituzke segituan aditzera ematen diren eratorrietan: *Enparaneazpi* > *Enparazpi* (702. or.), *Enparaneburu* > *Enparaburu* (702. or.), *Enparanepe* > *Enparape* (702. or.) eta *Enparanondo* > *Enparondo* (702-703. orr), zeinetan -a+o- > -o- zilegia gertatu den.
- Erramuene** (704-705. orr.): Paragogerik gabeko *Erramuena* (-a) da arauzko era jatorra.
- Erramueneburu** (705. or.): Bitxia bada ere, mugatzaileak irauten du posposizioa jaso arren. Fenomeno hau errekurrentea da eta ontzat eman daiteke, hots *Erramueneburu* idatzi behar da, dokumentazioan (1903-1946) jaso den moduan.
- Errotaburu** (706. or.): Lekukotza bakarra dago, dokumentala, eta beraz mugatzaileduna da. Beraz, *Errotaburu* (-a) dagokio.

³⁹Euskaltzaindiaren 141. arauan ezartzen denez (*Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera*), leku biren elkarketaz sorturiko toponimo konplexuak marratxo batez idatziko dira: «Bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean, bi izenak beti marratxo (-) baten bidez bereiziko dira, izendegi, zerrenda, seinale eta abarretan: *Arratzua-Ubarrundia* (A), *Beintza-Labaien* (NG), *Ezkio-Itsaso* (G), *Gamiz-Fika* (B), *Labetze-Bizkai* (NB), *Maule-Lextarre* (Z)...».

- Estrada / Fandangone** (708-710. or.): Lema bakar bezala *Estrada* utziko genuke eta bigarren mailako alonimo modernoago legez, bestea. Azken hau, hala ere, paragogerik gabe idatzi behar da, *Fandangoena (-a)*, dokumentazioak ongi erakusten digun bezala.
- Etxezarre** (711. or.): *Etxezarra (-a)* idatzi behar da izen hau, paragogerik gabe eta mugatzaileaz, haren galeraren frogarik ez baitugu.
- Ezkiagabeko** (712-713. orr.): Mugatzaileari eutsi behar zaio, idatzizko lekukotzetan duela gutxira arte iraun duelako. *Ezkiagabekoa (-a)* alegia.
- Ezkiagagoiko** (713-714. orr.): Id. *Ezkiagagoikoa (-a)*.
- Ezkiagalarre** (715. or.): *Ezkiagalarra* da aldaera jatorra, estandarizaziorik eta mugatzailearik gabea. Ahoz ere hala batu da. Generiko honen erabileraz, ikus gorago *Araneko larre* (421. or.).
- Fandangoneko zubia** (715. or.): Ikus gorago *Estrada / Fandangone* (708-710. orr.) izenez esandakoa. Bigarren izena *Fandangoena* denez gero, *Fandangoneko zubia* idatzi behar da haren erreferentzial hau.
- Frantzune** (715-717. orr.): Guk *Frantxuena (-a)* idatziko genuke zalantzarik gabe, txistukari sabaikariaz eta paragogerik gabe. Tarteko *-tz-* ezbaizko horretaz, ikus gorago ere, *Frantzunatxeta* (256-258. orr.).
- Garaldegane** (719. or.): Paragoge modernorik gabeko *Garaldegan* litzateke arauzkoa. Horren gainean, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Goiko larre** (720. or.): Mugatzailearik gabeko *Goiko larra* da tradiziozkoa eta arauzkoa, ahoz ere jaso. Generiko honen erabileraz, ikus gorago *Araneko larre* (421. or.).
- Irabiene** (721-722 eta 722. orr.) baserria eta parajea: Paragoge berririk gabeko *Irabien* litzateke arauzko aldaera jatorra, dokumentazioak argi erakusten duen bezala. Desitxuraketa horiek saihesteko bide egokia litzateke, ahal dela, *-e-* epentesirik gabeko deklinabide jaso erabiltzea, hau da, *Irabien, Irabienen, Irabiengo, Irabiendik, Irabienera...*
- Irabienetxikerre** (722. or.): Inolako tradiziorik ez duten bi paragoge sartu dira toponimo bakarrean. Guk, duda barik, *Irabientxikerre (-a)* proposatuko genuke normalizaziorako.
- Iraebagia** (723. or.): Ahoz gertatzen den *-a+e- > -e-* idaztea zilegi da, hala egin ohi baita deklinabide jaso arruntean ere (*harrizta > harrizetan*). *Iraebagia (-a)* emango genuke guk, beraz. Lekukotzarik ezaren ondoriozko hipotetikotasunaz, hala ere ikus gorago *Otaebagia* (475. or.).
- Kañua** (726. or.): Lekukotza dokumental bakarra dago eta bustidurarik gabea da –eta orobat *Probostuena / Majerine* (755-756. orr.) baserriari dagokion

Canhuene lekukotza-. Etimoaz egin daitezkeen hipotesiak hipotesi, guk *Kanua (-a)* jarriko genuke.

Karabigane (726-727. orr.): Guk ondo dokumentatzen den *Karabigoiko soloa (-a)* lehenetsiko genuke. Bestea, bigarren maila batean bada ere, arauz eman nahi izanez gero, paragogerik gabe eskainiko genuke, *Karabigan*. Horrek deklinabidean lituzkeen ondorioez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.) izenean esandakoa.

Karabiko solo (727. or.): Genitiborik gabeko *Karabisolo* aldaerak ere badu oinarri dokumentala eta guk hobetsiko genuke, erabilerarako problema gutxiago ematen baitute hitz bakarrean idatzitako izenek.

Kontzeneburu (727-728. orr.): *Kontzenburu* espero zitekeen, baina *Kontzenaburu* da dokumentazioak iradokitzen digun era arauzkoa. Onartu behar da jaso den lehenbiziko lekukotza dokumentala (1869) *Conceneburu* dela, baina hala ere guk euskalkiaren sistema tradizionalari eutsiko genioke eta *Kontzenaburu* idazkera arauzkoa proposatuko genuke.

Landagoiko (728-729. orr.): Guk hori *Landagoikoa (-a)* idatziko genuke, dokumentazioarekin bat. Hala ere, badaude beste aukera batzuk: *Zubilandada*, *Irabien*, *Martena (-a)*, *Zelai(goiko)a (-a)*...

Larrañe (730. or.): Paragoge berri hori ez da arauzko grafian islatu behar. Ahoz *Larriñe* esaten dela kontuan izanik, ez zaigu zilegi iruditzen *-ai- > -a-* soluzio hori maila idatzian aintzat hartzea. Generiko arrunta denez gero, *Larraina (-a)* idazkera estandarra ere kontsidera liteke. Ikus gorago ere *Larrañe* (463. eta 506. or.).

Lauarizeta (730. or.): *-arizeta* hori ez da mendebalde honetan erraz justifikatzen, bertoko aldaera jatorra *-aretxeta* baita. Lekukotza dokumentalik ezak hipotesi etimologikoen planoan mugitzea baino ez dute ahalbidetzen baina, hala ere, guk *Lauaretxeta* idatziko genuke.

Leixarreta (730. or.): Guk ahoz ere jaso den *Lexarreta* era hobetsiko genuke, mendebaldeko tradizio idatziarekin bat datorrena. Ikus gorago *Leixarxueta* (466. or.).

Luberri (731. or.): Dudatu ere gabe *Lubarri* da mendebaldean aldaera arauzko bakarra. Ikus gorago ere *Luberri* (466. or.)

Mazaleriaga (731-733. orr.): XVII. mendean jasotako lekukotza dokumental pare batengatik, gu ez ginatete *-aga* atzizkia berreskuratzen saiatuko eta *Mazaleria* proposatuko genuke besterik gabe, bai toponimo honetarako eta bai beraren eratorri guztietarako ere: *Mazaleriaga > Mazaleria* (733. or.), *Mazaleriagaburu > Mazaleriaburu* (734. or.), *Mazaleriagako zubia > Mazaleriako zubia* (734. or.).

Motortze (736. or.): Ez dago apenas daturik baina, segur aski, era zuzena *Motortza* izango litzateke, oharretan iradokitzen denaren kontra, berezko *-a* lukeena.

Nafarrolabeko (739-740. orr.): Mugatzailea dokumentatu ez ezik, ahoz ere jaso da eta bizirik ehortzi baino hobe genuke, eutsiko bagenio. Arauzko grafia, beraz, *Nafarrolabekoa (-a)* da.

Nafarrolaerdiko (740-742. orr.): Id. *Nafarrolaerdikoa (-a)*.

Nafarrologoiko (742-743. orr.): Id. *Nafarrologoikoa (-a)*.

Olatze (747. or.): Arauzko aldaera mugatzailearik eta paragogerik gabeko *Olatz* tradiziozkoa da mendebaldean.

Olazarre (747-748. orr.): Arauzko era proposatzeko, paragoge moderno hori gabeko *Olazar* hobetsiko genuke.

Ormeta (748. or.): Guk ere horrelaxe proposatuko genuke. Hala ere, ematen duen azalpena ez dugu egokia ikusten. Funtsean, *-eta* atzizkia lotzean gertatzen den hiatoaren soluzioa da arazoa. Bokalismoa azken finean, eta kasu honetan *-a+e- > -a-* da gertatutakoa. Hori ez da normalena, hala ere. Lege morfofonologiko hedatuena *-a+e- > -e-* ematen duena da. Hurrengo toponimoan, *Ortueta* (748. or.) dugu, ahoz *Ortúta* jaso beharko zena, baina *Ortúeta* jaso dena, hiatoa osorik mantenduz.

Poiuko Ugarte torrea (754-755. orr.): Adierazpide arrunta barik, oikonimoa ere ekoitz zitekeen. Usadioei jarraituz, *Ugartetorre* izan liteke irteera bat, edo *Poiugartetorre* konplexuagoa... Ausartegia ere irudi liteke.

Probostuena / Majerine (755-756. orr.): Guk lema bakarra utziko genuke, *Probostuena (-a)*. Bigarren mailako alonimoa *Majeriena (-a)* idatzi behar litzateke, nahiz dokumentazioan jasotzen den haren lekukotza bakarra *Mageria* den.

Santierrotane (756-757. orr.): Arauzko lema bezala *Tellaerrot* hobetsiko genuke, eta bigarrenik *Marialmikena (-a)*. *Loitzaga* ere onar liteke aldaera historiko gisara. *Santierrotena (-a)*, ordea, *-honela* idatzirik, noski-azken orduko «goitizen» gisara aipatuko genuke bakarrik.

Torre (758-759. orr.): *Poiuko Ugarte* (754-755. orr.) torrean bezala, hau ere *Ugartetorre* izendatuko genuke, bereizte aldera, *Artikaugartetorre* ere izan litekeena. Bestela *Artikatorre* «pobreagoa» ere utz liteke. *Torre* hutsa lagatzea, ordea, zer egin ez dakigulako toponimoa baztertzea da. Ikus gorago egoera berean dagoen *Torre* (580-581. orr.) leku-izena ere.

Tranpa (761-762. orr.): Badirudi *Tranpena (-a)* egokiagoa litzatekeela, dokumentazioan ez ezik, ahoz ere atzizkia ibiltzen da eta.

- Tranpanaurre** (762. or.): Aurrekoarekin bat etorritz, *Tranpanaurre* idatzi behar genuke. Ohar gaitezen, ahoz ere *-a-+-e- > -e-* egiten dela, *Tranpe-* emanez alegia.
- Tranpaneburu** (762. or.): Id. Arauzko era *Tranpen(a)buru* da, tarteko mugatzaile horrekin aukera biak posible direlarik.
- Tranpanondo** (762. or.): Id. Izen hori arauz *Tranpenondo* idatzi behar genuke, edo *Tranpena (-a)* hutsa, dokumentazioari kasu eginik.
- Tribizkoerrota** (766-767. orr.): Bai dokumentazioan eta bai ahoz jasotzen den genitiborik gabeko aldaera hobetsiko genuke guk, *Tribizerrota* alegia, erabilerarako buruhauste gutxiago ematen ditu eta.
- Tribizkoerrotako zubia** (767. or.): Aurrekoarekin bat, *Tribizerrotako zubia* emango genuke edo, bestela, *Tribizko zubia*, besterik gabe.
- Tribizko kantara** (767. or.): Generiko hori, *kantera* idatzi behar da. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.) izenerako esandakoa.
- Txominantone / Poiuerrota** (768-769. orr.): *Poiuerrota* izenari emango genioke lehentasuna lema bezala. *Ugarterrota* ere onar liteke alonimo legez. Ahoz gehien ibiltzen denaren arauzko era *Txominanton* edo *Txominantoinena (-a)* izango litzateke, paragogerik –eta agian haplologiarik– gabe.
- Utzueneko zubia** (772. or.): *Otxoeneko zubia (-a)* ere kontsidera liteke. Ikus gorago *Almikerrota / Utzuene* (675-677. orr.) eta han egindakoaren araberako jokatu.

8. DEMIKU AUZOA

- Aldatze** (788. or.): Arauzko grafia *Aldatza (-a)* emango genuke guk. Ikus gorago ere *Aldatze* (589. or.).
- Ameta** (789. or.): *Ametalubarri* aldaera dokumental «osoagoa» proposatuko genuke normalizaziorako, ahoz laburrago esatea zilegi bada ere.
- Areaga** (789-790. orr.): Proposatzen den lehenaren grafia zuzena den arren, zalantza daukagu dokumentazioan jaso den *Areago-* horrekin. *Areago* Bizkaiko kostaldean aurki daitekeen deitura da eta ez da *Areaga* eraren desitxuratzeko bat.
- Ariztitxu** (790. or.): Dokumentazioan beti *-i-* jaso den arren, guk *Arestitxu* emango genuke arauzko bezala. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).
- Arruane** (791. or.): *Arruena (-a)* espero zitekeen. Hala ere, bitxia iruditzen zaigu maiz *-e* paragogikoa jaso izana eta, batez ere, *Arruane* izatea lehenbiziko lekukotza dokumentala (1870). *Arrua(n)barrena* «osoagoa» ere aukera interesgarria da.

- Atxikagane** (792. or.): *Atxikagan* edo *Atxikalanda* proposatuko genuke guk. Aurrekoaren deklinabideaz, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Beiti** (792. or.): Dokumentazioan oraintsura arte (-1934) hala jaso delako, mugatzaileari eutsiko genioke eta *Beitia* (-a) emango.
- Biribille** (793. or.): Guk paragogerik gabe eta -a amaierarekin emango genuke, *Biribilla* (-a). Ikus hurrengoaren dokumentazioko *Biribillape* ugariak.
- Biribilpe** (793-794. orr.): Oso dokumentatua dago -a- eta guzti eta, beraz, arauzko era bezala *Biribillape* proposatzea litzateke zuhurrena, irregular samarra bada ere.
- Lezbide** (794. or.): Baliteke honela izatea, baina dugun lekukotza bakarrak *Lezbide* da eta, beste oinarririk gabe, gu ez ginateteke ausartuko.
- Elizalde** (794. or.): *Eleizalde* oinarri izanik, mendebaldeko era jatorra *Elex-* da eta guk horixe hobetsiko genuke, nahiz lekukotza guztiak kontrakoa dioten -hori bai, denak 1901-1945-. Ikus honen gainean gorago *Elizalde* (597. or.).
- Elizoste** (794-795. orr.): Honen lekukotzek hitz honen aldaera bizkaitar jatorraren berri sakabanatuak ematen dituzte. Guk tradizio horri eutsirik, *Elexoste* hobetsiko genuke.
- Fradu** (798-799. orr.): Lekukotzek argi erakusten dute mugatzailearen galera berrikeria dela. Beraz, *Fradua* (-a) da arauzko idazkera jasoa.
- Josene** (801. or.): Toponimo gardena da eta tradizioari segiturik, *Josena* (-a) da bere arauzko idazkera.
- Kandelarioko ermita** (801-802. orr.): *Garbikundeko Andra Maria* aipatzen den bezalaxe, adbokazio historiko normalizatuaren berri ematea ez legoke sobran, *Done Justi eta San Pastor* alegia⁴⁰.
- Karrakane** (803. or.): *Karrak(a)ena*(-a) hobetsiko genuke guk, tarteko -a- horrekin zer egin behar den argi ez badugu ere.
- Kerizeta** (803. or.): *Kerexeta* litzateke mendebaldeko aldaera tradizionala. Ikus gorago *Kerizeta* (461. or.).
- Mallutze** (804. or.): Ditugun datu guztiak moderno samarrak dira eta -e amaiera hori daramate. Hala ere, guk *Mallutza* emango genuke arauzko gisa.
- Masuane** (805. or.): Paragoea lehenbizikoz 1870ean dokumentatzen den arren, -a amaiera jatorra 1952ra arte heltzen da. Edonola ere, guk *Masue-na* (-a) tradiziozkoaren alde egingo genuke.
- Montesillo** (806. or.): Ahoz hala jaso den arren, dokumentazioak (1901-1944) *Montesino(s)* erakusten du salbuespenik ere gabe. Hortaz, guk *Montesino* jarriko genuke, gehiegi gustatzen ez zaigun arren.

⁴⁰ *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua.

- Perretxiñe** (807. or.): Dokumentazioan hainbestetan ageri den paragogerik gabeko aldaera tradizionala proposatuko genuke guk normalizaziorako, hau da, *Perretxin*. Deklinabide jasorako, hala ere, ondorio bortitzak ditu. Ikus honen gainean gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Portu** (808. or.): Bere horretan pobre samarra deritzogu eta, agian, *Demikuportu* edo antzeko izen «aberatsagoa» atontzeko ausardia har liteke.
- Sakone** (809. or.): Dudarik gabe, ahoz ere jaso den *Sakona* (-a) emango genuke.
- Tontorre** (809. or.): Dokumentazioak argi erakusten du zein den tradizioa, *Tontorra* (-a) alegia.
- Txikitiñene** (809. or.): Hobetsi den izena *Txikitiñena* (-a) idatzi behar litzateke. Hala ere, *Miraflora* izena ager liteke lema bezala, bestea bigarren mailako herri-deizio legez eskainiz.
- Txomekane** (810. or.): Paragogearen lehen lekukotza 1823koa den arren, -ena amaieraren azkenekoa 1952koa dugu eta era erregularra hobetsiko genuke dudatu ere gabe, hau da, *Txomekena* (-a).
- Uriartebeko / Anamariene** (810-812. orr.): Mugatzailea arbitrarioki kendu zaio, dokumentazioak eta ahozko bilketak salbuespenik gabe eusten baitiote. Hortaz, arauzko izena *Uriartebekoa* (-a) da. Bigarren aldaera oharretara pasatuko genuke goitizena delako. Hala ere, *Anamariena* (-a) idatzi behar da, noski, paragogerik gabe eta modu tradizionalan.
- Uriartegoiko** (812-813. orr.): *Uriartebeko* (810-812) izenari buruz esan duguna kontuan izanik, hemen ere *Uriartegoikoa* (-a) eman behar da arauzko izen gisa, nahiz *Uriarte* huts laburtua ere ibiltzen den.
- Zabala** (813. or.): *Zabala* izeneko beste baserri batzuetatik bereiztu behar zenean, era osoa aipatuko zen segur aski, usadioari jarraituz, *Demikuzabala* (-a) izango zena. Guk horixe proposatuko genuke, ahozko aldaera laburturako aukera oharretan aipatuta.

9. ARRANOTEGI AUZOA

- Arezi** (828. or.): Guk *Aresti* idatziko genuke, noski. Ikus gorago *Arezi* (422-423).
- Aritzitxu** (828-829 eta 829. orr.): Id. Dokumentazioan ageri den *Arestitxu* tradiziozkoa idatziko genuke.
- Arranotegi / Txinbelane** (829-830. orr.): Leman izen bakarra agertzea komeni da. Bigarren aukeraren arauzko grafia mendebaldeko tradizio idatziari eutsiz eskaini behar da, hots, *Txinbelena* (-a).

- Arranotegiburu** (830. or.): Kasu honetan ez dugu mugatzailea edekitzeko arrazoirik ikusten eta *Arranotegiburua* (-a) proposatu behar da normalizaziorako.
- Arrilabane** (831. or.): XIX. mendean paragogea ondo dokumentaturik dagoen arren, guk *Arrilaban* hobetsiko genuke.
- Bistalegre** (832-833. orr.): *Vistalegre* idazkera litzateke propioa, euskaraz ere ibiltzen dela argi badago ere.
- Erramontxune** (833-834. orr.): Guk lehentasuna *Bustargillea* (-a) izenari emango genioke, eta ez oharretan ematen den *Bustargilia* aldaerari. Bigarren aukera gisa *Lokedobekoa* (-a) emango genuke. Egileek hautaturiko aldaera, guk goitizen gisara utziko genuke eta *Erramontxuena* (-a) idatziko. Ikus beherago *Lokedo* (839-840. orr.).
- Erramontxuneko atxa** (834. or.): Aurreko izenarekin markatu den bideari jarraituz, *Erramontxuneko atxa* (-a) idatziko genuke, noski.
- Estratzaillune** (835-836 eta 836. orr.): Paragoge berri hori gabeko aldaera da normalizatu behar dena maila jasoan. Guk *Estratzaillun* emango genuke. Honek deklinabide jasoan izango lituzkeen ondorioez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Frantzuneko atxa** (837. or.): Guk *Frantxuen*- hasiera hobetsiko genuke. Ikus gorago *Frantzunatxeta* (256-258. orr.).
- Frantzuneburu** (837. or.): Aurrekoari segiturik, *Frantxuen(a)buru* idatziko genuke. Ikus gorago *Frantzunatxeta* (256-258. orr.).
- Kantaratxu** (838. or.): Bokal asimilaziorik gabeko *Kanteratxu* era normala hobetsiko genuke, noski. XX. mendeko lekukotza guztiak, hala ere, harmonizaturik daude. Honen gainean, ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).
- Laubidietazpi** (839. or.): Guk *Laubidietaxpe* emango genuke. Oso ohikoa da *axpe* eta *azpi* osagaien nahastea edo interferentzia, segur aski sinonimian ere oinarri duena eta, beraz, «herri-etimo» bezala kontsidera genezakeena. Berezia da *-bide-eta-* elkarketan *-ee-* taldeak ematen duen *-ie-* disimilatua. Ohikoan ez da arauzko idazkerara eramaten, baina kasu honetan idatziko tradizio handia dauka (*Laubidieta* 1021-1022. orr.) eta ontzat eman liteke.
- Lokedo** (839-840. orr.): Guk *Lokedogoikoa* (-a) era osatuagoa emango genuke, gorago aipatu dugun *Lokedobekoa* (-a) izenarekin bikote egiten duena. Ikus *Erramontxune* (833-834. orr.).
- Longane** (840-841. orr.): Dokumentazioan oso argi eta ugari ikusten da zein den tradizio idatzia eta guk horixe proposatuko genuke normalizaziorako, *Longena* (-a) alegia.

Sagargane (845. or.): Guk paragoge berritzaile hori gabeko *Sagargan* emango genuke, noski. Deklinabide jasoan mugatzailerik ezak dakartzan ondorioez, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).

Txinbelaneko bizkarra (846-847. orr.): Ahozko lekukotzan ondo ikusten da zein den sakonean dagoen deklinabide sistema. Guk, noski, *Txinbelaneko bizkarra* (-a) erregularra idatziko genuke hau. Ikus gorago *Arranotegi* / *Txinbelane* izenean esandakoa (829-830. orr.).

10. MAÑU AUZOA

Mañu (850-857. orr.): Euskaltzaindiak⁴¹ aspaldian gomendatu duen *Mañua* (-a) mugatzaileduna proposatuko genuke guk ere arauzko grafia moduan.

Andiriminieta (860-861. orr.): Lema bezala aukeratu denak egia izateko aukerak balitu ere, ez da batere zuhurra hipotesi mailan mugituz, inolako oinarri dokumentalik gabe, normalizazio bat bultzatzen saiatzea. Posibleena, ordea, jatorrizkoa *Andraermita* izatea da, Bizkaiko toki askotan legeztxe, *Andraerminta* herri-aldaera izango zuena (bustiduraz *-ermintxa*). Dokumentatuen, hala ere, *Andramarieta* da eta guk horixe emango genuke arauzko proposamen legez.

Aritzitxu (862. or.): Dokumentazioan oinarri nahikorik duen *Arestitxu* idatziko genuke guk, mendebaldeko tradizioarekin bat. Ikus gorago *Areztu* (422-423. orr.).

Arrilabane (862-863. orr.): Toponimo modernoa da eta paragogerik gabeko *Arrilabana* (-a) emango genuke guk dudarik ere gabe.

Balentiñene (867-868. orr.): *Balentiñena* idatziko genuke guk, noski. Bigarren aukera gisa, *Mañubeko(etxe)a* (-a) ere aipatuko genuke guk, baina Mañuan badaude beste *Bekoetxe* batzuk eta nahasgarria izan daiteke.

Beko arizti (869. or.): Ez dago dokumentaziorik, baina *Beko aresti* idatziko genuke guk mendebaldeko usadioan bezala. Ikus horretaz gorago *Areztu* (422-423. orr.).

Bentazarpe (871. or.): Lekukotzarik jaso ez bada ere, -a mugatzailea arrazoirik gabe kendu zaio. Guk *Bentazarpea* (-a) proposatuko genuke normalizaziorako.

Bentazarre (871-872. orr.): Paragoge berri hori ez genuke inola ere arauzko grafian onartuko. *Bentazar*, beraz.

⁴¹ Onomastika batzordea: *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak*, EUDEL, Bilbo, 2001.

Biorgorta (872-873 eta 873. orr.) eta **Biorgortaburu** (874): Proposatzen den bilakaera oso posible da eta hipotesia ondo formulatuta dago –hipotesia dela esan gabe, ordea–. Orain bakarrik datuak falta dira, hots, dokumentazioan *Beor-* hori jasotzea. Hala balitz, toponimo hori *Beorgorta* idatzi behar litzateke, baina besterik ezean, guk *Biorreta* eta *Biorretaburu* seguruagoak hobetsiko genituzke.

Bistalegre (874. orr.): *Vistalegre* izango litzateke arauzko idazkera logikoena. Ikus gorago ere *Vistalegre* (832-833. orr.).

Elizalde eta **Elizondo** (874. orr.): Guk Bizkaiko *Elex-* hasiera jatorra hobetsiko genuke kasu bietan. Ikus gorago *Elizbide* (534. orr.).

Erdikoetxe (875-876. orr.): Oharretan aipatzen den bigarren aukera onargarria da, baina *Pototxuena (-a)* idatzi behar litzateke.

Etxebarri (880. orr.): Dokumentazioan hura gabe ere jaso den arren, guk mugatzaileari eutsiko genioke dudarik ere gabe, hots, *Etxebarria (-a)*.

Gortaederrebeko (882-883. orr.): Tarteko *-eder* osagaien ihartutako *-e* epentetiko ez genuke inola ere onartuko, dokumentazioak erakusten duenez, berrikeria delako. Kontrara, ahoz ere jaso den mugatzaileari eutsiko genioke eta arauzko aldaera *Gortaederbekoa (-a)* litzateke, beraz. Nahi balitz, *Gortaederrabekoa (-a)* ere onar liteke, egoera horretan mugatzaileek irautea fenomeno errekurrentea da eta. Ikus beharago ere *Gortaederregoiko* (883-884. orr.) eta hautu biak batera egin.

Gortaederrerdiko (883. orr.): Hemen epentesi konturik ez badugu ere, mugatzailearekin berdin jokatu behar litzateke, hots, *Gortaederrerdikoa (-a)*.

Gortaederregoiko (883-884. orr.): Id. Guk *Gortaedergoikoa (-a)* hobetsiko genuke, baina *Gortaederragoikoa (-a)* ere onargarria litzateke. Ikus *Gortaederrebeko* (882-883. orr.) eta hautu biak batera hartzea komeni da.

Gortaederre (884-885 eta 885-887. orr.): Guk *Gortaederra (-a)* aldaera mugatzaileduna hobetsiko genuke. Edozein kasutan ere, paragoea moderno samarra da eta ez da arauzko grafian isla eduki behar.

Hipolitone (887-888. orr.): Baserriaren arauzko izena *Bidekoetxea (-a)* edo antzeko zerbait da (*Bidetxe, Bidekoa (-a)...*). Lema bezala jarri den herriedeizioa goitizena da eta, idaztekotan, *Hipolitoena (-a)* idatzi behar da Bizkaiko usadio oikonimikoak errespetaturik.

Iraebagieta (888. orr.): Guk ez dugu *-ae-* hiatoa gordetzeko motiborik ikusten, *-ae- > -e-* soluzioa euskara estandarrean ere eman ohi delako. *Iraebagieta* idatziko genuke, beraz.

Iturralde (889. orr.): Mugatzaileari eutsiko genioke, XX. mendera arte heldu delako bizirik. Beraz, *Iturraldea (-a)* emango genuke arauzko gisa.

- Iturizarre** (892. or.): Toponimo horren datu dokumentalik ez badago ere, guk *Iturizarra (-a)* proposatuko genuke, era jator osoa ahoz behin jaso da eta.
- Joseandiane** (894. or.): Izen hori *Joseandiana (-a)* idatzi behar da, paragogerik gabe eta tradizio oikonimikoari eutsirik. *Mendizabal* ere ontzat hartzeko moduko izena da.
- Kanone** (895-896. orr.): Izen hori ere paragogerik gabe idatzi behar litzateke, *Kanon* edo *Cannon* alegia. Hala ere, toponimo hau Bermeoko kultur ondarearen inbentario batean agertzea bitxia egiten zaigu...
- Karabigane** (896. or.): Paragogerik gabeko *Karabigan* da arauzkoa. Deklinabide jasoan honek dituen ondorioez ohartzeko, ikus gorago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Katalane** (898. or.): Paragogerik gabeko *Katalan* litzateke arauzkoa edo, nahi balitz, *Batxikatalan* «osoagoa» hobets liteke. *Erdikoetxe* eta *Iturribide* deizioen grafia egokia aipatzea ere ez legoke sobran.
- Kateazarre** (899-901. orr.): Paragogea ez da arauzko grafiara eraman behar eta *Kateazar* idatziko genuke, noski. Mugatzailerik gabe proposatzean, kontuan izan deklinabide jasoan, ahal dela, epentesirik gabe egitea gomendatzen dela: *Kateazar*, *Kateazarren*, *Kateazarko*, *Kateazartik*, *Kateazarrera*...
- Kolisone** (901-902. orr.): Guretzat argi dago babestu behar den baserriaren izena *Pepemozoena (a)* dela. *Kolisone* horren azalpena falta da oharretan. Haren txistukari bustiaren bazterketa ere ez dugu ulertzen. Etxearen goitizen mailako bezala, hala ere, *Kolixoena (-a)* eman liteke, paragogerik gabe.
- Komaistene** (902. or.): Goitzen hori –bigarren maila batean eta ez leman– paragoge gabeko *Komaistena (-a)* emango genuke guk arauzko grafian. Hala ere, etxearen izena babestu behar dugu maila jasoan eta hau *Mañuzarra-goikoa (-a)* da, gure ustez. Hauxe agertu behar litzateke lema bezala.
- Kristobalene** (902-903. or.): Dударik gabe, *Kristobalena (-a)* da toponimo horren arauzko idazkera.
- Landane** (903. or.): Guk *Landa* hutsa edo *Landena (-a)* idatziko genuke, ohiko *-ena > -ene* paragoge desitxuratzaila islatu gabe. Hemen egiten den aukeraren arabera jokatu behar da hurrengo bietan ere.
- Landanebeko** (903-905. orr.): Bistan da *Landabekoa (-a)* edo *Landenabekoa (-a)* idatzi behar dela leku-izen hau maila jasoan, beti ere, aurrekoari eman zaion soluzioari jarraituz. Ikus, beraz, *Landane* (903. or.).
- Landanegoiko** (905. or.): Arauzko idazkera *Landagoikoa (-a)* edo *Landanagoikoa (-a)* izan liteke. Aurrekoetan egindako aukeraren arabera. Ikus, beraz, *Landane* (903. or.).

- Larre** (906. or.): Ikertzaileek euskara estandarrean jarri nahi izan badute ere, bermeotarrek *Larra* dialektal jatorrari eusten diote. Guk ere, Bizkaiko aldaera jator hori hobetsiko genuke, noski. Ikus gorago *Araneko larre* (421. or.).
- Lauziriko aresti** (906. or.): Generiko horren idazkera jator jaso mendebaldean *aresti* da eta horrela eman behar da toponimo hau, dokumentazioarekin bat. Ikus gorago *Aresti* (422-423. orr.).
- Leixarreta** (906. or.): Guk *Lexarreta* nahiago genuke. Ikus gorago *Leixar-txueta* (466. or.) eta are gorago *Kerizeta* (461. or.).
- Manutxuibarrene** (907-909. orr.): Guk paragogerik gabe idatziko genuke euskaraz, hots, *Manutxuibarrena* (-a).
- Mañugoiko** (909-910. orr.): Baserri multzoa den aldetik eta ahoz ere hala jaso delako, mugatzailea ez genuke desagertutzat emango. Mugatzaile hori singularra nahiz plurala izan liteke, hau da, *Mañugoikoa* (-a) edo *Mañugoikoak* (-ak).
- Mañugoikoatzeko** (910. or.): Mugatzailea bizirik dago eta eutsi behar zaio. Arauzko grafia, beraz, *Mañugoikoatzekoa* (-a) da. Agian dokumentazioan gaztelaniaz jaso denaren euskal ordaina ere eskain liteke izen historiko gisara: *Mañunagusia* (-a).
- Mañugoikoaurreko** (911. or.): Mugatzaileari eutsi behar zaio, dokumentazioan eta erabileran egiten den bezala. Hortaz, *Mañugoikoaurrekoa* (-a) idatzi behar da.
- Mastizarre** (912. or.): Guk *Mastizarbarrena* (-a) aldaera osoagoa hobetsiko genuke. Lehen osagaiaren mugatzailea mantentzen duen *Mastizarbarrena* (-a) ere onargarria litzateke.
- Mungiarrenebeko** (916-917. orr.): *Mungiarrenabekoa* (-a) edo *Mungiarrena* (-a) hutsa emango genuke arauzko izen jaso gisa, paragogerik gabe baina mugatzaile eta guzti. Bigarren mailako deizio bezala *Laubidietabekoa* (-a) ere aipatu behar litzatekeela uste dugu.
- Mungiarrenegoiko** (917. or.): Aurrekoa ez bezala, badirudi kokatzailea beharrezkoa duela, mugatzaileaz lagundua beti ere, hots, *Mungiarrenegoikoa* (-a). *Laubidietagoikoa* (-a) ere aipa liteke aukera bezala.
- Oiangorta** (919. or.): *Abaroarriurieta* izena ere ontzat eman liteke, aukera historiko bezala bada ere.
- Sangresilla** (928. or.): Dokumentatzen den bakarra *Sangrasilla* da eta guk horrela emango genuke, nahiz eta asimilazio arrunta izan litekeen (-a-e- > -a-a-). Kontrako bokalismoak ere (-a-i- > -e-i-) baluke azalpena, ondoko -i- bokalaren balizko eraginagatik.

Zabale (932. or.): Dударик ere gabe eta dokumentazioak argi erakusten duen bezala, *Zabala* (-a) da arauzko era. Dokumentazioan jaso den *Zabalabaso(a)* (-a edo -ak) generikoduna ere egokia litzateke.

Zabalene (932-933. orr.): Dauden datuak ikusirik, guk *Mintegizabala* (-a) «osoa-go» emango genuke, erabileran laburtzeko aukera beti egongo da eta.

Zabaletxubaso (933. or.): Lehen osagaiaren -e paragogiko hori –epentesi bihurturik– ez da beti agertzen ahozko lekukotzetan, oraindik aldaera jatorra darabilen bermeotarrik badago eta. Beraz, *Zabaltxubaso* idatzi behar da toponimoa.

11. SAN PELAIO GIBELORTZAGAKOA AUZOA

San Pelaio Gibelortzagakoa (938-941. orr.): *Gibelortzaga* toponimoa birsortzeko ahaleginak ontzat ematen ditugu. Hala ere, izen luze hori egokiagoa iruditzen zaigu ermita ezaguna izendatzeko, auzunearen izentzat *Gibelortzaga* toponimoa hutsa lagaz. Era honetako izenak birsortu nahi direnean, aldi baterako parentesia erabili ohi da, ezagunagoa den izena –ordezkatu nahi dena– agertzeko, erabiltzaileak ohituratzen diren artean. Hagionimoekin maiz gertatzen dira ordezkatzeko hauek eta atzera toponimo zaharrek errekuaratzea ontzat eman ohi da, santu izenak tenpluetarako utziz beti ere. *Gibelortzaga* (*San Pelaio*) emango genuke, alegia⁴².

Arezi (945. or.): Guk *Arestiena* (-a) edo *Arestiko soloa* (-a) emango genuke arauzko idazkera bezala, beti ere, -s-rekin. Ikus gorago *Arezi* (422-423. orr.).

Bistalegre (946. or.): Agian zuzenago –eta propioago– litzateke *Vistalegre* idaztea. Ikus gorago *Bistalegre* (832-833. orr.).

Donprimone (946-947. orr.): Bizkaiko usadioari jarraiki, guk dударик gabe *Donprimonea* (-a) emango genuke arauzko grafia legez.

Ermu (947-948 eta 948-949. orr.): Dokumentazioa ikusirik, mugatzaileari atxikitzen saiatu behar dela dirudi, *Ermua* (-a) alegia.

Ermubeko (949. or.): Mugatzailearik eza azken orduko galera dela erakusten du dokumentazioak eta atxiki behar zaio, *Ermubekoa* (-a) arauzko idazkera normalizatzen saiatuz.

Ermugoiko (949-950. orr.): Id. *Ermugoikoa* (-a).

⁴²Euskaltzaindiak, hala ere, datu hauen berri izan baino lehen, *Doneperai* izena proposatu du auzo honen arauzko izen bezala, *San Pelaio* ere onargarria izanik. Onomastika batzordea: *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak*, EUDEL, Bilbo, 2001.

Kontuan izan bedi, bestalde, *San*, *Santu*, *Done* eta *besteren erabilera* titulua daraman Euskaltzaindiaren 125. arauan, *Done Pelaio* era jasoa hobesten dela adibokazio honetarako.

- Gaztelugatxe** (950-953. orr.): Dokumentazioaren bilketa oparoak erakusten digunez, izen horretako paragogea moderno samarra da eta idatzizko mailan, hura gabeko aldaera gure egunetara arte heldu da. Dударik ere gabe, *Gaztelugatx* emango genuke arauzko era gisa.
- San Juan Gaztelugatxekoa** (950-953 eta 953-954. orr.): Ez genuke proposa-
mena aldatuko, baina kontuan izan behar da Euskaltzaindiak adbokazio
horren aldaera jaso bezala *Done Joane* eman duela⁴³ eta nonbait aipatu
behar litzatekeela, bide egiten joan dadin.
- Gisastipe** (955. or.): Guk *-barrena* posposizioa hobetsiko genuke, tradizio
luzeagoa izateaz gainera, hain gardena –eta aldakorra– ez delako.
Proposatzen den *-pe* horrek ez du oinarririk bat ere, dokumentazioan *-ve*
delako ageri dena (euskaraz *-be* idatzi beharrekoa). Nolanahi ere, guk
Gisastibarrena (-a) hobetsiko genuke.
- Goientzabale** (955-956 eta 956-957. orr.): Paragoge berri hori gabeko izen
garbia da arauzkoa, *Goientzabal* alegia. Mugatzailea galdutzat emango
genuke, alegia. Erabaki honek deklinabidean dituen ondorioez, ikus go-
rago *Aritzatxugane* (363. or.).
- Goientzabaleburu** (957. or.): Tarteko *-e-* hori babes lezaketen lekukotzak
daudela ere, guk *Goientzabalburu* proposatuko genuke arauzko grafia
legez.
- Irabiaga** (958-959. orr.): *Irabien* eta *Ibadiaga* lekukotzak formalki erlaziona-
tzen dituen bilakaera hori ez zaigu sinesgarria egiten. Elkarretatik eratorri
ez baina elkarren interferentzia izateak errazago azalduko luke gertatu-
rikoa. Etimo ilunekoa izanik ere, guk *Ibadiaga* emango genuke arauzko
lema bezala, ahoz *Ibijjaga* ematen duena. *Irabien* aldaera historiko gisa
aipatuko genuke bigarren maila batean.
- Iratzgorri** (959. or.): Ohar linguistikoetako hipotesia oso egokia da, baina
hipotesia azken finean. Bera frogatzen duen daturik ageri ez den bitartean,
Itzgorri utzi behar da.
- Kukutze** (959-960. or.): Itxuraldatu gabeko *Kukutza* darabilen bermeotarrik
badago oraindik eta halaxe idatzi behar da errepikatutako toponimo hau.
Kasu honetan paragogerik ez baina *-u-a* > *-u-e* bokalismo arrunta dagoela
pentsa daiteke, amaierako bokala ez baita mugatzailea, berezkoa baizik.
- Luisen arezti** (960. or.): Generiko horren aldaera tradizionala mendebaldean
aresti da. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.). Gainera, mugatzaileari eutsi
behar zaio dokumentazio modernoan ez ezik, ahoz ere jaso da eta. *Luisen*
arestia (-a) da, beraz, arauzko forma.

⁴³ *San, santu, done eta besteren erabilera* izenburua daraman Euskaltzaindiaren 125. araua.

- Motze** (961. or.): Paragoge hori ez genuke onartuko, nahiz eta lehenbiziko lekukotzan (1895) *-e* ageri. Guk *Mo(to)tza* emango genuke arauzkotzat, amaierako *-a* hori mugatzailea den ala ez ez dakigula.
- Pozuillune** (963-964. orr.): Lehen osagaiaren mendebaldeko aldaera jatorra, Bizkaiko toponimian oso ugaria, *Pozo* da. Dokumentazioan jasotakoa, beraz, ez da gaztelaniagatiko «kultismoari» bakarrik egotzi behar, euskaraz ere hala ibiltzen baita, ahozko lekukotzek ahobatez frogatu duten legez. Ikus gorago *Pozubaltze* (618. or.). Paragogerik gabe *Pozoilluna* (*-a*) idatziko genuke guk, noski.
- Pozusikatu** (965. or.): Id. Arauzko grafia, beraz, *Pozosikatu* da.
- San Pelaio** (965. or.): Ermitaren *Done Pelaio* adbokazio jaso⁴⁴ nonbait aipatzea ez legoke gaizki, lema bere hartan utziko bagenu ere.
- Sanjuanalde** (966-967. orr.): Guk *Erkoreka* izena hartuko genuke etxerako, *Sanjuanalde* parajea badago eta izen hori ez delako galduko.
- Sanjuanoñetze** (967. or.): Bistan da bigarren osagaiak pairatu dituen bokalis-
moak eta paragogeak ez dutela lekurik arauzko grafia jasoan. *Sanjuanoña-
tza* (*-a*) litzateke, beraz, lema zuzena.
- Txarale** (968-969 eta 969-970. orr.): Hartatik sortu diren zenbait eratorri iku-
sita (*Txaralondo*, *Txaralpe*...), bistan da *Txaral* dela sakonean dagoen
hitza eta *-e* hori paragoea. Hala ere, 1816an dokumentatzen da lehenen-
goz eta ia ahobatez jaso da idatzizko lekukotzetan. Guk *Txaral* hobetsiko
genukeen arren, ulertuko genuke *Txarale* uztea.
- Urotze** (974. or.): Etimoari buruzko hipotesia ondo dago, baina ausartegia
iruditzen zaigu arauzko grafia uste horretan oinarritzea, jasotako doku-
mentazioa kontra dagoelako. Guk honi kasu egin eta *Urutza* idatziko
genuke. Uste dugunez, ez dauka erlazio geografikorik San Andresen
dagoen *Urotze* (1041. or.) izeneko errekarrekin.
- Zezilioneo errekartea** (974. or.): Ikus gorago *Txaoletabeko* (515. or.) izene-
ko lekuan eskaintzen den *Zezilioena* (*-a*) alonimoa. Ondorioz, bokal
guztiak dituen *Zezilioeneko errekartea* idatzi behar da.

12. KOSTALDEA

- Akatxe** (978-979. orr.): Guk dudatu ere gabe *Akatex* idatziko genuke. Hipotesi
bezala, etimoa eta bilakaera azaltzeko saioa egitea zilegi da: «Bigarren
osagaia '(h)atx' denez, kontsonantez amaitutakoa, bokal paragogikoa har-
tzen du, baina kaletarren artean, amaierako bokal hau gabeko aldaera ere

⁴⁴ *San, santu, done eta besteren erabilera* izenburua daraman Euskaltzaindiaren 125. araua.

- ezagun-ezaguna da». Datuek erakusten dutena ez da, ordea, bokal paragoge bat, lehenbiziko lekukotzetan badagoen amaierako *-e* baten galera baizik. Galera XIX. mendearen amaieran gertatu zela ere zehaztu liteke. Gainera *Aketxe* izena errepikatua ageri da Bizkaiko toponimia nagusian ere (Leioako auzunea) eta ez da *-e* gabe dokumentatzen. Bestalde, *A-e* > *A-a*- asimilazioa ez da idatzi behar, jatorri etimologikoa balu ere (1634ko *Aqueache*). Ikus ere gorago *Salbatxe* (277-278. orr.).
- Akaxpe** (979. or.): Aurrekoari segituz, guk *Akexpe* idatziko genuke, noski.
- Aritzatxu** (979-980. orr.): Dударik gabe, *Areatzatxu* idatziko genuke, *-ea* > *-ia*- eta *-ia*- > *-i*- bokalismoak ez direlako inoiz ere idazten. *Areachachu* era gardena 1958an ere dokumentatzen da.
- Atatalle** (981. or.): Lekukotza bakarra badago ere, guk *Atatalla* (*-a*) idatziko genuke.
- Erleko punta** (983. or.): Guk genitiborik gabeko aldaera hobetsiko genuke, ahoz eta idatziz jaso dena, hots, *Erlepunta*.
- Farolpe** (984. or.): Dokumentaziorik ez dagoen arren, ahoz behin jaso den mugatzaileari eutsiko genioke, *Farolpea* (*-a*) alegia.
- Gibelpe** (984-985. orr.): Mugatzaile eta guzti emango genuke, hala esan eta dokumentatzen delako, *Gibelpea* (*-a*) alegia.
- Karatxe** (985. or.): Paragoge moderno hori gabeko *Karatx* emango genuke arauzko gisa edo, nahi balitz, mugatzailedun *Karatxa* (*-a*). Kasu batean eta bestean, deklinabidea oso diferentea da.
- Lazaretoko punta** (986-987. orr.): Guk *Lazaretoko puntea* (*-a*) mugatzaileduna emango genuke. Halakoen deklinabide konplexuaz ikus gorago *Bañera* (248-250. orr.).
- Matxitxako** (987-989. orr.): Dokumentazioak frogatzen duenez, eta txistukariak ezbaian, *Matxaxako* litzateke erarik jatorrizkoena, ahoz ere, haplogia gora behera, kontserbatzen dena. Dena dela, izen «nagusia» izateak atzerarazten gaitu aldaketa proposatzetik.
- Talape** (992-993. orr.): *Talapea* (*-a*) mugatzaileduna hobets liteke.
- Ugarrai** (996-997. orr.): Oharretan aipatzen den bokalismoa posible bada ere, datuek erakusten duten aldaera zaharrena –eta gehien ageri dena– *-e*-duna da. Hortaz, *Ugerrai* idatziko genuke.

13. IZARO

- Madalenako ermita** (1001-1002. orr.): Guk *Magdalena* osorik idatziko genuke leku historiko honen izena. Azken finean, *-gd-* > *-d-* sinpleketa gaztelaniaz ere gertatzen da, baina ez da hizkuntza idatzira eramaten. Adbokazio

jasoa, hala ere, *Andra Maria Magdalena* (edo *Magdalakoa*) izango litzateke eta non edo non aipatzea ez legoke gaizki.

Arriederra (1004. or.): Bigarren aukera gisa *Potorroarriandia* (-a) emango genuke, behe-rago dagoen *Potorroarrixiki* (1005. or.) izenekoarekin bikote egiten duena.

Madalenape (1005. or.): Guk *Magdalenape* idatziko genuke. Ikus gorago *Madalenako ermita* (1001-1002. orr.).

Potorroarrixiki (1005. or.): Guk mugatzaileari eutsiko genioke eta *Potorroarrixikia* (-a) proposatuko, bere bikotea litzatekeen *Potorroarriandia* (-a) izenarekin egin bezala. Ikus hau gorago *Arriederra* (1004. or.) izeneko oharretan.

14. GAINAK

Arballo / Axnabarre (1009. or.): Bigarren izena *Axnabar* idatziko genuke guk, paragoge berririk gabe. Hala ere, lema nagusi bakarra utziko genuke *Arballo* izenarekin.

Astazabale (1012-1013. orr.): Guk *Astazabalaga* hobetsiko genuke, bide batez, paragogearen zabalkunderako bidea itxirik.

Astazabaleburu / Pastitxuburu (1014. or.): *Pasteitxuburu* izen bakarra eman-go genuke leman. Ikus *Pastitxu* (617. or.). Hala ere, hemen ageri diren lekukotza dokumental guztiek *Pasto*- hasiera iradokitzen digute... Beste izena bigarren mailan utziko genuke eta *Astazabalagaburu* idatziko genuke. Ikus *Astazabale* (1012-1013. orr.).

Burgo (1013-1015. orr.): Dokumentazioak argi erakusten duen bezala *Burgoa* (-a) da arauzko aldaera. Ikus gorago ere *Burgo* (409. or.).

Goikogane (1018. or.): Paragogerik ez da idatzi behar. Kasu honetan, -a-dun aldaera dokumentalak duela gutxira arte jaso dira. Gainera, Onomastika batzordearen irizpideak eskuan, *Goiko gana* (-a) bereiz idatzi behar litzateke, kriterio hori eztabaidan dagoen arren.

Kurtzezarre (1020. or.): Guk *Kurtzezar* idatziko genuke, noski, paragoge berririk gabeko forma. Bigarren aukera gisa *Gibelmendi* ere eskainiko genuke.

Masugoiko (1023. or.): *Masugoikoa* (-a) mugatzaileduna ere kontsideratuko genuke. *Otalarra* ere emango genuke bigarren aukera gisa.

Truboietagane / Kurtzemendi (1026-1027. orr.): Guk *Truboietagan* hutsa lagako genuke paragogerik nahiz ondoko kontu gehiagorik gabe (-gan > -gane > -ganea > -ganie). *Kurtzemendi*, bigarren mailako goitizen moderno da eta oharretara baztertuko genuke.

15. SARE HIDROGRAFIKOA

San Martineko erreka (1035-1036. orr.): Guk *Sanmartinerreka* hidronimoa eraiki edo, bestela, *San Martin* hutsa lagako genuke. Saihestuko genuke hagianimoari lekuzko genitiboa eranstea, problematikoa dena, bestalde. Honen gainean, gogoan izan epentesirik gabeko aukera deklinatiboa hobesten dela, *San Martineko* baino *San Martingo* nahiago dela, alegia.

Baltzaneke erreka (1037-1038. orr.): *Baltzaneke erreka* deklinatu behar da hori.

Santunatxe (1038. or.): Paragoge eta guzti jaso da beti (1895etik aurrera bakarrik, hori bai). Guk, etimoari sinesgarritasunik ematen bazaio, *Santuenatx* idatziko genuke, noski. *Santunatxe* (578-579. orr.) izenaren oharrean esaten den legez, ez da ahaztu behar *Santuenatxe* aukera ere ezkuta lezakeela.

Altziko erreka (1039. or.): Ahoz bakarrik jaso da izena eta, segur aski, *Altzegiko erreka* (edo *Altzadiko erreka*) desitxuratu baten emaitza baino ez da.

Lantzabideko erreka (1040. or.): Bigarren aukera gisara *Arestierreka* eskainiko genuke. Ikus gorago *Arezi* (422-423. orr.). Bitxia egiten zaigu oharretan bigarren aukera horren ondoan *Areztiko erreka* ere idatzita ikustea.

Urotze (1041. or.): Guk *Urotza (-a)* proposatuko genuke normalizaziorako. Ezin da geografikoki erlazionatu San Pelaio aldean dagoen *Urotze* (974. or.) izenarekin.

Frantzuerreka / Arranotegiko erreka (1045-1046. orr.): Lema bezala *Frantzuerreka* bakarrik eskainiko genuke guk. Ikus gorago *Frantzunatxeta* (256-258. orr.).

Kantaratzuko erreka (1046. or.): Arauzko grafian ez dugu *-a-e-a- > -a-a-a-* asimilazioa aintzat hartu behar eta *Kanteratzuko erreka* da zuzena. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).

Arrilabane (1046-1047. orr.): Paragogerik gabeko *Arrilaban* izango litzateke arauzko era jasoa. Ikus gorago *Arrilabane* (831. or.).

Motortzeko erreka (1047. or.): *Motortzako erreka* idatziko genuke guk, noski. Ikus gorago *Motortze* (736. or.). Alonimoen artean *Bolintxuaga* bezala, *Akulategiko erreka (-a)* ere aipa liteke, beti ere lematik kanpo.

Leixarretako erreka (1048. or.): Mendebaldeko tradizioari kasu eginik, guk *Lexarretako erreka* idatziko genuke. Ikus gorago *Leixartxueta* (466. or.).

Ezkiagalarreko erreka (1049. or.): Ikus *Ezkiagalarre* (715. or.). Halakoen deklinabide jatorraren moduan, *-larra* osagaiak *-larrako* eskatzen du genitiboan. Ikus *Bañera* (248-250. orr.). Arauzko era, beraz, *Ezkiagalarreko erreka* litzateke.

- Kantara** (1051. or.): Asimilaziorik gabeko *Kantera* hobetsi behar da. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).
- Iturrizarre** (1051-1052. orr.): Guk paragogerik gabeko era jatorra hobetsiko genuke, hots, *Iturrizar*. Ikus, hala ere, gorago *Iturrizarregane* (655. or.) izenean planteaturiko erreserba.
- Arruane** (1052-1053. orr.): *Arruena (-a)* izango litzateke egokiena. Hala ere, agian arauzko beste soluzioren bat bila liteke. Ikus gorago *Arruane* (791. or.).
- Lamiaraneko erreka** (1053. or.): Leku-izenen deklinabide mugagabea, ahal dela, epentesirik gabeko aukera hobetsi ohi dugu. Ikus horretaz *Aritzatxugane* (363. or.) izenerako esandakoa. Gure izen honetan, ahoz ere halaxe jaso da eta (*Lamiangué*), arrazoi handiagoz, *Lamiarango erreka* litzateke normalizaziorako arauzko proposamena.
- Kukutzeko erreka** (1054. or.): *Kukutzako erreka*, noski. Ikus gorago *Kukutze* (959-960. orr.).
- Errekabaltze** (1054-1055. orr.): Izen hau *Errekabaltz* idatziko genuke guk. Hala ere, lema bezala dokumentaturiko *Sagarraga* hobetsiko genuke. *Urbaltza (-a)* ere aipatuko genuke alonimo bezala.
- Urotze** (1055. or.): San Pelaioiko hau izen bereko lekuarekin erlazionatu behar da. Ikus *Urotze* (974. or.). Hortaz, soluzio grafiko bera eman behar zaio, hau da, *Urutza*. Kontrara, ez da nahastu behar *Urotze* (1041. or.) izena duen antzeko bestearekin.
- Biorgortako erreka** (1059. or.): Arauzko era *Biorretako erreka* izango litzateke, goragoko *Biorgorta* (872-873 eta 873. orr.) eta *Biorgortaburu* (874. or.) leku-izenekin erabakiarekin bat.
- Errekalabane** (1059. or.): Paragoge modernorik gabeko *Errekalaban* idatzi behar da.
- Landaneko erreka** (1061. or.): *Landaneko erreka* deklinatu behar da. Ikus gorago *Landane* (903. or.).

BASERRIAK

Bakioko San Pelaio auzoa

Hemendik aurrerako zerrenda landugabeetan, arautze-aurrelan xumeago bat ere egin daiteke, bildutako corpus dokumentalak horretarako aukera polita ematen duelako.

Amuetxebarri (1065. or.): Guk *Amuetxebarri* osoagoa hobetsiko genuke.

Elezpuru (1067. or.): *Elezpuru* idatziko genuke dudarik ere gabe.

Jolapitzene (1068. or.): *Joanlopitzena (-a)* izango litzateke gure ustez era arauzkoa.

Gortene (1068. or.): Izen hori *Gortena (-a)* idatzi behar litzateke baina, beharbada, *Gort(a)eta* izango litzateke egokiagoa.

Olazarre (1069. or.): *Olazarra (-a)*.

Ostiene (1069. or.): *Ostiena (-a)*.

Perditzene (1069. or.): *Perditzena (-a)* edo *Perditxena (-a)*.

Sanjuanalde (1069. or.): Agian *Erkoreka* izango litzateke egokiagoa. Ikus gorago *Sanjuanalde* (966-967. orr.).

Bakioko Bentalde auzoa

Besandona (1071. or.): Oso litekena da euskarazko aldaerak bokalarteko *-n*-hotsa galdu izana. Kasu horretan *Besandoa* idatzi behar genuke, noski.

Gorrondona (1072. or.): Izen honek bokalarteko *-n*-hotsa galtzen du euskaraz eta *Gorrondoa* idatzi behar da, beraz. Gaztelaniaz ere *Gorróndos* herrialdiera omen du, ahoz bildua baina liburuan jaso ez dena.

Larrezko barri (1072. or.): Aurreko erregistroko Larraskoaga (1072. or.) izenarekin erlazioan egongo balitz, *Larraskoagabarri* idatzi behar litzateke.

Minitua (1073. or.): Eratorri guztiak bat eginik idatzi behar dira, hurrenez hurren, *Minituandikoa*, *Minituatzekoa*, *Minituaurrekoa*, *Minituabekoa*, *Minituaemendikoa*, *Minituanagusia* eta *Minituatxikerra*, denek mugatzailearen *(-a)* oharra daramatela.

Ojinaga (1073. or.): *Oxinaga* grafia –eta segur aski ahoskera– egokiagoa izango litzateke, gure ustez.

Ojinaga (1073. or.) bigarrena: Id. *Oginaga Garai maior* bezala dokumentatzen denez gero, *Oxinagagarainagusia (-a)* idatziko genuke guk, informazio guztia emanik.

Orube (1074. or.): Guk epentesirik gabeko *Orue* hobetsiko genuke.

Pozuaga (1074. or.): Bizkaiko aldaera jatorra, baita Bermeon ere, *Pozo* da. Ikus gorago *Pozuillune* (963-964. orr.). Hortaz, *-oa-* > *-ua-* bilakaera ohiko bokalismo moduan ulertu behar da (*etxekoa* > *etxekua*) eta fenomeno hori ez da idazten.

Uribarri beko (1075. or.): *Uribarribekoa (-a)*.

Uribarri goiko (1075. or.): *Uribarrigoikoa (-a)*.

Zubiaur auzoa

Andramarieta (1076. or.): Guk ere honela idatziko genuke. Hala ere, erlazioan egon liteke eta ikus gorago *Andirimieta* (860-861. orr.).

Iñigo Zubiaur (1079. or.): Etxea da eta irizpide nagusiari jarraiturik, *Iñigozubiur* idatziko genuke guk.

Jauregi (1079. or.): Dokumentazioan ageri dena segurtasunez honi badagokio eta zaharra izanik ere, guk *Zubiaurjauregi* idatziko genuke, ahoz era laburtua erabiltzea beti izango baita zilegi.

Juan de Muxika (1079. or.): *Juanmuxika* edo *Juandemuxika* idatziko genuke guk.

Kitruene (1079. or.): Guk hori *Kitroena (-a)* edo *Kitorena (-a)* idatziko genuke.

Saitu goikoa (1080. or.): *Saitugoikoa (-a)* idatzi behar da, noski. Ikus hurrengo *Saitua-* (1080-1081. orr.).

Saitua- (1080-1081. orr.): Jatorrizko izenaren *-a* amaiera berezkoa ala mugatzailea den erabaki behar litzateke, baina eratorri guztien dokumentazioa aldi berean ebaluatuz, aukera bakoitzaren ondorioez ondo jabetuz eta erabaki egokiak hartuta. Guk *-a* hori mugatzailea dela pentsatzen dugu eta horregatik eratorriak *Saitugoikoa (-a)*, *Saitubeaskoa (-a)*, *Saituetxebarria (-a)*, *Saitumuxika*, *Saitutxikerra (-a)*, *Saituena (-a)* eta *Saitutxu* idaztea proposatzen dugu.

Ugarte barri (1082. or.): Bat eginik *Ugartebarri*, noski.

Zubiaur nagusia (1082. or.): *Zubiaurnagusia (-a)*.

Zubiaur (errenterikoa) (1082. or.): *Zubiaurerrenteria* idatziko genuke guk. Zenbaitetan *-rr-rr-* errepikapen kakofonikoari *-r-rr-* soluzioa eman zaio eta, orduan, *Zubiaurerrenteria* idatzi behar litzateke. Guk ontzat emango genuke bietarik edozein.

Zubiaur- (1082-1083. orr.): Genitibo markarik ez daramaten eratorriak hitz bakarrean idatzi behar dira, hots, hurrenez hurren *Zubiaurraurrekoa (-a)*⁴⁵, *Zubiaurbekoa (-a)*, *Zubiaurgoikoa (-a)* eta *Zubiaurraurrekoa (-a) / Erederoena (-a)*.

⁴⁵Edo *Zubiaurraurrekoa (-a)*, ikus gorago *Zubiaur (errenterikoa)* (1082. or.).

Zubiaurreko- (1083. or.): Oinarrian dagoen izena *Zubiaur* –eta ez *Zubiaurre*– izateak ondorio batzuk ditu deklinabide jasoan. Lehena da *-e-* epentesirik ez jasotzean, *Zubiaurko* deklinatzea dela egokiena. Hortaz, *Zubiaurko burdinola* eta *Zubiaurko errota* lirateke izenon arauzko era.

Etxeak eta Bentak

Garai (1083. or.): Dokumentazioari kasu eginik, *Garaiabala* (*-a*) idatziko genuke guk.

Migel Anton (1083. or.): Etxe edo benta bat den aldetik, *Migelanton* idatzi behar litzateke. Dena dela, segur aski euskaraz *Migelantonena* (*-a*) edo antzeko zerbait bilakatuko zen.

Arezti (1083. or.): *Aresti*. Ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Benta motza (1084. or.): *Bentamotza* (*-a*), noski.

Tabernatxu (Zubiaur) (1084. or.): *Zubiaurtabernatxu* litzateke hurrenkera tradiziozkoa, baina *Zubiaurko tabernatxu* ere atondu liteke edo, nahi bada, *Tabernatxu* hutsa laga.

Zubiaur [sic] (1084. or.): Akatsa da eta *Zubiaur* irakurri behar dugu, noski.

Ermitak⁴⁶

San Esteban (1084. or.): Leku-izena bere horretan utz daitekeen arren, ad-bokazio jaso *Done Eztebe* da.

San Kristobal (1084. or.): Leku-izena bere horretan utz daitekeen arren, ad-bokazio jaso *Done Kristobal* da.

San Martin (1084. or.): Leku-izena bere horretan utz daitekeen arren, ad-bokazio jaso *Done Martie* da.

San Pelaio (1084. or.): Leku-izena bere horretan utz daitekeen arren, ad-bokazio jaso *Done Pelaio* da.

Errekak

Gaztelu-iturri (Katillu) (1085. or.): Genitibo markarik ez du eta *Gazteluiturri* idatzi behar litzateke. Zalantza dugu ez ote den *Kastilluiturri* izan behar

⁴⁶ Adbokazioetarako, *San, santu, done eta besteren erabilera*, Euskaltzaindiaren 125. araua kontsultatu da.

(> *Katillu*), kontsonante talde horiek sinpletzeko errekurrentzia ezaguna delako antzeko testuinguru fonikoan. Cf. *Isuskitzza* > *Isukitze* Plentzian.

Jaumartin goikoa (1085. or.): Bat eginik idatzi behar da, hots, *Jau(n)martin-goikoa* (-a).

Kontxa (1085. or.): Generiko arrunta da eta guk ez genioke toponimo estatutik emango. *Estepona* izeneko ibaia da, zerrendan ere ageri dena.

Pozuaga (1085. or.): Lehen osagaiaren Bizkaiko aldaera jatorra *Pozo-* da. Ikus gorago *Pozuillune* (963-964. orr.). Beraz, *Pozoaga* idatzi behar litzateke. Ikus gorago *Pozuaga* (1074. or.) ere.

Txatxaerreka (1085. or.): Datu bakarra ikusirik, *Txantxaerreka* idatzi behar genuke.

Iturriak

Katilu iturri (1086): Guk hau *Katilluiturri* idatziko genuke. Agian gorago aipatu den *Gaztelu-iturri* (1085. or.) delakoarekin erlazionatu behar da, han hartutako erabaki berberari jarraitzeko.

Bideak

Andramarieta (1086. or.): Guk ere honela idatziko genuke. Ikus gorago *An-diriminieta* (860-861. orr.) eta *Andramarieta* (1076. or.).

Mintegi (1086. or.): Dokumentazioan ageri den *Muntegi* hori ere posible da eta dokumentazio gehiagorik ezean, guk *Muntegi* emango genuke, noski.

Meatzak

Atzulo (1087. or.): Guk *Atxulo* idatziko genuke dudarik ere gabe, Bizkaiko usadioari kasu eginik.

Inguruak

Andramarieta (1088. or.): Guk ere honela idatziko genuke. Ikus gorago *An-diriminieta* (860-861. orr.) eta *Andramarieta* (1076 eta 1086. orr.).

Antonsolo (1088. or.): Ondo idatzita dago, baina datu bakar horrekin *Aran-tzadi* izango litzateke logikoena.

Aranbaltz barrena (1088. or.): Arazoak dakartzan arren, bat eginik idatzi behar da eta horretarako legeak oso finkoak izan ohi dira. Guk *Aranbaltz-barrena* (-a) emango genuke dudarik ere gabe.

Aretximieta (1088. or.) eta **Aretzimieta** (1088-1089. or.): Guk kasu bietan *Aretx-* hasiera emango genuke, noski. Bermeoko toponimoekin segitu den irizpidea izan da hauek guztiak *-imieta* legez arautzea. Etimoa ez ezik, datu batzuen gainean ere mantentzen zen hipotesi hura. Haren ondorioz, *Aretximieta* idatzi behar lirateke hauek biak, baina hemengo dokumentazioa urria da eta, beraz, aukera hori ausartegia.

Arezti Iluneko gorengo partia (1089. or.): *Arestilluneko gorengo parte*a (-a) idatzi behar litzateke, noski. *Aresti-* horri buruz, ikus gorago *Arezti* (422-423. orr.).

Areztia (1089. or.): Id. *Arestia* (-a).

Arizti eta **Ariztieta** (1089. or.): Id. *Aresti* eta *Arestiena* (-a).

Arkatxope (1089. or.): Segur aski Bakion badabilen *Arkotxa* toponimoaren eratorri desitxuratua izango da eta *Arkotxape* idatziko genuke guk.

Arkotxa-erdikoa (1089. or.): *Arkotxaerdikoa* (-a).

Arriandi-ondoa (1089. or.): *Arriandiondoa* (-a).

Arrilabane (1089. or.): Paragogerik gabeko *Arrilaban* idatziko genuke, noski. Ikus gorago *Arrilabane* (831. or.).

Aume (1090. or.): Ikus *Amutxebarri* (1065. or.), zeinetan *Aume-echebarri* aldaera dokumentala baztertu den. Hala izatekotan, *Amua* (-a) izango genuke era arauzkoa.

Batekolanda (1090. or.): *Landa* bat bada, grafia arauzkoa *Bateko landa* izango litzateke, irizpide hori eztabaidan dagoen arren.

Benta-aurre (1090. or.): *Bentaurre* idatzi behar da, noski.

Bentakolanda (1090. or.): *Landa* bat bada, grafia arauzkoa *Bentako landa* izango litzateke, irizpide hori eztabaidan dagoen arren.

Elixelde (1091. or.): Bizkaiko era jator jasoa *Elexalde* izango litzateke. Ikus gorago *Elizbide* (534. or.).

Elorrieta barrena (1091. or.): *Elorrietabarrena* (-a).

Elorrieta-azpi-altzadi (1092. or.): *Elorrietazpialtzadi*.

Etexzuri (1092. or.): Dokumentazioan ageri den informazioa askoz aberatsagoa da. Guk *Etexzurioierra* (-a) emango genuke eta, bigarren aukera gisa, *Landeta*.

- Fagaza** (1092. or.): Esanahia gardena da eta atzizki hori *-tza* dela argi samar dago, grafia gaztelaniartzailean *-za* ageri dena. *Fagatzza* idatzi behar da, beraz.
- Gainbiribil** (1092. or.): Bakion *Gain-* bat aurkitzea neotoponimia estandarzalean bakarrik da posible. Dokumentazioaren arabera ez da hori kasua eta *Ganbiribil* idatzi behar da. Beherago *Ganbiribil* (1092-1093. orr.) zuzena ere ageri da, segur aski leku berbera izanik.
- Gaztainatueta** (1093. or.): Guk *Gaztañatueta* idatziko genuke.
- Gaztañedi** (1093. or.): Segur aski *Gaztañadi* izango da.
- Golunburu** (1093. or.): Seguruagoa litzateke, gure ustez, *Gollenburu*. Kontu egin dezagun *-o-e-u-u-* > *-o-u-u-u-* asimilazioa esplikatu daitekeela, baina kontrako norabidean bilakatzea ez dela erraza. Ikus beherago *Kollenburu* (1095. or.), segur aski leku bera dena.
- Idarraga** (1094. or.): Dokumentazioa ikusirik, guk *Irarraga* hobetsiko genuke.
- Iruaretxeta** (1094. or.): Dударik ere gabe *Iruaretxeta* idatzi behar da. Ikus gorago *Arexti* (422-423. orr.).
- Kalderu-iturri** (1095. or.): Guk *Kalderoiturri* idatziko genuke.
- Kanpo Santo** (1095. or.): Oso generiko hedatua da eta guk *Kanposantu* idatziko genuke.
- Kantarape** (1095. or.): *Kanterape*, noski. Ikus gorago *Galdizko kantarak* (443. or.).
- Katilu-iturri** (1095. or.): *Katilluiturri*. Ikus gorago *Gaztelu-iturri* (*Katillu*) (1085. or.) eta *Katilu iturri* (1086. or.).
- Kollenburu** (1095. or.): Segur aski goragoko *Golunburu* (1093. or.) berbera da. *Gollenburu* idatziko genuke.
- Landasolo-barrena** (1095. or.): Bat eginik idatzi behar da, noski, *Landasolo-barrena* (-a).
- Larrasiñe** (1095. or.): Datu horiekin guk *Larrazain* idatziko genuke, paragoerik gabe eta txistukari egokiaz.
- Larrene** (1096. or.): Dokumentazio guztia (hiru lekukotza) modernoa da (1910) eta guk, tradizioari kasu eginik, *Larrena* (-a) idatziko genuke.
- Luisenarexti** (1096. or.): Dударik ere gabe, *Luisenaresti* idatziko genuke. Osagai bien artean ez dago genitiboazko erlazioa, konposizioa baizik. Egitura honetaz ikus gorago *Katuen erreka* (658. or.). *Aresti* grafiaz, ordea, *Arexti* (422-423. or.).
- Matxarraka** (1096. or.): Guk datu horiekin *Matxierreka* idatziko genuke.

- Munarri-bizkarra** (1096. or.): Bat eginik, *Munarrizkarra* (-a) idatzi behar da.
- Ojinaga, Ojinagaburu** eta **Ojinalde** (1097. or.): *Oxinaga*- grafia dirudi ego-kiagoa. Ikus gorago *Ojinaga* (1073. or.).
- Pozuaga** (1098. or.): Guk duda gabe *Pozoaga* hobetsiko genuke. Ikus gorago *Pozuillune* (963-964. or.) eta *Pozuaga* (1074. or.).
- Saigana** (1098. or.): Dokumentazioari kasu eginik, *Sainaga* litzateke era arauzkoa.
- Sanjonalde** (1098. or.): Ikus gorago aldaera arauzkoa *Sanjuanalde* (966-967 eta 1069. or.) hartu duten izenak.
- Serralekutxu** (1098. or.): Guk *Zerralekutxu* idatziko genuke.
- Serralle Txikia** (1098. or.): Guk *Ze-* edo *Zarrallatxikia* (-a) idatziko genuke.
- Txaboletape** (1099. or.): *Txaola*- aldaera ontzat eman da Bermeoko lanean arauzko izen askotan. Hemen ere, dokumentazioak dakarrenez, arauzkoztat emango genuke *Txaoletape* era.
- Txatxaerreka** (1099. or.): Guk *Txantxaerreka* hobetsiko genuke. Ikus gorago *Txatxaerreka* (1085. or.).
- Ureta barrena** (1100. or.): Bat eginik, noski, *Uretabarrena* (-a).
- Uretas** (1100. or.): Izen horren euskal era zuzena *Ureta* litzateke, baina dokumentazioak besterik erakusten du, dagoen datu bakarra *Irxoreta* baita. Azken hau uztea beste biderik ez, beraz.
- Urotza** (1100. or.): Dokumentazioak erakusten duen bezala, *Urotza* idatzi behar genuke. Ikus gorago *Urotze* (974. or.).
- Zallualde** (1100. or.): *Zallo*- maiz ageri den osagai onomastikoa da eta, agian, izenaren atzean *Zallo-alde* legoke. Kasu horretan ez da -o-a- > -u-a- bilakaera idatzi behar eta *Zalloalde* litzateke arauzko grafia.

JAGON SAILA

XII. JAGON JARDUNALDIAK

*Iruñea, **Jaso** Ikastola,
2008-IX-18 (*)*

(*) *Nafarroa Oinez* 2008 ekitaldiko inaugurazioa eta aurkezpena «Nafarroa Oinez 2008: Atera erazu mihia».

AGURRA

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Eskerrik asko zuei, *Jaso* Ikastolako arduradunei eta irakasle, ikasle, laguntzaile eta bestelako langile guztiei, eskaini diguzuen harrera abegitsuarengatik.

Euskaltzaindiak berretsi egin du gaurkoaren bidez, *Nafarroa Oinezekin* duen urteroko zina, aurreko urteetan bezalaxe. Izan ere, Nafarroa osoko Ikastolak dira urtez urte, ekitaldi honen lekukorik ederrenak.

Gaur, berriz, gure lanaren erakusketa zabala izan duzue: bateko, euskararen presentzia nabarmendu da Nafarroan eta Euskal Herri osoan eta besteko, euskararen alorreko lan akademikoa egin da, hain zuzen ere, Euskaltzaindiari dagokiona, bi liburu eta jardunaldi esanguratsuen bidez.

Halako helburuak izan ditu sorreratik eta baditu egun ere Euskaltzaindiak. Aurrean aipatu bitasun hori egoki uztartzea, gure aldamenen izan ditugun euskal ikasleek jakin dezaten, gela desberdinetan izan arren, asmo bera dugula Euskaltzaindiak eta ikastolek: euskara aitzina, aurrera eramatea. Horra irudia, horra ekitaldia: Euskaltzaindia eta gaurko ikasle eta etorkizuneko gizarte-eragileak, ikastolaren teiltupean bilduta, euskaraz eta euskararen aldeko jardunean.

Atera ezazu mihia duzue aurtengo leloa, alegia, hots, mintza, idatzi, erabili euskara egunero, ordu oro, uneoro. Jakin dezagun guztiok, bestalde, mihia ateratze hori laido eta iraina baino, euskara erabiltzeko gonbitea dela *Jaso* Ikastolan, Nafarroan eta Euskal Herri osoan.

Mila esker guztioi.

ONGIETORRI

Javier Baztarrika,
Jaso Ikastolako lehendakaria

Arratsalde on, jaun-andreak:

Jaso Ikastolaren izenean esaldi pare bat baizik ez, Euskaltzaindiari esker-
rak emateko, gurean gaurko bilkura egiteagatik.

Ohore handia da guretzat Euskaltzaindiak *Nafarroa Oinez*-i eta *Jaso*
Ikastolari laguntza berezi hau ematea.

Espero dugu gure etxean eroso sentitu izana, eta gaurko bilkura berezi hau
emankorra gertatu izana gaurko egun honetan hemen bildu zaretenontzat.

Gure eskerrik beroenak ere, arratsaldeko saio honetara hurbildu zareten
guztioi: guraso, langile, ikasle edota adiskide guztiei.

Berriz ere diot, eskerrik asko, mila esker aunitz.

NAFARROA OINEZ, 2008

*Unai Arellano,
Jaso Ikastolako hezkuntza zuzendaria*

Orain dela bi urte areto berri hau eraiki zenean ez genuen uste Euskaltzaindiko saio bat egiteko izan zitekeenik, baina oraingo honetan horrela izan da eta tira...ez da gutxi. Javierrek ongi esan du, benetan ohorea izan da guretzat.

Dakizuen bezala, *Oinez* urtea dugu hemen, *Jaso* Ikastolan, eta gaur pozik esan dezakegu *Nafarroa Oinez* honek ikastolek duten berezitasunik nabarmenena berpizteko balio izan duela. Alegia, elkarlana berpizteko. Izan ere, gure ikastola, beste ikastolak bezala, guraso eta langileen lanaren emaitza da, bere garaian, hezkuntza eredu euskaldun bat posiblea zela pentsatu zutenen ondorioa. Bide horretan, Euskaltzaindiak egindako ekarpena ezinbestekoa izan zaigu. Ikastolek milaka lagun euskaldundu badituzte, euskara bateratu bat sortu delako izan baita. Erriberako odola duen batek Arbizun sortua den batekin euskaraz hitz egitea ezinezkoa litzateke Euskaltzaindirik gabe eta noski ikastolarik gabe. Bestela esanda, irakasleok hain ezagunak eta *maitatuak* ditugun berritze gramatikalek badutela zentzua eta beraz, gaur gurekin zaudeten euskaltzainak: segi lanean orain arte bezala.

Jarraian berritze gramatikalari buruz asko dakien pertsona bat izanen da gurekin: Aingeru Epaltza. Jakina denez, idazlea eta itzultzailea izateaz gain, Euskaltzaindiko urgazlea da bera eta gainera *Jaso* Ikastolako laguna eta batzutan laguna baino gehiago. Nafarroako euskal literatura garaikideari buruz hitz eginen digu, oso izenburu erakargarria duen hitzaldian: «Nola konspirazioa garaitu genuen».

Eskerrik asko Aingeru gaur gurekin egoteko egin duzun ahaleginagatik eta mila esker zuei, Euskaltzaindiari, etxetik eta kanpotik etorri zareten guztioi.

NOLA KONSPIRAZIOA GARAITU GENUEN (NAFARROAKO EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAZ)

Aingeru Epaltza

Ismail Kadare European dagoen idazle ezagunetarikoa bat duzue. Haren izena urtero agertzen da Nobel sarirako kinieletan. Albaniarra da, dakizueenez, eta hango hizkuntza tikian idatzirik famatu da. Obra oparoa du. Euskaraz, oker ez banago, *H. dosierra* eta *Hiru arkuko zubia* ditu argitaratuak. Nik 80ko hamarkadan egin nuen topo Kadareren lanarekin, gaztelaniaz *El nicho de la vergüenza* irakurri nionean. *Ahalkearen hobia*-edo itzul genezake nobela horren izenburua.

Bere bertze lan batzuetan bezala, botereaz eta askatasunaz ari zaigu Kadare *Ahalkearen hobia*-n. Horretarako, turkiar inperioa erabiltzen du metafora gisa. Oroituko zaretenez, Turkia jaun eta jabe izan zen, hainbat mendetan, Europa balkanikoan. Harenak ziren gaurko Grezia, Bulgaria, Errumania, Hungaria, lehengo Jugoslavia gehiena eta Albania ere bai, Kadareren sorterrria. *Ahalkearen hobia* liburu ederra da, alde anitzetatik begiratuta. Niri, iradokigarriena iruditu zitzaidan turkiar inperio horrek bere mendeko herriak azpian atxikitzeke erabiltzen zituen teknika sofistikatuen kontakizuna. Otomandarrek, itxuraz, aparatu administratibo oso bat zuten horren zerbitzura, miliaka funtzionarioz hornitua. Makineria horrek diseinatzen zuen, egoeraren edo abagunearen arabera, herri menderatu bakoitzean aldiro erabili beharreko politika. Eta politika diodanean, kultur politika ere bai, gaur egungo hiztegia erabiltzera, baita hizkuntza politika ere. Horren barrenean, Kadareri sinestera, halako kultura bat edo halako hizkuntza baten suntsiketa erabakitzeraino heltzen ahal zen administrazio turkiarra. Behin horren deliberoa hartuta, hartara jartzen zituen bere indar guztiak. Horrek, bertzeak bertze, «ez-hizkuntza» izeneko prozesuari irekitzen zizkion ateak. Kadarek honela deskribatu zuen prozesu hori, *Ahalkearen hobia* bere nobelaren orrialdeetan:

Hura hizkuntza baten ohiko garapena etenez hasten zen, ahultasun baldintzetara ekartzeko asmoz, haur herbalak bezala, eta horren ondotik haren mutilazioa etortzen zen. Espediente berezietan, andeatzearen urrats guztiak gelditzen ziren idatzirik: hiztegiaren urteroko konparaketa, zeinean hitzak urrituz joaten baitziren azaroan hostoak bezala; gramatikaren gainbehera; partikulen atrofia, aurrizkiaren bereziki; sintaxiaren moteltzea. Ezari-ezarian, hizkuntza tratatzen hasten zen, jende hitz-totelaren gisara. Halako hizkuntza batek kasik ezinezkoa

da saltzailearen eta eroslearen artean. Gauza nabariago da zerbitzuetan. Nola ibilgailuetan hala osasun zerbitzuetan edo lanpostu bat bilatzen delarik, hizkuntza mailan eskaintzak sustatzen du eskaera. Publikoaren harrera euskaraz egiten bada, erabiltzaileak euskaraz adieraziko ditu bere beharrak.

Kontsumoak baldintzatzen du neurri handi batean kizkuntzaren paisaia. Hor ditugu begien aitzinean enpresen izenak eta logoak, produktoen etiketak, zerbitzuei buruzko argibideak eta kontsumoa norabidetzen duten publizitatea. Euskarari ematen zaion tokiaren araberako euskaltasuna dugu agerian: gutxienez estatu hizkuntzarekin toki berdina, ahalaz berezko hizkuntzak hartze luken lehentasuna.

Hiztunen eskubideak

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak daude heien aldeko hizkuntza politikaren abiapunduan. Eskubideak zehazterakoan azpimarratu behar genuke gutxienerako baldintza da hizkuntza ofizilen arteko berdintasuna eta ahalaz berezko hizkuntzaren lehentasuna, bereziki arriskuan den neurrian.

Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eskubidea dute bi hizkuntza ofiziale-tan argibideak lortzea nola idatzizko argibideak hala entzuten direnak. Publikoari harrera ematen dioten zerbitzuetan, etortzen denak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da. Estatu hizkuntzaren nagusitasuna kontuan hartuz, euskaren erabiltzeko ahalmena nolazbait azpimarratuko da.

Lehentasun estrategikoak

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak betetzeko eginbideak eskatuko zaizkie erosle eta baliatzaile asko dituzten enpresa, erakunde eta egitura handiei. Alor estrategikoenak dira komunikazioa, energia, garraioa, salerospenak, finantza, etxebizitza. Alor horietan diharduten egiturak dira eraginkorrenak: alde batetik eginbeharrak betetzeko ahalmen gehiago dute eta bestalde, kontsumo harremanak ugari direlarik, aukera asko eman dezakete euskara erabiltzeko. Zuzendaritzak, sindikatuak eta kontsumitzaileen elkarteek hitzartu behar lukete euskarari lehentasuna emateko, erosleen hizkuntza askatasuna errespetatuz.

Maiz gertatzen dena da garrantzizko egitura horiek harremanak dituztela botere publikoarekin: administrazioen menean diren zerbitzuak, legez zuzenduak direnak edo diru laguntza publikoaz baliatzen direnak. Ordainez legearen errespetu handiagoa erakutsi behar lukete.

Hizkuntza politikaren progresibotasuna

Hizkuntza politikak egitaraua suposatzen du. Egitura bakoitzak epeak finkatu behar ditu. Egutegiak aitzinamendua akulatzen du. Baina epeak definitzerakoan gauza asko kontuan hartu behar dira eta lehenik ingurumen sozio-linguistikoa. Gune euskaldunetan asma daiteke motibazioak baikorrago direla eta epeak laburrago izan daitezkeela. Halere euskarak borroka hiriguneetan irabazi behar du, hots gune erdaldunetan, beharrez epeak luzatuz.

Merkataritzak bi ezaugarri baditu, ez baitira euskararen aldekoak: globalizazioa eta errentagarritasuna. Globalizazioaren eraginez, hemen erosten ditugun salgai asko kanpoan ekoiztuak dira eta hemengo ekoizpen asko kanpoan kontsumitzen dira. Legearen indarra gure lurraldean mugatzen denez hizkuntza politikaren arauak ezin dira errazki aplikatu. Ongi da Euskal Herriko ekoizpe- nek kanpora eraman dezaten euskaltasunaren itxura eta prestigioa. «Euskara jalgi hadi kanpora». Alderantzia zailago da. Adibidez Txinako produktoek hizkuntza askotako argibideak badituzte gaztelania barne. Banatzailei eskatzen ahal zeie euskara ere nolazbait gehi dezaten? Erantzuna ez da nabaria.

Gainera bigarren zailatasun bat agertzen da, errentagarritasuna. Elebitasunak kostu bat badu, produktoaren prezioa goratzen duena. Baina, bestalde, produktoen itxura euskaldun- duz, erosle euskaldunaren gogo ona eragin lezake. Froga bat gehiago hizkuntza politikan malgutasunez jokatu behar dela.

Laburbilduz

Kontsumoaren eta zerbitzuen alorreko hizkuntza politikaren neurketak garrantzi handia dauka. Ondoriak neurtuz, euskararen osasuna eta heldutasuna neurtzen ditugu, hizkuntzaren egunerokotasuna neurtzen baitugu. Alabaina eremu pribatuko jende helduen erabilera da egiazko erizpidea. Irakaskuntza gehien bat haurren eta gaztetxo- en mundua da. Gaitasuna beharrezkoa da. Ikusi behar da zer eragin duen eskolatik kanpo. Administrazioa eremu berezia da, botere publikoaren menpean dagoena. Ez da erabilera librearen neurgailu ona. Ikusi dugu hedabideek eta kulturgintzak ez dutela zuzenean mintzama- na bultzatzen. Eremu guztiek bat bestea baldintzatzen dute. Halere kontsumoan eta zerbitzuetan gehiago agertzen da zein den euskararen lekua, etxe-inguruan eta gizarte zabalean.

Bidenabarreko gogoeta

Elebakartasuna eta elebitasunaren arteko eztabaidan doi bat sartu gara. Beste eztabaida bat bada legalisten eta boluntaristen artekoa. Legalistek diote Estatuaren gain dela arriskuan den hizkuntza zaintzea eta ofizialtasuna beha-

rezkoa dela. Legeak ez badu euskalduntzen, egin beste lege bat eta ofizialtasunik ez bada beste gutzia iruzurra da. Erreferentziak dira Quebec, Katalunia, Israel.

Boluntaristek diote euskarak milaka urte iraun duela legerik gabe. Legea zertarako? Ikus zer gertatu den Irlandan. Hitzunen gain da hizkuntza zaintzea. Suisarrek diote: «Hizkuntza legerik hoberena legerik eza da».

Legalisten eta boluntaristen artean bide zuzena bien artekoa da. Legeari eskatu behar zaio eman dezakena: eskola bidezko transmisioa, erabilera publikoaren eskaintza zabala eta hizkuntzaren kalitatea hobetzeko baliabideak. Euskararen aldeko legeak gutzi hau egitera lehiatu dira. Eta elebidunak sortzen dituzte, beraz hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko ahalmena eta askatasuna. Zein hizkuntza erabil, hori hitzunen motibazioaren gain da.

Azken hitza elkarlana da, elkarlan zabalena, legearen aurauak eta gizartearen nahia uztartuko dituena. Hizkuntzen arteko berdintasuna errespetatuz, euskaldunen eta erdaldunen arteko bizikidetzaren erakitzera da. Bizikidetzaren bidez, mintzaira askatasuna euskararen alde itzul liteke. Botere publikoaren eta euskalgintza elkartearen erantzukizuna da elkarrekin diharduteko euskararen gogoia sustatzeko.

BIBLIOGRAFIA

- Euskararen oinarrizko legea, euskararen erabilpena arautzeko (1982).
 Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren legea (2003).
 Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko dekretua (2003).
 France: Loi relative à l'emploi de la langue française (Loi Toubon, 1994).
 Conseil constitutionnel, décision du 15 juin 1999 sur la Charte européenne des langues régionales ou minoritaires.
 Canada: Loi sur les langues officielles (1969).
 Québec: La charte de la langue française, (Loi 101, 1977).
 Euskararen Aholku Batzordea: XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak (*Euskara* 21, 2008).

ZER GERTATU DA EUSKAL KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILAILEEN HIZKUNTZA ESKUBIDEEKIN AZKEN 120 URTEOTAN?

Patxi Juaristi¹

Askotan hitz egiten da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideei buruz², baina eskubide hauen artean gutxitan aipatzen dira hizkuntza eskubideak. Eta, egia esan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak bere osotasunean ziurtatu behar dira, gizarte justu eta demokratagoak lortu nahi badira. Gogoan hartu behar da, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak ahazten direnean, demokraziak ahuldu egiten direla eta bizi-kalitatea murrizten.

Zer gertatu da euskal kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideekin historian zehar? Zein hizkuntzatan erosi ahal izan dute euskal kontsumitzaile eta erabiltzaileek? Euskara erabili da iragarkietan, fakturetan edota logotipoetan?

Lan honetan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen azken 120 urteetako bilakaera aztertuko dut Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban, garrantzi berezia emanez euskarazko publizitatearen bilakaerari.

¹ Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) Soziologian Doktoa da (Deustuko Unibertsitatea, 1995). 1990-1993 urte bitartean ikerlariak trebatzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko beka bat izan zuen. Tesia egiterakoan, ikerlari gisa aritu zen Galeseko Bangor Unibertsitatean (1992), Texas-eko A&M Unibertsitatean (1993) eta Nevada-Renoko Unibertsitatean (1994). 1998. urtean irakasle gonbidatua izan zen Idaho-ko Unibertsitatean. Euskal kulturari, euskaldunen balioei, euskarari eta, orokorrean, hizkuntzei buruzko zenbait ikerketa, artikulua eta liburu argitaratu ditu. 2000. urtean Mikel Zarate Saiakera Saria irabazi zuen. Bere azken liburuak dira *Salgai. Euskal kontsumo gizartea aztertzen* (Alberdania, 2005), *Kontsumitzaileen eskubideak. Aurrerapausoak, arriskuak eta konponbideak* (Deustuko Unibertsitatea, 2005) eta *Words and Worlds. World Languages Review* (Multilingual Matters, 2005). 1993tik 2005era Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izan da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. 2005eko azarotik 2009ko maiatzera Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Zuzendaria izan da.

² Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainiar Estatuan zein Europar Batasunean argitaratzen diren txosten, arau eta ikerketetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileek zazpi eskubide dituztela aipatzen da: osasunerako eta segurtasunerako eskubidea; kontsumitzaileen interes ekonomiko eta sozialak babesteko eskubidea; informazioa jasotzeko eskubidea; kontsumo arloan heziketa eta prestakuntza izateko eskubidea; ordezkaritza, Kontsulta eta partaidetzarako eskubidea; gutxiagotasun eta babesgabatasun egoeretan babeserako eskubidea; eta, azkenik, babes juridikorako eta kalteen konponketarako eskubidea. Eskubide hauen artean ez da hizkuntza eskubiderik aipatzen, ia gehienetan.

Hasieratik esan nahi dut eremu publikoa albo batera utzi dudala eta eremu pribatuan egiten den kontsumoa ikertu dudala. Alegia, enpresa, denda eta, oro har, erakunde pribatuek eskaintzen dizkiguten produktu eta zerbitzuen kontsumoa zein hizkuntzatan egiten den aztertuko dut.

1. XIX. MENDEAREN BUKAERA ETA XX. MENDEAREN HASIERA: EUSKARAREN AHULTZEA ETA LEHEN EUSKAL IRAGARKIAK

1866-1868 urte bitartean, 903.217 euskal herritarretatik erdia baino gehiago, 471.000 inguru, euskal eleduna zen (Intxausti, 1992:134). Ondorioz, XIX. mendearen bigarren erdian, euskarak izugarrizko indarra zuen euskal gizarteko arlo eta eremu guztietan.

1867an, 479.889 biztanle bizi ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, eta horietatik 331.098 euskaldunak ziren; alegia, biztanleriaren %69 zen euskalduna (Intxausti, 1992:134). Dena dela, kontuan hartu behar dugu desberdintasun garrantzitsuak zeudela hiru herrialde historikoen artean. Arabako biztanleriaren %9,59 zen euskalduna 1867an³. Bizkaiko biztanleriaren %81,43 eta Gipuzkoako biztanleriaren %96,42. Zentzu honetan, pentsatzekoa da Arabako kontsumitzaile eta erabiltzaile gehienak erdara erabiltzen zutela taberna, jate-txe, denda eta azoketan, eta, aldiz, bizkaitar eta gipuzkoarren gehiengoak euskaraz erosten eta saltzen zuela. Alegia, Bizkaiko eta Gipuzkoako harreman-sareko euskaldunen dentsitate handiaren ondorioz, kontsumitzaile eta erabiltzaileek euskara erabiltzen zuten salerosketetan.

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, Gipuzkoa eta, batez ere, Bizkaia industrializatzen hasi ziren, nazioarte mailan izan ziren aldaketan ondorioz. Aldaketa hori Kubako gerraren amaierak eta nazioarte mailan Ingalaterrak jasan zuen gainbeherak eragin zuen nagusiki; eta hori dela eta, hainbat enpresa sortu ziren Gipuzkoan eta Bizkaian, nagusiki Bizkaiko Nerbioi-Ibaizabal ibai ertzean dagoen Ezkerraldea eskualdean. Ekonomi egitura sendotu zutenak ontzi-konpainiak, banku berriak, aseguru-enpresak, meatzaritzako enpresak eta ontziolak izan ziren. Egoera ekonomiko hobeto eraginda, bestalde, denda, ostatu eta merkataritza-establezimendu txikien kopurua ere hazi egin zen.

XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako industrializazio hau erabakigarria izan zen euskararen atzerakada prozesuan, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan. Industrializazioaren eraginez, urte gutxitan, euskara gutxiengo baten hizkuntza bihurtu zen herrialde historiko bietan. Izan ere, euskal hiztun asko baserria utzi eta euskararen egoera ahulagoa zen herri eta hirietara joan zen bizitzera. Bestalde, eskulanaren premiak eraginda, etorkin

³1867an, 10.500 euskal hiztun bizi ziren Araban (Intxausti, 1994:20).

ugari etorri zen Espainiar Estatutik, eta toki askotan hiztun talde nagusiena bihurtu zen. Eta, azkenik, estatu modernoaren hizkuntza transmisio tresnek (eskolak, administrazioak, soldadutzak eta kultur bizitza gidatuak) gaztelania hartu zuten hizkuntza ofizial bakartzat, eta, ondorioz, gaztelania asko zabaldu eta indartu zen.

Hala eta guztiz ere, Bizkaian eta Gipuzkoan dendari euskaldunen kopurua garrantzitsua zen, batez ere herrietan. Ondorioz, bezeroen eta dendari eta tabernarien arteko ahoz-ahozko harremanak euskaraz izaten ziren nagusiki. Beti ere kontuan izan behar da gune soziolinguistikoa funtsezko faktore eragingarria zela kontsumitzaileen eta erabiltzaileen euskararen erabileran.

Ahozko erabilerarekin ez bezala, euskararen idatzizko erabilerarik ez zegoela esan daiteke. Fakturak, albaranak edo eskaera-orriak erdaraz izaten ziren. Izan ere, oso gutxi ziren garai hartan euskaraz alfabetatuak zeudenak. Horrekin batera, iruditzen zait kanpo eta barne errotulazioan ere erdara zela nagusiki. Hau da, euskal hiztunen dentsitatea handia zenean, kontsumitzaileen eta erabiltzaileek euskaraz hitz egiten zuten denda, taberna eta azoketan, baina idatzizko dokumentuetan zein errotulazioetan erdara nagusitzen zen⁴.

Euskara ahultzen ari zen testuinguru honetan, intelektual eta politikari batzuk hizkuntzaren garrantziaren kontzientzia hartu zuten, eta euskarari balio gehiago ematen hasi ziren; besteak beste, Sabino Arana (1865-1903) edo Resurreccion Maria Azkueren lana aipatu dezakegu.

Bestalde, XIX. mendearen azkenetan eta XX. mendearen hasieran, kapitalismoa hedatzen ari zen heinean, konpetentzia handitu egin zen, eta publizitateak izugarriko garrantzia hartu zuen, produktuak eta zerbitzuak saltzerakoan. Hain zuzen ere, publizitateak salmentak handitzen eta lehiakideengandik bereizten laguntzen zien enpresei. Alegia, kontsumo gizartea sortzen ari zen heinean, enpresak kontrolatu ziren publizitatea zela kontsumitzaileak erakartzeko eta hauen leialtasuna sortzeko iturri garrantzitsuenetarikoa.

Euskara ahultzen ari zen testuinguru horretan, eta industrializazioa eta masa kulturadun gizartea hedatzen, euskarazko lehen iragarkiak agertu ziren idatzizko komunikabideetan. Nik dakidala, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban, euskarazko lehen iragarkiak Bilboko Euskalzale aldizkarian (1897-1900) eta

⁴Herri oso euskaldunetako udal-akta guztiak erdaraz jasotzen ziren eta udalak herritarrekin zituen idatzizko harreman guztiak erdaraz izaten ziren. Are gehiago, ilustratu eta jauntxoek garrantzi gutxi ematen zioten euskarari. Markinan, adibidez, XIX. Mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako herriko jauntxoek ez zuten euskara landu, eta euren liburu guztiak erdaraz idatzi zituzten, nahiz eta euskaraz oso ondo jakin. Markinako euskaraz idatzeko tradizioa bazegoen (Mogel osaba-ilobak, Frai Bartolome...), baina jauntxoek nahigo izan zuten erdaraz idatzi. Egia esan, erlijio gizonak izan ziren euskarari garrantzia eman zioten bakarrak. «Administrazioak bete ez duen papera Elizak bete du lurralde batzuetan euskararen gizarte-erabileran, batez ere XVIII eta XIX. mendeetan. Euskararen gizarteratze hori herri euskaldunetan egin du batez ere, predikuen bidez eta dotrina irakatsiaz» (Arejita, Manterola eta Oar-Arteta, 2007:52).

Ibaizabal astekarian (1902-1904) agertu ziren⁵. Hau da, euskarazko lehen iragarkiak industrializazioak eta masa kulturadun gizarteak gehien eragin zuen eta euskara oso ahulduz zegoen hirian agertu ziren: Bilbon⁶.

1897ko Euskalzalde aldizkarian (1897-2-14), adibidez, era honetako iragarkiak aurkitzen ditugu.

ILDEFONSO AGIRRE

IOSTUNAK

Elizgizonai, batez bere, bear dabezan soinekoak ondo
ta merke egiten dautsez.
Dendari-kalean, 17 garren etšeko dendan.

Ibaizabal astekarian (1902-01-12) ere aurkitzen ditugu euskarazko iragarkiak

Euskal—Izkuntza

Nair bizkaitarra orobat guipuzkoatar izkuntza ikasi nai dituenak ez lezake arkitu gai obeko libururik «Método práctico para aprender el Euskera bizkaino y guipuzkoano» eta «clave de temas ó complemento del método práctico» deritzaitotanak Balfio H. M. Azkue abadeak izkiratu edo izkribatuak dira.

Biak batean bost pesetan dirude salgai IBAIZABAL-en echean.

Egia esan, Euskalzalde eta Ibaizabal aldizkarietan hasiera-hasieratik agertzen da euskarazko iragarkiak sartzeko eta hortik diru sarrerak lortzeko nahia. Lehen momentutik dago euskarari funtzio guztiak emateko gogoia. Horrela, 1902ko urtarrilaren 12an, euskarazko iragarkiak erakartzeko iragarki hau agertzen da:

⁵ Euskalzalde aldizkaria 1897an hasi zen argitaratzen Bilbon, eta Ibaizabal astekaria ere Bilbon bertan, baina bost urte beranduago, hau da, 1902. urtean. Lehenengoa hiru urtez argitaratu zen (1897-1900) eta bigarrena bi urtez (1902-1904).

⁶ Euskara hutsez idatzitako lehen egunkaria *Uscal Herrico Gasetta* izan zen. Ipar Euskal Herrian argitaratu zen 1848tik aurrera, Agosti Xahoren zuzendaritzapean. Dena dela, nik dakidala, egunkari honek ez zuen euskarazko iragarkirik argitaratu. Bestalde, ezin da ahantzi 1904an, *Euskaldun Ona* aldizkaria hasi zela argitaratzen Baionan, eta lehen zenbakitik euskarazko iragarkiak izan zituela.



Euskal iragarkiak agertzeaz gain, XX. mendearen hasieran, 1905ean, hain zuzen ere, Donostian, Credit Lyonnais bankua euskarazko iragarkiak erabiltzen hasi zen bezero euskaldunak erakartzeko helburuarekin. Koldo Izagirrek dioen bezala, Credit Lyonnais bankuak, «Mintzatzen da euskaraz» eslogana jarri zuen Donostian, leku agiri eta nabarmenean, marmolezko plaka batean eta urrezko letraz. Horregatik, hain zuzen ere, izenburu hori jarri zion Koldo Izagirrek «Euskararen Historia txikia Donostian» liburuan publizitateari eskaini zion atalari (Izagirre, 1998:84).

Esaldi horrekin batera, Credit Lyonnais-ek honako iragarkia erabili zuen euskaldunen diruak erakartzeko helburuarekin (Izagirre, 1998:84):

«Trukatzen da erri danetako dirua eta papera. Pagatzen dira alde guzietako letrak eta chekak. Baita ere Amerikako beste onelako diru gai guziak eta gañerako diru tratu danak. Gordetzen dira berriz artarako egiñak dauden kuchetan nahi diran urre, zillar eta balio aundiko zernai gauza.»

Aipatzekoa da Credit Lyonnais-en iragarki hauek bere ordezkaritza guztietan, hala Euskal Herria osoan –Hegoaldean barne- nola Latinoamerikako euskal guneetan, egin zuen kanpaina orokor baten parte izan zirela (Izagirre, 1998:84-85). Horrela, Euskal Herrian ez ezik, Buenos Aireseko prentsan ere euskarazko iragarki handiak jarri zituen. Koldo Izagirrek dioen bezala: «Harriargaria da batzuetan, nola asmo komertzial azkar batek euskaldunago egiten duen atzerrikoa bertakoa baino» (Izagirre, 1998:86).

Euskal Herriko lehen kreditu-entitate modernoak XIX. Mendearen bigarren erdian sortu ziren⁷, baina pentsatzekoa da euskara erabili zuen lehen kreditu-entitatea kanpotik etorritako Credit Lyonnaise izan zela. Koldo Izagirrek dioen bezala, «Lurrikara bat suposatu zuen Credit Lyonnaisen sukarrak euskaltzale honek, oso agerian uzten baitzituen euskaldungoaren eskastasunak» (Izagirre, 1998:84).

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideekin gertatu zena modu honetan laburbildu daiteke: garai hartan euskara ahultzen hasi zen, industrializazioak bultzatuta, hainbat euskaldun baserria utzi eta euskara ahulagoa zen tokietara bizitzera joan zelako eta Espainiatik hainbat etorkin etorri zelako. Hala eta guttiz ere, testuinguru soziolinguistikoak ahalbidetzen zuenean, kontsumo arloko ahoz-ahozko harremanak euskaraz izaten ziren, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban, herri txiki batzuetara mugatzen zen euskararen ahoz-ahozko erabilera. Nik dakidala, fakturak, albaranak edo eskaera-orriak erdaraz ziren gune euskaldun zein erdaldunetan.

Hala eta guttiz ere, euskararen aldeko kontzientzia hedatzen joan zen heinean, euskaraz egindako lehen iragarkiak ere agertu ziren XIX. Mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran. Hain zuzen ere, Bilbon argitaratzen ziren Euzkalzale eta Ibaizabal aldizkarietan agertu ziren euskarazko lehen iragarki hauek. Dena dela, aldizkari hauek oso denbora gutxi iraun zuten (Euzkalzale 1900an desagertu zen eta Ibaizabal 1904an), eta, beraz, euskal publizitatearen inguruan eman ziren lehen ekimen hauek etenda gelditu ziren 1916. urtera arte. Hala ere, ezin dugu ahanzi, 1905ean, Credit Lyonnais-ek kanpaina orokor bat egin zuela euskaraz.

2. 1916-1923: EUZKO-DEYA ETA ARGIA ALDIZKARIEN EUSKARAZKO IRAGARKIAK

Espainiak ez zuen parte hartu Lehen Mundu Gerran (1914-1918), eta, ondorioz, Gipuzkoako eta Bizkaiko enpresen esportazioak handitu egin ziren, eta horrek ekonomiaren hazkunde izugarria ekarri zuen.

Egoera ekonomiko baikorrak lagunduta, lanpostu industrialak ugartu egin ziren, baita denda, jatetxe, taberna eta zerbitzuei loturikoak ere. Apurka-apurka bada ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako egitura sozial eta ekonomikoa

⁷ 1850ean, Gasteizko Aurrezki-Kutxa Munizipala sortu zen; 1870ean, Iruñeko Aurrezki-Kutxa; 1878an, Donostiakoa; eta, 1896an, Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintziala. 1907an, Bilboko Aurrezki-Kutxa sortu zen, 1918an Arabako Aurrezki-Kutxa Probintziala, eta 1921ean, Bizkaiko Aurrezki-Kutxa Probintziala eta Nafarroakoa. Euskal Herriko zortzi aurrezki-kutxa hauek Federación Vasco-Navarra de Cajas de Ahorro sortu zuten 1924an. Euskal Herriko lehen banku pribatua 1857an sortutako Banco de Bilbao izan zen.

aldatzen ari zen. Lehen sektore ekonomikoak garrantzia galtzen ari zen, industriaren eta zerbitzuen mesedetan.

XX. mendea aurrera zihoan heinean, euskara are eta gehiago ahultzen ari zen (etorkin espainiarren ugartzea, gaztelaniazko eskolaren hedatzea, soldaduska...), eta, ondorioz, Bizkaiko, Gipuzkoako eta, batez ere, Arabako kontsumitzaile eta erabiltzaileek gero eta gehiago erabiltzen zuten erdara. Dena dela, dendari euskaldunen kopurua Bizkaian eta Gipuzkoan garrantzitsua zen, batez ere herrietan; ondorioz, bezeroekiko ahoz-ahozko harremanak euskaraz izaten ziren nagusiki.

Kontsumo arloko euskararen idatzizko erabilerari dagokionez, gauzak okertu egin zirela esan daiteke. Alde batetik, aurreko urteetan bezala, dendari, ostalari edo zerbitzu hornitzaileen euskararen idatzizko erabilerarik (fakturak, eskaera-orriak, errotulazioa...) ez zegoen. Bestalde, Ibaizabal eta Euskalzale aldizkariak itxi zirenetik, (Euskalzale aldizkaria 1900an eta Ibaizabal astekaria 1904ean) euskarazko iragarkiak desagertu egin ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Dena dela, 1916an, Euzko Deya politika aldizkaria sortu zen⁸, eta bere orrietan euskarazko iragarkiak agertzen hasi ziren. Zentzu horretan, Ibaizabal astekariak eta Euskalzale aldizkariak euskal publizitatearekin hasi zuten bidearen lekukoa hartu zuen Euzko-Deyak. Aitor eta Pedro Zuberogoitiak dioten bezala: «...Euzko-Deya-ren ekarpenik handiena arlo grafikoan gauzatu zen. Arlo horretan bazegoen hainbat berrikuntza: noizbehinka agertzen ziren argazkiak (gehienak erlijiosoak), *Teles eta Nikc* komiki sorta, eta, agian deigarriena, publizitate moduluak. Esparru horren lanketak argi erakusten digu bazegoela hizkuntza-komunitatea sortzeko nahia, euskara gero eta garrantzitsuagoa zen kontsumoaren mundura ekartzeko gogoia, eta, aldi berean, iturri ekonomiko berriak bilatzeko asmoa» (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008:70)

Euzko-Deya aldizkarian era honetako iragarkiak agertzen ziren garai hartan:


-----ARBELOA-----
Tximist-argi-makatzak, gustitariko
tramankulu ta tximist-gauzeak. –Tximist-
arijak jarten dira.
1.357'g. URUTIZKIÑA. BILBAO. –
LÓTERIA KALEKO 2'GN.

⁸*Euzko Deya* aldizkaria Euzkeltzale Bazkunak argitaratu zuen euskara hutsez. Euzkeltzale Bazkuna Juventud Vasca talde nazionalistaren adarra zen. Arsenio Beazkoetxeak eta Josu Telletxeak sortu zuten aldizkaria, eta Sabino Aranaren ideiak azaltzen zituen. Bi aro izan zituen: 1916tik 1920ra eta 1921etik 1923ra. Hain zuzen ere, Primo de Riveraren diktadurak isilarazi zuen.

Modu berean, 1921. urtean, euskarazko iragarkiak eskaintzen zituen Argia astekaria agertu zen Donostian (1921-1936)⁹. Euzkazale, Ibaizabal edo Euzko-Deyaren moduan, Argiak ere euskararentzako bide berriak irekitzen saiatu zen.



⁹Argia Astekari ez da nahastu behar gaur egungo argiarekin, kaputxinoek Iruñean, 1919tik aurrera, argitaratu zuten *Zeruko Argia* hilerokoaren ondokoa dena. Hemeroteca.com web orrian irakurri daitekeen bezala, «Aldizkari ideologiaz katolikoa, eskuindarra eta euskaltzalea zen *Argia*. Abertzaletasuna partaide gehienek mugimendua bazen ere, ez zen Errepublikaren arte eremu politikoan gehiegi baneratu, eta plazaratzeko modua izan zuen Primo de Riveraren diktadura artean. Gipuzkoako herri eta hiri guztietan zabaltzen zen arren, “nekazarien” edo “baserritarren” aldizkari gisa nabarmendu zen bereziki, joera hura guztien gustukoena ez bazen ere. Molde guztietako albisteak ematen saiatu zen, bertako mugetatik harantz jo gabe, eta sarrera guztiz egokia eta espantugabea egin zuen euskarak ohiturarik ez zuen arlo batzuetan, futbol kroniketan esate baterako. Bestalde, orri erdia gorde zen betiere (lau orrialdeko astekaria izan zen luzaroan, baina zortzi eta hamabi ere eduki zituen bolada batzuetan) erlijio gaietarako».



Laburpen gisa esan daiteke, Primo de Riveraren aurreko urteetan gauzak nahiko berdin jarraitzen zutela euskal kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei dagokionez. Herri euskaldunetan euskaraz hitz egiten zen denda, jatetxe eta tabernetan, baina idatzizko erabilerarik ez zegoen. Hala eta guztiz ere, urte batzutan euskarazko iragarkirik gabe egon ostean, Euzko-Deya (1916) eta Argia (1921) aldizkariak agertu ziren, eta Euskalzale eta Ibaizabal aldizkarien lekukoa hartu zuten euskarazko iragarkiak argitaratuz.

3. PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURA (1923-1930): EUKO-DEYA ZARRATZEN DUTE


Espainiak egoera ekonomiko, sozial eta politiko nahasia bizi zuen 20. hamarkadaren hasieran¹⁰. Testuinguru horretan, 1923ko irailaren 13an, erregearen eta enpresari kataluniarren laguntzaz, gerrako ministro izandako Primo de Rivera jeneralak, diktadura militarra ezarri zuen, Espainiak zuen egoera txarra konpontzeko asmoarekin. Bere gobernuak konstituzioari loturiko bermeak eten zituen, Gorteak desegin eta alderdi politikoak eta sindikatuak debekatu.

Diktadurak jarrera bortitza erakutsi zuen abertzaletasunaren, euskararen eta euskal kulturaren kontra. Horren adierazle da EAJ klandestinitatera pasatu zela, Aberri egunkari abertzalea zarratu egin zutela, eta Euzkadi egunkariari euskara erabiltzea debekatu zitzaioela¹¹. Modu berean, 1916an sortutako Euzko Deya politika aldizkaria zarratu egin zuten, eta, horrekin, euskarazko iragarrien bidea ere desagertu egin zen.

Hala eta guztiz ere, Argia astekariak argitaratzeko modua izan zuen diktadurak iraun zuen zazpi urteetan, eta, ondorioz, euskaldunek euskarazko iragarkiak kontratatzeko eta irakurtzeko aukera izan zuten diktadurak iraun zuen zazpi urteetan. Adibidez, 1925eko urtarrilaren 4ean, era honetako iragarkiak plazaratu ziren.

¹⁰ Annualetoko hondamendiaren ondoren (1921), gatazka egoeran bizi zen Espainia. Erreforma demokratikoak huts egin zuten, langabezia gero eta handiagoa zen, langile eta baserritarren grebak gero eta ugariagoak eta jendea Marokoren aurkako kanpaina militarren aurka zegoen.

¹¹ *Euzkadi* Egunkaria 1913ko otsailaren 1ean sortu zen eta 1937ra arte iraun zuen.



Horrekin batera, 1925ean, Credit Lyonnais-ek euskarazko publizitate kanpaina atera eta hogeit urtetara, Banco Guipuzcoanok (1899an sortua) era honetako iragarkia plazaratu zuen:

Banco Guipuzcoano, Jabien arteko dirutza: 25 milloi pezeta. Arpidetuak 50 milla garazki edo aziyoak, bakoitza 500 pesetakoak. Ordañez emandakoak: 12 milloi ta 500 milla pezeta. Baezpare gordetakoak: 9 milloi peseta.

Euneko 2 ta 3 ta 4'an gordetzeko diruai, nai denean ateratzeko eran, bai pesetetan, bai frankotan ta bai ingeles esterlin liberetan.

Noranaiko diru-artzeko idazki edo kartak, diru-bialketa, diru-gordeketa, diru-etxe arteko aginketa.

Aldi jakiñean dirua jasotzeko txartelak ematen dira, euneko 3'25' a, 3'75a ta 4'25a artzen dala. Zerbaitxo emanda, guztiz kutxa gogorretan gorde litezke bai balio aundiko pitxiak, bai ajol aundiko paperak, bai diru-txartelak, abar eta abar. Zernaiko diru artu-emanak, aldaketak, erosketak eta gordeketak. Ordu egokiak: goizeko 9 eta ½'etatik ordu 1'arte; arratsaldeko 3 ta ½'etatik 5'ak arte.

Esan bezala, Primo de Riveraren diktadurak abertzaletasunaren, euskararen eta euskal kulturaren kontra egin zuen, eta, ondorioz, euskarazko iragarriak plazaratzen zituen Euzko-Deya politika aldizkaria debekatu egin zuten. Dena dela, Argia aldizkariak zabalik jarraitu zuen, eta hainbat etxek euren produktu eta zerbitzuak euskaraz iragartzeko aukera izan zuten. Banco Guizcoanok ere diktadura garaian atera zuen euskarazko lehen iragarria.

4. BIGARREN ERREPUBLIKA ETA GERRA GARAIA (1931-1939): EUSKAL PUBLIZITATEAREN GARAI OPAROA

Bigarren Errepublika garaian pauso txiki batzuk eman ziren euskararen alde (besteak beste, aipatzekoa da 1932an Euzko Ikastola Batza sortu zela), eta, ondorioz, ugaritu egin ziren denda, jatetxe eta tabernetako euskarazko izenak eta errotulazioak. Hala ere, oro har, euskara idatziaren presentzia oso txikia zen.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen euskararen erabilerari dagokionez, aurreko urteetan bezala, euskaldunen dentsitate handi zen tokietan, kontsumitzaile eta erabiltzaileek euskara erabiltzen zuten dendariekin eta zerbitzuen hornitzaileekin izaten zituzten harremanetan.

Errepublikarekin, Primo de Riveraren diktadura garaian (1923-1930) debekatutako Euzkadi egunkaria (Bilbo, 1913-1937) euskarazko berriak eta iragarriak sartzen hasi zen 1931an. Hain zuzen ere, 1931ko urtarrilaren 24an modu honetan iragarri zuen asmo hori:



Horrela, 1931tik 1937ra, Euzkadi egunkariak euskarazko hainbat iragarki plazaratu zituen. 1933 otsailaren 28an, adibidez, iragarki hau agertzen zuen:

ka'n azka agertzen dira. Erantzen oyeri"

IBAÑETA **JOSKINTZA**
SASTRERIA

Erparuko glason jentziak | TRINCHERAS y GASIFORNAS
Pmetzaga'ier Urfaño kalas 20 g. | Furiado de Anitzaga, 70

SE RECOMIENDA POR SI SOLO EL ALIMENTO INSUPERABLE

ALAR-ONENA

Ola afatuzag'ientzat eta txitak astria. Especialismo para gallinas, ponedres y
Unik ematen ez duten jentziak: Aragi. eris de pollina. Resultados garantizados
afia eta azuf-iria "Alar Onena". Harinas de carne, pescado y hongo
"Alar Onena".

María J. Esneola

Miracruz, 21 | SAN SEBASTIAN | Teléfono: 12014
¡ALERTAI EXIGID SIEMPRE LA MARCA "ALAR ONENA"!

Argia (1921-1936) aldizkarian ere jarraitu zuen euskarazko iragarkiak plazaratzen. 1936ko uztailaren 5ean, adibidez, era honetako iragarkia argitaratu zuen:

Goubekastegi (relojeri) onena
Bitxitegi (joyeri) onena
Zali ta larortz onenak

Guzietan merkena
LA JOYITA
Aldamar 12 - DONOSTIA. - Bretzako aldamenean

1930etik aurrera, bestalde, El Dia (Donostia, 1930-1936) eta El Pueblo Vasco egunkarietan ere euskarazko publizitatea agertzen hasi zen. Bi egunkari hauetako Euskal Orria izeneko atalean agertzen ziren euskarazko iragarkiak, ez egunkarien gainerako orrialdeetan. El Dia egunkarian, adibidez, honako iragarki hau aurkitzen dugu 1930eko ekainean¹²:

¹² www.hemeroteca.com web orrian irakurri daitekeen bezala: Euzkadi eta El Dia egunkariak Euzko Alderdi Jeltzalearenak ziren «eta, han eta hemen euskaraz azaltzen ziren albiste edo artikulu apurrez gainera, orri bat (askotan ez betarik) eskaintzen zuten egunero euskaraz, eguneko albiste nagusiei buruzko iruzkinak, iritzi artikuluak, itzulpenak, narrazioak, herrietako kronikak eta hitz neuratuan eginiko lanak plazaratuz. Berealdiko garrantzia izan zuten orri hauek, harrera ona izan zutelako irakurleen artean eta etorkizuneko idazleak trebatzea zelako, besteak beste, haien helburua».



Laburbilduz, esan daiteke II. Errepublika garaia oso oparoa izan zela euskal iragarkiei dagokionez. Inoiz baino aldizkari gehiagok argitaratu zituzten euskarazko iragarkiak. Bost aldizkaritan agertu ziren, hain zuzen ere, euskarazko iragarkiak: Euzko-Deyan, Argian, Euzkadin, El Dían eta El Pueblo Vascon.

Gerra garaian onartu zen euskal estatutuak, bestalde, euskararen ofizial-kidetasuna onartzen zuen, baina euskara egiten zen eskualdeetara bakarrik zuzendurik. Dena dela, Euskal Estatutuaren egitasmoak ez ziren gauzatu, eta kontsumoaren arloko erabilerak lehengo bidetik jarraitu zuen: euskaldun ugari zegoen tokietan euskaraz hitz egiten zen, baina euskararen idatzizko erabilera oso ahula zen. Dena dela, aipagarria ugaritu egin zirela denda, jatetxe eta tabernetako euskarazko izenak eta errotulazioak.

Gerrak, bestalde, azkena eman zien Euzko-Deya, Argia, Euzkadi edo El Dia egunkariak bultzatu zuten bideari. Izan ere, bertan idazten zuten kazetari batzuk fusilatu egin zituzten, frontean hil ziren beste batzuk, preso atxiki zituzten beste asko, eta erbestera behartu zituzten gainerakoak.

Gerra Zibilak iraun zuen urteetan, Eguna egunkaria kaleratu zuen Eusko Jaurlaritzak 1937ko urtarrila eta ekaina artean. Dena dela, gerra garaia bizi zela kontuan hartuta, egunkari honek ez zuen iragarkirik argitaratu iraun zuen sei hiletan.

5. FRANKISMO GARAIA (1939-1975): EUSKARAZKO ALDIZKARIEN DESAGERTZEA ETA 60. HAMARKADAKO BERPIZKUNDEA

Frankistek ezabatu egin zuten gerra garaian sortu zen Estatutua, eta Bizkaia eta Gipuzkoa probintzia traidore izendatu zituzten. Horrekin batera, erregimen berriak gogor egin zuen euskararen aurka. Euskaldunen hizkuntza eskubideak zapalduak izan ziren, eta, ondorioz, nola ez, baita kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen hizkuntza eskubideak ere. Euskarazko izenak eta errotulazioak zituzten denda, jatetxe edo tabernek izenak aldatzera edo itzultzera behartu zituzten, eta euskal publizitatearen inguruan emandako pausoak guztiz desagertu ziren. Joseba Intxaustik dioen bezala «Este desprecio político e ideológico hacia el euskera y el deseo de imposición del castellano pueden verse en proclamas

oficiales u oficiosas y sanciones administrativas, y en los diarios de la época. Eran similares a este que apareció en *Unidad* de San Sebastián (15-IV-1939): «En todos los cafés. En todos los restaurantes. En todas las tiendas. En todas las oficinas deberían colgarse carteles que digan: Si ere español, habla español» con sentido claramente excluyente» (Intxausti, 1992:160).

Gerraosteko garai latz haietan ez zegoen euskarazko iragarkirik Hego Euskal Herrian. Dena dela, aipagarria da Guatemalan sortutako Euzko-gogoa (1950-1960) aldizkariak euskarazko iragarkiak argitaratzen zituela. Euskal Herriko urrutiko bada ere, euskarari funtzio guztiak emateko gogoa uka ezina zen.

**EL RESTAURANTE
LAS FAROLAS**

**Non ase euskaldun baten urdaila? «Las Farolas» yatetxean
El restaurante LAS FAROLAS deja satisfecho el mejor estomago vasco
6ª Avenida Norte 1-D
Guatemala C.A.**

Gerraosteko garai latzen ondoren, 60. hamarkadaren bukaeran, euskararen eta euskal kulturaren nolabaiteko berpizkundea ezagutu zen. Hainbat ikastola sortu ziren, helduen euskalduntze eta alfabetatze mugimendua jaio zen, euskararen batuaren oinarriak finkatu ziren, eta euskarazko aldizkariak, kantariak, bertsolariak eta idazleak ugartzen hasi ziren.

Testuinguru horretan, euskarazko lehen irratiak agertu ziren, eta, horrekin batera, baita euskarazko lehen irrati-iragarkiak ere. Zehatzago esateko, euskarazko lehen iragarki hauek 50. hamarkadaren azkenetan eta 60. hamarkadaren hasieran sortu ziren hainbat irratiaren entzun ziren: Eibarko Arrate Irratian (1959an sortu zen eta 1964-82 bitartean itxita egon zen), Segura Irratian (1956an sortu zen)¹³, Radio Tolosan (50. hamarkadaren bukaeran sortu zen)¹⁴ edo Herri Irratian (1961. urtean sortu ziren Herri Irratia-Radio Popular de San Sebastián eta Herri Irratia-Radio Popular de Loyola). Dena dela, ezin dugu aiantzi 1964. urtean, irratiaren kopurua murrizten zituen dekretu baten ondorioz, parroketan sortu ziren irrati hauek guztiak desagertu egin zirela. Dena dela, Euskal Elizak, Gobernuarekin akordio batera heldu ondoren, Donostiatik, Bilbotik eta Iruñatik igortzeko baimena lortu zuen. Horren adibide da Herri Irratia-Radio Popular, jesuiten kongregazioarena.

Irratiarekin batera, euskarazko iragarkiak sartzen zituzten aldizkariak ere agertu ziren 60. hamarkadan. 1919an sortutako Zeruko Argia aldizkaria, adibidez, euskal kulturaren berpizkundean aldizkari erreferentziala bihurtu zen 60. hamarkadan, eta, noizean behin, euskarazko iragarkiak sartzen zituen.

¹³ Don Zesarero Elgarrestak sortu zuen irrati hau 1956an, eta 1964. urtera arte egon zen zabalik, lehen aldian. Gero 1972an zabaldu zen berriro ere.

¹⁴ 50. hamarkadaren bukaeran sortu zuen Tolosako parroko zen Wenceslao Mayorak.

Euskarak eta euskal kulturak nolabaiteko berpizkundea ezagutu zuen testuinguru honetan, Lan Kide Aurrezkoa euskara erabiltzen hasi zen bere publizitate kanpainetan. Hain zuzen ere, 1972. urtean gertatu zen aldaketa hori. «Idatziz sukurtsaletik ateratako diptiko, kartel eta beste hainbat materialen ibilbidea, gainontzeko irudi elementuen oso antzekoa izan da. 1972ra arte ez zen ezer euskaraz egin, eta urte horretatik 1992. urtera bitartean, elebitasun desorekatua izan zen, gaztelaniak %70eko lehentasuna baitzuen. Kasu honetan ere 1992an lortu zen bi hizkuntzen arteko oreka handiagoa» (Unanue eta Intxausti, 2002: 98-99).

70. hamarkadaren hasieran, bestalde, euskarazko publizitatearen historian berebiziko garrantzia izan duen kanpaina plazaratu zuen Oreretako Fanderia Pentsuak enpresak¹⁵. Hain zuzen ere, etxe honek oso ezaguna egin zuen esaldi hau: *ez merkeenak, bai onenak!* Esaldi horrekin batera bertsoa hau ere sartzen zuen marka iragartzeko:

**Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.
(Errenteri)**

Laburpen gisa esan behar da aurreko urteetan euskal publizitatearen inguruan eman ziren pauso guztiak desagerrarazi zituela Frankismoak. Euskararen aurkako testuinguru sozial eta politiko hartan, pentsa ezina zen euskal kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruz ezer esatea. Dena dela, 60. hamarkadaren bukaeran, euskararen eta euskal kulturaren nolabaiteko berpizkundeak eraginda, gerra osteko euskarazko lehen iragarkiak agertu ziren.

6. FRANKO HIL OSTEKO URTEAK (1975-1995): EUSKARA MASA KULTURADUN GIZARTERA EGOKITZEN

Franco hil ostean euskara oso ahuldurik zegoen, batez ere Araban¹⁶. Dena dela, Bizkaiko eta Gipuzkoak herri euskaldunetako kontsumitzaile eta erabiltzaileek euskara erabiltzen jarraitzen zuten taberna, jatetxe edo txikizkako merkataritza-

¹⁵ Oreretako Fanderia Pentsuak enpresa 1955ean hasi zen pentsuak ekoizten eta saltzen.

¹⁶ Araban, mende batean euskaldunen taldea ia desagertu egin zen. 1867-1868 urteetan 10.500 euskal hiztun bizi ziren Araban, eta ehun urte beranduago, hau da, 1972an, 1.863 hiztun (Intxausti, 1994:21).

establezimenduetan. Hala ere, eta XX. mende osoan zehar bezala, idatzizko erabilerarik ia ez zegoen. Fakturak edo albaranak ez ezik, enpresa gehienek logotipoak, publizitate kanpainak edo idatzizko dokumentuak erdaraz ziren. Egoera politikoak eta soziolinguistikoak ezer gutxi ahalbidetzen zuen arlo horretan.

1977. urtean, *Deia* egunkaria sortu zen Bilbon eta urte horretan bertan Egin egunkaria. Gaztelania zen nagusi egunkari bi hauetan, baina noizbait euskarazko publizitatea ere argitaratzen zen. Bestalde, 80. hamarkadaren bukaran, egunkari bi hauek euskara hutsezko Eguna eta Hemen astekariak kaleratu zituzten, eta hor ere euskarazko iragarki batzuk argitaratzen hasi ziren.

1977an, Eroski euskararen aldeko neurriak hartzen hasi zen. «Honela, 1977. urtean hasi ziren ontziratutako produktuak gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen. Urte hartan bertan, bere produktuak saltzen hasi zen Eroski eta produktu horiek ere bi hizkuntzatan eskura zitezkeen. Hasiera batean bospasei produktu baziren ere, gaur egun 6.837 erreferentzia daude Consumer produktuetan, eta, horrez gain, 1990az geroztik Estatuko lau hizkuntza ofizialetan aurkezten dira, hizkuntza guztiei trataera berbera emanda. Eroski taldeak Espainiako estatu osoan dituen saltokietan eskura daitezke eta ontzien formatua berbera da Euskal Herrirako nahiz beste zonaldeetarako» (Unanue eta Intxausti: 2002: 101).

Espainiar Estatuko lehenengo telebista-iragarkia 1941. urtean eman zuen TVE-k. Hain zuzen ere, Gillette enpresarena izan zen. Euskaldunok 80. hamarkadara arte itxaron behar izan genuen euskarazko lehen telebista iragarkia ikusteko. Hain zuzen ere, ETB1, EITBren euskarazko telebista-katea, 1982an sortu zen, eta hor hasi ginen euskarazko telebista iragarkiak ikusten.

1982an, bestalde, Eusko Legebiltzarrak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea onartu zuen, eta horrek hainbat bide ireki eta bultzatu zituen.

1992an, Eroski Taldeak bere Hizkuntza Politikaren lehen zirriborroa idatzi zuen. Dokumentu horretan era askotako gaiei buruz hitz egiten zen: saltokietako publizitatea, bezeroari igorritako liburuxka eta bezeroarekiko bestelako harremanak, hedabideen bidez egiten den publizitatea, barne komunikazioa, langileen euskara eskolak eta euskara lan hizkuntza gisa normalizatzeko planak, lanpostuen hizkuntza mapa, bezeroarekin izan beharreko harreman-hizkuntza eta euskarazko hezkuntza egiturari eta euskara sustatzeko erakundeak eman beharreko laguntzak.

Dokumentu honen arabera, «saltoki bakoitzaren esku geratu da neurri horiek zehaztea. Saltokiek printzipio horiek garatzeko duten aukera eskualde bakoitzeko egoera soziolinguistikoak baldintzatzen du...» (Unanue eta Intxausti: 2002: 102).

Euskaldunon Egunkaria 1990eko uztailen kaleratu zen. Gerra Zibilaren garaitik, euskara hutsez egindako lehen egunkaria zen, eta garrantzi handia izan zuen euskarazko iragarkien arloa indartzeko.

Euskadiko Kutxak ere pauso adierazgarriak eman zituen 90. hamarkadan. Arestian esan bezala, Euskadiko Kutxa 1972an hasi zen publizitate kanpaina elebidunak egiten (elebitasun desorekatua izan zen, gaztelaniak %70eko lehen-tasuna baitzuen) eta 1992an lortu zen bi hizkuntzen arteko oreka handiagoa. «Irrati nahiz idatzizko prentsan ere 1992koa izan zen erreferentzi urtea, orduan hartu baitzuen euskarak garrantzia, eta desoreka hori nolabait “gainditu”. Dena den, Euskadiko Kutxak hedabideetan ateratako publizitatea maxima baten menpe jarri izan du beti: kasu bakoitzeko baldintzen arabera euskararen erabilera egitea alegia. Hau da, komunikabidearen izaeraren edo lurraldearen arabera, euskara kopuru bat edo beste bat erabiliko da eta horren eraginez, 1992tik aurrera zonalde edo hedabidearen arabera hizkuntza baten edo bestearen ia erabateko nagusitasuna agertuko. Egoera hori erabat aplikagarria da telebistaren kasuan ere. Zer esanik ez elebitasun orekatua bilatu ez den kasu gehienetan euskara galtzaile izan dela erabilera mailaren borrokan eta hori egiaztatzeko aski da Euskara hedabideetan erabiltzeko Euskadiko Kutxak egun duen eredia ikustea» (Sarasua eta Arexolaleiba: 99).

Ikusten den bezala, 90. hamargarren hamarkadan aldaketa garrantzitsuak eman ziren euskarazko publizitatearen ikuspuntutik. Dena dela, argigarria da 1993an, «Euskaraz egindako publizitatearen erronkak» izenburupean, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Berripaperak zioena: «“Fanderiko pentsuak, ez merkeenak, bai onenak” iragarkia irratian entzuten zenetik publizitateak bide luzea egin du. Merkatu ekonomiaren zutabe garrantzitsua bihurtu da, milioiak erabiltzen dira horretan, hizkuntza berezia garatu du, istorio ikusgarri bezain harrigarriak ikus daitezke... baina euskarak apenas eman du aurrerapausorik publizitategintzan: ETB-1ek eta *Euskaldunon Egunkariak* gaztelaniatzko iragarriak onartu behar izaten dituzte, publizitatearen diru iturriak behar-beharrezkoak dituzte eta. Publizitate-agentziek, bestalde, ez dute gehienetan sortzaile euskaldunik. Euskarazko iragarki gehienak, hortaz, itzulpenak dira. Ondo egindakoak zenbaitetan eta erdarazkoen kalko hutsak nahi baino sarriago.

Azken aldi honetan, ordea, geroz eta gehiago dira publizitatea euskaraz ere egiten duten enpresak, denda handietatik hasi eta kale kantoiko kafetegia-ekin amaitu. Publizitatearekiko kezka, bestalde, zabalduz doa geure artean, *Publizkuntza 91* ihardunaldiak lekuko. Euskararen normalizazioak euskara publizitategintzan ere erabiltzea esan nahi du. Tajuz, bizitasunez eta ondo erabilitako euskara, ez merkeena, bai onena».

Modu berean, «Euskara eta publizitatea» izenburupean Jesus Eguzkiza-k idatzi zuen artikuluan zera zioen 1995. urtean¹⁷: «Orain arteko esperientzia ez hain luzean itzulpenaz baliatu izan gara gehienetan, erdaraz sortutako mezuak bideratzen. Argi dago bide hau ezin dugula baztertu, baina bai ohi den baino egokitxoago eratu. Luzera begira, euskaraz sortu, egin eta buruturiko publizitatea litzateke eraginkorrena, biziena eta zuzenena, baina euskal kreatiboen

¹⁷ <http://www.eizie.org/es/Argitalpenak/Senez/19901131/eguzkiza>

lantegiak amatauta daude oraindik; beraz asmatzaileak sortuz doazen bitarte honetan itzulpenari heldu beharrean gaude».

Franco hil ostean, gauzak aldatzen hasi ziren kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen ikuspuntutik. Zentzu horretan, Eroskik, Euskadiko Kuttak, ETB1-ek edo Euskaldunon Egunkariak eman zituzten pausoak erabakigarriak izan dira publizitate kanpainetan euskararen presentzia ziurtatzeko eta euskara gizarte modernoek beharrezanetara egokitzeko. Bereziki 90. hamarkadan, euskarazko publizitatea ugartu egin zen, eta kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen hizkuntza eskubideen arloan aurrerapauso garrantzitsuak eman ziren.

7. GAUR EGUNEKO EGOERA (1995-2008): KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILIEN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BURUZKOA

Apurka-apurka, elebidunen kopurua gora doa Euskal Herrian, eta euskarak orain dela urte batzuk baino egoera hobea da (Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta, 1991, 1996, 2001). IV. Inkesta Soziolinguistikoa arabera, hamasei urte edo gehiagoko biztanleen artean, 1991n baino 137.200 elebidun gehiago zegoen 2006an. Euskaraz hitz egiteko gai diren hazkunde handiena Euskal Autonomia Elkartearen (EAE) gertatu da azken urteotan, baina baita Nafarroan ere. Iparraldean, aldiz, oraindik ere euskarak hiztunak galtzen ari da, ahantzi gabe hazten dagoela gazte elebidunen kopurua. Erabilerari dagokionez, EAEko biztanleen %18,6k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean, Iparraldean, biztanleen %10,3k du era honetako euskararen erabilera eta Nafarroan %5,6k.¹⁸

Honek guztiak nolabaiteko baikortasunera eramaten bagaitu ere, argi esan behar dut euskarak ahultasun asko dituela. Besteak beste, ahultasuna oso nabaria da jatetxe, taberna eta txikizkako merkataritza-estabzimenduetan egiten den euskararen erabileraren ikuspuntutik.

Euskararen erabilera EAEko jatetxe eta tabernetan (2003)

Euskararen erabilera EAEko jatetxe eta tabernetan (2003) ikerketaren arabera, EAEko jatetxe eta taberna gehienak oso gutxi erabiltzen dute

¹⁸Oso kontuan hartu behar da azken 15 urteotan euskararen erabilerak gora egin duela EAEko biztanleen artean (1991n, biztanleriaren %15,3k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen zuen, 2001ean,%17,2k eta 2006an % 18,6k). Nafarroan euskararen erabilera ez da ia aldatu 1991tik (1991n, biztanleriaren %5,9k erabiltzen zuen euskara gaztelania beste edo gehiago, 2001ean, %5,8k eta 2006an %5,6k), eta Iparraldean behera egin du erabilerak (1996an Iparraldeko biztanleen %13k euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen zuen eta 2006an biztanleen % 10,3k zuen horrelako euskararen erabilera).

euskara, bai ahozko komunikazioan eta bai idatzizkoan ere. Ia establezimendu erdiek ez dute euskara inoiz erabiltzen, eta bostetik lauk ez dute inoiz erabiltzen edo oso gutxitan erabiltzen dute. Kontrako muturrean, %9 bakarrik dira gehienbat euskara erabiltzen dutenak, eta gainerako %12k gune soziolinguistikoaren arabera, batik bat, erabiltzen du gehiago edo gutxiago.

Datu hauek ez dira batere harritzekoak, kontuan hartzen badugu jatetxe eta tabernetan langileen %60k ez dakiela euskaraz. Nolanahi dela ere, jate-txeetako erabilera tabernetakoa baino pitin bat handiagoa da, ia bikoitza.

Euskararen erabilera txikizkako merkataritza-establezimenduetan (2003)

Euskararen erabilera txikizkako merkataritza-establezimenduetan (2003) ikerketaren arabera, EAeko txikizkako saltokirik gehienak oso establezimendu txikiak dira, langile bat edo bikoak, eta oso gutxi erabiltzen dute euskara, bai ahozko komunikazioan eta bai idatzizkoan ere.

Saltoki erdiek baino gehiagok ez dute euskara inoiz ere erabiltzen; lautik hiruk, berriz, ez dute inoiz ere erabiltzen edota oso gutxi erabiltzen dute. Kontrako muturrean, %7 bakarrik dira beti edo ia beti erabiltzen dutenak, eta gainerako %17k gune soziolinguistikoaren arabera, batik bat, erabiltzen du gehiago edo gutxiago.

Datu hauek ez dira batere harritzekoak, hirutik bitan, %64tan, inork euskaraz ez dakiela kontuan hartzen badugu. Nolanahi dela ere, kontuan izan behar da gune soziolinguistikoa euskararen erabileran funtsezko faktore eragingarria dela.

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa (2006): dendetan, bankuetan eta kutxetako euskararen erabilera

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren (2006) arabera, EAeko 16 urtetik gorako biztanleen %13k beti edo ia beti euskara erabiltzen du eguneroko erosketak egiten dituzten dendetan eta %6k euskara gaztelania beste. Elebidunen kasuan, aldiz, eguneroko erosketak egiten ditugun dendetan %44k beti edo ia beti euskara erabiltzen dute eta %17k euskara gaztelania beste.

Bankuetan eta kutxetan nagusiki euskara erabiltzen duten 16 urtetik gorako herritarrak %17 dira, eta euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak %4. Gazteen artean euskara erabiltzen dutenak gainerako adin-taldeetan baino zertxobait gehiago dira (%23 16 eta 24 urtekoen artean).

Euskal Autonomia Erkidegoko eremu publikoko zein pribatuko hizkuntza-paisaia eta euskararen erabilera (2006-2007)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskal Autonomia Erkidegoko eremu publikoan zein pribatuan hizkuntza-paisaia eta euskararen erabilera aztertu zituen 2006 eta 2007. urteetan¹⁹. Sektore pribatuari dagokionez, honako hauek izan ziren ondorio garrantzitsuenak:

- a) EAEn merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako jarduera adarretako establezimenduak 30.000tik gora dira. Horietatik gehien-gehienak txikizkako merkataritza establezimenduak (%50) eta ostalaritzako establezimenduak (%42) dira. Bezeroekiko harremana duten aztertutako zerbitzu-enpresak, aldiz, 182 izan dira, baina aipatzekoa da enpresa horiek 3.000 establezimendutik gora eta 40.000 enplegatutik gora dituztela EAEn.
- b) Aztertu diren bi unibertsoen (zerbitzu sektoreko establezimenduetan eta bezeroekin harreman zuzena duten enpresetan) ezaugarri soziolinguistikoak: Langile elebidunen ehuneko oso antzekoa da (%36 eta %37 hurrenez hurren), eta bat dator EAeko errealitate soziolinguistikoarekin (Kontuan hartu langile horien erdia baino gehiago 40 urte baino gutxiago dutela, eta 16 eta 40 urte bitarteko elebidunen ehuneko EAEn %36 inguru dela).
- c) Halere, jarduera-adarraren arabera edo lurraldearen arabera alde esanguratsuak daude bai establezimenduetan baita bezeroekin harreman zuzena duten enpresetan ere. Banku, aurrezki kutxa eta kreditu kooperatibetako langileen artean, esaterako, euskarak dakiten ehuneko (%40) batez bestekoaren gaineratik dago, hiper eta supermerkatuetan eta higiezin agentzietan, aldiz, azpitik (%33 eta %23 hurrenez hurren).
- d) Lurraldeari dagokionez, euskaraz dakiten langileen ehunekoak bat datoz lurralde bakoitzaren errealitate soziolinguistikoarekin. Izan ere, Gipuzkoako establezimenduetan lanean ari diren elebidunak %55 dira, Bizkaian %28 eta Araban %21.

¹⁹ Ikerketa honen ondorio nagusiak lau izan dira: 1. Eremu publikoan euskararen presentzia eremu pribatuan baino nabarmen handiagoa da, bai ahoz bai idatziz. 2. Eremu publikoan zein pribatuan, euskararen erabilera handiagoa da idatziz ahoz baino. 3. Euskararen erabilera, batez ere ahozkoa, oso lotuta dago tokian tokiko errealitate soziolinguistikoarekin. Izan ere, Gipuzkoako egoera Bizkaikoa eta Arabakoa baino hobea da, eta guneeuskaletako ekipamenduen eta establezimenduen guneeuskaletakoena baino. Aldeak, esan bezala, batez ere ahozko erabileran ematen dira. 4. Administrazio desberdinen artean eta jarduera-sektore desberdinen artean ere alde esanguratsuak daude. Euskararen erabilera handiagoa da Eusko Jaurlaritzako administrazio nagusian Estatuko Administrazioaren menpe dauden establezimenduetan baino. Aldi berean, askoz hobea da finantza-erakundetan, higiezin agentzietan baino.

- e) Euskararen ahozko erabilerari dagokionez, txikizkako merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako establezimenduen %70ean ez da inoiz edo ia inoiz euskararik erabiltzen, %14an gaztelania gehiago erabiltzen da eta %8an euskara eta gaztelania maila bertsuan erabiltzen dira. Hortaz, ahozko komunikazioan euskara nagusiki establezimenduen %9an erabiltzen da.
- f) Bezeroekin harreman zuzena duten zerbitzu-enpresen ia erdiek (%47) ez dute (ia) inoiz euskararik erabiltzen bezeroekin ahozko harremanetan, laurden batek (%28) gaztelania gehiago erabiltzen du, bostetik batek (%19) bi hizkuntzak antzera erabiltzen ditu eta %5ek gehiago erabiltzen dute euskara. Bezeroekiko harremanetan (ia) beti euskara erabiltzen dutenak %0,5 baino ez dira (enpresen %1,6k ez du daturik eman).
- g) Euskararen idatzizko erabilerari dagokionez, txikizkako merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako establezimenduen %56an ez da inoiz ala ia inoiz euskara erabiltzen, %20an erdietan baino gutxiagotan erabiltzen da eta %10ean erdietan gutxi gorabehera. Hortaz, idatzizko komunikazioan euskara nagusiki establezimenduen %17an erabiltzen da.
- h) Euskararen erabilerarik altuena publizitate-euskarrietan ematen da (liburuxkak, eskaintzak, prentsa...), 0 eta 10 puntuko eskalan 3,97 punturekin. Euskararen erabilera maila batez bestekoa (2,43) baino altuagoa da baita ere interneteko web orrietan (3,71), eta kanpo (3,51) eta barne errotulazioan (3,28). Batez bestekoaren inguruan, liburuxkak eta katalogoak agertzen zaizkigu (2,33), eta batez bestekoaren azpitik kutzako etiketak, fakturak, eskaera orriak eta abar. (1,55).
- i) Azpimarratzekoa da hipermerkatuetan eta supermerkatuen, finantza-bulegoen eta higiezin agentzien establezimenduen erdian gutxienez euskararen presentzia ziurtatuta dagoela aztertutako idatzizko elementu guztietan. Horrela, hiru establezimendutik bitan kanpo errotulazioa (%66), barne errotulazioa (%64), liburuxkak eta katalogoak (%63) eta publizitatea (%62) euskaraz daude. Eta bitik batean web orria (%52) eta kutzako tiketak, fakturak edo eskaera-orriak (%48) ere bai. Beste muturrera jota, establezimenduen %47k ez dute euskararik erabiltzen web orrian eta %46k kutzako tiketetan, fakturretan eta eskaera-orrietan (erresguardoetan edo jakinarazpenetan bankuen eta kutxen kasuan).
- j) Bezeroekin harreman zuzena duten zerbitzu-enpresetan euskararen erabilera mailarik altuena informazioa eta produktuen zein zerbitzuen berri ematen duten makina edo kutzazain automatikoetan ematen da (7,9 puntu). Honen atzetik billeteak (7,2), eta 6 punturen bueltan: txartelak, txekeak, taloiak, megafonia, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek bete beharreko inprimakiak, jendaurreko kartelen edo errotuluen bidez ematen den informazio finkoa edo aldi baterakoa, eta tele-

fono publikoetan eta pantaila elektronikoetan ematen den informazioa. Euskararen erabilera mailarik baxuena aldiz, fakturak edo erosketatiketak, aurrekontuak, gordailu frogagirietan (3,6), salmenta-kontratuak edo zerbitzua emateko kontratuetan (3,5). Hau da, bezeroarekiko harreman pertsonalizatuetan erabiltzen diren dokumentuetan (eta beraz kasu bakoitzean landu behar direnetan), eta telefonoen aurkibideetan (3.3) ematen da.

- k) Txikizkako merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako establezimendutan elkarriketatuari, bere establezimendurako euskararen erabilerak zenbaterainoko garrantzia duen galdetuta, %25ek oso garrantzitsutzat jotzen dute, eta %17k nahikoa garrantzitsutzat. Hamarretik seik, aldiz, uste dute garrantzi gutxi duela edo ez duela batere garrantzirik (%26). Euskara oso garrantzitsua dela erantzundakoen pisua askoz altuagoa da saltokietan (%40), eta finantza bulegoetan (%35). Aldiz, oso baxua da higiezin agentzian (%10).
- l) Bezeroekin harreman zuzena duten zerbitzu-enpresetan, erdia baino gehixeago dira (%53) beren enpresarako euskara erabiltzea oso eta nahikoa garrantzitsua dela adierazten dutenak. Hirutik batentzat (%35) euskarak ez du batere garrantzirik edo bere enpresari begira, txikia da garrantzia. Azken horien artean aipatu aire garraioko enpresak (%75), higiezin agentziak (%57), energia hornikuntzako enpresak (%50) eta saltoki handiak (%50).
- m) Inkestatu gehienek uste dute euren establezimenduetan edo enpresetan euskara erabiltzeak abantailak dituela, eta oso gutxi dira desabantailarik dakarrela uste dutenak. Abantailen artean, bezeroarekiko harremana eta eskainitako zerbitzua hobetzen laguntzen duela, bezeroari euskaraz artatua izateko aukera eman eta bere eskariari erantzuten laguntzen zaiola eta komunikazioa erraztu eta hobetzen dela azpimarratu dute. Desabantailen artean, aldiz, langileak prestatu beharra dakarrela, lanean atzerapenak eragiten dituela eta kostu ekonomikoak handitzen dela adierazi dute.

Bilboko Komertzio Ganberaren «Estudio de hábitos de consumo en el comercio minorista, hostelería e imagen personal 2008»

Bilboko Komertzio Ganberak «Estudio de hábitos de consumo en el comercio minorista, hostelería e imagen personal 2008» ikerketaren emaitzak plazaratu zituen 2008an. Euskararen erabilerari buruz zera esaten du: «En los comercios de Bizkaia el uso del euskera se adecuía a las preferencias y demandas del cliente en la gran mayoría de los casos. De hecho, un 90% de la muestra reconoce ser atendido en el idioma deseado».

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua (2003)

2003. urteko abenduan, Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuan, publikora zabaldutako establezimenduetan euskaraz artatua izateko eskubidea aipatzen da VII. Kapituluhan. Kapitulu honen 37. artikulua dioenarena arabera, kontsumitzaile eta erabiltzaileek honako hizkuntza eskubideak dituzte:

- a) Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzekoa.
- b) Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzekoa.

123/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa.

2003ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren II. Tituluaren VII. Kapitulutik abiatuta, 2008ko uztailaren 1ean, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 DEKRETUA argitaratu zen. Dekretu honen helburua da kontsumitzaileekiko eta erabiltzaileekiko harremanetan, jendeari begirako enpresa, erakunde eta establezimenduen hizkuntza-betebeharrak zehaztea, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitortutako honako eskubide hauen progresibotasun- baldintzak erabakitze aldera: ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzekoa, eta bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia jasotzeko eskubidea. Halaber, Dekretu honen helburua da kontsumitzaileekiko eta erabiltzaileekiko hizkuntza-konpromisoaren zigilua sortzea.

8. ONDORIOAK

XIX. mendearen bukaeratik, gune soziolinguistikoak zehaztu du jatetxe, taberna edo txikizkako merkataritza-establezimenduaren euskararen ahozko erabilera. Harreman-sareko euskaldunen dentsitateak, gainerako erabilera-eremuetan bezala, garrantzi handia izan du kontsumoaren arloan euskara erabiltzeko orduan.

Idatzizko erabilera desberdina izan da. Izan ere, gune soziolinguistiko euskaldunetan ere logotipoak, errotulazioak, fakturak, eskaera-orriak, albaranak...erdaraz izan dira ia oraintsu arte. Dena dela, uka ezin da azken 20 urteotan aurrerapauso garrantzitsuak eman direla. XX. mendean zehar oso denda, jatetxe edo taberna gutxi erabili izan du euskara idatzizko harremanetan, eta

gaur egun txikizkako merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako establezimenduen %17ak erabiltzen du. Gainera, hipermerkatuen eta supermerkatuen, finantza-bulegoen eta higiezin agentzien establezimenduen erdian gutxienez euskararen presentzia ziurtatuta dago idatzizko elementu guztietan.

Bestalde, euskarazko lehen iragarkiak XIX. mendearen bukaeran agertu ziren, baina oso gutxi garatu den arloa izan da XX. mendearen bukaerara arte. XIX. Mendearen bukaeratik euskarazko publizitatea egiteko ahaleginak egon, egon dira (Ibaizabal, Euzkalzale, Euzko-Deya edo Argia, Euzkadi aldizkariak, adibidez), baina etenaldi askorekin, eta, beti ere, testuinguru politikoaren menpe. Eta honek kalte handia egiten digu euskaldunoi. Izan ere, euskaldunok azken 120 urteetan kontsumitu ditugun ia iragarki denak erdaraz idatzita eta pentsatuta egon dira, eta horrek egoera diglosikoa indartu besterik ez du egin.

90. hamarkadan pauso erabakigarriak eman ziren euskarazko publizitateari dagokionez. Dena dela, oraindik ere euskararen ahultasunetariko bat publizitatearena da. Izan ere, kontsumitzen dugun iragarki gehienak erdaraz daude edota erdal mentalitatearekin eginak. Kasurik onenean, Euskaltzaindiaren arauak behar bezala jarraituta itzultzen dira erdaratik, baina ez dute izaten jatorrizkoaren erakargarritasun eta graziarik. Kasu askotan, dena dela, itzulpenek akats ugari izaten dituzte edota itzulpen txarrak izaten dira. Norbaitek esan zuen, *arnasten dugun airea oxigenoz, hidrogenoz eta publizitatez osatua dagoela*, baina euskaldunok esan beharko genukeena da guk arnasten dugun airea *oxigenoz, hidrogenoz eta erdarazko publizitatez* osaturik dagoela.

Euskarazko publizitatearen ahultasuna ulertzerakoan, ezin dugu ahantzi, kasu askotan, euskal merkaturia txikiegia dela euskarazko publizitate kanpaina erraldoiak eta errentagarriak egiteko. 1998an, Euskararen Aholku Batzordeak zioen bezala²⁰: «Publizitateak, berez, hedabide zabalak eskatzen ditu. Alde horretatik, kontra dute behar hori euskarak eta euskarazko komunikabideek. Baina, zorionez, euskaldunen merkaturia hazten ari da, gazteriarena batez ere. Euskaldun gazteek kontsumitzen duten guztia, beraz, euskaraz iragar daiteke.

Bestalde, enpresa asko, handiak batez ere, euskaltasunaren edo bertakoak izatearen ohorea eta jatortasuna lortzeko ere baliatzen dira publizitateaz. Izan ere, bi etekin atera nahi izaten zaizkio publizitateari: bata saltzea; bestea, markaren beraren izen ona zabaltzea.

Publizitate bila dabilzanek eta agentzietako erabakigile euskaltzaleek bigarren etekin honen balioaz ohartarazi beharko lukete iragarki-jartzailea, nahiz eta Euskal Irrati Telebistako eta herri-aldizkarietako publizitateak irabazien etekina ere ongi ziurtatu.

²⁰ Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran aho batez onetsitakoa.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako Kultura eta Hezkuntza sailak, batez ere sailtako erabakigileak, indargune garrantzitsua dira publizitatea gehitzeko ahaleginean».

Hala eta guztiz ere, pentsatu behar da Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuak (2003) eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 DEKRETUAK lagunduko dutela ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzen. Egia esan, iruditzen zait arau hauek aurrerapauso garrantzitsua direla kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen hizkuntza eskubideak babesteko. Hori bai! iruditzen zait arau-hausteak ez direla behar bezala zehazten. Nire ustez, arlo hau hobeto zehatu beharko litzateke legean zein dekretuan. Izan ere, egin diren arauak ezer gutxi esaten dute araua betetzen ez denean jarri behar diren salaketa eta isunei buruz, eta, ondorioz, inor ez da behartzen ofizialak diren bi hizkuntzak erabiltzera; komertzioetan elebitasuna bultzatzea dendarien borondate hutsaren arabera dago.

Quebecoko enpresak frantsesa erabili behar dute egiten dituzten iragarrietan zein enpresa ezagutarazteko erabiltzen dituzten bitartekoetan, interneten, adibidez. Eta hori ziurtatzeko, *Office québécois de la langue française* enpresen jarraipena egiten du, eta legea jarraitzen ez duten enpresak salatzen ditu. Horrela, euren produktuak iragartzekoan frantsesa erabiltzen ez duten enpresei 500 \$ eta 1.400\$ bitarteko isunak jartzen zaizkie lehen lege haustea egiten dutenean, eta 1000 \$ eta 7000 \$ bitarteko isunak bigarreanean. Bestalde, Quebec-en saltzen diren produktuen etiketak, estalkiak, kaxak eta produktuen erabilera adierazten duten dokumentuak frantsesez egon behar dira. Ingelesa edo beste edozein hizkuntza batzuk ere erabili daitezke, baina, beti ere, frantsesak duen erabilpen bera badute.

Esanak esan, Euskaldunok asko daukagu ikasteko Quebec-etik.

9. AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

AREJITA, A., MANTEROLA, A. eta OAR-ARTETA, S. (2007): *Euskararen Geografia Historikoa*. Labayru Ikastegia, Vitoria/Gasteiz.

EGUZKIZA, J. (1995): «Euskara eta publizitatea».

<http://www.eizie.org/es/Argitalpenak/Senez/19901131/eguzkiza>.

EUSKO JAURLARITZA (1993ko apirila): *Euskaraz egindako publizitatearen erronka*. Euskararen Berripapera Gasteiz. 1993ko apirila 11. zenb.

——— (2008): *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

INTXAUSTI, J. (1992): *Euskera. La lengua de los vascos*. Elkar, Donostia.

- (1994): *Euskara Araban. El Euskera en Alava*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz.
- IZAGIRRE, K. (1998): *Euskararen Historia Txikia Donostian 1800-1998*. Susa, Zarautz.
- JUARISTI, P. (2005): *Kontsumitzaileen eskubideak. Aurrerapausoak, arriskuak eta konponbideak*. Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutoa, Bilbo.
- (2005): Salgai. *Euskal Kontsumo Gizartea Aztertzen*. Alberdania, Irun.
- UNANUE, A. eta INTXAUSTI, N. (2002): *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*.
- ZUBEROGOITIA, A. eta ZUBEROGOITIA, P. (2008): *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*. Bilboko Udala. Euskara Saila, Bilbo.

EUSKARAZ MINTZATZEN DA

Sagrario Aleman

HIZKUNTZA PAISAIA

Iruñeko Udaletxeko Plazako denda batean txartel txukuna, metalezkoa, urteetan han egon zen, erakuslehoan, maindire, mahai-zapi eta beste hainbat oihalen artean, nabarmen. **Euskaraz mintzaten da** idatzirik txartelean. Etxean bezala sentiarazten gintuen handik pasatzean, ez oihalek txartelak baizik, etxean sentiarazten euskaraz ari zen jendea bazela jakiteak. Iruñean ere euskaraz mintzaten da! Hogeita hamar urte baino gehiagoz txartela agerian izan duen denda horretara hainbat emakume, gizon bakar batzuk ere bai, etortzen zen euskaraz bizi ziren herrietatik, eta bertan beti bazen bezeroarekin euskaraz ariko zen gizonetzko saltzaileren bat, Etxarri Aranazko Juanito Ezkutari urteetan.

Bezeroei ahalik eta zerbitzu hoberena eskaintzea zuten helburu, errazago baitzen euskaldunei euskaraz saltzea. Denda horretako nagusiak, Aita Donostiaren laguna zen Joaquín Zigak bakarrik, ez beste batzuekin batean eta bere kabuz, inoren laguntzarik gabe, hartu zuen erabaki hori. Garai hartan, 40ko hamarkadan, ez zen gainera euskararen aldeko jarrera nagusi. Euskara irakaskuntzara aldarria bera ere 60koa izan zen, oraindik euskara karrikara, zerbitzuetara ez genuen oihu egiten.

Hamarkada batzuk geroago, denda honetatik hurbil beste batek izena euskaraz jarri nahi izan zion bere lantokiari. *Oñatekogia* izenarekin asmatu ez badu ere, oinetako konpontzailea da, euskaraz hitz egiten zuen eta bere ahalegina eskertzekoa da. Norbanakoen borondate onez eginak dira horrelakoak, hanka sartzeak barne. Ez dago hizkuntza paisaia euskalduntzea xede duen elkarterik; ez dago babesik, neurririk, eta jendeak ez daki nora jo laguntza eske.

Ziga bera baino lehenagokoa, nik ezagutu ez nuena, aitari entzuna, XX. mende hasieran Iruñeko Xabier Aldapakoa. Gizonak bizarra egitera erakarriz *Bizartegi* jartzen omen zuen komertzioa.

IRAGARKIAK

Arestian esan bezala, 60ko hamarkadan hasi zen euskararen aldeko mugimenduak irakaskuntza lehenetsi zuen, merkataritzaren mundua aintzat hartu

gabe. Iragarkiei dagokionez, esate baterako, ez zen askorik euskaraz, eta ez da harritzekoa. Euskara irakurle gutxi, eta hedabide gutxiago izateaz gainera, publizitatearen munduak ere indar handirik ez baitzuen.

Zeruko Argia aldizkarian, 20ko hamarkadan, Nafarroako iragarki bakar batzuk badira. Aldizkaria bera saltzeko egindakoa; Kaputxinoen *Lekaroz'ko Burubide Oneko Andre Maria'ren Ikastetxea* eta bertan ematen duten irakaskuntza – *Bachilleratoa eta Comercioa*; *euskara eta musica* iragartzen duena; ola Azkoitian eta Iruñean duten *Alberdi ta Lagunak Yutezko irunki ta txirikorda* saltzaileena; Iruñea eta Donostian *Meza Santurako ardo zuri gozoa* salgai duten *Loidi eta Zulaicak* ere aldizkariko ale guztietan jartzen dute beren iragarkia; Elizondoko *Antonio Etxaidek Eusko basetxeak argazki bilduma* du salgai; P. Celestino de Caparroso edo Arrigarairen *Gramática del Euskera* erostera *Nemesio Aranbururen* liburu dendara jo behar dugula irakurtzen dugu. Gerraondoko etena eta gero, 50eko hamarkadan, ia ale guztietan ageri diren iragarkiak honako hauek dira: *Diez de Ulzurrun* sendagilea San Anton karrikan, *Iruña'ko Diru Aurrezki Etxea* Sarasate karrikan; *Joaquin Cigak* maingire, tapaki eta sukaldeko oihalak ditu salgai, besteak beste; *Amatek* Eslava karrikan begi-sendatzallea; *La Perla Vascongadak* jantziak; *Julián Echevarriak* idazteko makinak eta; *La Cabaña ollotegiak* egun bateko txitak eta adin guztietako oilandak salgai omen ditu Lezkairun. Nafarroakorik ez da gehiago ageri.

Principe de Viana aldizkarian, 1966tik 1983ra bitartean, iragarkiak baino jakinarazpenak ageri direla esanen nuke. Nafarroako Diputazioak antolatut zituen *bertsolari-besta, nafar izkuntzaren eguna, udako euskal irakasleen ikastaroa*, eta abarren berri ematen du. *Napar Pilota Elkarteak, Naparroa'ko Aurrezki Kutxaren laguntzaz eratutako «Igo nafar pilota aur-txapelketa»* –izenak aldizkarian agertzen diren moduan idatziak– iragartzen du 1975eko otsaileko alean. *Etoriki* dantza eta kantu batasunaren deia hiru soinulari behar dituela eta. Tolosan, 1974an, eginen den *abestaldeendako euskal abestiaren VI. leiaketa*, edo 1975eko urtarrilean Tolosan Txinparta elkarteak egin behar dituen hitzaldiak iragartzen dizkigu. *Gipuzkoako Camara Oficial Agrariak* ematen zuen *San Isidro Saria* iragartzen du aldizkariak, baita *Lankide Aurrezkiaren* literatur lehiaketa, *Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarena*, eta *Bilbo Aurrezki Kutxarena* ere. Euskaltzaindiaren batzarren berri ere ematen du, eta 1974ko martxoko alean idazten du, Euskaltzaindiak, otsailaren 23an, *Merkatalgo Izendegia* aurkeztu zuela Iruñean. Aldizkari honetako bitxikeria pare bat aipatu nahi nituzke. Bata, nafar bikote baten eztei-gonbidapen txartela euskaraz argitaratzen duena, jarraibide ederra dela aipatuta. Eta bestea, berriz, testamentua euskaraz nola egin ikasteko ereduak ematen dituen: «*notarioaren aurreko azkenaiia*» eta «*erretorearen aintzineko azkenai-eredua*». Gogoan izan behar dugu nafarrek, legez, testamentua euskaraz egiteko aukera bazutela. Errealitatea, ordea, bestelakoa zen; Campionen hitzetan:

Un hombre, o una mujer, que no sabe, o no sabe casi el castellano, enferma gravemente. Entonces tres cosas le convienen sobremanera; explicar su dolencia

*al médico y enterarse de sus prescripciones, hacer una buena confesión y otorgar testamento. Pero es que ni el médico, ni el cura, ni el notario saben baskuenze.[...] el mansísimo varón, u hembra, vuelve la cara hacia la pared y se muere como un idiota, después de ejecutar mal las tres cosas que le importaba ejecutar bien.*¹

Zeruko Argian ere 70eko hamarkadan ez dago iragarki askorik, hala ere hauek salerosketako iragarkiak dira. Batez ere Gipuzkoakoak dira, baina Nafarroakoak ere badira poliki, Iruñeko Aurrezki Kutxak ale gehienetan badu iragarkirik, zenbaitetan bi ere bai. Mina lantegiarenak gutxiagotan ageri dira baina orri osokoak eta estalkian koloretan. Celetum eraikuntzarako materialak saltzen dituen etxeak ere zenbait aletan egin du publizitatea. Eta Esarte lukainak Elizondokoak ere jarri du aldizkari honetan iragarkirik. Beste zenbait ere ageri da: Kide, Alonso...

Oraintxe 20 urte egin dituen *Euskalerria* irratan iragarki kopurua asko aldatu da lehengo urteetatik oraina. Iragakien bila ibiltzen diren langileek lan honetan ikasi ahala eta irratia ezagutarazi ahala bezero iragartzaileru gehiago da. Zenbait ia-ia hasieratik bezero izan ditu irratia, urteetan hor entzun izan ditugu: *Erice* auto-eskola, beren leialtasunagatik *Argia* aldizkariak saritu zuena, hain zuzen, edo *Planicop* kopistegia bezalakoak. Beste aunitzek noizbehinka egiten du publizitatea, salmentarako egokienak zaizkien data edo egoera berezietan. Iruñeko Udalak ere maiz egiten zuen, Gobernuak ere bai, batez ere euskaraz egiten zituzten ekitaldi edo euskara sustatzeko edo haurrak matrikulatzeko deialdiarako. Nori eskatu iragarkiak irratan jar zitzan? Beste komunikabideetan nork jartzen zuen begiratu zuten, erdarazkoetan ere jartzen ez zutenek publizitate beharrik ez zutelako izanen baitzen. Eta, irratiko komertzialak harrera ona izaten zuen, ezezkoa ez zen iragarkia euskaraz izan behar zuelako, arrazoia beste bat izaten zen publizitatean aski gastatu zutela edo nahiago zutela egunkarietan egin. Euskarazko komunikabidea zelako jartzen dutenak badira ordea, gutxi halere, eta gehienetan oso noizbehinka iragartzen dutenak, herriko festak hurbiltzean edo. Bakar batzuk badira, *Alforja* optikoa bezalakoak euskaraz delako jarri, baina publizitate horren emaitza, eragin ona, ikusi eta hortxe jarraitzen dutenak luze. Irratia lokala izatea, entzuleen kopurua, entzuleen leialtasuna eta gisa horretako argudioak azaltzen omen zituen komertzialak saltzaileru iragarkiak jar zitzaten eta ez euskara edota euskarazko irratia laguntzeko beharrezkoa zela beren iragarkia. Iragakia jartzen dutenen artean 10etik bat inguru da euskalduna.

Iragarkiak ez dituzte bada, euskararen normalizazioan laguntzeagatik egiten euskaraz, bai ordea, bezero gehiagorengana iristeko. Eta euskaldunok zergatik joaten gara komertzio horietara edo zergatik erabiltzen ditugu zerbitzu horiek? Beste edozein hizkuntzatan entzuten duenak izaten dituen arrazoiak gain, euskaraz hartzean hurbilagoa sentitzen dugulako, gureago nolabait, batzuetan horrelako leialtasun puntu bategatik ere bai, zerbait zor bagenie bezala, eskertzekorik badugulakoan.

¹ CAMPION, A., El euskera y los notarios, *Euskal-Esnaea*, 7. eta 8. zbkia, 1911.

KONTSUMITZAILEEN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Eskertu beharra bagenu bezala, oraindik orain hasi gara-eta kontsumitzaileok gure eskubidea aldarrikatzen. Zerbitzu eta kontsumoaren mundua erdaraz zela sinetsi samarra genuen, mundu hori euskaraz ere posible dela ezinezkoa iruditzen zitzaigun, ohituak gaude erdarara. 60ko hamarkadan etxean ez ezik, euskara irakaskuntzan ere behar genuela ohartu ginen, gero helduen euskalduntzea etorri zen. Aurreraxeago Administrazioak ere euskaraz egin behar duela garbi izan dugu. Euskaraz bizi nahi badugu, ordea, lan munduan euskara nahitaezkoa dugula badakigu. Urte gehiago ematen dugu lanean eskolan baino, beraz, lantokian euskaraz egiterik ez badugu nekez biziko gara euskaraz. Eta kontsumitu eta zerbitzuak erabili egunero eta guztiok egiten duguna da.



23 Urtea

1958'ko Azaroa

59 Zenbakia

Nafarroan, Iruñerrian behinik behin, industrian lantegi bakarra da euskara plana abian ezarri duena eta urte pare bat besterik ez du horretan lehen urratsak ematen hasi dela. Arrasateko kooperatiba-taldekoa da lantegi hau eta esan bezala, oraintxe abiatu da, eta gaur, beste batzuegandik izanen dugu aurreratuago dagoen antzeko esperientziaren baten berri. Komertzio eta zerbitzuetako zenbait ekimen aipatuko ditut orain, bere txikian ere, Nafarroako beste batzuentzat eredugarri izan daitezkeelako eta gaurko gaiarekin, kontsumoa eta hizkuntza eskubideekin, lotuago dagoelako.

Nafarroako Aurrezki Kutxak eta batez ere Iruñekoak, biak elkartu aurretik, zenbait iragarki egin izan zituztela euskaraz esan dut, euskara sustatzeko aipatu ez ditudan sariak ere eman izan zituzten Diputazioarekin edo Udalarekin batean. Hori horrela izanik ere, Nafarroakoak, Iruñekoak ez bezala, biak elkartu aitzineko urteetan ez zuen batere irudi euskaltzalerik. Bi Kutxak elkar-tzea euskaldunok kaltegarritzat jo genuen, Iruñeko Kutxak euskaraz egiten zuen gutxia besteak irentsiko zuela eta. Eta lehenengo urteetan aldaketa nabaritu zen, Iruñeko Aurrezki Kutxak euskaraz egiten zuen gutxi hura Nafarroako Kutxan deus ez izatera pasatu baitzen. Gaur, hala ere, bezeroaren komunikazio hizkuntza bermatzea du helburu Nafarroako Kutxak. Norberak, bizi den tokian bizi dela, hauta dezake entitatearekin harremanetan jartzeko hizkuntza, euskaraz, katalanez, gaztelaniaz ala elebitan, beti ere idatziaz ari garelarik. Jendeak oso ongi hartu du neurri hau eta ez dute kexarik izan, hortaz esperientzia ona dela diote. Publizitate orokorra ordea, euskal eremuan bai, % 80an, bi hizkuntzatan egiten dute eta bulegoetan ere euskaldunak jartzen saiatzen dira. Iruñerrian, ez da horrelakorik. Langileak kontratatzean euskara jakitea ez da ezinbestekoa, baina begirutzen dute. Hala ere, herritar askoren ustez, oraindik lehenengo irudia du euskarari dagokionez, euskarazko zerbitzua ez baitute aski ezagutarazi eta publizitate orokorrean ez baita euskararik ageri. Kontuan izan zer nolako garrantzia duen kutxa honek Nafarroan, bertako familia gehienek badute-eta loturaren bat berarekin.

Iruñerriko Mankomunitatea. Hiri garraioa, ura, zaborra eta ur zikinen sarea kudeatzen dituen elkarte publikoa da. Bere barnean, Euskararen Legeak ezartzen dituen hiru eremuetako herriak hartzen ditu. Euskararen erabilera arautzen duen ordenantza egina du, Euskararen Legea aintzat hartuta. Ordenantza honen helburua da zerbitzua jasotzen duten hiritar guztiak, bizi diren tokian bizi direla, hizkuntza eskubide berak izan ditzaten eta eskubide horiek berma daitezen. Norbanakoak aukeratu dezake zein hizkuntzatan nahi dituen jaso idatzizko jakinarazpenak eta abarrak, gainerakoan elebitan jasoko ditu. Irudi korporatiboa, oharrak eta publizitate orokorra ere elebitan egiten du. Bezeroekin harreman zuzenean ari behar duten langileak, hiritarren laguntzarako bulegoan edo bisitagarriak diren instalazioetan euskaldunak izaten dira, erdiak bederen.

Barañain, populazioari dagokionez Nafarroako hirugarren udala, eremu mistoan, Iruñea ondo-ondoan kokatua. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak taxututako metodologia erabiliz, *Bai Euskarari* egitasmoa lantzen ari

dira bertan. Egitasmo honen barnean merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu orokorren arloko hainbat entitate (albaitariak, aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, klinikak, bidaia agentziak, inprimategiak...) ari dira euskararen erabilera bultzatzeko pausoak ematen. Poliki-poliki gero eta gehiago dira proiektu honetan parte hartzen ari direnak eta herriko paisaia linguistikoa ez ezik, ahozko zein idatzizko komunikazioan nabari da. Aipagarria da oso Udalak egitasmoari ematen dion babes, irudi aldetik eta diru aldetik, proiektua abiatu zenetik hainbat alderditako alkateak izanik ere (independientea, PSNkoa, Na Baikoa eta UPNkoa) guztiek proiektu honetan parte-hartzeko prestasuna izatea. Proiektu honen bultzatzaile eta kudeatzailea herriko IKAKo euskaltegia izan da.

Badakigu hiri eta herri handietan euskaldunek norekin eta non euskaraz ari ez dugula jakiten, euskara gehiago erabiliko genukeela non erabil dezakegun jakingo bagenu. *Karrikiri* euskara elkarteak, honen jakitun izanik, neurri polit bat hartu du, ahal den heinean, hau moldatu nahian. Orain 10 urte Iruñeko Alde Zaharreko establezimendu euskaldunen zerrenda egin zuen, betiere, horien jabeen oniritziarekin. Azken urteetan, urratsez urrats, Iruñeko eta Iruñerriko herri gehienetako zerrenda osatu dute, eta zerrenda hau hiritarrei helarazi diete. Bestalde, establezimendu horietan «Euskaraz nonahi, hemen ere bai» txartela leku ikusgarrian jarria dute, euskaldunok euskaraz aritzera gonbidatzeko.

Norbanakoen borondatez hasitakoa, orain norbanakoen oniritziz, baina, aterpe orokor baten azpian gauzatzen ari da, zenbaitetan, instituzioak ere parte hartuta. Lehen, «Euskaraz mintzatzen da» zioen txartela euskararen presentziaren isla baten, orain ekimen hauei esker presentzia hori nabarmenago da.

**KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN
HIZKUNTZAZ IPAR EUSKAL HERRIAN: ADIBIDE BATZUK**

Jean-Baptiste Battittu Coyos

SARRERA



Euskaldunaren Almanaka-ren Belle Jardinière saltegi handia (1923).

Hizkuntza baten bizindarra erabileran neurtzen da bereziki. Horri buruz hizkuntzaren lekua bizitza sozio-ekonomikoan adierazle garrantzitsu bat da, erran nahi baita ekoizpen eta kontsumo guneetan, Erramun Baxokek goiz honetan erran digun bezala.

Ipar Euskal Herriko kasua hartuz adibide batzuk eman nahi nituzke, XIX. mendeko eta XX. mendeko hastepeneko euskararen erabilera berezi bat aipatu, oraiko egoerari konparatu nahian. Aurkezpen hau Frantziako egungo hizkuntza legeriaren testuinguruan kokatuko dut.

1. EUSKARAREN PRESENTZIA KONTSUMOAN XIX. MENDEKO IPARRALDEAN: ALMANAKETAKO IRAGARKIAK

Zein izan ziren mendeen zehar euskararen erabilera areagotzeko eta indarberritzeko ekintzak kontsumoan? Zein izan da euskararen presentzia, euskararen erabilera lehenago komunikazio tresnetan?



*Euskaldun Almanac edo onaren berria-ren Obin tresna merkataria (1884)
eta Société générale bankua (1885)*

Euskararen historia sozialean sartzea litzateke hori eta alor zabal horretan ez naiz hemen ibiliko. Halere esperientzia interesgarri bat nahi nuke aipatu, Baionako almanaketako iragarkiena. 1848an argitaratzen da lehen aldikotz almanaka bat, Jean-Baptiste Etcheberry apaizaren eskutik (Díaz Noci: 35).

Geroztik errepublikazaleek ere berenak argitaratuko dituzte, xuri eta gorrien arteko borroka prentsan bizi-araziz. *Euskaldun Almanac edo onaren berria*, adibidez, bonapartista zen (Díaz Noci: 37).



Almanaka Berria-ren Singer josteko mekanika (1885).

Almanaka horiek urtekariak ziren, euskara hutsez. Efemeride, laborariendako aholku, ipuin, historia labor eta ere publizitate edukitzen zituzten, besteak beste. 1884ko *Euskaldun Almanac edo onaren berria* almanakak adibidez 42 orrialde baditu, horietatik 7 publizitatez. 1885eko *Almanaka Berria*-k 64 orrialde ditu, horietatik 7 orrialde gehi azpiko orria iragarkiekin.



Almanaka Berria-ren «Ameriketaco Pacabot eta Bapurren compainia yeneral» (1885) eta *Euskaldunaren Almanaka*-ren André Louis espartin egileak (1923).

Iragargi horiek euskara hutsez ziren batez ere, baina batzuk frantsesarekin nahasiak:



Ikus *Euskaldun Onaren Almanaka*-ren Pharmacie Moderne (1907) edo *Euskaldunaren Almanakaren Belle Jardinière* (1923), gorago.

Oraiko egoerari konparatuz, ikusiz gaur egungo euskarazko publizitatea murrizta dela Iparraldean, zer suposa ote genezakeen? Orduan jendea euskaldunago zela edo bederen orduko euskal irakurlegoa oraingoa baino handiago zela.

2. FRANTZIAKO HIZKUNTZA-LEGERIA ETA KONTSUMITZAILEAK: HIZKUNTZA-ESKUBIDERIK EZ, FRANTSESDUNENTZAT EZ EZIK

Euskararen gaur egungo egoera ulertzeko indarrean dagoen hizkuntza-legeria kontuan hartu behar dugu, besteak beste. Gure aztergaiari lotuak diren legezko testu denak ez ditugu apaituko hemen. Azpimarratu behar da ere Frantziako hizkuntzek berezko legerik ez dutela, frantsesak ez ezik.

Aipatzeko lehen testua 1789ko *Gizakiaren eta Herritarren Eskubideei buruzko Adierazpena* da. Bere 11. artikuluan «herritar orok askatasunez hitz egin, idatz eta inprima dezake» baieztazen du (Euskaltzaindia: 137). Halere podere publikoek jakinarazi dute frantsesez inprimatuak ez diren Frantziako aldizkariak beren buruari buruzko beharrezko lege-aipamenak frantsesez eman behar dituztela, prentsari ematen dion Estatuko diru laguntza eskuratzeko. Erabaki horrek urte batzuk ditu eta horrengatik ez da orain Frantzian, frantsesez salbu, argitaratuak diren hizkuntza hutsezko aldizkaririk.

Testu garrantzitsuena Toubon legea da, *Frantsesaren erabilerari buruzkoa* («Loi relative à l'usage de la langue française», 1994). Bere lehen artikulua adierazten du: «Frantsesa, Konstituzioaren aginduz Errepublikaren hizkuntza dena, Frantziaren nortasuna eta ondarearen oinarritzko osagaia ere bada. Horixe

da hezkuntzaren, garraioaren, trukeen eta zerbitzu publikoen hizkuntza (...) » (Euskaltzaindia: 144). Ondotik 14 artikulun zehar legeak frantsesari beharrezkotasuna eta bakartasuna ematen dizkio, kontsumoaren egoera eta alor desberdinetan, dokumentu, jarraikibide, iragarki, argitalpen, gertakari mota denetarik aipatuz. Ez ditugu hemen zerrendatuko. 16. eta 17. artikuluetan, arau hoién hausteko zigorrak zehaztu dira.

Halere 21. artikulua dio: «Lege honen xedapenak aplikagarriak dira, Frantziako erregioetako hizkuntzen legeriari eta araudiei kalterik egin gabe, eta ez dira haien erabileraren aurkakoak» (*ibid.*). Jakinez kontsumoan hizkuntza hoién erabileraren alde legerik ez dela, frantsesa da legezko hizkuntza gizarte-alor horretan. Beste Frantziako hizkuntzak jasanak dira baina beti frantsesaren ondoan.

Indarrean den legeriarengatik, hiztun multzoen eskubide kolektiboak onargaitzak dira, hiritarren berdintasunagatik (Konstituzioko 1. artikulua). Herri hizkuntzen erabilera publikoa ezin onartua da 2. artikulua emendakin berriarengatik. Era batez norbanakoen eskubideak zainduak dira, baina alor pribatu eta hurbilean bakarrik. Bizi publikoan hizkuntza-eskubiderik ez da Frantziako eskualde hizkuntzen kasuan, frantsesdunentzat bakarrik.

Beraz euskararen alde kontsumo eremuan gehiago egin daiteke Ipar Euskal Herrian, baina beti frantsesa erabiliz ere.

3. EUSKARAREN ESKAINTZA KONTSUMOAN: ADIBIDE BATZUK

Orotarat Ipar Euskal Herrian gauza gutxi dira euskara kontsumoan baliatzen dutenak. Halere panorama osoa ematea luzeegi litzateke xehetasunetan sartuko bagina. Beraz adibide batzuk baizik ez ditut emanen.

3.1. Zerbitzuak eta merkataritza: SNCF, bankuak, saltegiak

Bada orain urte batzuk **Demoak** euskaltzale talde kontestatzaileak **SNCF** tren konpania euskaldundu nahi duela, euskara Iparraldeko geltokietan sar dadila bederen. 17 ekintza eginak dituzte, poliziak 55 pertsona polizia-etxera eramanak ditu, zigorrak metatu dira. Baina, azkenean, SNCFak ez du deus egin eta orain duela gutxi eraberritu duten Baionako geltokian ingelesa eta gaztelania sartuak dira. Euskara ez.

Bankuak Banketxeek txeke-liburuxka elebidunak eskaintzen dituzte. Baina ez dute sistematikoki proposatzen eta euskaltzaleek ez ezik bezeroek ez dituzte horiek eskatzen, ez baitakite badirela ere. Ohizkoenean, euskaraz idatzirik diren txekeak onartuak dira, Iparralde osoan bederen. Bainan ez da sistematikoa. Kutxa automatiko batzuetan mezuak bi hizkuntzetan dira.

Crédit Mutuel Retorté / Retorté (Basque) (BAN)

CCM SA (FORME CENTREE)
18-20-22-24-26-30
E-1000 (FR 40000)
88-000 000000
MONTAÑI (NOM DE COMMERCE) - 808

Compte de chèques de banque
The account is intended to be followed, in case of your checks or debits who have transactions posted to account (small, transfers, payments, etc...)

Entearen Kodea Code Banque 00000	Entearen Kodea Code Guichet 00000	Entearen Zerbitua Numero de Compte 0000000001	CCM-entzako C/C 808 10	Substentzioa Distributorea CCM SA (FORME CENTREE)
--	---	---	------------------------------	---

Normak Internazional de Compte Services
SWIFT International Bank Account Number

FR76 3000 0002 7700 0000 0000 110	SWIFT Bank Identification Code CMFTR333
-----------------------------------	--

KONTUAREN TITULARIA
ACCOUNT OWNER

IZENBURRUKO GAI EGOKIA
CZ 81 LARROUS
MAISON BOURG
QUARTIER EUSKERRA
80000 MONTAÑI

Crédit Mutuel-en banku nortasun-laburpena.

Saltegiak Supermerkatu eta hipermerkatu batzuek seinaleitika elebiduna erabiltzen dute barneko bideetan, eta ez besterik, ez produktuen etiketetan adibidez. Ordainlekuan nehork ez du euskara erabiltzen, ez eta ere ahozko abisuetan. Denda horietan euskaraz idatz daitekeela, baina ahozko hizkuntza ez dela erran genezake.

3.2. Prentsa

Ikus dezagun orain zer den euskararen lekua gaur egungo prentsako iragarkietan Ipar Euskal Herrian. *Sud-Ouest* Bordeleko monopolia zuen egunkariak ez du bat ere euskara erabiltzen. *Berria* egunkaria ez dugu aipatuko, Hegoaldean argitaratua baita. Beraz *Le journal du Pays Basque* egunkariari eta *Herria* astekariari interesatuko gara.

Herria astekaria euskara hutsez idatzia da. Bere zortzi orrialdeetan publizitate gutxi baditu; euskaraz dira, frantsesarekin nahasia batzutan eta tamaina txikikoak. Batzutan enpresa pribatuen publizitatea dela ohartu behar da.

Martin Irazoquy tindatzailearena (Herria, 2008/11/06, 2890-zbk.).



Duhalde etxegintza enpresarena (Herria, 2008/10/23, 2978-zbk.).

Le journal du Pays Basque – Euskal Herriko kazeta (Le JPB) egunkari gazteak 12 orrialde gutxienez ditu, batzutan gehiago, eta honek ere iragarki gutxi ditu orotara. Horietatik batzuk euskaraz dira. Erran behar da egunkari hori frantsesez idatzia dela nagusiki.



AEK-ren izen-emate kanpaina, Dantza Hirian emankizuna (Le JPB)

Iragarkiak zein gizarte-alorrei lotuak diren ohartzea interesgarria da: lehenik eta bereziki euskalgintza eta euskal kultura, gero Hegoaldeko iragarki batzuk, azkenean udalekoak eta enpresa pribatuko gutxi.




Kazeta.info web gune berria, Kontseiluaren «euskal tonbola» (Le JPB)



Aritz Araburu doit maintenant tout donner

Le quinquillier par se déroule prochainement dans les Landes. L'occasion de rencontrer le basque Aritz Araburu, l'un des quatre Européens engagés dans l'élite du surf mondial, le top 43. Il évoque sa saison rendue difficile par les blessures et son désir de se battre jusqu'au bout pour sauver sa place. Cela devra commencer par Hossegor où il entre en lice ce matin et devant de nombreux supporters venus de Zarautz. Page 15





www.batiland.fr

BERECIARTUA MATERIAX
 Ascain : 05 59 85 99 99
 Baigorri : 05 59 37 91 00

MATÉRIAUX DE CONSTRUCTION **BOIS COUVERTURE**
ISOLATION **MENUISERIES** **CARRELAGE**

CAMOU-KIRIBARNE **ETCHEGINTZA MATERIAX**
 Hasparren : 05 59 29 10 57 St-Gladie : 05 59 38 51 41
 Navarrenx : 05 59 66 12 03
 Chéraute : 05 59 28 16 18

Haberrenak zure zerbitzuko!

Seaskaren *Glisseguro* animazioa, *Bâtiland* etxegintza enpresaren iragarki elebiduna.

3.3. IV. inkesta soziolinguistika Ipar Euskal Herrian: Euskararen erabilera merkataritzan eta zerbitzuetan

Zein hizkuntzetan mintzatzen zara? Jendetza osoa

Hiztunak	Euskaraz gutxi gorabehera	Euskaldunak frantsesez	Erdaldunak	Frantsesez orotara
Banketxean	% 11,8	% 19,3	% 68,9	% 88,2
Osasun-zerbitzuan	% 9,6	% 21,2	% 68,9	% 90,1
Udaletxean	% 16,6	% 14,5	% 68,9	% 83,4
Administra-zioan	% 8,6	% 22,5	% 68,9	% 91,4
Saltegietan	% 14,5	% 16,6	% 68,9	% 85,5

Panorama labor honen bukatzeko interesgarria da ikustea Ipar Euskal Herrian 2006ko IV. inkesta soziolinguistikoaren arabera zein diren erdal gunen nagusiak. Beraz, ahozko erabilerari bizitza sozioekonomikoan interesatzen ga-

tzaio. Bere «Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian» txosten gotorrean Erramun Baxokek dio: «gizarte zerbitzuetan euskarak ez du leku handirik salbu herriko etxeetan» (2008: 46)¹.

Banketxeetan frantsesez bakarrik mintzatzen direnak hiztunen % 88,2 dira (% 68,9 erdaldun + % 19,3 euskaldun), osasun-zerbitzuetan % 90,1 dira (% 68,9 erdaldun + % 21,2 euskaldun), udaletxeetan % 83,4 dira (% 68,9 erdaldun + % 14,5 euskaldun) eta administrazioetan % 91,4 (% 68,9 erdaldun + % 22,5 euskaldun). Saltegietan % 85,5 dira frantsesez bakarrik mintzaten direnak (% 68,9 erdaldun + % 16,6 euskaldun).

Halere, familian, etxean, lagunekin, auzokoekin gehiago dira euskaraz gehiago, euskaraz frantsesez bezainbat edo gutiago mintzatzen direnak.

Emitza hoiien balio erlatiboaren ebaluatzeko, jakin behar da euskaldunak % 22,5 direla orotara eta elebidun hartzaileak % 8,6 inkestaren arabera.

4. ONDORIO GISA

Kontsumoan euskararen ibilbide kaotiko eta anekdotikoa aurkeztu dugu pixka bat². Noski horren azterketa sistematikoa egiteko da.

Segur aski ere, Ipar Euskal Herrian kontsumoaren alorrean euskararen alde gehiago egin daitekeela agertzen da. Baina frantsesa erabiliz ere nahitaez, frantsesari osoki emana den Frantziako legeriarengatik.

5. IKONOGRAFIA KRONOLOGIAN

Obin 1884: Escualdun Almanac edo egunari berria

Soc Générale 1884: Escualdun Almanac edo egunari berria

Ameriketako pakebota 1885: Almanaka Berria

Singer 1885: Almanaka Berria

Pharmacie Moderne 1907: Eskualdun Onaren Almanaka

Arnaud Louis 1923: Eskualdunaren Almanaka

¹Euskararen Erakunde Publikoaren hizkuntza politika proiektu berrian kontsumitzaileei eta erabiltzaileei hizkuntzaren eskaintza ez da kontuan hartu (*Hizkuntza politika proiektua «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun»*, 2006ko abendua).

²«Anekdotiko» da A. Urrutia euskaltzainburuak erabili duen adjektiboa hitzaldi honen ondoko eztabaidan.

Belle Jardinière 1923: Eskualdunaren Almanaka³

Crédit Mutuel banketxeko dokumentua 2008

Herria astekaria 2008: Martin Irazoquy tindatzailea

Herria astekaria 2008: Duhalde etxegintza enpresa

Le journal du Pays Basque – Euskal Herriko kazeta egunkaria 2008: 7 iragarki 2008ko udazkena.

ERREFERENTZIAK

BAXOK ERRAMUN, 2008, *Euskera egoera Ipar Euskal Herrian / La situation de la langue en basque au Pays Basque nord*, Euskararen Erakunde Publikoa, polikopiatu elebiduna.

DÍAZ NOCI JAVIER, 1995, Ipar Euskal Herriko almanakak, *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Medios de comunicación 5, Donostia, Eusko Ikaskuntza: 35-38.

EUSKALTZAINDIA – JAGON SAILA, 2007, Gizakiaren eta Herritarren Eskubideei buruzko Adierazpena (1789), 11. artikulua, *Hizkuntza-zuzenbidea Testu-bilduma euskaraz*, Bilbo, Euskaltzaindia: 137.

———, 2007, Toubon legearen 1, 11-I, 21. artikulua (1994), *Hizkuntza-zuzenbidea Testu-bilduma euskaraz*, Bilbo, Euskaltzaindia: 144.

EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO FORU ALDUNDIA, EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2008, *Euskararen Jarraipena IV - Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2006*.

LOI N° 94-665 du 4 août 1994 *relative à l'emploi de la langue française* [1994ko agorrilaren 94/665 zenbakirekiko legea, frantsesaren erabilerari buruzkoa], www.legifrance.gouv.fr/texteconsolide/PCEAW.htm

³Jasone Salaberriak lehen zazpi dokumentu eskaneizatu horiek eman dizkit; Baionako Euskal Erakustokiko liburutegian kontsulta daitezke.

**EAEko KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN
123/2008 DEKRETUA
ZERTARAKOA, ALDEKOAK ETA KONTRAKOAK**

Erramun Osa

Gure herriak herrien artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia.

(K. Mitxelena)

Euskara euskal herritar guztion ondarea da, baina, euskal herritar gutxi batzuen hizkuntza.

(J. Sarrionandia)

Hizkuntza-erkidego batek hizkuntza salbatzeko erabakia hartzen duenean, bidearen erdia eginda dago (...) Jendearen buruak ez ezik, bihotzak ere irabazi behar dira arrakasta lortzeko.

(David Cristal)

Eskaria eta eskaintza kontuan berez arautzen den merkatu «libreaz» dihardute batzuek¹, baita hizkuntza kontuetan ere. Alabaina, hizkuntzen auzia dialektika horren legeetara eraman nahi izateak merkatuan indartsu denaren legea aplikatzeak –darwinismo linguistikoa jaun eta jabe egitea alegia– ezinbestean dakar hizkuntza indartsuenak gailentzeko dinamika areagotzea eta hizkuntza ahulak are bazterrerago uztea; ondorioz, herritarren hizkuntza-aukerak murriztuz, hizkuntza-eskubideak hankapean hartuz eta euskara bezalako hizkuntzak indarberritzeko ateak itxiz.

Gutxiengo batek hitz egiten duen hizkuntza gutxiagotu bat normalizatzen ahalegintzeak inposaketa zantzuak omen ditu. Hizkuntza hegemonikoan –«ko-

¹Hizkuntza kontuetan merkatuaren legeetara makurtzeko gonbit egin eta eskusartzerik gabeko jardunaz ari direnei, besteren artean, gogora ekarri beharko litzaeke nonbait XX. eta XXI. mende hasierako ekonomiaren jardun erreala. Izan ere, ekonomiaren jardunean maila apalagoan edo sakonagoan esku hartze-politikak egon baitira nonahi. Are gehiago, krisi ekonomiko globalaz hitz egiten ari den une honetan gobernu eta nazioarteko erakunde askok merkatu *librean* esku hartzeko erabakiak etengabe ari dira hartzen. Hartuko ez balira egoera are larriagoa izango bailitzateke, bestela. Egungo krisia bera ere ez ote da merkatua *libreegi*, ahalik lasterren dirua irabazi nahiak eragin duen oihanaren legea ezarri izanaren dinamikaren ondorio?

mun» batzuen hitzetan– bateko zein besteko hizkuntzen jabe direnen nahiak baztertuz edota bortxatuz, herritar guztiak halabeharrez jardun dezaten ahalegintzea, berriz, normaltasunaren goiburua ez ezik bizikidetzaren oinarrietako bat omen da. Alta, herritarrok eskubide berdinak ditugularik, batzuen zein besteen eskubideak, hizkuntza-eskubideak barne direla, gauzatzeko moduak, hizkuntzen arteko bizikidetzak gauzatzeko era bilatu eta adostu beharko ditugu denon artean ezin bada, ahalik gehien artean, ezinbestean.

Izan ere, hizkuntzak ez baizik eta herritarrak dira hizkuntza-eskubideen jabe. Horiek horrela, euskaraz jardun nahi duten herritarren eskubideak bermatu behar diren bezala, gisa berean bermatu behar dira gaztelaniaz jardun nahi dutenen hizkuntza-eskubideak ere. Alabaina, egungo bizi-baldintzetan euskaraz jardun nahi duen herritarra da egoera ahulean hizkuntza-eskubideak egikaritzeko zailtasun handienekin topo egiten duena. Izan ere, herritar elebidunez osaturiko euskal gizarte elebiduna eraiki bitartean, ordu arte bederen, defizitak eta ezintasunak izango dira hizkuntza-eskubideen bizikidetzan. Horiek horrela, euskara aktiboki bultzatzea inork ez luke gaztelaniari edo frantsesari bizkarra erakusten dion jokabidetzat hartu behar. Aitzitik, ahulenaren aldeko politikak –hots, berdinkideak diren pertsonen hizkuntza-eskubideak errespetatu daitezkeen urratsak egiteak– herritarren aukera berdintasuna areagotzea dakar, gizarte demokratikoen oinarria den herritarren askatasunean sakonduz.

Gogoeta hauek eta beste hainbat nerabilzkien 123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoa, Eusko Jaurlaritzak onartu eta sortutako zalapartaren inguruabarrean, Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Baionako ekinaldian honi buruz jardun nuen. Orduan emandako hitzaldia ez ezik («Ez inposatu, ez eragotzi, euskara baliatzeko aukerak areagotu»), hilabete gutxi batzuk beranduago, 2008ko azaroan hain zuzen, Euskaltzaindiak burutu zituen XIII. Jagon Jardunaldietan emandako hitzaldia ere («123/2008 Dekretua: zertarakoa, aldekoak eta kontrakoak») oinarri ditu txosten honek.

Artikulu honek ez du aztergai, bistan da, euskarak kontsumoaren arloan eta euskararen lurralde guztietan XIX. mendeaz gerostik izan duen harreman luzea. Besteak beste, euskarak eremu ekonomikoan, kontsumoaren arloan bereziki, mendeetan izan duen sarbidea aztertzea eginkizun dagoelako eta Euskaltzaindiak jorratzen diharduen Euskararen Historia Soziala egitasmoaren aztergaien barruan bete-betean sartzen delako, nire ustez.

Dekretu honen aurrekari ez ez naiz mintzatuko idatzi honetan; izan ere, Dekretu honek ibilbide luzea, zaildua eta malkarra izan du... Eta hala izan izana ere normala da, akaso, 10/1982ko Euskararen Legearen ondoren eremu pribatua horren eragin zabaleko araubiderik ez baita indarrean jarri. Nolanahi ere, horren eragin zabaleko araubidearen nondik norakoez jardun aurretik, garrantzi handikoa da begiratzea euskara zein egoeratan dagoen merkataritzan, ostalaritzan, bezeroekiko harremana duten zerbitzu-enpresetan eta abar luze batean.

Hizkuntza-paisaiaren azterketa eremu pribatuan

2006 eta 2007 urteetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkargu eta gidaritzapean SIADECO enpresak hizkuntza-paisaiaren azterketa zabaldu egin zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu publikoan zein pribatuan; inoiz egin den azterketarik zabalena. Hona hemen ikerketa honen helburuak:

- A. Administrazio publikoaren eraginpeko ekipamenduen hizkuntza-paisaia eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietako hiri-paisaiaren hizkuntza-neurketak egitea eta egoerari buruzko diagnostikoa egitea.
- B. Eremu pribatuko zerbitzu sektoreko hizkuntza-paisaia eta euskararen erabilera-maila aztertzea eta egoerari buruzko diagnostikoa egitea.

Bigarren helburua lortze aldera, bi azterketa desberdin egin ziren: batetik, hizkuntza-paisaia eta euskararen erabilera-maila neurtu ziren hipermerkatuetan eta supermerkatuetan, bankuen sukurtsaletan eta aurrezki kutxetan eta higiezin agentzietan; bestetik, kontsumitzaileekin harreman zuzena duten hainbat sektoretako zerbitzu-enpresen hizkuntza-paisaia eta euskararen erabilera-maila ere neurtu ziren; horretarako ikerketan 182 enpresaren inguruko informazioa jasoz guztira.

Lehenbiziko azterketa egiteko kontuan hartutako unibertsoa EAEn kokaturiko 2.659 establezimendu izan ziren guztira. Horietatik 350 telefono bidez inkestatu ziren, laginean aukeratutako establezimenduaren nagusiari edo arduradunari galdeketa pertsonala eginez. Lagina zehazteko, jarduera-adarra eta establezimendua kokatuta dauden lurralde historikoa hartu ziren kontuan. Bigarren azterketa egiteko, ostera, 182² zerbitzu-enpresa hartu ziren oinarritzat, inkestak telefono bidez eginez oro har, nahiz eta enpresara bertara ere bisitak egin ziren zenbait kasutan.

Euskararen presentzia urria da eremu pribatuan

Burutu zen ikerketaren emaitza nagusiak:

1. EAEn merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako jarduera-adarretako establezimenduak 30.000tik gora dira. Horietatik gehien-gehienak txikizkako merkataritza establezimenduak (%50) eta ostalaritza-ko establezimenduak (%42) dira. Bezeroekiko harremana duten aztertutako zerbitzu-enpresak, aldiz, 182 izan dira, baina aipatzekoa da


²Posta eta komunikazioak, trenbidezko bidaiarien garraioa, errepide bidezko bidaiarien garraioa, aire bidezko bidaiarien garraioa, energia banatzaileak (elektrikoa, gasa, gasolindegia), hipermerkatu eta supermerkatuak, saltoki gune handiak (zentro komertzialak kudeatzen dituzten enpresak), saltoki handiak, finantza erakundeak eta higiezin agentziak.

enpresa horiek 3.000 establezimendutik gora eta 40.000 enplegatutik gora dituztela EAEn.

2. Aztertu diren bi unibertsoen ezaugarri soziolinguistikoei dagokienez (zerbitzu sektoreko establezimenduetan eta bezeroarekin harreman zuzena duten enpresetan), langile elebidunen ehuneko oso antzekoa da (%36 eta %37, hurrenez hurren), eta bat dator EAEko errealitate soziolinguistikoarekin³.
3. Halere, jarduera-adarraren arabera edo lurraldearen arabera alde esanguratsuak daude bai establezimenduetan bai bezeroekin harreman zuzena duten enpresetan ere. Esaterako, banku, aurrezki kutxa eta kreditu kooperatibetako langileen artean, euskara dakitenen ehunekoa (%40) batez bestekoaren gainetik dago; hiper eta supermerkatuetan eta higiezin agentzietan, aldiz, azpitik (%33 eta %23, hurrenez hurren).
4. Lurraldeari dagokionez, euskaraz dakiten langileen ehunekoak bat datoz lurralde bakoitzaren errealitate soziolinguistikoarekin. Izan ere, Gipuzkoako establezimenduetan lanean ari diren elebidunak %55 dira, Bizkaian %28 eta Araban %21.
5. Euskararen ahozko erabilerari dagokionez, txikizkako merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako establezimenduen %70ean ez da inoiz edo ia inoiz euskararik erabiltzen, %14an gaztelania gehiago erabiltzen da eta %8an euskara eta gaztelania maila bertsuan erabiltzen dira. Hortaz, ahozko komunikazioan euskara nagusiki establezimenduen %9an erabiltzen da.


³Langile horien erdia baino gehiago 40 urte baino gutxiago dute eta 16-40 urte bitarteko elebidunen ehunekoa (2006) EAEn %37,5 da (Ikus IV. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA. Eusko Jaurlaritza, 2009).

Euskararen ahozko erabilera txikizkako merkataritzan, ostalaritzan eta hainbat zerbitzu establezimendu edo bulegoetan (%)



6. Bezeroekin harreman zuzena duten zerbitzu-enpresen ia erdiek (%47) ez dute (ia) inoiz euskararik erabiltzen bezeroekin ahozko harremanetan; laurden batek (%28) gaztelania gehiago erabiltzen du; bostetik batek (%19) bi hizkuntzak antzera erabiltzen ditu, eta %5ek gehiago erabiltzen dute euskara. Bezeroekiko harremanetan (ia) beti euskara erabiltzen dutenak %0,5 baino ez dira (enpresen %1,6k ez du daturik eman).


Euskararen ahozko erabilera bezeroarekin harreman zuzena duten zerbitzu-enpresetan (%)



7. Euskararen idatzizko erabilerari dagokionez, txikizkako merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako establezimenduen %56an ez da

inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen; %20an erdietan baino gutxiagotan erabiltzen da, eta %10ean erdietan gutxi gorabehera. Hortaz, idatzizko komunikazioan euskara nagusiki establezimenduen %17an erabiltzen da.


Euskararen idatzizko erabilera txikizkako merkataritzan, ostalaritzan eta hainbat zerbitzu establezimendu edo bulegoetan (%)



8. Euskararen erabilerarik altuena publizitate-euskarrietan izan ohi da (liburuxkak, eskaintzak, prentsa...), 0 eta 10 puntuko eskalan 3,97 punturekin. Euskararen erabilera-maila batez bestekoa (2,43) baino altuagoa da, baita ere, interneteko web orrietan (3,71) eta kanpo- (3,51) eta barne-errotulazioan (3,28). Batez bestekoaren inguruan, liburuxkak eta katalogoak agertzen zaizkigu (2,33), eta batez beste-koaren azpitik kutzako tiketak, fakturak, eskaera orriak eta abar (1,55).
9. Azpimarratzekoa da hiper eta supermerkatuen, finantza-bulegoen eta higiezin agentzien establezimenduen erdian gutxienez euskararen presentzia ziurtatuta dagoela aztertutako idatzizko elementu guztietan. Horrela, hiru establezimendutik bitan kanpo-errotulazioa (%66), barne-errotulazioa (%64), liburuxkak eta katalogoak (%63) eta publizitatea (%62) euskaraz daude. Eta bitik batean web orria (%52) eta kutzako tiketak, fakturak edo eskaera-orriak (%48) ere bai. Beste muturrera jota, establezimenduen %47k ez dute euskararik erabiltzen web orrian eta %46k kutzako tiketetan, fakturretan eta eskaera-orrietan (ordainagiritan edo jakinarazpenetan bankuen eta kutxen kasuan).


10. Bezeroekin harreman zuzena duten zerbitzu-enpresetan euskararen erabilera-mailarik altuena informazioa eta produktuen zein zerbitzuen berri ematen duten makina edo kutxazain automatikoetan ematen da (7,9 puntu). Honen atzetik billeteak (7,2), eta 6 punturen bueltan: txartelak, txekeak, taloiak, megafonia, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek bete beharreko inprimakiak, jendaurreko kartelen edo erro-tuluen bidez ematen den informazio finkoa edo aldi baterakoa, eta telefono publikoetan eta pantaila elektronikoetan ematen den informazioa. Euskararen erabilera-mailarik baxuena, aldiz, fakturak edo erosketa-tiketak, aurrekontuak, gordailu frogagiritan (3,6), salmenta-kontratuak edo zerbitzua emateko kontratuak (3,5). Hau da, bezeroarekiko harreman pertsonalizatuetan erabiltzen diren dokumentuetan (eta beraz kasu bakoitzean landu behar direnetan), eta telefonoen aurkibideetan (3,3) ematen da.

Euskararen erabilerearen batez bestekoa bezeroekin harreman zuzena duten zerbitzu-enpresetan (0–10 eskala)




11. Txikizkako merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzutako establezimendutan elkarriketatuari bere establezimendurako euskararen erabilera zenbaterainoko garrantzia duen galdetuta, %25ek oso garrantzitsutzat jotzen dute, eta %17k nahikoa garrantzitsutzat. Hamarretik seik, aldiz, uste du garrantzi gutxi duela edo ez duela batere garrantzirik (%26). Euskara oso garrantzitsua dela erantzundakoen pisua askoz altuagoa da saltokietan (%40) eta finantza bulegoetan (%35). Oso baxua da, aldiz, higiezinaren agentzian (%10).

Euskararen erabileraren garrantzia txikizkako merkataritzan, ostalaritzan eta hainbat zerbitzu establezimendu edo bulegoetan (%)



12. Bezeroekin harreman zuzena duten zerbitzu-enpreetan, erdia baino gehixeago dira (%53) beren enpresarako euskara erabiltzea oso eta nahikoa garrantzitsua dela adierazten dutenak. Hirutik batentzat (%35) euskarak ez du batere garrantzirik edo bere enpresari begira txikia da garrantzia. Azken horien artean daude aire garraioko enpresak (%75), higiezin agentziak (%57), energia hornikuntzako enpresak (%50) eta saltoki handiak (%50).
13. Inkestatu gehienek uste dute euren establezimenduetan edo enpreetan euskara erabiltzeak abantailak dituela, eta oso gutxi dira desabantailarik dakarrela uste dutenak. Abantailen artean, bezeroarekiko harremana eta eskaintako zerbitzua hobetzen laguntzen duela, bezeroari euskaraz artatua izateko aukera eman eta bere eskariari erantzuten laguntzen zaiola eta komunikazioa erraztu eta hobetzen dela azpimarratu dute. Desabantailen artean, aldiz, langileak prestatu beharra dakarrela, lanean atzerapenak eragiten dituela eta kostu ekonomikoak handitzen direla adierazi dute.

Euskararen erabileraren abantailak eta desabantailak jardueraren arabera (%)



Ondorio nagusiak

- Eremu pribatuan, euskararen erabilera handiagoa da idatziz ahoz baino.
- Halaber, euskararen erabilera, batez ere ahozkoa, oso lotuta dago tokian tokiko errealitate soziolinguistikoarekin. Izan ere, Gipuzkoako egoera Bizkaikoa eta Arabakoa baino hobea da, eta gune euskaldunetako ekipamenduen eta establezimenduen gune erdaldunetakoena baino hobea. Aldeak, esan bezala, batez ere ahozko erabileran aurkitzen dira.
- Jarduera-sektore desberdinen artean ere alde esanguratsuak daude, esate baterako, euskararen erabilera askoz hobea da finantza-erakundetan, higiezin agentzietan baino.

Laburbilduz, euskararen presentzia ahula da oraindik ere arlo sozio-ekonomikoan eta lan munduan, eta herritarrari ezinezkoa zaio hainbat zerbitzuri eta produkturi buruzko informazioa berak aukeratutako hizkuntza ofizialean jasotzea.

123/2008 Dekretuaren zoru juridikoa

Herritarrei eskubideak aitortzea eta aitorturiko eskubideak bermatzea da gizarte aurreratu eta demokratikoen ezaugarri nagusietarikoa. Horiek horre-

la, euskararentzako berarentzako da garrantzitsua, baina batez ere euskal gizartearen hizkuntz bizikidetzarako da oso garrantzitsua dekretua.

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei buruzko dekretuaren zoru juridikoa⁴ hiru osagaik eratu dute, batez ere; hona hemen:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko 1979ko Autonomia Estatutua (6.1, 6.2 eta 9.2 xedapenak, bereziki). Autonomi Estatutuak dio: bermatu egin behar dela euskararen erabilera euskal gizartean, eta herri-aginteei ezartzen die horretarako beharrezko diren neurriak hartzeko obligazioa.
- b) Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legea (5., 11.⁵, 26.⁶ eta 27. artikulua, batez ere). Euskararen Legeak dio: gizarte-bizitzan oro har, baita merkataritza arloan ere, euskararen erabilera bultzatzeko neurri egokiak hartu beharko dituztela herri-agintek, eta era guztietako merkataritza-entitateetako errotulazio eta paisaian euskararen erabilera bultzatuko dutela.
- c) Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legea. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legeak kapitulu oso bat dauka (VII) hizkuntza-eskubideei buruz, eta bertan ezarrita dagoenez, Euskadiko herritarrek eskubidea dute zerbitzu eta produktuei buruzko informazioa bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eta Euskadiko lurraldean ari diren enpresa eta saltokiekin nahi duten hizkuntza ofizialean jarduteko. Eskubide horien zehaztapena eta eskubide horiek baliatzeko arauak dekretu baten bidez emango direla ezartzen du lege horrek, eta, gainera, legeak dio, arlo guztietan batera ez, ezta ere arlo guztietan goizetik gauera, baizik eta modu progresiboan, pixkanaka alegia, bermatu behar direla hizkuntza-eskubide horiek dekretu baten bidez.

Beraz:

1. Legea betetzea dagokie herritar guztiei, baina legea betetzea bereziki da herri-aginteen obligazioa. Legearen arabera, bi dira Euskadiko hizkuntza ofizialak, gaztelania eta euskara. Legeek hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkiete herritarrei, hizkuntza-eskubideak aitortzen

⁴Hemen jaso diren Autonomi Estatuturen 6., Euskararen Legearen 5. eta 12. artikulua, 88/2009DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioari buruzkoa, onartzeko ere ezinbesteko abiaburuak gertatu ziren. Azken dekretu hau ere garrantzi handikoa da gure araubide juridikoan, Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Legearen 12.1 –Estatuak errekurritu ostean, Konstituzio Auzitegiak indarrrik gabe utzi zuena– xedapena beste era batera garatzea ahalbidetu baitu hogeita zazpi urte beranduago.

⁵11. artikulua dio: «Euskal herritik abiatzen diren garraio publikoko zerbitzu guztietan inprimakiak, iragarkiak eta herritarrentzako mezuak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira».

⁶26. artikulua dio: «Euskal herri-agintek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduerara guztiak euskara garatu ahal izan ditzaten.»

tzen dizkiete kontsumitzaile eta erabiltzaile diren neurrian ere, eta herri-aginteei dagokie hizkuntza-eskubide horiek bermatzea, errespetatzea eta errespetaraztea. Horretara dator, beraz, dekretua. Dekretu hau ez dator inori segimendu linguistikoa egitera, baizik eta herritar kontsumitzaileei eta erabiltzaileei hizkuntza-eskubideak errespetatzeko asmoz onartu eta jarri da indarrean.

2. Testuinguru horretan, dekretuaren kontra azaldu diren batzuek legea ez betetzea eskatzen jardun dute lehenik eta dekretua bera indargabetzen ahalegindu dira ondoren⁷. Jarrera hau harritzekoa da oso. Izan ere, Espainiako erakundeek eta Europako Batasunekoek arau asko dituzte hartuta aspaldiko urteetan kontsumoaren arloan gaztelania eta Europako hizkuntza ofizialen erabilera segurtatzeko, baina euskal erakundeek kasuan lehen aldia izan da. Beraz, gainerako hizkuntzen erabilera, gaztelaniaren erabilera bereziki, segurtatzeko ez dago arazorik; euskarari, euskaraz jardun nahi dutenei, aldiz, trabak jarri nahi zaizkie antza denez.

123/2008 Dekretuaren oinarritzko habeak

Dekretuaren zutabe nagusiak laburbiltzekotan, honelaxe egingo genuke:

1. 123/2008 Dekretuak ez du euskararen erabilera inposatzen, ezta gutxiagorik ere, baina ezin da euskararen erabilera eragotzi ere, eta horixe egiten da euskara erabiltzeko aukera eskaintzen ez den bakoitzean. Ez nago euskararen erabilera inposatzearen alde, horren kontra egongo nintzateke. Era berean nago gaztelaniaren erabilera inposatzearen kontra. Biak dira hizkuntza ofizialak, biak dira hemengoak, biak erabiltzeko aukerak eman behar dira. Alabaina, egun, erabiltzeko zailtasun handienak dituen, traba eta eragozpen ugarien dituen, ezbairik gabe, euskaraz zerbitzuak-eta eskuratu nahi dituen herritarra da.
2. Beraz, 123/2008 Dekretuak Kontsumitzaileari ahozko zein idatzizko informazioa bi hizkuntza ofizialetan emango zaiola bermatu nahi du. Halaber, euskararen erabilera hedatzeko eta areagotzeko asmoz, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ematen zaien informazioaren hizkuntz kalitatea⁸ zaindu egin behar dela ere azpimarratzen da. Izan ere, eus-

⁷Horretarako bi bide erabili dituzte; batetik, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legearen VII. Kapitulua (hizkuntza-eskubideei buruzko atala) ezabatze asmoz, aintzat hartzeko litzatekeen proposamena Eusko Legebiltzarrean aurkeztuz (PSE-EE eta PP alderdien babes jaso zuena); bestetik, aurrekoak aurrera egin ez zuenean, loteslea ez den beste proposamen bat PPK aurkeztuz. Azken honek ere ez zuen aurrera egin.

⁸Kezka bera azpimarratu da XXI. mende hasierako hizkuntza politikari buruzko gizarte-etzabaida burutu denean ere, eta, horregatik, etzabaida prozesuaren ondoren kaleratu den *Itun Berritu Baterantz* dokumentuak, aurrera begirako lehentasunak proposatzen dituen, besteak

kararen indarberritze kontuetan ezer gutxi aurreratuko dugu baliatzen den euskara erabiltzailearentzako urruna, ulertezina gertatzen bada, halakorik gertatzen bada, erabiltzaileak bizkar emango baitio euskarari, eta horrek euskara eremu zail horretan erabili dadin baldintzatuko du sustatu orde. Horiek horrela, kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat euskarari dagokionez, hurreko erregistroa, ulergarria baliatzea erabakigarria da baldin euskararen erabilera areagotuko bada.

3. Kontsumoaren eta hizkuntza normatibizazioaren arloan kompetentzia duten erakundeekin lankidetzan jardun da 123/2008 Dekretua egiteko orduan; beraz, askotariko esfortzuen emaitza izan da.
4. Progresibotasuna eta malgutasuna. Honakoa da 10/1982 Legeak euskara indarberritzeko asmoz ezarri zuen estrata. Datozen hamarkadetako hizkuntza politikaren gakoa, aurreratzeko ezinbesteko giltzarria progresibotasuna izango da. Progresibotasunak bere baitan biltzen ditu herritarren eta askotariko eragileen atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia. Dena ezin da goizetik gauera egin. Nahi izatea ez da aski. Hizkuntza politikak beti aurrera egin behar du, eta, beraz, beti aurrera egiteko ambizioa behar dugu; baina egingarri dena planteatzeko zuhurtasuna eta argitasuna behar dugu. Kontua ez baita helmugara gutxi batzuk iristea, denbora gehiago beharko badugu ere, guztiok edo guztiok ez bada gehien-gehienok iristea baizik. Presarik eza txarra da euskararentzako. Presa gehiegia ere oso txarra da euskararentzako, itogarria delako. Presarik eza eta presa gehiegia, biak dira euskararentzako kaltegarriak, nire ustez. Hiru bidetatik bermatzen dira progresibotasuna eta malgutasuna:
 - a) Enpresa eta saltokien tipologia. Merkataritza-establezimendu txikiak eta enpresa txiki guztiak dekretu honen betebeharretatik kanpora geratzen dira. Euskararen normalizazioan aurrera egiteko estrategikotzat jotzen diren eta kontsumo jarduera burutzerakoan harremana herritar askorekin duten enpresa eta establezimenduak geratzen dira dekretuaren eraginpean.
 - b) Enpresa eta establezimenduen kokaguneko errealitate soziolinguistikoa.
 - c) Dekretuko betebeharrak betetzeko epe desberdinak ematen dira, urtebetetik (erakunde publikoak, zerbitzua edo produktuak zuzenbide pribatuko araubidearen arabera ematen dituztenean urte bat,

beste, «Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea» eta «Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunaren eta adierazkortasunaren igoeraz» (azpimarra nirea da) proposatzen du. Testuinguru horretan, hizkuntza-erregistro egokirako zerbitzuen antolaketa makulu egokia suerta liteke. Halaber, baliatzen den hizkuntza-erregistroaren kalitateari buruzko kezka agertu zuen Euskaltzaindiak, dekretu-zirriborroaren entzunaldian hainbat ekarpen eginez (toponimoen eta exotoponimoen erabilera, eta abar.) Gehien-gehienak onartu egin ziren.

gainerakoen kasuan, ostera, lau urte arteko denbora-tartea eskakizunaren arabera) lau urtera bitarteko epeak, betebeharraren eta enpresa-motaren arabera.

5. Hizkuntz Konpromisoaren Zigilua⁹ (19. artikulua) jarri da enpresa eta saltokien esku. Honen bidez lehia sustatu nahi da, euskara arazo bihurtu ordez negoziarako aukerekin lotuz. Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zenbat eta zerbitzu hobea eskaini, baita hizkuntza aldagaiak kontuan hartuz ere, orduan eta enpresa edota saltoki hori lehiakorrago izanen da, zerbitzu are hobea eskainiz eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak erakarri. Zigiluaren presentzia zabaltzea da etorkizun hurbileko erronketako bat. Izan ere, zigilua eskuratu nahi dutenek haien borondatez hainbat eskakizun betetzeaz gain, herritarren bistan jarriko dute zigilua, enpresa eta establezimendu horietan euskararen erabilera sustatuz.
6. Era askotako laguntzak, nahiz dirulaguntzak (2008 eta 2009 urte bakoitzean 600.000 €) zein bestelakoak, emango dira dekretuan jasotako eginbeharrak betetzen laguntzeko. Bestelako laguntzei dagokionez, esate baterako, eremu honetan euskara indarberritzeko euskararen corpusak behar duen eguneratzea da lehentasunen artean lehentasun. Honi dagokionez, Euskararen Aholku Batzordeko Terminologiako Batzorde-atal bereziak 21 hiztegi terminologiko hobetsi berri ditu. Hauen datik gehien-gehienak eremu sozio-ekonomikoarekin dute zerikusia.

123/2008 Dekretuak ezartzen dituen eskakizunak

1. Idatzizko informazioa ematerakoan, euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira:
 - a) Seinaleztapen guztia.
 - b) Errotuluak eta kartelak.
 - c) Inprimakiak eta katalogoak.
 - d) Kontratuak eta baldintza orokorraren agiriak.
 - e) Komunikazioak eta jakinarazpenak nola baita fakturak, aurrekontuak, eta abar.
2. Ahozko informazioa eta publikoari zuzeneko arreta eskaintzerakoan:
 - a) Megafonia bidezko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko da.

⁹Zigilua 123/2008 Dekretuaren eraginaren pean dauden enpresa edo establezimenduentzat nola baita Dekretuaren eraginaren pean egon gabe kontsumitzaileekin edo erabiltzaileekin harremana duten bestelako enpresa eta establezimenduentzat ere bada.

- b) Ahozko informazioa eta aholkularitza euskaraz eta gaztelaniaz emateko gai izan beharko dute enpresa eta establezimenduek.
- c) Ahozko informazioa esaten denean, bitarteko telefoniko eta elektronikoen bidez (internet bidez, esate baterako) ematen den informazioa ere esan nahi da.

123/2008 Dekretuak eragin zabala du

Ondorengo hauek¹⁰ dira dekretuan jasotako arauak bete beharko dituztenak:

1. Erakunde publikoak, zerbitzua edo produktuak zuzenbide pribatuko araubidearen arabera ematen dituztenean.
2. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoria batekoak diren zerbitzuak egiten dituzten erakunde edo pertsona juridikoak, esate baterako:
 - a) Komunikazio-sareak ustiatzen dituzten komunikazio-operadoreak, zerbitzu unibertsala ematen dutenak, eta jendearentzako telefono-zerbitzuak ematen dituztenak.
 - b) Bidaiarien trenbideko edo errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresak.
 - c) Bidaiarien aire-garraioko zerbitzu erregularrak ematen dituzten enpresak, eta aireportuetan errepide asistentzia zerbitzuak ematen dituztenak.
 - d) Energia elektriko zerbitzua ematen duten banaketa-enpresak.
 - e) Gas naturala merkaturatzen duten enpresak.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden eta jendeari begirako produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimenduek, baldin eta honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:
 - a) 250 langiletik gora¹¹ dituzten enpresetakoak diren establezimenduak izatea, betiere urtean 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena badute, edo haien urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa bada, edo aurreko baldintza horiek betetzen dituen beste enpresaren batek haien kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiagoko partaidetza baldin badu.

¹⁰ Ohar bedi irakurlea zerrendan aipatzen diren gehien-gehienak hizkuntza-paisaiari buruzko azterketan berariaz aztertu zirela.

¹¹ Xedapen hau egiterakoan 2008. urtean Europako Batasunean enpresa ertaina definitzen zuten parametroak baliatu ziren.

- b) Jendeari salmentak egiteko gunearen azalera 400 metrotik gorakoa duten establezimenduak¹² izatea, elebidunen proportzioa % 33¹³ baino handiagoa duten udalerrietan edo Bilbon, Gasteizen edo Donostian kokatuta badaude.
- c) Bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak¹⁴ 15 baino gehiago dituzten establezimenduak izatea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoan jendeari begirako establezimendua duten kreditu-erakundeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten profesional, enpresa edo eraikuntza-obra sustatzaileak.

Dekretuaren baitan dauden enpresa guztiak Euskadin saltoki edo establezimenduren bat dutenak eta hemen jarduten edo operatzen dutenak dira. Jardun esaten dugunean jarduera elektronikoa ere kontuan hartzen da. Beraz, irizpide guzti-guztiak kontuan EAEko eta EAetik kanpoko baina hemen ere zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituzten 5.608 enpresei¹⁵ (EAEko 5.198 eta EAetik kanpoko 410 enpresa, hurrenez hurren) eta 9.094 establezimenduri eragiten die guztira dekretuak.

123/2008 Dekretua egiterakoan gizartearen partaidetza sustatu da

Dekretua egiterakoan, aintzat hartu ziren merkataritza arloko elkarteen iritziak. Guztira, 37 elkarte izan zuen bere ikuspuntua azaltzeko aukera. Ez da, beraz, laborategi batean egindako dekretua: asko hausnartu ondoren, iritzi

¹² Hartarako hurbilpen bat egin zen. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kontsumo ohiturak kontuan hartuz (2008. urtean egindako azterketa baten arabera, esate baterako, Bizkaiko herritarren % 70ek gainazal handietan egin ohi zituen bere ohiko erosketak, joera hori gainerako lurraldeetan ere oso handia da eta areagotzen ari da), xedapen honek EAEn dagoen salmenta-azalerririk eta negozio-bolumenik handiena duten enpresak eta establezimenduak barnebiltzen ditu. Elebidunen % 33tik beherako herrietan azalera hori duten enpresak eta establezimenduak altzari-denda familiarrak dira batez ere.

¹³ 123/2008 Dekretua onartu aurreko entzunaldian, Euskaltzaindiak dekretu-zirriborroan zertorren %50eko indizea %33,33an geratzea proposatu zuen 2007ko irailaren 25ean egindako zuzenketetan. Dekretuaren azken bertsioan, Euskaltzaindiak egindako ekarpen hau (beste batzuekin batera) hobetsi zen.

¹⁴ Ostalaritzan, eta abar, hengo langileen presentzia urria da eta enplegatzaileek zailtasunak dituzte lan horietarako langileak topatzeko. Atzerritar askok ostalaritzan eta antzeko zerbitzuetan dute sarbidea eta ez dakite euskaraz. Horrezaz gain, urtean zehar gorabehera handiak dituzten sektoreak dira, hots, lan-bolumenaren arabera langile gehiago edo gutxiago egon ohi da. Horiek horrela, gutxieneko egonkortasuna eta ezarritakoak betetzeko aukera ahalbidetzen zuten establezimendu eta enpresen alde egin zen aukera. Era berean, Dekretuaren eraginpeko enpresetan eta establezimenduetan oro har hartuta, beste zailtasun bat aipatzea ere komeni da, izan ere euskara ikasteko erraztasunak eskaini arren, taldeak-eta eratzeko zailtasun handiak daude (ratioak, langileen partaidetza eta inplikazioa, eskaintza berezituak eskaini beharra, eta abar).

¹⁵ 2008ko datuak.

asko entzun ondoren, asko elkarrizketatu ondoren onarturiko dekretua da. Eta hala behar du: hizkuntza politika arrakastatsua egingo bada, oinak lurrean eta burua bere lekuan direla, urratsez urrats, gizartearen egoera eta hizkuntza atxikimendua oso aintzakotzat hartuta egingo baita. Gizartearen ahalmen eta borondateen arabera bakarrik onar baititzakegu ezinbestez behar diren deserosotasunak eta ahaleginak hizkuntza indarberritzeko kontuetan. Gizartea¹⁶ da, beraz, aurrerapausoak emateko orduan giltzarria, erabakigarria dena.

Aurrera begira zenbait erronka

1. Eremu sozio-ekonomikoan euskararen presentzia zabaltzea eta euskararen erabilera areagotzea erabakigarria da hizkuntzaren indarberritzea zurkaizteko. Inguruabar honetan, euskara bikaintasunarekin, hizkuntza-kudeaketarekin, kalitatearekin uztartzea ezinbestekoa da. Enpresen eta abarren jarduna, beraz, erantzukizun sozial korporatiboarekin uztartzeko ahalegina egin behar da.
2. Gure araubidean garrantzi handiko urratsa egin da ezbairik gabe. Alta, lege-garapena ez da nahikoa euskara eremu zail honetan (bestelakoetan ere ez, baina eremu honetan are zailagoa da) indarberritzeko. Horretarako, beraz, arian-arian sustapena eta askotariko eragile zein gizabanakoaren atxikimendua areagotzeko bideak jorratu beharko dira aukera berriak baliatzeko nola baita urrats are gehiago eman ahal izateko. Inguruabar horretan, 2003ko Legeak aurreikusitako arbitraia-aren auzia helduleku interesgarria izan liteke hizkuntza-eskubideak urratzen diren kasuak bideratzeko.
3. 1982ko Euskararen Legean eta 2003ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuan hainbat alor daude garatzeko daudenak (besteak beste, etiketaia, eta abar). Horiek horrela, herri-aginteen jardun proaktiboa, askotariko eragileen esku-hartzea eta herritarren partaidetza uztarri berean lotu beharko dira eman diren urratsak baliatu, garatu zein urrats berriak ematen jarraitzeko.
4. Ikuspegi honetan sakonduz, sektore-publikoaren trakzio-indarra ez da inolaz ere gutxietsi behar. Zerbitzuak eman eta kontratatzen dituen EAEko lehenbiziko enpresa-multzoa sektore publikoak osatzen du. Askotariko zerbitzuak kontratatzeko orduan hizkuntza-irizpideak baliatzea eta hizkuntza indarberritze kontuetan eragile suertatzea garrantzi handikoa izango da euskara eremu honetan pauso sendoz normalizatzen joateko.

¹⁶Ikuspegi honetan sakonduz, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-ohiturak ez dira euskararen aldekoak. Ohitura hauek aldatzeko ere ahalegina egin beharko da. Izan ere, ohituretan eragin ezean askiez gertatuko baitira ematen diren urrats guzti-guztiak.

123/2008 Dekretuak zonifikazioa ahalbidetzen omen duelako eta ez-betetzak gertatzekotan zigor-neurririk ez omen duelako aurreikusi kritika zorrotzak egin zaizkio

Dekretuaren eraginaren luze-zabala ikusita nekez egin liteke, ez-jakintza-sunetik edo fede gaiztoz aritzetik ez bada, Nafarroako Foru Erkidegoan indarrean den zonifikazioaren eta 123/2008 Dekretuaren arteko parekidetzea; batetik, Dekretuak hemengo enpresei zein hemen produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten kanpoko enpresei eragiten dielako; bestetik, legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoria batekoak diren zerbitzuak ematen dituzten erakunde edo pertsona juridikoak aintzat hartzen dituelako (Oionen, Karrantzan, Errenterian, Agurainen edo EAEko edozein udalerritan egonagatik ere); azkenik, elebidunen %33 aipu horrek kontsumitzaileengan eta erabiltzaileengan duen eragina oso txikia da, lehenago azaldu dudanez. Hortaz, 123/2008 Dekretuaren eragin-eremuak ez dauka zonifikazioarekin zer ikusirik, arian-arian euskara indarberritzeko urteetan motor bilakatu den progresibotasunarekin baizik, dena ez baitago egun batetik bestera egiterik, dena eta ezerezaren artean non jarduterik baitago bazterretan.

Bigarren kritikak, bestalde, atentzioa deitzen du. Izan ere, Dekretu batek zehapenak jarri ahal izateko Legeak hartarako bidea eman behar baitio. Honi dagokionez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legeak urratze kontuetan ez zuen herritarren hizkuntza-eskubideen urratzea inon jaso (egin ziren orduan ere ahaleginak, baina, puntu honi buruzko eztabaidak gogorrak eta garratzak suertatu ziren Eusko Legebiltzarrean eta, azkenean, ez zen berariaz jaso); horregatik 123/2008 Dekretuari IV. Kapitulu (arau-haustek eta zehapenak) gaineratu zitzaion, 6/2003 Legearen 50.6 (kontsumo arloko bestelako arau-haustek) puntua aipatuz.

Nolanahi ere, eta gure errealitatera etorritz, euskararen indarberritze kontuetan nik ez dut zehapenetan sinesten. Askoz gehiago sinesten dut pertsuasioaren eta konbikzioaren indarrean, zehapenaren indarrean baino, euskara indarberritzeko helduleku are sendagoak direla begitantzen baitzaizkit. Euskal gizarteak eta hemen diharduten enpresetako eta establezimenduetako gizon-emakumeek hala nahi duten eta ahal duten neurrian bermatuko dira bene-benetan kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak. Horrexegatik, hau guztion egitekoa delako, Dekretuak ezarritako betebeharrak betetzerakoan guztiok bidelagun eduki behar gaituzte enpresek eta establezimenduek. Eskakizunetara egokitzen joateko nahikoa denbora¹⁷ eskainiz. Honetan datza, nire uste apalean, 123/2008 Dekretuak ireki duen bidea pauso eragingarri edo ahalegin kamutsa bilakatzea.

¹⁷ Arauak betetzeko epeak desberdinak dira eskakizunen arabera eta sektore batetik bestera: bi urteko epea ematen zaie batzuei (erakunde pribatuen kasuan, publikoen kasuan, urtebetekoa baita, lehenago adierazi dudana legez), hiru eta lau urtekoa beste batzuei (eskakizun orokoragoak izanik betetzeko denbora luzeagoa –urrez aurreko atentzioa euskaraz ere eskaini ahal izateko langileen prestakuntza ahalbidetzeko, esate baterako– behar dituztenei).

Azken gogoetak: batzuentzat gehiegizko eskusartzea dena, beste batzuentzat, aldiz, eskasa da

Batzuentzat gutxiegia eta eskasa izango da dekretu hau¹⁸. Konbentziturik nago, ordea, hizkuntza politikak honetan ere neurrikoa, errealista, malgua eta pragmatikoa izan behar duela. Urratsez urrats, pausoz pauso bakarrik egin dezakegula aurrera, hain zuzen. Euskara indarberritzeko ahaleginean, komeni da albo batera uztea gizarteak onartu eta bere egin dezakeenetik urrutirago joaten saiatzea. Boluntarismoak politikak izan ohi dira paperean, baina hutsalak praktikan. Aurrerapauso kualitatiboa da dekretu hau, neurriko aurrerapausoa.

Eta batzuentzat dena gutxi den bezala, beste muturrean beste batzuentzat dena da asko eta gehiegi euskara kontuetan. Horiei esango nieke egin nahi izan den gauza bakarra kontsumitzaileei aitortutako hizkuntza-eskubideak, euskara eta gaztelania erabiltzeko hizkuntza-eskubideak, bermatzea izan dela. Eta hori ere pixkanaka, modu progresiboan eta laguntza emanez/eskainiz egin nahi izan dela. Beraz, ez dezatela euskara baztertu, ez ditzatela herritarren hizkuntza-eskubideak zapuztu, errespetatu baizik. Bizikidetzaren eta gizarte-kohesioaren mesedetan gertatuko baita hori.

EAEn bi hizkuntza ditugu ofizialak, herritarrek biak nonahi, nolanahi eta noiznahi erabiltzeko eskubidea dute, herritar guzti-guztiek betebeharrak ez ezik parekideak diren eskubideen jabe ere badira. Ez dezagun ez herritarrik ez eta hark darabilen ezein hizkuntzarik, beraz, bazterrean utzi.

¹⁸ 123/2008 Dekretuak Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legearen zenbait xedapen ez ditu garatu (etiketaia, produktuen azalpen-orriak, eta abar). Dekretu baten bidez Lege batek eskaintzen dituen aukera guzti-guztiak garatu nahi izatea ameskeria begitantzen zait. Honi dagokionez, 6/2003 Legeak garatzeko aukera ugari dituela aipatzea komeni da, beraz, 123/2008 Dekretuak 6/2003 Legeak irekitzen dituen aukerak ez dituela agortu azpimarratzea eta kontuan hartzea komeni da. Horiek horrela, aurrerantzean, beste jardun-eremu batzuetan araubidea garatzeko urratsak ere egin beharko dira.

**KONTSUMOAREN ARAUBIDE LINGUISTIKO BERRIA,
ZUZENBIDEAREN IKUSPUNTUTIK:
123/2008 DEKRETUAREN NONDIK NORAKOAK**

Andres Urrutia

0. OHAR METODOLOGIKOA

0.1. Azalpenaren mugak

Eginkizun egon da luzaroan, euskararen esparruan, kontsumoaren inguruko araubidea. Egun, ordea, badago, antolamendu juridikoaren barruan, horretarako lehen pausoak ematen dituen testua. Horixe da, hain justu ere, 123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa (aurrerantzean, KEHED).

Egia esan, bazterrak harrotu ditu horrek, prentsan agerturikoari kasu egin behar badiogu. Ugari, erruz aldarrikatu da dekretu horrek urratu egiten dituela hainbaten eskubide linguistikoak, euskara ez jakitea merkataritzan aritzeko oztopo izango balitz bezala.

Hala eta guztiz ere, arlo sozioekonomiko horretan, berebiziko ahaleginak egin dira euskararen esparruan, betiere sustatze-lana oinarri hartuta, eta konbenzimendua eta mailaz mailakotasuna printzipio nagusi moduan ezarrita.

Hartara, KEHED aztertzean, ikuspegi juridikoa aukeratu dugu, bestelakoak, alegia, soziolinguistikoa, historikoa eta abarrekoak beste batzuek jorratuko dituztelakoan, Euskaltzaindiak KEHED-ren inguruan antolatu dituen jardunaldi hauetan.

Izan bedi, beraz, gure ikerketaren argigarri lehen baieztapen hori, gero garrenean etorriko baita dekretuaren edukia xehe-xehe azaltzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren antolamendu juridikoan horrek duen edo izan dezakeen zeresana girotzeko.

Esanaren ondorioz, bi muga nagusi izango ditu gure azalpen honek. Lehenengo mugaren ondorioz, azalpena dekretu zehatz bati dagokio, ez, ordea, arlo soziolinguistikoan edo beren-beregi kontsumitzaileen arloan euskarak izan dezakeen araubide linguistiko beteenari. Bigarren mugak, aldiz, beste puntu batera garamatza, Euskal Autonomia Erkidegora mugatuko baita azalpena, Euskal Herrian diren beste herrialdeak ukitu gabe, horiei buruzko xehetasunak beste batzuek emango dituztelakoan jardunaldi hauetan.

0.2. Kontsumoa eta hizkuntzaren gobernamentua (gouvernance linguistique)

Appliquée à la sociolinguistique et plus particulièrement à la politique linguistique, cette notion recouvrirait l'ensemble des décisions légales et gouvernementales émanant d'une autorité officielle ou d'une puissance juridique et qui ont trait à la gestion des langues, depuis l'interdiction de leur usage et de leur apprentissage jusqu'à leur normalisation et leur normativisation, en passant par tous les degrés de reconnaissance ou de tolérance et en tenant compte aussi des mesures prises ou non en faveur de leur développement, de leur enseignement et de leur divulgation... Dépourvue dépossédée de gouvernance propre, une langue peut aussi subir les répercussions de la gouvernance d'une autre langue, souvent voisine ou proche, dont elle devient alors collatérale (REYNÉS (koord.): Exist-t-il une gouvernance linguistique? Indigo. Paris, 2008. 8. or.)

Aipamen luzea da hori. Luzeegia, beharbada. Ez, ordea, alferrekoa, bertara biltzen baita mundu oso bat, hizkuntzaren gobernantzari dagokiona, hain zuzen ere.

Hor dira, berbarako, gobernu eta gizarte zibilaren partaideak, hizkuntzari dagokionez. Hortxe ere, hizkuntzaren normalizazioa eta normatibizazioa; hizkuntzaren garatze-bideak, irakaskuntza, gizarteratze-prozesua; eta, esan dezagun argi eta garbi, hizkuntzaren aldeko eta haren aurkako jarrerak.

Hitz gutxitan esateko, hizkuntzaren mundu beregaina, beraren baitan behar dituen, besteak beste, kontsumoa eta erabilera, horiek baitira, gizarte modernoetan, saldoka egiten diren gertaerak, egunerokotasunean ondo finkatuak.

Horri ekitea izan du helburu dekretu honek. Horri ekitea begirune osoz, sustatze- eta babeste-lana bultzatuz, eta gobernutik kanpo kontsumoaren saillean ari diren bestelako erakunde nahiz elkarteak aintzat hartuta, gure artean berri diren kontzeptuetatik hainbat (hizkuntzaren kalitatea, adibidez) lehendabizikoz formulatuz.

Ildo horretatik, euskararen gobernantzan beste pauso bat eman da, zuzenbide pribatuaren arloan botere publikoen parte-hartzea gauzatuz, euskararen araubidea osatzeko tenorean.

1. KEHED-ren OINARRI JURIDIKOAK

Zerrenda luzea egin daiteke horren inguruan. Bil ditzagun, alabaina, testurik nabarietak:

1.1. Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua

1. *Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.*
2. *Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritz.*
3. *Espainiako hizkuntza-modalitate desberdinen aberastasuna kultura-ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.*

1.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatuaren 6. artikulua

1. *Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.*
2. *Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.*
3. *Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.*
4. *Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emaile.*
5. *Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek daudeneko Estatuarekin itunak eta komenioak egin ditzala –edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko–, horretara euskara zaindu eta bultzatzea.*

1.3. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea

(Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 160. zk., 1982ko abenduaren 16koa)

1.4. 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena, eta, zehatzago, lege horren 37.etik 42.erako artikulua

(Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 254. zk., 2003ko abenduaren 30ekoa):

37. artikulua.–Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak

Kapitulu honetan ezarritakoarekin eta bertan biltzen diren progresibotasun-baldintzekin bat etorrituz, kontsumitzaile eta erabiltzaileek honako hizkuntza-eskubideak dituzte:

- a) *Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzekoa, lege honetako 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.*
- b) *Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzekoa; enpresa eta establezimendu hauek, bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia eman beharko diete.*

38. artikulua.–Erakunde publikoak

1. *Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honakoak izango dira erakunde publikoak:*
 - a) *Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta Estatuko Administrazioa, eta baita horien mende dauden edo horietako erakunde-administrazioa osatzen duten zuzenbide pribatu edo publikoko entitateak ere.*
 - b) *Titulartzat aurreko idatz-zatian aipatutako administrazioak dituzten zerbitzuak kudeatzea arduratzen diren edozein izararatako erakundeak, baldin eta horiek mota honetako zerbitzuak eskaintzen diharduten.*
 - c) *Batik bat a) idatz-zatian aipatutako administrazio eta erakundeen partaidetza duten edo horien kontrolpeko erakundeak, hauen izaera edozein dela ere. Ondorio hauetarako, kontrol-harremana honako kasuetan dagoela ulertuko da: erakundearen boto-eskubide gehienak dituztenean edo gobernu-organoko kide gehienak izendatu edo kargutik kentzeko eskubidea dutenean.*
2. *Erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute. Hau guztia honela egingo da:*

- a) *Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuko establezimenduetan, errotuluak, oharrak eta, oro har, jendeari zuzendutako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira.*
 - b) *Kontsumitzaile eta erabiltzaileek betetzeko egiten diren inprimaki edo eredu ofizialak bi hizkuntzatan emango dira.*
 - c) *Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak berak hizkuntza ofizialetako bakarra erabiltzea nahi duela adierazi ezean, bi hizkuntzatan idatziko dira atxikipen-kontratuak, klausula-ereduak dituzten kontratuak, araupeko kontratuak, baldintza orokorrak eta kontratu horiei buruzko edo horiek egitearen ondoriozko agiriak.*
 - d) *Zehazki kontsumitzaileei zuzendutako jakinarazpenak bi hizkuntzatan eman beharko dira, eta baita fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak berak bi hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzea aukeratu ezean.*
 - e) *Bi hizkuntzatan idatziko dira, halaber, produktu eta zerbitzuak erabili eta mantentzeko jarraibideen liburuxkak, berme-agiriak eta etiketetan eta ontzietan adierazi beharrekoak.*
 - f) *Kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako produktu, ondusun eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea, erabiltako euskarria edozein dela ere, bi hizkuntzatan egingo da.*
3. *Erakunde publikoekin dituzten harremanetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileek arreta eurak hautatzen duten hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea dute. Herri-administrazioei dagokienez, Euskararen Erabilpena Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 6. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, Jaurlaritzak egoki ikusten dituen neurriak hartuko ditu eta eskubide hori erabiltzen dela arian-arian bermatzeko beharrezko bitartekoak jarriko dira eskura.*
 4. *Estatuko Administrazioari aplikatzen zaizkion lege honetako xedapenek ez diote kalterik egingo Estatuaren eskumenari bere zerbitzuak antolatu behar dituenean.*

39. artikulua.—Diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorreko sektoreak

1. *Lege honen ondorioetarako, honakoak izango dira diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorreko sektoreak:*
 - a) *Legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo beste kategoria batekoak diren zerbitzuak egiten dituzten erakunde edo pertsona*

juridikoak, edo unibertsaltasun eta berdintasuneko araubide juridikoaren pean dauden zerbitzuak ematen dituztenak, hala nola garraioak, telekomunikazioak eta energia-zerbitzuak.

- b) *Euskal herri-administrazioek ematen dituzten laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak diren erakunde edo pertsona juridikoak, edo horietako edozeinekin lankidetz-a-hitzarmena sinatu dutenak. Kasu honetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei dagokien bermeak diru-laguntza edo hitzarmenaren xedearekin erlazionatutako harremanen eremua ere hartuko du.*
2. *Erakunde hauek, publikoak direnean izan ezik, lege honetako 38. artikuluko 2. paragrafoan, a), b) c) eta d) idatz-zatietan, ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte. Erregelamendu bidez finkatuko da horiek arian-arian nola bete.*

40. artikulua.–Bezeroarentzako arreta

1. *Jendeari produktuak saldu eta zerbitzuak egiteaz arduratzen diren establezimenduek lege honetako 38. artikuluko 2. paragrafoan, a), b) eta c) idatz-zatietan, ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte. Era berean, kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta emateko gertu egon behar dute, horien hizkuntza ofiziala edozein dela ere.*
2. *Aurreko paragrafoan adierazitako betebeharrez gain, indarreko legeriak establezimendu komertzial handi gisa kalifikatzen diren establezimenduek, baita jendeari ondasun eta produktuak eskaintzen dizkioten eta, hala ez diren arren, erakunde handi gisa kalifikatzen diren establezimenduek ere, 38. artikuluko 2. paragrafoan, d) idatz-zatian, jasotako betebeharra ere bete beharko dute. Erregelamenduz finkatuko dira erakunde handi kontsideratzeko betekizunak, alegia, negozio-bolumenari, langile-kopuruari eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoan duten presentziari dagozkienak.*
3. *Erakunde publikoei atxikita eta jendearentzat irekita dauden establezimenduei lege honetako 38. artikuluan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie.*
4. *Diruz lagundutako erakundeei eta interes orokorreko sektoreei dagozkien eta jendearentzat irekita dauden establezimenduek, 39. artikuluan bildutako betebeharrak betetzeaz gain, kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta emateko moduan egon beharko dute, horiek darabilten hizkuntza ofiziala edozein dela ere.*
5. *Jaurlaritzak erregelamendu bidez finkatuko du artikuluko honetako betebeharrak arian-arian nola bete.*

41. artikulua.—*Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa emateko hizkuntza*

1. *Kapitulu honetan berariazko araubiderik eskatu ezean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan ondasun eta zerbitzuen inguruan kontsumitzaile eta erabiltzaileei banatzen zaien informazioa, etiketa, ontzi eta jarraibide-inprimaketakoa barne, euskaraz nahiz gaztelaniaz eman ahal izango da, betiere osasuna eta segurtasuna babesteko asmoz aplikatzen den legeriak ezar dezakeenari kalterik egin gabe.*
2. *Jaurlaritzak 1. paragrafoak aipatzen duen ondasun eta produktuei buruzko informazioan euskara erabil dadin sustatuko du.*
Els documents privats, contractuals o no, qualsevol que en sigui la naturalesa, redactats en qualsevol de les dues llengües oficials a Catalunya són vàlids i no requereixen cap traducció per a exigir-ne judicialment o extrajudicialment el compliment en l'àmbit territorial de Catalunya.

Article 15.3 Llei Política Lingüística



Els documents civils i mercantils

Els documents a què es refereix l'article 15.2 s'han de redactar en la llengua oficial que les parts acordin.


Especialment si es tracta de:

- contractes d'adhesió

s'han de redactar en la llengua que escullin els consumidors i han d'estar:

- a disposició immediata dels clients
- en exemplars separats en català i en castellà.

Article 15.5 Llei Política Lingüística



Els documents civils i mercantils

Els xecs, els pagarés, els talonaris i altres documents oferts per les entitats financeres a llurs clients han d'ésser redactats com a mínim:

en català.

LA SENYALITZACIÓ LA CARTELLERIA

Capítol 5 ÀMBIT SOCIOECONÒMIC

Article 32.3 Llei Política Lingüística *Senyalització i documents d'oferta de serveis*

3. La senyalització i els cartells d'informació general de caràcter fix per a les persones usuàries i consumidores dels establiments oberts al públic han d'ésser redactats, almenys, en català.

EXCEPCIÓ: Aquesta norma no s'aplica a:

- marques
- noms comercials

emparats per la legislació de la propietat industrial.

ELS DOCUMENTS D'OFERTA DE SERVEIS

Article 32.3 Llei Política Lingüística *Senyalització i documents d'oferta de serveis*

3. Els documents d'oferta de serveis per a les persones usuàries i consumidores dels establiments oberts al públic han d'ésser redactats, almenys, en català.

EXCEPCIÓ: Aquesta norma no s'aplica a:

- marques
- noms comercials

emparats per la legislació de la propietat industrial.

LES EMPRESES PÚBLIQUES

Article 30 Llei Política Lingüística

Les empreses públiques

- Les empreses públiques de la Generalitat i de les Corporacions Locals,
- les seves empreses concessionàries quan gestionen o exploten el servei concedit,

han d'emprar normalment el català en:

- llurs actuacions
- documentació internes
- en la retolació,
- en les instruccions d'ús, en l'etiquetatge i en l'embalatge dels productes o els serveis que produeixin o ofereixin,
- en les comunicacions i les notificacions,
- les factures i els altres documents de tràfic, adreçades a persones residents en l'àmbit lingüístic català, sens perjudici del dret dels ciutadans a rebre-les en castellà.

LES EMPRESES DE SERVEI PÚBLIC

Article 31 Llei Política Lingüística *Les empreses de servei públic*

Les empreses i les entitats públiques o privades que ofereixen serveis públics, com ara les de:

- transport, (terrestre, marítim o aeri)
- subministraments, (electricitat, aigua, gas)
- comunicacions, (telecomunicacions, telefonia i internet)
- i d'altres,

han d'emprar, almenys, el català en:

- la retolació
- les comunicacions megafòniques.
- les comunicacions i les notificacions escrites adreçades a persones residents a Catalunya
- les factures i els altres documents de tràfic, s'han de fer almenys en català, sens perjudici del dret dels ciutadans a rebre-les en castellà si ho demanen.

L'ATENCIÓ AL PÚBLIC

Article 32.1 Llei Política Lingüística *L'atenció al públic*

1. Les empreses i els establiments dedicats a la venda de productes o a la prestació de serveis que desenvolupen llur activitat a Catalunya han d'estar en condicions de **poder atendre** els consumidors quan s'expressin en **qualsevol** de les llengües oficials a Catalunya.

L'atenció telefònica de les empreses

- Les empreses i establiments que desenvolupen llur activitat a Catalunya han d'estar en condicions de poder atendre els consumidors quan s'expressin en qualsevol de les llengües oficials, entre elles el català, fins i tot quan la comunicació és telefònica.
- La manca d'atenció telefònica en català no constitueix infracció administrativa
- QUEIXA a l'establiment denunciat.



Estatut d'Autonomia de Catalunya 2006

Article 34. Drets lingüístics dels consumidors

Totes les persones tenen dret a ésser ateses oralment i per escrit en la llengua oficial que elegeixin en llur condició d'usuàries o consumidores de béns, productes i servei. Les entitats, les empreses i els establiments oberts al públic a Catalunya estan subjectes al deure de disponibilitat lingüística en els termes que estableixen les lleis.

L'ETIQUETATGE DELS PRODUCTES

Article 34.1 Llei Política Lingüística

La informació a les persones consumidores i usuàries


1. Les dades que figuren en:

- l'etiquetatge
- l'embalatge
- les instruccions d'ús

dels productes que es distribueixen en l'àmbit territorial de Catalunya poden figurar:

- en català,
- o en castellà,
- o en qualsevol altra llengua de la Unió Europea.


L'etiquetatge dels productes



- La Llei deixa absoluta llibertat pel que fa a la llengua de l'etiquetatge, embalatge i instruccions dels productes.
- La Llei no tipifica com a infracció la manca d'etiquetatge en català.
- La normativa específica de la majoria de productes matissa aquest aspecte i fa obligatori que l'etiquetatge consti, almenys, en llengua **espanyola** oficial de l'Estat.
 - RD 1468/1988, pel qual s'aprova el Reglament d'etiquetatge, presentació i publicitat dels productes industrials destinats a la venda directa als consumidors.
 - RD 880/1990, pel qual s'aproven les normes de seguretat de les joguines.
 - RD 1334/1999, pel qual s'aprova la norma general d'etiquetatge, presentació i publicitat dels productes alimentaris.
 - RD 1078/1993, pel qual s'aprova el Reglament de classificació, envasat i etiquetatge de preparats perillosos.
 - RD 928/1987, relatiu a l'etiquetatge de composició dels productes tèxtils.
 - .../...

Article 34.2 Llei Política Lingüística

La informació a les persones consumidores i usuàries



2. Les dades obligatòries i les informacions voluntàries addicionals que figuren en l'etiquetatge de productes catalans que gaudeixen de:
 - denominació d'origen
 - denominació comarcal
 - denominació de qualitat
 - i els productes artesanals

que es distribueixen en l'àmbit territorial de Catalunya han d'ésser necessàriament, com a mínim, en català.

RÈGIM SANCIONADOR DE DISCIPLINA DE MERCAT I CONSUM

Disposició Addicional Cinquena - Llei Política Lingüística *Garanties de compliment*

Aquesta Llei **no** estableix sancions per als ciutadans.
Tanmateix:

- b) L'incompliment dels preceptes dels articles 15, 30, 31 i 32.3 imputable a les empreses i les entitats concernides es considera una negativa injustificada a satisfer les demandes de les persones usuàries i consumidores, a la qual s'ha d'aplicar el règim sancionador que estableix la **Llei 1/1990**, sobre la disciplina del mercat i de defensa dels consumidors i dels usuaris (article 4 f).

Règim Sancionador de Consum: Regulació

- L'article **15** regula la llengua en:
 - els documents civils i mercantils
 - els contractes d'adhesió.

- L'article **30** regula l'ús de la llengua a:
 - les empreses públiques.


- L'article **31** regula l'ús de la llengua a:
 - les empreses de servei públic.

- L'article **32.3** regula:
 - la senyalització i els cartells d'informació.
 - els documents d'oferta.

Règim Sancionador de Consum: Exclusions

- Resten fora de l'àmbit de tipificació de la Llei 1/1998:
 - ✓ Article 32.1 de la Llei: l'Atenció al públic


 - ✓ Article 34.1 de la Llei: l'Etiquetatge dels productes




Article 29 Estatut del Consumidor *Infraccions*

Es consideren infraccions en matèria de defensa dels consumidors:

- f) Vulnerar els drets lingüístics que són reconeguts per aquesta Llei als consumidors o impedir-ne l'exercici.




Procediment de gestió de denúncies



agència catalana del consum

Accions de foment en matèria de drets lingüístics de la Generalitat de Catalunya



Accions de foment

Atenció i assessorament al ciutadà en matèria de drets lingüístics.

Assessorament i recursos a empreses en general i específicament a empreses objecte de queixa.

Elaboració i difusió de materials de bones pràctiques lingüístiques per a empreses.

Subvencions a associacions en defensa de la llengua.

Col·laboració amb organismes semipúblics.



Accions de foment específiques de l'ACC

Xerrades divulgatives per als comerciants.

Foment de l'etiquetatge en català.

Elaboració i edició d'un Codi de bones pràctiques a l'empresa en l'ús del català en els productes i serveis al client o consumidor.

Establiment d'un eix específic sobre drets lingüístics en el "Acord amb el món empresarial per la millora dels drets consumidors".

Suport a les associacions en defensa dels drets lingüístics dels consumidors.



Eskerrik asko!

Agència Catalana del Consum

Diagonal 405 bis

08008 Barcelona

93 551 65 75

director_acc@gencat.cat

www.consum.cat

XIII. JAGON JARDUNADIAK: EUSKARA, KONTSUMOA ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEAK. ONDORIOAK

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatzea gizartearen bizikidetzara eta kohesioa areagotzeko ekarpen bat da. Gizarte bizitzan euskara indarberritzeko ahaleginetan egindako urrats berri bat da.

Euskaltzaindiari dagokio, besteak beste, hizkuntza lantzea eta arautzea, euskara are noranahikoagoa bilakatu eta haren erabilera indartzen joan dadin. Inguruabar horretan, kontsumo arloan hizkuntza baten erabilera kuantitatiboa eta kualitatiboa da haren bizi-indarraren adierazle erabakigarrienetako bat. Horiek horrela, euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak aztergai izan ditu Euskaltzaindiak XIII. Jagon Jardunaldietan.

Badira, euskararen lurralde lur eremu zabalean, eskaria eta eskaintza kontuan berez arautzen den merkatu *librea*z dihardutenak, baita hizkuntza kontuetan ere. Alabaina, hizkuntzen auzia dialektika horren legetara eraman nahi izateak merkatuan indartsu denaren legea aplikatzea, liberalismo linguistikoa jaun eta jabe egitea alegia, hizkuntza indartsuenak gailentzeko dinamika areagotzea eta hizkuntza ahulak are bazterrerago uztea dakar ezinbestean, ondorioz, herritarren hizkuntza-aukerak murriztuz eta hizkuntza-eskubideak hankapean hartuz, euskara bezalako hizkuntzak indarberritzeko atak itxiz.

Euskara aktiboki bultzatzea inork ez luke gaztelaniari edo frantsesari bizkarra erakusten dion jokabidetzat hartu behar. Aitzitik, ahulenaren aldeko politikak, berdinkideak diren pertsonen hizkuntza-eskubideak errespetatu daitezkeen urratsak egitea, herritarren aukera berdintasuna areagotzea dakar, gizarte demokratikoen oinarria den herritarren askatasunean sakonduz. Alabaina, hizkuntza aukera berdintasuna ezin da egun batetik bestera erdietsi.

Erabilera da hizkuntza baten bizi-indarraren termometrorik behinena. Euskarak aurrerapen handia egin du irakaskuntzan, administrazio publikoan, hedabideetan eta kultur gintzan. Alabaina, euskara indartsu da bizitza sozio-ekonomikoan sartzen den neurrian, lan munduan, saltegietan, zerbitzu zentroetan, eta abar, hots, ekoizpen eta kontsumo guneetan. Esan dezakegu kontsumoa hizkuntza politikaren bide-gurutzean dela: eguneroko erabileraren alorra baita, bizitza osoa hartzen duen eremua.

Kontsumoak ekoizpena baldintzatzen du, adibidez publizitatea. Gauza nabariago da zerbitzuetan. Kontsumoak baldintzatzen du neurri handi batean hizkuntza-paisaia. Hor ditugu begien aitzinean enpresen izenak, produktuen etiketak, zerbitzuei buruzko argibideak eta kontsumoa bideratzen duen publizitatea. Euskarari ematen zaion tokiaren arabera euskaltasuna dugu, beraz, kontsumoa dela bitarte, agerian. Horregatik, eremu honetan egin diren ahaleginak ez dira gaurkoak, izan ere, XIX. eta XX. mendeetan, bezeroak eta erabiltzaileak erakartzeko eta haien apetak asebetetzeko ez ezik euskara indarberritzeko ere ahalegin ugari ziren. Horiek ere aztergai izan dira XIII. Jagon Jardunaldietan, eremu administratibo bakoitzean gertatu den bilakaera aztertuz eta egungo errealitateari buruzko iruzkinak eginez. Era berean, Catalunyaoko oinarritzko habe juridikoen eta egindako ibilbidearen berri zehatza ere eman da.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailean onartutako 123/2008 Dekretua, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoa aztergai izan da. Dekretuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, izan dituen aldeko eta kontrako iritziak ere aipatu dira, besteak beste, zenbait jardun-eremutan duen eragina berariaz aztertuz. Nolanahi ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen garrantzi handiko urrats berri bat egin dela ezin uka daiteke, gure ustez, gizarte baldintzek, herritarren atxikimenduak bereziki, aukera berriak ahalbidetu ahala, bestelako urratsetarako aukerak eskaintzen dituen urratsa, ezbaierik gabe. Hala biz!

*Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitzan
2008-11-21*

JAGONET:
2008.URTEKO EMAITZAK, KONTSULTAK

JAGONET: 2008.URTEKO EMAITZAK

*Joxe Ramon Zubimendi,
JAGONETen arduraduna*

1. Galdelekuan jasotako galderak: 961 (iaz baino %39 gutxiago)*
2. Banan-banan emandako erantzunak: 954 (iaz baino %37 gutxiago)*
3. Datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 542 (iaz baino %3 gehiago)
4. JAGONETeko orri nagusia zenbat aldiz bistaratu: 136.480+X (iaz, 140.273)**
5. JAGONETeko datu-basean egindako bilaketak: 60.335 (iaz baino %15 gehiago)
6. JAGONETen bistaratutako galde-erantzunak: 78.637+X (iaz, 62.853)**

* LEHEN OHARRA: Azken hiruzpalau hilabeteetan, murrizketa nabarmena gertatu da galdelekuan jasotako galdera-kopuruan. Dirudenez, EUSKALTELe bere aldetik ezarritako SPAM postaren aurkako iragazki automatikoak zaborretara bota ditu galdera asko. Ezin izan dugu orokorki frogatu (EUSKALTELeok ez baitigute argibiderik eman), nahiz eta zenbait kasutan ziur badakigun galdelekura iritsi gabe bidean galdu direla guk, berariaz, probatarako, bidalitako hainbat galdera.

** BIGARREN OHARRA: 2008ko abendutik aurrera, bisitak eta orri-bistaratzek zenbatzeko modua erabat aldatu da www.euskaltzaindia.net <<http://www.euskaltzaindia.net/>> webgunean, gaur egun Interneten indarrean dagoen sistema-aldaketak eraginda.

JAGONET: datu-baseko 2008ko datuak, hilez hil

JAGONETeko datu-basean egindako bilaketak	urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.
	5.179	4.944	4.848	5.865	5.563	4.712
	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.
	4.085	4.596	5.563	5.530	5.985	3.465 ?
JAGONETen bistaratutako galde-erantzunak	urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.
	5.561	5.045	4.295	7.203	7.635	5.214
	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.
	4.423	9.601	7.635	11.631	10.394	***
JAGONETeko orri nagusia zenbat aldiz bistaratua	urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.
	13.963	13.616	11.823	13.721	12.280	11.209
	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.
	9.587	7.613	12.280	15.640	14.748	***

*** HIRUGARREN OHARRA: 2008ko abenduko datuak falta dira, bigarren oharrean aipatutako sistema-aldaketaren eraginez.

**EUSKALTZAINDIAREN
AGIRIAK**

BATZAR-AGIRIAK

Bilbon, 2008ko irailaren 26an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Piarres Xarritton,
eta Mikel Zalbide, euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea eta Jose Antonio Aduriz zegozkien gaietan.

Biltzarraren programa. Gai eta partaideekin azaldu du, halaber, J. L. Lizundiak. Horra joatea nahi duten euskaltzainei, hotela eta gordetzeko, alde zuzenetik abisatzeko eskatzen zaie, bai eta, moderatzaile izatekotan, zein egunetan dauden horretarako prest azaltzeko. Behin-behineko eraz bada ere, zeinek zein egunetan jardunen duen erabaki da.

J. A. Aranak lanak eta aktak non eta nork argitaratuko dituen galdetu du. A. Urrutiak lan hori Euskaltzaindiak hartuko duela bere gain argitu du.

2.3. Hurrengo batzarrak

- Urriaren 6an, Iruñean, egingo den batzar bereziaren batzar-deia banatu da.
- Urriaren 31n izango da, bestalde, urriko ohiko batzarra, Donostian.

3. 2009ko Aurrekontuak

J. L. Lizundiak azaldu du aurrekontuak sailka ordenaturik daudela, zein bere usuzko diru-hornidurarekin. Ondoren Juan Jose Zearreta kudeatzaileak, 2009rako Aurre-

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari. Miren Azkaratek, ahala Patxi Goenagari. Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 10,30etan hasi da Bilbon Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

Euskaltzainburuak bilduak agurtu eta bere atzerapenez barkamena eskatu ondoren, eguneko aztergaien ordena nolakoa izanen den azaldu du.

1. Aurreko aktak onartzea. B. Oihartzabalek berak *lerro* hitzari buruz esan omen zuena kentzeko eskatu du, ez baita zuzena. Hala onartu da eta, besterik gabe, akta ontzat eman da.

2. Eskuarztekoak

2.1. Datorren urteko batzar egutegia

J. L. Lizundiak azaldu du, hil bakoitzeko xehetasunekin.

2.2. Iruñean egiteko den *Pirinioetako hizkuntzen lehena eta oraina* izeneko

kontuak idatzirik banatu ditu euskaltzainen artean eta kapitulu guztien bana-banako xehetasunak azaldu ditu, bai eta igotze-irizpideak ere. Diru-kopuru batzuk zehazteko zailtasuna dela eta, alde batetik batzorde batzuen zalantzak eta, bestetik, diru-emaile batzuen zehazgabetasuna azpimarratu du. Kasu batzuetan aurreikuspenak egiteko modua izan da, beti ere, azken orduan aldaketak izan daitezkeela kontuan izanda.

J. Haritschelharrek galdetu du ea zergatik Literaturako partida ez den bereziki ageri. J. J. Zearretak azalpenak eman dizkio eta non kokaturik dagoen esan. Azalpena ontzat eman du Haritschelharrek.

P. Salaburuk era informatikoan emandako datuak ez ote dagoen bestela ere eskaintzerik galdetu du. Oraingoan eskainiriko datuok iazko jarduerari dagozkionak direla gogoratu du kudeatzaileak, eta ez 2009rakoak, horiek jaso bezain laster jakinaraziko dira eta.

Euskaltzainburuak, zuzendaritzarentzat ahalmena eskatu du, hemendik aurrera hel daitezkeen berrien arabera, aurrekontuak ukitu eta ekonomi baliabideei egokiarazteko. Ontzat eman da.

4. Euskaltzain berriaren hautatzea

Henrike Knörr-en hutsa betetzeko, aurkeztu diren bi kandidatuen artean bozketa egin da, ondoko emaitzak izan dira:

- Blanca Urgellek 11 boto.
- Patxi Uribarrenek 16 boto.

Beraz Patxi Uribarren hautatu da euskaltzain oso.

Kafea edateko etentxo baten ondoren, hurrengo gaietara iragan gara.

5. Hizkuntza-gaiak

5.1. Hiztegi Batua: E letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea

P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *eskabetxe*-tik *eskelego*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

6. Banatzekoak

Argitalpen hauek banatu dira:

- *Morfología del verbo vasco (Índices/Compendio/Index)*
- *Onomasticon Vasconiae 7. Lizarrako III. Onomastika Jardunaldiak*
- *Jagon 6: Zenbait orientabide erregistroen trataera*
- *Jagon 7: Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*
- *Henrike Knörr-en omenezko liburuxka zuzendua*

Batzarra 14:20an amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Miren Azkarate,
Jean Haritschelhar,
Andoni Sagarna,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Piarres Xarriton euskaltzainak

Pello Telleria, idazkariordea zegozkion gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari. Jean-Louis Davantek, ahala A. Sagarnari. Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori. Mikel Zalbidek, ahala Andres Urrutiari. Patxi Goenagak, ahala Beñat Oihartzabali. Miren Lourdes Oñederak, ahala Aurelia Arkotxari. Patxi Salaberrik, ahala Andres Iñigori.

2009ko bilerei dagokienez, urte horretan egin daitezkeen sarrera-hitzaldiak gogoratu ditu, J. M. Torrealdairena Foruan, eta M. L. Oñederrarena Donostian.

Bestalde, Uztapide bertsolariaren jaiotzaren ehun urteak betetzen direla eta, Zestoako udalak bere herriko bertsolariari omenaldia egin nahi diola adierazi du.

Andres Urrutiak azaldu duenez, Euskararen eguna dela eta, abenduaren 3an, Bilboko Udalak Akademiari omenaldia egin gura dio. Eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak ere, egun berean, iluntzean, antzeko beste ospakizun bat antolatu duela. Bietan presente izatea komeni dela esan da.

J. Haritschelharrek, bestetik, 90. urteurreneko iparraldeko bilera, Baionan barik, Hazparnen egiteko eskatu du, bide batez, ekitaldi horretan Broussainen liburua jendarean erakusteko. Proposamena ontzat eman da.

Batzarra arratsaldeko 16,00etan hasi da Euskaltzaindiaren Iruñeko ordezkartzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Gai bakarra: Euskaltzaindiaren 90. urteurrena eta 2009ko egutegia.

Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, banatu den egutegiko datarik nabarmentenak aipatu ditu. Urriaren 6an, Osoko Batzar Berezia, 90. urteurrena hasteko ekitaldia. J. L. Lizundiak Euskaltzaindiaren urteurrenean egiteko asmo diren ospakizunen programa eta egutegia zehaztu ditu. Aurreko ospakizunak 5 hiri-buruetan egin zirela gogoratu du eta oraingo honetan non eta zelakoak izango diren ere argitu du. Ospakizunen hasiera Iruñean bertan izango da urriaren 6-tik 10era, Pirinioetako hizkuntzen inguruko Biltzarrekin. Urteurreneko hurrengo ekitaldiak: Donostian (urriaren 31n), Durangon (azaroaren 6an), Bilbon (azaroaren 28an) eta Donostian (abenduaren 19an).

Oiartzungo Udalaren ekimenez eta Euskaltzaindiaren parte hartzeaz azaroan Juan Mari Lekuonaren omenez aurkeztuko den liburuarena ere 90. urteurreneko egutegian sartzea eskatu du J. Haritschelharrek.

90. urteurreneko ospakizun berezietan egin litekeenaz ideia batzuk eman ditu Euskaltzainburuak: goizean hileko bilkura egin eta arratsaldean emerituen edota aurreko euskaltzainen omenaldia.

Euskaltzaindiaren 90. Urteurreneko Batzordea sortzea erabaki da, hauek osatua: Zuzendaritza, ordezkariak (Ana Toledo eta Manuel M^a Ruiz Urrestarazu), Kudeatzailea eta Idazkariordea.

Aurkeztu den egutegiari proposamenak egiteko urriaren 20ra arteko epea jartzea erabaki da.

2. Eskuartekoak

2.1. Literatura sari nagusien epaimahaiak

Ohi bezala, aurreko urtean ere Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak antolatzen dituzten Literatura sari nagusietarako epaimahaiak osatu behar izan dira. Literatura Ikerketa batzordeak proposaturik, hauek izendatu dira:

Txomin Agirre Eleberri Saria: Karlos Otegi, Ur Apalategi, Iratxe Retolaza
Toribio Altzaga Teatro saria: Patri Urkizu, Daniel Landart, Karlos del Olmo
Felipe Arrese-Beitia Olerki Saria: Mikel Lasa, Lourdes Otaegi, Felipe Juaristi
Mikel Zarate Saio Saria: Sebastian Gartzia Trujillo, Xabier Altzibar, Iñaki Aldekoa.

3. Azken ordukoak

3.1. Pierre Urteren eskuizkribuak erosteaz. A. Urrutiak J. L. Lizundiari hitza eman dio, Pierre Urteren bi liburu (haren gramatika eta hiztegia) erosteko egin diren gestioak azaltzeko. Diruzainak adierazi du, Sotheby's enkante-etxeak eskuizkribu horiek enkantean jartzeko asmoa zuela jakin bezain laster, harekin harremanetan jarri zela Euskaltzaindia. Hasierako prezioa 20.000 liberatakoa zen eta Akademia bere eskaintzarekin 35.000eraino heldu zela, baina hortik gora ezin eutsi izan ziola. Salmenta 46.000 liberatan burutu zen. M. Azkaratek gestioak egin zituen bertoko beste erakunde interesatuak erretira zitezen, aukera gure Akademiari utziz, eta, oro har, guztiek proposamen hori ontzat eman zuten. Jose Luis Lizundiak eskerrak eman dizkio Miren Azkarateri.

3.2. XVI. Biltzarreko programak. Amaitzean, bilkurara etorriturikoen artean Piriñoetako Hizkuntzei buruzko Biltzarren programa banatu da.

Batzarra 17:30etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2008ko urriaren 31n

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Piarres Xarritton,
Patxi Zabaleta
eta Mikel Zalbide euskaltzainak

Pello Telleria, idazkariordea eta Iñaki
Kareaga informatikaria, zegozkien gaie-
tan.

**3. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabaki-
tzea.** P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *eskentu*-tik *eskubide*-rainoko
hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

4. Web orriaren eduki berria aurkeztea. A. Sagarnak eta Iñaki Kareagak
aurkeztu dute eduki berria, eta teknologiari esker euskaltzainei eskaintzen zaizkien
baliabide berriak eta lasterragoak azaldu dituzte, hemendik aurrera erabilgai. Hortaz,
orain arteko *Plazaberri* agerkari digitalarekin batera *Bloga* ere eskainiko da. Arau-
erabakien bertsio berritua eta Hiztegi Batua XMLn, Iker-Tegia, Jagon-Tegia, hainbat
sail berri eta berrituekin (Bildumak, Aldizkariak...) pantailan kontsulta daitezkeenak.
Aurkezpenaren ondoren, euskaltzain batzuek (P. Salaberri, P. Xarritton, J. Hari-
tschelhar, I. Sarasola) galdera batzuk eta argitasun eskariak egin izan dituzte, bai eta
erantzunak jaso ere.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azka-
ratek, ahala P. Goenagari. Patxi Zabale-
tak, ahala A. Iñigori. Joseba Lakarrak
Miren Lourdes Oñederrari. Beñat Oihar-
tzabalek, ahala J. Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Do-
nostiako Diputazioaren Jauregian, ezke-
rreko zutabearen ageri diren euskaltzainak
eta bertan direla.

1.-Aurreko aktari buruzko oharrak.
2008/10/6ko Iruñeko aktari buruz, J.L.
Davantek *Azparne* barik *Hazparne* dela
ohartarazi du. J.L. Lizundiak, aldiz, ospa-
kizunak bost herritan ez baina bost hiri-
buruetan egitekoak direla esan du. Horre-
la zuzentzea onartu da. Gainera, Pierre
Urteren obraren enkantean M. Azkarate
Sailburuak egindako gestioengatik eske-
rrak eman zizkiola aktan sartzea eskatu
du. Holaxe egin da.

2.- 90. urteurreneko egutegia onartzea.
Urriaren 20an amaitu da 90. urteurrena-
ren egutegiari oharrak egiteko epea. Ez
da inolako oharririk heldu eta, beraz, al-
daketarik gabe eman da ontzat egutegia.

5. Eskuartekoak

5.1. Xabier Dihartzeren hilberri-txostena. Urriaren 13an hil da Xabier Dihartze «Iratzeder» euskaltzain emeritua. Haren hilberri-txostena egiteko ardura J. Haritschelharrek hartu du bere gain.

5.2. Eusko Jaurlaritzaren Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako erakundearen ordezkaria. Eusko Jaurlaritzak kanpo harremanetarako duen Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako erakundean H. Knörrek orain arte ukan duen tokia betetzeko, Euskaltzaindiari ordezkari bat eskatu dio. Akademiak Jose Luis Lizundia euskaltzaina izendatzea erabaki du.

5.3. Bilboko Udalarekiko hitzarmena. A. Urrutiak urriaren 20an Euskaltzaindiak Bilboko udalarekin lankidetasun- eta laguntza-hitzarmena sinatu duela jakinarazi du.

6. Azken ordukoak

6.1. Azaroko bilkurak. Azaroaren 28an bi batzar egingo dira: a) ohikoa eta b) berezia, Zuzendaritzako karguak izendatzeko.

6.2. Toponimia Ikastaroa. Azaroaren 6an, Durangon Toponimia ikastaro bat antolatuko du Euskaltzaindiak, Onomastika batzordearen bidez. A. Iñigok ikastaro horren xehetasunak azaldu ditu, eta bereziki kazetari, irakasle, administrari eta komunikabideetako pertsonalari begira izanen dela argitu ere bai.

6.3. Jagon Jardunaldiak. Era berean, azaroaren 21ean Euskaltzaindiaren XIII. Jagon Jardunaldiak egingen dira Bilbon.

6.4. J.M. Lekuonaren omenaldi-liburuaren aurkezpena. J. Haritschelharrek J. M. Lekuonaren aldeko ospakizunen berri eman du. Oiartzungo udalak eta Euskaltzaindiak elkar lanean, Juan Mari Lekuonaren omenez prestatu eta argitaraturiko liburua, azaroaren 14an, Donostian eta Oiartzunen aurkeztuko dela jakinarazi da.

6.5. Galde-eskariak. J. Haritschelharrek Iratzeder zenduaren tokia betetzeaz galdetu du. Erantzunez, A. Urrutiak, Argomaizen eginiko barne-jardunaldietan aho batez erabaki zenaren arabera, toki hori jada betea dela gogoratu dio.

P. Zabaletak Iratzederren lanak berrargitaratzeaz galdetu du. Euskaltzainburuak horretaz eginiko gestioak azaldu dizkio. P. Zabaletak, halaber, Nafarroako parlamentuaren berri eman du, zonalde ez-euskaldunean euskarazko irakaskuntza oztopatzeko zenbaitzuek darabilten jokabidea salatzeke.

Batzarra 14:15ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2008ko azaroaren 28an

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Jose Irazu «Bernardo Atxaga»,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Txomin Peillen,
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Joan Mari Torrealdai,
Patxi Uribarren,
Piarres Xarritton,
eta Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea eta Jose Antonio Aduriz Hiztegi Batuko ardura-duna, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari. Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta, bertan direla.

1. Bilera hasi baino lehenagoko oharra. Bilkura goizean izanen da.

2. Aktari buruzko oharra. Oharrik gabe ontzat eman da aurreko akta.

3. Eskuartekoak

3.1. Karmelo Etxenagusia ohorezko euskaltzainaren heriotza. Karmelo Etxenagusia ohorezko euskaltzaina azaroaren 6an Bilbon hil zela jakinarazi du euskaltzainburuak. Zuzendaritzak haren hilberri-txostena Adolfo Arejita euskaltzainak egitea proposatu du. Ontzat eman da.

3.2. Luis Villasanteren lanak digitalizatzeko hitzarmena. Aurtengo azaroaren 25ean Bizkaiko Foru Aldundiak, Arantzazuko Probintziako Frantziskotarren buruak eta Euskaltzaindiak hitzarmen bat sinatu dute L. Villasanteren lanak digitalizatzeko. Lana J. M. Torrealdairen ardurapean egingen da.

3.3. Henrike Knörr-en izena jarriko zaio Gasteizko ordezkarietzako aretoari. Aurtengo abenduaren 2an, Henrike Knörr euskaltzain zenduaren izena jarriko zaio Gasteizko ordezkarietzako aretoari. Ekitaldiaren hiru antolatzaileek (Euskalerriaren Adiskideak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak) euskaltzain oso guztiei gonbitak helarazi dizkiete.

3.4. Bilboko Udalak Euskaltzaindiari omenaldia. Bilboko Udalak abenduaren 3an, Done Frantses Xabierkoaren ospakizuna dela eta, Euskaltzaindiaren 90. urteurrena gogoratuz, eguerdiko ordu batean omenaldia egingo dio Akademiari.

4. Hiztegi Batua. E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea. P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *esku-bonba*-tik *esnedun*-erainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

5. Zuzendaritzako karguak berrizatzea. Goizeko 11,00etatik 12:00etara, zuzendaritzako karguak berritzatzeko bilkura berezia eta atsedenaldirako tarte bat egin dira.

6. Azken ordukoak

6.1. Hurrengo biltzarra. Eguberri inguruko jaiak direla eta, Euskaltzaindiaren abenduko bilkura ezingo da Gipuzkoako Foru Diputazioan egin, eta horregatik Donostia inguruko toki batean bilduko da: Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren egoitzan.

6.2. Banaturiko liburuak. Batzarra bukatzean liburu hauek banatu dira euskaltzainen artean:

Euskera 2007, 3.

Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)

Narrazioak eta Olerkiak 2007 (2007ko *Azkue* sarian irabazitako lanak)

Gabonetako zorion-txartelak

Batzarra 14,15etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Pasaian, 2008ko abenduaren 19an.

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Sagrario Aleman,
Adolfo Arejita,
Aurelia Arkotxa,
Jean-Louis Davant,,
Jean Haritschelhar,
Joseba Lakarra,
Emile Larre,
Miren Lourdes Oñederra,
Peillen, Txomin
Andoni Sagarna,
Patxi Salaberri,
Ana Toledo
Patxi Uribarren,
eta Piarres Xarritton, euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Jose Antonio Aduriz, Alfontso Mujika eta Juan Jose Zearreta, zegozkien gaitetan.

3. Exonomastika: Europako hiri nagusiak (I) aurkeztea. Jose Luis Lizundiak hitza hartu eta exonomastika-lan honek nolako premia eta eskariei erantzuten dien azaltzean, idazleak, editorialak, hedabideak, irakaskuntza, etab. aipatu ditu. Horiez gainera, erabakiak hartzeko irizpideak gogoratu ditu: gure hizkuntzaren eta inguruko erdaren tradizioak, toki horietan bertakoek darabilten forma, nazioartekotasuna, eta jatorriz alfabeto ziriliko idatziriko kasuak ere azalduz. Ondoren, Alfontso Mujikak Europako hirien zerrenda euskaraz taiutzeko erabiliriko irizpideak azaldu ditu (tradizio zaharra edo izan ditugun eredu ezberdinak, gaurko joerak...). Andoni Sagarnak Finlandiako, Galesko eta beste zenbait lekutako hirien izenez galdetu du. Mujikak azalpenak eman dizkio. Miren Lourdes Oñederrak, Jean Haritschelharrek eta Andres Iñigok zenbait ohar egin dute, ortografiaz, ebakeraz, kasu batzuetako bitasunak gogora ekarriz. Joseba Andoni Lakarrak eslavisten iritzia kontuan hartzea eskatu du.

Oharrak Euskaltzaindira urtarrilaren 21erako igortzeko erabaki da.

4. Hiztegi Batua

Jose Antonio Aduriz batzorde idazkariaren zuzendaritzapean, *esofago*-tik *espurgo*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

Ezin etorriak eta ahalak: Pello Salaburuk ahala Jean Haritschelharri. Patxi Goenagak, ahala Beñat Oihartzabali. Joan Mari Torrealdaik, ahala Andoni Sagarnari. Mikel Zalbidek, ahala Andres Urrutiari. Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori. Bernardo Atxagak ahala Andres Urrutiari. Miren Azkaratek, ahala Patxi Goenagari.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta, bertan direla.

1. Bilera hasi baino lehenagoko oharra. Euskaltzaindiak Elkar argitaletxearekin batera argitaratu duen Hiztegi Batuaren edizio eguneratua euskaltzain artean banatu da.

2. Aktei buruzko oharrak. Oharrrik gabe ontzat eman dira azaroaren 28an egin ziren hileko batzarraren eta bilkura bereziaren aktak.

5. Azken ordukoak

5.1. 2008ko Literatura sariak

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzten literatura sarien irabazleen izenak abenduaren 16an jakinarazi ziren prentsaurreko batean. Saridunak eta epaimahaikoak honako hauek izan ziren:

Txomin Agirre eleberrri-saria: Mikel Zubeldia. Lana: *Ekilibristaren polka*. Epaimahaikideak: Ur Apalategi, Karlos Otegi eta Iratxe Retolaza.

Toribio Altzaga antzerki-saria: Pako Aristi. Lana: *Josu Dukatiren proposamena*: Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Felipe Arrese-Beitia olerki-saria: Amaia Jauregizar. Lana: *Azazkalak jaten*. Epaimahaikideak: Mikel Lasa, Felipe Juaristi eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate saio-saria: Emateke gelditu da, lanik aurkeztu ez delako.

5.2. Euskaltzaindia Durangoko Liburu-azokan

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Euskaltzaindiak bere lekua ukan du Durangoko 43. Liburu Azokan eta bertan Akademiak 2008. urtean argitara emandako liburu katalogoa aurkeztu du, erreferentzia berriekin. Euskaltzainei ale bana bidali zaiela adierazi du Euskaltzainburuak. Era berean, Azokaren aldamenean, hots, Landako etxean, eta egun beretan, jada Iruñean agertutako materialez baliatuz, Pirinioetako Hizkuntzen erakusketa antolatu du Euskaltzaindiak.

5.3. Euskaltzaindiaren Zuzendaritza berriaren agurra

Andres Urrutiak Akademiaren Zuzendaritza berria aurkeztu du, azken batzarrean izandako hautaketaz osatua. Aldaketa bakarra Iker Sailean gertatu da, eta, Henrike Knörr-en hutsunea betetzeko, Andoni Sagarna hautatu da. Ontzat eman eta ongi etorria eman zaio.

5.4. Euskaltzain berria hautatzeko deia

Txomin Peillenen emeritutasunaren ondorioz Euskaltzaindiko 31. dominaren hutsartea aldarrikatu da. Beraz, kandidatuak proposatzeko epea 2008ko urtarrila eta otsaila izango da. Ondoren, martxoko batzarrean euskaltzain berria hautatuko da.

5.5. Miren Lourdes Oñederraren sarrera-hitzaldia

Miren Lourdes Oñederra euskaltzainak bere sarrera-hitzaldiaren data eta antolakuntzari buruzko xehetasun batzuk galdetu ditu, Donostiako udalari zehazki erantzun ahal izateko. Euskaltzainburuak erantzun dio, esanez gauzak atzeratu direla baina lasai egoteko, eta interesatuarekin hitz egiteke ez dela ezer antolatuko.

5.6. Hurrengo bilera

Euskaltzainburuak hurrengo bilkura urtarrilaren 30ean, Bilbon, egoitzan, izanen dela gogorarazi du.

5.7. Banaturiko liburuak. *Euskal Hiztegi Batuaren* azken edizioa, Euskaltzaindiak Elkar argitaletxearekin batera egindakoa, bigarren itzulian orain arte onarturiko hitz berriekin osatua, banatu da euskaltzainen artean.

Batzarra 14,15etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

EUSKALTZAINDIAREN 90. URTEURRENA

Euskaltzaindiak, 2008ko urritik 2009ko irailera doan egutegia onartu du 2008ko urriaren 31n.

2008

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urria	6	Iruñea	Osoko Batzar Berezia: 90. urteurrenaren hasiera
	6 - 10	Iruñea	XVI. Nazioarteko Biltzarra
	31	Donostia	Hileko batzar arrunta
Azaroa	6	Durango	<i>Toponimia administrazioaren eguneroko jardunean</i> ikastaroa, bereziki Udaletako euskara teknikarientzat
	14	Donostia	Oiartzungo Udalaren ekimenez eta Euskaltzaindiarekin koedizioan argitaratuko den J. M. Lekuonaren omenezko liburuaren aurkezpena
	21	Bilbo	XIII. Jagon Jardunaldiak
	28	Bilbo	Hileko batzar arrunta eta Zuzendaritza berriztatzekeo batzar berezia.
Abendua	3	Bilbo	Bilboko Udalak Euskaltzaindia omenduko du, 90. urteurrenean
	19	Pasaia	Hileko batzar arrunta

2009

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	30	Bilbo, egoitza	Hileko batzar arrunta eta 90. urteurrenaren ospakizuneko batzar berezia
Otsaila	27	Donostia	Hileko batzar arrunta eta hilberri-txostenak
Martxoa	26, 27	Bizkaia	Hileko batzar arrunta eta XVI. Barne Jardunaldiak
Apirila	24	Gasteiz	Hileko batzar arrunta eta 90. urteurrenaren ospakizuneko batzar berezia
Maiatza	29	Bilbo	Hileko batzar arrunta
	30	Arratzu	Joseba Lakarraren sarrera-hitzaldia
Ekaina	26	Hazparne	Hileko batzar arrunta eta 90. urteurrenaren ospakizuneko batzar berezia
Uztaila	17	Bilbo	Hileko batzar arrunta
Urria	8	Donostia	Hileko batzar arrunta
	9	Donostia	Ekitaldi instituzionala, 90. urteurrenaren amaieran

EUSKALTZAINDIKO ZUZENDARITZAKO KARGUAK HAUTATZEKO BATZAR BEREZIA

2008ko azaroaren 28an, goizeko 11etan eten egin da osoko batzarra, Euskaltzainburua eta Zuzendaritzako gainerako karguak hautatzeko. Hautaketa-mahaia hone-la eratu da: buru, euskaltzain izendatu zaharrena izanik, Jean Haritschelhar jauna, eta idazkari, aldiz, Patxi Uribarren, berau delarik azkenik sartutako euskaltzaina.

Hauek dira batzarrean izan diren euskaltzainak:

Sagrario Aleman	Jose Luis Lizundia
Jose Antonio Arana	Beñat Oihartzabal
Adolfo Arejita	Miren Lourdes Oñederra
Aurelia Arkotxa	Txomin Peillen
Pierre Charritton	Andoni Sagarna
Jean-Louis Davant	Patxi Salaberri
Patxi Goenaga	Pello Salaburu
Jean Haritschelhar	Ibon Sarasola
Andres Iñigo	Ana Toledo
Jose Irazu	Joan Mari Torrealdai
Xabier Kintana	Patxi Uribarren
Joseba Lakarra	Andres Urrutia
Emile Larre	Mikel Zalbide

Egintzaren hasieran etorri ez diren euskaltzainen ahalak hartu dira kontuan. Patxi Zabaleta jaunak Andres Iñigo jaunari eman dio ahala, eta Miren Azkarate andreak Patxi Goenaga jaunari.

Hori ageriko egin ondoren, Jean Haritschelhar mahaiburuak hartu du hitza, estatuten arabera egintzak izan beharreko nondik norakoak gogora ekarriz, batez ere aurtengo hauteskunde-egintzan 11 euskaltzain berri direla kontuan izanik.

Jarraian, urtearen bukaerara arte euskaltzainburu den Andres Urrutiak eskatu du hitza, eta, besteak beste, esan du, aurreko egunean bildu zela zuzendaritza egoitzan, eta guztiek orain dela lau urte hartutako konpromisoari eutsiz beste lau urtetarako beren buruak aurkeztea erabaki zutela.

Mahaiburuak kargu bakoitzerako dei bana egin du, eta kandidatu hauek aurkeztu dira:

Euskaltzainburua: Andres Urrutiak bere burua aurkeztu du Euskaltzainburuari dagozkion zereginetan jarraitzeko, eta hautatua izanez gero hurrengo lau urteko epean Euskaltzaindian burutu nahi lituzkeen egitasmoak azaldu ditu laburki. Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak:	28
Kandidatuaren alde:	20
Zuriak:	07
Pello Salaburu	01

Oharra: Pello Salaburu jaunak, berak ez duela bere bururik aurkeztu euskaltzainburu izateko aktan jasotzeko eskatu du, eta horrela egiten da ohar honen bidez.

Euskaltzainburuordea: Beñat Oihartzabal jaunak ere bere burua aurkeztu du Euskaltzaindikoko zuzendaritza-taldean buruordeari dagozkion zereginetan jarraitzeko. Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak:	28
Kandidatuaren alde:	17
Zuriak:	10
Aurelia Arkotxa:	01

Oharra: Aurelia Arkotxa andereak, berak ez duela bere bururik aurkeztu euskaltzainburuorde izateko aktan jasotzeko eskatu du, eta horrela egiten da ohar honen bidez.

Idazkaria: Xabier Kintana jaunak ere bere burua aurkeztu du Euskaltzaindikoko zuzendaritza-taldean idazkariari dagozkion zereginetan jarraitzeko. Era berean, esker-rrak agertu dizkio, egin izan dituen hutsaldietan zeregin hori hain ongi burutu izan duen Miren Lourdes Oñederra andereari. Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak:	28
Kandidatuaren alde:	19
Zuriak:	07
Miren Lourdes Oñederra:	02

Oharra: Miren Lourdes Oñederra andereak, berak ez duela bere bururik aurkeztu idazkari izateko aktan jasotzeko eskatu du, eta horrela egiten da ohar honen bidez.

Diruzaina: Jose Luis Lizundia jaunak ere bere burua aurkeztu du Euskaltzaindikoko zuzendaritza-taldean diruzainari dagozkion zereginetan jarraitzeko. Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak:	28
Kandidatuaren alde:	18
Zuriak:	09
Baliorik gabea:	01

Iker Sailburua: Henrike Knörr jaunaren heriotzaren ondorioz hutsik izan da postu hau. Zeregin horretarako bere burua aurkeztu du Andoni Sagarna jaunak. Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak:	28
Kandidatuaren alde:	22
Zuriak:	06

Jagon Sailburua: Andres Iñigo jaunak ere bere burua aurkeztu du Euskaltzaindikoko zuzendaritza-taldean Jagon Sailburuaren zereginetan jarraitzeko. Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

Boto-emaileak:	28
Kandidatuaren alde:	19
Zuriak:	08
Baliorik gabea:	01

Beraz, Zuzendaritza honela eraturik gelditu da: Euskaltzainburu, Andres Urrutia. Euskaltzainburuorde, Beñat Oihartzabal. Idazkari, Xabier Kintana. Diruzain, Jose Luis Lizundia. Iker Sailburu, Andoni Sagarna. Jagon Sailburu, Andres Iñigo.

Mahaiburuak eta gainerako euskaltzainek hautatu berriei zorionak eman dizkiete.

Batzar berezia 12etan amaitu da.

Jean Haritschelhar,
mahaiburua

Patxi Uribarren,
idazkaria

EUSKALTZAINDIAK, ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARREK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK HITZARMENA SINATU

Azaroaren 25ean, Euskaltzaindiak, Arantzazuko Frantziskotarrek eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, Luis Villasanteren obra literarioa, lan pertsonalak eta artxiboa sistematizatu eta digitalizatzeko. Egitasmoa Euskaltzaindiak kudeatu eta burutuko du, 2008tik 2011ra bitartean. Gauzatze lana Joan Mari Torrealdai zuzentzen duen Jakin aldizkariaren taldeak egingo du. Villasanteren funts osoa 40 liburu eta 1.000 bat idazlanetan sakabanaturik dago.

Hitzarmena honako hauek sinatu zuten: Joxe Mari Arregi Arantzazuko Frantziskotarren Probintziako burua, Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusia eta Andres Urrutia euskaltzainburua.

Bizkaiko Foru Aldunditik, Diputatu Nagusiaz gain, Josune Ariztondo Kultura diputatua ere izan zen.

Hauek izan ziren Euskaltzainditik: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Jose Antonio Arana Marija, Joan Mari Torrealdai eta Patxi Uribarren euskaltzain osoak; Juan Jose Zearreta, kudeatzailea; Pello Telleria, idazkariordea; Ricardo Badiola, argitalpen eragilea.

BILBOKO UDALAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

2008ko urriaren 20an, Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzahitzarmena sinatu zuten, Bilboko Udaletxean. Euskararen erabilera sustatzea helburu duen hitzarmen hori Iñaki Azkuna Bilboko alkateak sinatu zuen, Udalaren izenean, eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak:

- Herritarrei zerbitzu egokia eskaini ahal izateko udal zerbitzuetatik eskatzen zaion hizkuntza aholkularitza emango du Euskaltzaindiak. Aholkularitza hau iraunkorra izango da bereziki hiri toponimiari gagozkiolarik. Halaber, Euskaltzaindiak instituzio eta erakundeekin elkarlanean, kultur hedapenerako ekintzak, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta euskararen aldeko bestelako ekimenak bultzatuko ditu.
- Euskarak Bilbon bizi duen eta bizi izan duen egoera hobeto ezagutzen lagunduko duten lanei ekingo die Euskaltzaindiak, bai azterlan historiko-linguistikoak bideratuz edo eta kasuan kasuan taxutzen diren proiektuen arabera.
- Bilbori dagokionez, esanguratsuak izanik, agortuta dauden euskal lanen berrargitalpena zein elkar-langintza honetatik sortzen diren beste lanen argitalpena sustatuko ditu Euskaltzaindiak. Ahal denean, argitalpen horiek euskarri informatikoan eskainiko dira Euskaltzaindiaren eta Bilboko Udalaren webgunetan.

Hitzarmen hau indarrean egongo da 2008ko abenduaren 31ra arte eta automatikoki luzatuko da, beste urtebeterako, betiere.

EUSKALTZAINDIK ETA *BERRIA* EGUNKARIK HITZARMENA SINATU

2008ko urriaren 31n, Euskaltzaindik eta *Berría* egunkariak hitzarmena sinatu zuten, Akademiaren Donostiako ordezkarietan. Hitzarmen horren bitartez, *Berría* egunkariak, ekoizten dituen testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu, egunkaria kaleratu zen unekoetatik hasita, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa garatu dezan. Hitzarmena Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Joanmari Larrarte *Berría* egunkaria sortu zuen Euskarazko Komunikazio Taldeko (EKT) kontseilari ordezkariak sinatu dute.

Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldearen proposamena da eta ikerketarako testu-corpus etiketatu eta linguistikoki anotatu bat prestatzea du oinarritzko lana. Zehatzago esanda, Hiztegi Batuko lantaldeak prosa arruntezko corpus monitorea bat prestatzea proposatu zuen, bai lexikoaren erabileraren azterketak egiteko, bai eta lexikoari dagozkion arauak eta gomendioak dokumentatzeko ere.

Corpus hori osatzeko hainbat hornitzaile aurreikusi ziren, hedabideak bereziki, eta hauen artean, besteak beste, interes orokorreko komunikabideak, jakintza eremuetakoak (literatura, zuzenbidea, erlijioa, zientzia, teknologia, artea, kirola, etab.), edota administrazioetako hizkera arrunta –ez espezializatu– lantzen dutenak. Bestalde, gutxienez 2000. urtetik aurrera sortutako testuz osatuko da corpora eta etengabe elikatuko da.

Testuinguru horretan kokatzen da gaur *Berría* egunkariak eta Euskaltzaindik sinatu duten hitzarmena. Honen bitartez, *Berriak* bere produkzio guztia Euskaltzaindiaren esku jarriko du, Lexikoaren Behatokia egitasmoan erabiltzeko. Bestalde, esan behar da Lexikoaren Behatokia egitasmoa UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko duela Akademiak.

**EUSKALTZAINDIAREN
*ARAUAK***

NAFARROAKO UDAL IZENDEGIA

a) Udal izenak alfabetikoki, euskal izenaren arabera

Euskal izena	Izen ofiziala ¹	Herritar izena	Eskualdea ²	Merindadea
Abaigar	Abáigar	<i>abaigartar</i>	<i>Egaibar</i>	Lizarra
Abartzuza	Abárzuza	<i>abartzuzar</i>	<i>Deierrri</i>	Lizarra
Abaurregaina (-a) ³	Abaurregaina / Abaurrea Alta	<i>abaurrear</i> ⁴	<i>Aezkoa</i>	Zangoza
Abaurrepea (-a) ⁵	Abaurrepea / Abaurrea Baja	<i>abaurrepetar</i>	<i>Aezkoa</i>	Zangoza
Aberin	Aberin	<i>aberindar</i>	<i>Iguzkitzaibar</i>	Lizarra
Ablitas	Ablitas	<i>ablitastar</i>		Tutera
Adios	Adiós	<i>adiostar</i>	<i>Izarbeibar</i>	Iruñea
Agoitz ⁶	Aoiz <> Agoitz	<i>agoiztar</i> ⁷	<i>Longida</i>	Zangoza
Aguilar Kodes	Aguilar de Codés	<i>aguilartar</i>	<i>Aguilar</i>	Lizarra
Aiegi	Ayegui <> Aiegi ⁸	<i>aiegiar</i>	<i>Iguzkitzaibar</i>	Lizarra
Alesbes	Villafranca	<i>alesbestar</i>		Tutera
Allin	Allin	<i>allindar</i>	<i>Allin</i>	Lizarra
Allo ⁹	Allo	<i>alloar</i>	<i>Estellerriko Erribera</i>	Lizarra
Altsasu	Altsasu / Alsasua	<i>altsasuar</i>	<i>Burunda</i>	Iruñea
Ameskoabarrena (-a) ¹⁰	Améscoa Baja	<i>ameskoar</i> ¹¹	<i>Ameskoa ibarrak</i> ¹²	Lizarra

Syktyvkar	Syktyvkar

GAZTELANIA	EUSKARA
Tarento	Tarento
Tarrasa / Terrassa	Terrassa
Tiumén	Tiumen
Tolyatti	Togliatti
Trento	Trento
Tréveris	Treveris
Treviso	Treviso
Tubinga	Tübingen
Turín	Turin
Ufá	Ufa
Ulan-Ude	Ulan-Ude
Uliánovsk (1924 arte, <i>Simbirsk</i>)	Ulianovsk (1924 arte, Simbirsk)
Urbino	Urbino
Úzhgorod	Uzhhorod
Varna	Varna
Veliko Tarnovo	Veliko Tarnovo
Venezia	Venezia
Ventimiglia	Ventimiglia
Verona	Verona
Versalles	Versailles
Vicenza	Vicenza
Vítebsk / Vitsiebsk	Vitsebsk
Viterbo	Viterbo
Vladikavkaz (1931-1944 eta 1954-1990 bitartean, <i>Ordzhonikidze</i> ; 1944-1954 bitartean, <i>Dzauzhikau</i>)	Vladikavkaz (1931-1944 eta 1954-1990 bitartean, Ordzhonikidze ; 1944-1954 bitartean, Dzauzhkau)
Vladivostok	Vladivostok
Volgogrado (1589-1925 bitartean, <i>Tsaritsyn</i> ; 1925-1961 bitartean, <i>Stalingrado</i>)	Volgograd (1589-1925 bitartean, Tsaritsyn ; 1925-1961 bitartean, Stalingrad)
Vorónezh	Voronezh
Wrocław (1945 arte, <i>Breslavia</i>)	Wrocław ¹⁹ (1945 arte, Breslau)
Wurzburgo	Würzburg
Yakutsk	Jakutsk
Yalta	Jalta
Yaroslavl	Jaroslavl
Yoshkar-Ola	Joxkar-Ola
Zaporizhia (1921 arte, <i>Aleksandrovsk</i>)	Zaporizhia (1921 arte, Aleksandrovsk)
Zweibrücken / Dos Puentes	Zweibrücken

¹⁹ Zilegi da euskaraz ere jatorrizko grafian duen letraz idaztea: **Wrocław**.

FRANTSESA-EUSKARA ZERRENDA

FRANTSESA	EUSKARA
Abakan	Abakan
Agrigente	Agrigento
Aix-la-Chapelle	Akisgran / Aachen ²⁰
Algésiras	Algeciras
Anadyr	Anadyr
Ancône	Ancona
Arkhangelsk / Arkhanguelsk	Arkhangelsk
Assise	Asis
Astrakhan	Astrakhan
Augsbourg	Augsburg
Babrouisk / Bobrouisk	Babruisk
Barnaoul	Barnaul
Bénévent	Benevento
Bergame	Bergamo
Birobidjan	Birobidzhan
Bois-le-Duc	's-Hertogenbosch
Bologne	Bolonia
Bourgas	Burgas
Bragance	Bragantza
Brest (1918 arte, <i>Brest-Litovsk</i>)	Brest (1918 arte, Brest-Litovsk)
Brno	Brno
Bruges	Brujas / Brugge
Brunswick	Brunswick
Cambrai	Cambrai
Cantorbéry	Canterbury
Capoue	Capua
Carlsruhe / Karlsruhe	Karlsruhe
Carrare	Carrara
Cartagène / Carthagène	Cartagena
Caserte	Caserta
Cassel	Kassel
Cherbourg	Cherbourg
Choumen	Xumen [Bulgariako sistema ofizialaren arabera: Shumen]
Coblence	Koblentza
Cobourg	Coburg
Coïmbre	Coimbra
Cologne	Kolonia
Côme	Como
Coni	Cuneo
Constance	Konstantza
Constanța / Constanza	Konstantza
Cracovie	Krakovia
Crémone	Cremona
Crotone	Crotone
Deux-Ponts	Zweibrücken

²⁰ Testuinguru historikoetan **Akisgran** da aukera bakarra.

FRANTSESA	EUSKARA
Dnipropetrovsk / Dniepropetrovsk (1926 arte, <i>Lekaterinoslav</i>)	Dnipropetrovsk (1926 arte, Jekaterinoslav)
Dobritch (1949-1990 bitartean, <i>Tolboukhine</i>)	Dobritx (1949-1990 bitartean, Tolbukhin) [Bulgariako sistema ofizialaren arabera: Dobrich (1949-1990 bitartean, Tolbukhin)]
Donetsk	Donetsk
Dresde	Dresden
Duisbourg	Duisburg
Elche	Elx
Elista (1944 eta 1957 bitartean, <i>Stepnoi</i>)	Elista (1944 eta 1957 bitartean, Stepnoi)
Elseneur	Helsingor ²¹
Ferrare	Ferrara
Flessingue	Vlissingen
Florence	Florentzia
Francfort-sur-l'Oder	Frankfurt (Oder)
Francfort-sur-le Main	Frankfurt (am Main)
Fribourg-en-Brisgau	Friburgo / Friburgo Breisgau
Gand	Gante
Gdańsk, (1945 arte, <i>Danzig</i>)	Gdańsk ²² (1 945 arte, Danzig)
Gênes	Genova ²³
Gijón	Gijón ²⁴
Gomel / Homyel	Homel
Gorno-Altai (1932-1948 bitartean, <i>Oïrot-Toura</i>)	Gorno-Altai (1932-1948 bitartean, Oïrot-Tura)
Göteborg / Gothembourg	Göteborg
Göttingen / Göttingue / Gottingue	Göttingen
Grozny	Grozny ²⁵
Halytch / Galitch	Halytx
Hanovre	Hannover
Hrodna / Horodnia / Grodno	Hrodna
Iakoutsk	Jakutsk
Iaroslavl	Jaroslavl
Iekaterinbourg / Ekaterinbourg (1924-1991 bitartean, <i>Sverdlovsk</i>)	Jekaterinburg (1924-1991 bitartean, Sverdlovsk)
Iéna	Jena
Ijevsk (1984-1987 bitartean, <i>Oustinov</i>)	Izhevsk (1984-1987 bitartean, Ustinov)
Ioehkar-Ola	Joxkar-Ola

²¹ Zilegi da euskaraz ere jatorrizko grafian duen letraz idaztea: **Helsingor**.

²² Zilegi da euskaraz ere jatorrizko grafian duen diakritikoa idaztea: **Gdańsk**.

²³ Testuinguru historikoetan **Genoa** erabil daiteke.

²⁴ Testuinguru historikoetan **Kixoi** erabil daiteke.

²⁵ **Grozni** ere idatzi izan da euskaraz.

FRANTSESA	EUSKARA
Irkoutsk	Irkutsk
Kaliningrad (1946 arte, <i>Königsberg</i>)	Kaliningrad (1946 arte, Königsberg)
Kamianets-Podilskiy / Kamenets-Podolski	Kamianets-Podilsky
Kazan	Kazan
Khabarovsk	Khabarovsk
Khanty-Mansiisk	Khanty-Mansisk
Kharkiv (lehen, errusieratik transkribatua, <i>Kharkov</i>)	Kharkiv (lehen, errusieratik transkribatua, Kharkov)
Krasnodar (1793-1920 bitartean, <i>Jekaterinodar / Ekaterinodar</i>)	Krasnodar (1793-1920 bitartean, Jekaterinodar)
Krasnoïarsk	Krasnoïarsk
Kryvyi Rih ou Krivoi-Rog	Kryvyi Rih
Kyzyl / Kizil	Kyzyl
La Haye	Haga
Lancastre / Lancaster	Lancaster
Lausanne	Lausana / Lausanne
Leyde	Leiden
Lipetsk	Lipetsk
Livourne	Livorno
Lorette	Loreto
Louhansk (1935-1958 eta 1970-1992 bitartean, <i>Vorochilovgrad</i>)	Luhansk (1935-1958 eta 1970-1992 bitartean, Vorochilovgrad)
Louisbourg	Ludwigsburg
Loutsk	Lutsk
Louvain	Lovina / Leuven
Lunebourg	Lüneburg
Lviv (lehen, errusieratik transkribatua, <i>Lvov</i>)	Lviv (lehen, errusieratik transkribatua, Lvov)
Maastricht (antzina: Maestricht / Maëstricht)	Maastricht
Magas	Magas
Magdebourg	Magdeburg
Maïkop	Maïkop
Makhatchkala (1857-1921 bitartean, <i>Petrovsk-Port</i>)	Makhatchkala (1857-1921 bitartean, Petrovsk-Port)
Malines	Malinas
Mantoue	Mantua
Marbourg	Marburg
Mariupol (1948-1989 bitartean, <i>Jdanov</i>)	Mariupol (1948-1989 bitartean, Zhdanov)
Mayence	Mainz
Messine	Messina
Milan	Milan
Modène	Modena
Moguiliev / Moghilev / Moguiliou	Mahiliou
Mons	Mons
Monte-Carlo	Monte-Carlo
Mourmansk	Murmansk
Munich	Munich

FRANTSESA	EUSKARA
Mykolaïv / Nikolaïev	Mykolaïv
Naberezhnye Tchelny (1982-1988 bitartean, <i>Brejnev</i>)	Naberezhnye Tselny (1982-1988 bitartean, Brezhnev)
Naltchik	Naltzik
Naples	Napoles / Napoli
Narbonne	Narbona
Narian-Mar	Narian-Mar
Naupacte (Aro Modernoan: <i>Lépante</i>)	Naupaktos (Aro Modernoan: Lepanto)
Nauplie	Nauplio
Navahrudak	Navahrudak
Nazran	
Nijni Novgorod (1932-1991 bitartean, <i>Gorki</i>)	Nizhni Novgorod (1932-1991 bitartean, Gorki)
Nimègue	Nimega
Nole	Nola
Novare	Novara
Novokouznetsk (1932-1961 bitartean, <i>Stalinsk</i>)	Novokouznetsk (1932-1961 bitartean, Stalinsk)
Novossibirsk (1926 arte, <i>Novonikolaïevsk</i>)	Novosibirsk (1926 arte, Novonikolaïevsk)
Nuremberg	Nurenberg
Odessa	Odesa
Oldenbourg	Oldenburg
Omsk	Omsk
Orenbourg (1938-1957 bitartean, <i>Tchkalov</i>)	Orenburg (1938-1957 bitartean, Txkalov)
Ostende	Ostende
Ostie	Ostia
Otrante	Otranto
Oufa	Ufa
Oujhorod / Oujgorod	Uzhhorod
Oulan-Oude	Ulan-Ude
Oulianovsk (1924 arte, <i>Simbirsk</i>)	Ulianovsk (1924 arte, Simbirsk)
Padoue	Padua
Palerme	Palermo
Parme	Parma
Patras	Patras
Pavie	Pavia
Penza	Penza
Perm (1940-1957 bitartean, <i>Molotov</i>)	Perm (1940-1957 bitartean, Molotov)
Pernik	Pernik
Pérouse	Perugia
Petrozavodsk	Petrozavodsk
Pilsen	Pilsen
Pise	Pisa
Plaisance	Piacenza
Plesetsk	Plesetsk
Pleven	Pleven
Plovdiv	Plovdiv

FRANTSESA	EUSKARA
Porto	Porto ²⁶
Raguse	Ragusa
Ratisbonne	Ratisbona
Ravenne	Ravenna
Reggio de Calabre	Reggio di Calabria
Reggio d'Émilie	Reggio nell'Emilia
Riazan	Riazan
Rostov-sur-le-Don	Rostov Don
Rotterdam	Rotterdam
Roussé / Ruse	Ruse
Saint-Petersbourg (1914-1924 bitartean, <i>Pétrograd</i> ; 1924-1991 bitartean, <i>Leningrad</i>)	San Petersburgo (1914-1924 bitartean, Petrograd ; 1924-1991 bitartean, Leningrad)
Salekhard	Salekhard
Salerne	Salerno
Samara (1935-1990 bitartean: <i>Kouibychev</i>)	Samara (1935-1990 bitartean: Kuibyxev)
Saransk	Saransk
Saratov	Saratov
Sarrebruck	Saarbrücken
Sarrelouis	Saarlouis
Savone	Savona
Schmalkalden (antzina: Smalkalde)	Schmalkalden
Sébastopol	Sebastopol
Shkodër (antzina: <i>Scutari</i>)	Shkodër (antzina: Scutari)
Sienne	Siena
Simferopol	Simferopol
Sliven	Sliven
Smolensk	Smolensk
Sorrente	Sorrento
Sotchi	Sotxi
Spire	Spira
Spolète	Spoleto
Stara Zagora	Stara Zagora
Sykyvkar	Sykyvkar
Tarente	Tarento
Tcheboksary	Txeboksary
Tcheliabinsk	Txeliabinsk

FRANTSESA	EUSKARA
Tcherepovets	Txerepovets
Tcherkessk	Txerkessk
Tchernivtsi / Tchernovtsy	Txernivtsi
Tchernobyl	Txernobyl ²⁷
Terrassa	Terrassa
Tioumen	Tiumen
Togliatti	Togliatti
Trente	Trento
Trèves	Treveris
Trévisé	Treviso
Tübingen (antzina: <i>Tubingue</i>)	Tübingen
Turin	Turin
Urbín	Urbino
Varna	Varna
Veliko Tarnovo	Veliko Tarnovo
Venise	Venezia
Vérone	Verona
Versailles	Versailles
Vicence	Vicenza
Vintimille	Ventimiglia
Vitebsk / Vitsyebsk	Vitsebsk
Viterbe	Viterbo
Vladikavkaz (parfois francisé en Vladicaucase) (1931-1944 eta 1954-1990 bitartean, <i>Ordzhonikidze</i> ; 1944-1954 bitartean, <i>Dzaoudjikaou</i>)	Vladikavkaz (1931-1944 eta 1954-1990 bitartean, Ordzhonikidze ; 1944-1954 bitartean, Dzaudzhkau)
Vladivostok	Vladivostok
Volgograd (1589–1925 bitartean, <i>Tsaritsyne</i> ; 1925–1961 bitartean, <i>Stalingrad</i>)	Volgograd (1589–1925 bitartean, Tsaritsyn ; 1925–1961 bitartean, Stalingrad)
Voronej	Voronezh
Wrocław (1945 arte, <i>Breslau</i>)	Wrocław ²⁸ (1945 arte, Breslau)
Wurtzbourg	Würzburg
Yalta	Jalta
Zaporijia / Zaporojie (1921 arte, <i>Alexandrovsk</i>)	Zaporizhia (1921 arte, Aleksandrovsk)

²⁶ Erdal Oporto izena portugesezko artikulua toponimoari eranstetik dator: **O Porto**.

²⁷ Ukraineratik abiatuz gero, **Txernobyl** transkripzioa dago-kio, baina lekuak nazioartean ospea lortu zenean Sobietar Batasuna zenez, errusieratik egindako transkripzioa zabaldu da.

²⁸ Zilegi da euskaraz ere jatorrizko grafian duen letraz idaztea: **Wrocław**.

INGELESA-EUSKARA ZERRENDA

INGELESA	EUSKARA
Aachen (antzina: <i>Aix-la-Chapelle</i>)	Akisgran / Aachen ²⁹
Abakan	Abakan
Agrigento	Agrigento
Algeciras	Algeciras
Anadyr	Anadyr
Ancona	Ancona
Arkhangelsk (antzina, <i>Archangel</i>)	Arkhangelsk
Assisi	Asis
Astrakhan	Astrakhan
Augsburg	Augsburg
Babruysk / Bobruisk	Babruisk
Barnaul	Barnaul
Benevento	Benevento
Bergamo	Bergamo
Birobidzhan	Birobidzhan
Bologna	Bolonia
Bragança / Braganza	Bragantza
Braunschweig (antzina: <i>Brunswick</i>)	Brunswick
Brest (1918 arte, <i>Brest-Litovsk</i>)	Brest (1918 arte, Brest-Litovsk)
Brno	Brno
Bruges	Brujas / Brugge
Burgas / Bourgas	Burgas
Cambrai (antzina: <i>Cambray</i>)	Cambrai
Canterbury	Canterbury
Capua	Capua
Carrara	Carrara
Cartagena	Cartagena
Caserta	Caserta
Cheboksary	Txeboksary
Chelyabinsk	Txeliabinsk
Cherbourg	Cherbourg
Cherepovets	Txerepovets
Cherkessk	Txerkessk
Chernivtsi	Txernivtsi
Chernobyl	Txernobyl ³⁰
Coburg	Coburg
Coimbra	Coimbra
Cologne	Kolonia
Como	Como
Constanza	Konstantza
Cremona	Cremona
Crotone	Crotona

²⁹ Testuinguru historikoetan **Akisgran** da aukera bakarra.

³⁰ Ukraineratik abiatuz gero, **Txernobyl** transkripzioa dago-kio, baina lekuak nazioartean ospea lortu zuenean Sobietar Batasuna zenez, errusieratik egindako transkripzioa zabaldu da.

INGELESA	EUSKARA
Cuneo	Cuneo
Dnipropetrovsk (1926 arte, <i>Yekaterinoslav</i>)	Dnipropetrovsk (1926 arte, Jekaterinoslav)
Dobrich (1949-1990 bitartean, <i>Tolbukhin</i>)	Dobritx (1949-1990 bitartean, Tolbukhin) [Bulgariako sistema ofizialaren arabera: Dobrich (1949-1990 bitartean, Tolbukhin)]
Donetsk	Donetsk
Dresden	Dresden
Duisburg	Duisburg
Elche	Elx
Elista (1944 eta 1957 bitartean, <i>Stepnoy</i>)	Elista (1944 eta 1957 bitartean, Stepnoi)
Ferrara	Ferrara
Florence	Florentzia
Frankfurt (Oder)	Frankfurt (Oder)
Frankfurt am Main	Frankfurt (am Main)
Freiburg im Breisgau	Friburgo / Friburgo Breisgau
Gdańsk (1945 arte, <i>Danzig / Dantzig</i>)	Gdansk ³¹ (1 945 arte, Danzig)
Genoa (antzina: <i>Genua</i>)	Genova ³²
Ghent (antzina: <i>Gaunt</i>)	Gante
Gijón	Gijón ³³
Gomel / Homiel / Homel	Homel
Gorno-Altaysk or Gorno-Altaysk (1932-1948 bitartean, <i>Oyrot-Tura</i>)	Gorno-Altaysk (1932-1948 bitartean, Oirot-Tura)
Gothenburg	Göteborg
Göttingen	Göttingen
Grozny	Grozny ³⁴
Halych	Halytx
Hanover	Hannover
Helsingør / Elsinore	Helsingor ³⁵
Hrodna / Grodno	Hrodna
Irkutsk	Irkutsk
Izhevsk (1984-1987 bitartean, <i>Ustinov</i>)	Izhevsk (1984-1987 bitartean, Ustinov)
Jena	Jena
Kaliningrad (1946 arte, <i>Königsberg</i>)	Kaliningrad (1946 arte, Königsberg)
Kamianets-Podilskyi / Kamyanets-Podilsky / Kamenets-Podolsky	Kamianets-Podilsky
Karlsruhe	Karlsruhe

³¹ Zilegi da euskaraz ere jatorrizko grafian duen diakritikoa idaztea: **Gdańsk**.

³² Testuinguru historikoetan **Genoa** erabil daiteke.

³³ Testuinguru historikoetan **Kixoi** erabil daiteke.

³⁴ **Grozni** ere idatzi izan da euskaraz.

³⁵ Zilegi da euskaraz ere jatorrizko grafian duen letraz idaztea: **Helsingør**.

INGELESA	EUSKARA
Kassel	Kassel
Kazan	Kazan
Khabarovsk	Khabarovsk
Khanty-Mansiysk	Khanty-Mansisk
Kharkiv (Iehen, errusieratik transkribatua, <i>Kharkov</i>)	Kharkiv (Iehen, errusieratik transkribatua, Kharkov)
Koblenz	Koblentza
Konstanz (antzina: <i>Constance</i>)	Konstantza
Kraków / Krakow / Cracow	Krakovia
Krasnodar (1793-1920 bitartean, <i>Yekaterinodar</i>)	Krasnodar (1793-1920 bitartean, Jekaterinodar)
Krasnoyarsk	Krasnoiarsk
Kryvyi Rih / Krivoy Rog	Kryvyi Rih
Kyzył	Kyzył
Lancaster	Lancaster
Lausanne	Lausana / Lausanne
Leiden (antzina: <i>Leyden</i>)	Leiden
Leuven	Lovina / Leuven
Lipetsk	Lipetsk
Livorno / Leghorn	Livorno
Loreto	Loreto
Ludwigsburg	Ludwigsburg
Luhansk (1935-1958 eta 1970-1992 bitartean, <i>Voroshilovgrad</i>)	Luhansk (1935-1958 eta 1970-1992 bitartean, Voroxilovgrad)
Lüneburg / Lueneburg / Lunenburg	Lüneburg
Lutsk	Lutsk
Lviv (Iehen, errusieratik transkribatua, <i>Lvov</i>)	Lviv (Iehen, errusieratik transkribatua, Lvov)
Maastricht	Maastricht
Magas	Magas
Magdeburg	Magdeburg
Mahilyov / Mahiloŭ / Mogilyov / Mogilev	Mahiliou
Mainz	Mainz
Makhachkala (1857-1921 bitartean, <i>Petrovsk-Port</i>)	Makhachkala (1857-1921 bitartean, Petrovsk-Port)
Mantua	Mantua
Marburg	Marburg
Mariupol / Mariupolis (1948-1989 bitartean, <i>Zhdanov</i>)	Mariupol (1948-1989 bitartean, Zhdanov)
Maykop	Maikop
Mechelen (antzina: <i>Mechlín</i>)	Malinas
Messina	Messina
Milan	Milan
Modena	Modena
Mons	Mons
Monte-Carlo	Monte-Carlo
Munich	Munich
Murmansk	Murmansk

INGELESA	EUSKARA
Mykolaiv / Nikolayev	Mykolaiv
Naberezhnye Chelny (1982-1988 bitartean, <i>Brezhnev</i>)	Naberezhnye Txelny (1982-1988 bitartean, Brezhnev)
Nafplion / Nafplio	Nauplio
Nalchik	Naltxik
Naples	Napoles / Napoli
Narbonne	Narbona
Naryan-Mar	Narian-Mar
Naupactus / Nafpaktos (Aro Modernoan: <i>Lepanto</i>)	Naupaktos (Aro Modernoan: Lepanto)
Navahrudak / Novgorodok / Novogradok	Navahrudak
Nazran	Nazran
Nijmegen	Nimega
Nizhny Novgorod (1932-1991 bitartean, <i>Gorky</i>)	Nizhni Novgorod (1932-1991 bitartean, Gorki)
Nola	Nola
Novara	Novara
Novokuznetsk (1932-1961 bitartean, <i>Stalinsk</i>)	Novokuznetsk (1932-1961 bitartean, Stalinsk)
Novosibirsk (1926 arte, <i>Novonikolayevsk</i>)	Novosibirsk (1926 arte, Novonikolaievsk)
Nuremberg	Nuremberg
Odessa / Odesa	Odesa
Oldenburg	Oldenburg
Omsk	Omsk
Orenburg (1938-1957 bitartean, <i>Chkalov</i>)	Orenburg (1938-1957 bitartean, Txkalov)
Ostend	Ostende
Ostia	Ostia
Otranto	Otranto
Padua	Padua
Palermo	Palermo
Parma	Parma
Patras	Patras
Pavia	Pavia
Penza	Penza
Perm (1940-1957 bitartean, <i>Molotov</i>)	Perm (1940-1957 bitartean, Molotov)
Pernik	Pernik
Perugia	Perugia
Petrozavodsk	Petrozavodsk
Piacenza	Piacenza
Pisa	Pisa
Plesetsk	Plesetsk
Pleven (antzina, <i>Plevna</i>)	Pleven
Plovdiv	Plovdiv
Plzeň	Plisen
Porto / Oporto	Porto ³⁶

³⁶ Erdal **Oporto** izena portugesezko artikulua toponimoari eranstetik dator: **O Porto**.

INGELESIA	EUSKARA
Ragusa	Ragusa
Ravenna	Ravenna
Regensburg / Ratisbon	Ratisbona
Reggio di Calabria	Reggio di Calabria
Reggio Emilia / Reggio nell'Emilia	Reggio nell'Emilia
Rostov-on-Don	Rostov Don
Rotterdam	Rotterdam
Rousse / Ruse / Russe	Ruse
Ryazan	Riazan
Saarbrücken	Saarbrücken
Saarlouis	Saarlouis
Saint Petersburg (1914-1924 bitartean, <i>Petrograd</i> ; 1924-1991 bitartean, <i>Leningrad</i>)	San Petersburgo (1914-1924 bitartean, Petrograd ; 1924-1991 bitartean, Leningrad)
Salekhard	Salekhard
Salerno	Salerno
Samara (1935-1990 bitartean: <i>Kuybyshev</i>)	Samara (1935-1990 bitartean: Kuibyxev)
Saransk	Saransk
Saratov	Saratov
Savona	Savona
Schmalkalden	Schmalkalden
Sevastopol (antzina, <i>Sebastopol</i>)	Sebastopol
s-Hertogenbosch	's-Hertogenbosch
Shkodër (antzina: <i>Scutari</i>)	Shkodër (antzina: Scutari)
Shumen	Xumen [Bulgariako sistema ofizialaren arabera: Shumen]
Siena	Siena
Simferopol	Simferopol
Sliven	Sliven
Smolensk	Smolensk
Sochi	Sotxi
Sorrento	Sorrento
Speyer (antzina: <i>Spires</i>)	Spira
Spoletto	Spoletto
Stara Zagora	Stara Zagora
Sykyvkar	Sykyvkar
Taranto	Tarento
Terrassa	Terrassa
The Hague	Haga
Togliatti	Togliatti

INGELESIA	EUSKARA
Trento (antzina: <i>Trent</i>)	Trento
Treviso	Treviso
Trier	Treveris
Tübingen	Tübingen
Turin	Turin
Tyumen	Tiumen
Ufa	Ufa
Ulan-Ude	Ulan-Ude
Ulyanovsk (1924 arte, <i>Simbirsk</i>)	Ulianovsk (1924 arte, Simbirsk)
Urbino	Urbino
Uzhhorod / Ungwar	Uzhhorod
Varna	Varna
Veliko Tarnovo	Veliko Tarnovo
Venice	Venezia
Ventimiglia	Ventimiglia
Verona	Verona
Versailles	Versailles
Vicenza	Vicenza
Vitebsk / Viciebsk / Vitsyebesk	Vitsebsk
Viterbo	Viterbo
Vladikavkaz (1931-1944 eta 1954-1990 bitartean, <i>Ordzhonikidze</i> ; 1944-1954 bitartean, <i>Dzauzhikau</i>)	Vladikavkaz (1931-1944 eta 1954-1990 bitartean, Ordzhonikidze ; 1944-1954 bitartean, Dzauzhkau)
Vladivostok	Vladivostok
Vlissingen / Flushing	Vlissingen
Volgograd (1589-1925 bitartean, <i>Tsaritsyn</i> ; 1925-1961 bitartean, <i>Stalingrad</i>)	Volgograd (1589-1925 bitartean, Tsaritsyn ; 1925-1961 bitartean, Stalingrad)
Voronezh	Voronezh
Wroclaw / Wroclaw (1945 arte, <i>Breslau</i>)	Wroclaw ³⁷ (1945 arte, Breslau)
Würzburg	Würzburg
Yakutsk	Jakutsk
Yalta	Jalta
Yaroslavl	Jaroslavl
Yekaterinburg / Ekaterinburg (1924-1991 bitartean, <i>Sverdlovsk</i>)	Jekaterinburg (1924-1991 bitartean, Sverdlovsk)
Yoshkar-Ola	Joxkar-Ola
Zaporizhia (1921 arte, <i>Aleksandrovsk</i>)	Zaporizhia (1921 arte, Aleksandrovsk)
Zweibrücken	Zweibrücken

Arau honetako zerrendak toki eta egun hauetan onartu ditu Euskaltzaindiak:

Bilbon, 2009ko urtarrilaren 30ean.

Urkiolan, 2009ko martxoaren 26an.

³⁷ Zilegi da euskaraz ere jatorrizko grafian duen letraz idaztea: **Wroclaw**.

BERRIAK

TXOMIN PEILLENEN AGOSTI-XAHO SARIA JASO

2008ko urtarrilaren 10ean, Txomin Peillen euskaltzain emerituak Agosti Xaho saria jaso zuen. Saria Agosti Xaho Kultur Elkartearen Elixabete Piñol presidentearen eskutik jaso zuen, Baionako Fakultatean egin zen ekitaldian. Elixabete Piñolek azaldu bezala, bizitza guztian egindako lanagatik eman diote saria.

Elixabete Piñolen esanetan, ugariak dira Txomin Peillenen merezimen-
duak: «Euskaltzain osoa, Unibertsitateko katedratiko emeritua, ikertzaile
nekagaitza hizkuntzalaritza arloan, langile sutsua hamaika erakundetan, elebe-
rri, olerki eta antzerki idazlea».

Peillenek sortutako literatura lan batzuen izenburuak gogora ekarri zituen,
bai eta eskuratu dituen sari batzuk ere. «Egindako lan guztiagatik –gaineratu
zuen– merezi du Txominek Agosti Xaho saria. Gizon handia, estimatua, mai-
tagarria eta euskaltzale sutsua. Eta guk beste meritu bat gehituko dugu: bere
umorea».

Elixabete Piñolekin batera, Mikel Coia elkarteko idazkaria ere izan zen
Baionan.

Agosti Xaho Kultur Elkartearen xedea euskara eta euskal kultura susta-
tzea da. Ipar Euskal Herriko errealitateari begirune bereziaz erreparatze aldera,
Lapurdikoa, Nafarroa Behereko eta Zuberoako idazleek eta euskaltzaleek egiten
duten lana zabaldu nahi du, bai eta mugaz bi aldeen arteko loturak sendotu
ere, beti ere kultura eta euskararen bitartez. Urtero, beste ekitaldi batzuen
arte, Agosti Xaho saria banatzen du, Zuberoako Zohardia Kultur elkarte-
rekin batera.

Aurreko urteotan, hauek jaso dute Agosti Xaho saria: Battitta Urruty
zenak, Jean Mixel Bedaxagarrek, Junes Casenavek, Daniel Landartek eta Jean-
-Louis Davantek.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA: 50. URTEURRENA. BARAKALDO

2008ko abenduaren 20an, BECen jokatu zen Bizkaiko Bertsolari Txapelketan Euskaltzaindia ere izan zen. Izan ere, Akademiaren izenean, Adolfo Arejita euskaltzain osoak saria eman zion Unai Iturriaga aurtengo txapeldunordeari. Saria Xabier Santxotenenaren «Eguzkilorea» izeneko eskultura izan zen.

Bizkaiko Bertsozale Elkartek bestalde, Valentin Lakaren eskultura bat eman zion Euskaltzaindiari, Bizkaiko Txapelketaren 50. urteurrenean. Bertan «Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2008. 1958-2008» irakur daiteke.

Orain dela mende erdi bat, 1958ko abuztuan, Bizkaiko Lehen Bertsolari Txapelketa egin zen, Euskaltzaindiak antolaturik. Alfontso Irigoien euskaltzaina ibili zen antolakuntza lanetan.

Txapelketa abuztaren 24an egin zen, Bilboko Areatzan, txapelduna Balandin Enbeita izan zelarik. Juan Ormaetxea «Taket» izan zen txapeldunordea, Jose Alberdi hirugarren geratu zen, Asensio Bidaurreazaga laugarren, Eusebio Zubiaga bosgarren, eta azken biak Pedro Kastrejana eta Florentzio Zarraga izan ziren.

2008ko txapelketa aurkezteko egin zen prentsaurrekoan –abenduaren 15ean, Durangon– hori guztia gogoratu zuen Jose Luis Lizundia euskaltzain oso eta diruzainak. Harekin batera Jon Azpillaga bertsolaria, Karmelo Uriarte Bizkaiko Bertsozale Elkarteko lehendakaria eta aurtengo zortzi finalistak izan ziren.

Jakina denez, Igor Elortza izan da 2008ko txapelduna.

DURANGOKO 43. EUSKAL AZOKAREKIKO KONTU-ERRENDAPENA

Durangon, 2008ko abenduaren 5, 6,7 eta 8an

Durangoko Liburu eta Disko Azoka, 2008. urteko abenduaren 5etik 8ra bitartean egin da *Landakosolo* lur eremuan kokaturik dagoen erabilera anitzeko Erakustazokan.

Euskaltzaindiak argitalpen-salmentarako stand bi alokatu zituen irailaren 24an.

Bestalde, *Gerediaga Elkarteak*, duela urte batzuk hasitako digitalizazio prozesuarekin jarraikiz, bere webgunean argitaletxe desberdinetako produktak jarri ditu ikusgai. Euron artean, Euskaltzaindikoak.

Euskaltzaindiko Prentsa Zerbitzuak, Erakundeak Durangoko Azokan aurkeztu duenaren informazioa helarazi die komunikabide desberdinei. Horretaz gain, eta zabalkundea hobetzeko asmoarekin, Euskaltzaindiaren 2008.urteko argitalpenen berri ematen duen aldizkari bibliografikoa doan banatu da Erakundeko standera hurbildu diren bisitarien artean.

Aurten, Azoka izaten den Erakustazokaren ondoan dagoen Elkartegia eraikinean, Euskaltzaindiak Pirinioetako Hizkuntzei buruzko esposizioa antolatu du. Erakustaldiarekin batera, Euskaltzaindiaren 90. urteurrena aintzat harturik, Akademiaren lehena, geroa, oraina eta etorkizunaren berri ematen duen bideoa etenik gabe ikusgai izan da.

Euskaltzaindiak *Institut d'Estudis Catalans*-ekin (IEC) daukan elkarkidetzaren harremana dela eta Erakunde honek presentzia izan du Durangoko Azokan. Euskaltzaindiaren standean, IEC-ren difusio materiala ikusgai izan da.

Aurtengo edizio honetan, Euskaltzaindiak aurkeztu dituen argitalpen berriak jarraikook izan dira, hots:

- *Euskera* 2007,2
- *Euskera* 2007,3
- *Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra*. Iker 19
- *Jean Haritschelhar-i omenaldia*. Iker 21
- *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Jagon VI
- *Testu antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Jagon VII
- *III. Onomastika Jardunaldiak*. Onomasticon Vasconiae 7

- *Literatura terminoen hiztegia*. Hiztegiak 13
- *Hiztegi Batua (2008)*: Euskaltzaindia-Elkar argitaletxearekin koedizioan
- *Hitzak orbainetan*. Felipe Arrese Beitia Olerki Saria 2006
- *Kontrako bidean*. Toribio Altzaga Antzerki Saria 2006
- *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan*. Mikel Zarate Saiakera Saria 2006
- *Narrazioak eta Olerkiak 2007*. R. M^a Azkue sariketa
- *Anso eta Erronkariko toponimia*. Mendaur V
- *Saindu batzuen biziaz*. Euskaltzainak 1
- *Pierre Broussain, Sa contribution aux etudes basques*. Euskaltzainak 2
- *Yolanda*. Euskaltzainak 3
- *Artzain beltzaren neurtitzak*. Euskaltzainak 4
- *Gutun bilduma*. Euskaltzainak 6
- *Morfología del verbo vasco: Compendio/Índices/Index*
- *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)*.

Guztira Euskaltzaindiko 50 argitalpen desberdin eraman dira Azokara. Argitalpenen hautaketa eta kopurua, aurreko urteetako salmentak kontuan hartuz egin da.

Balorazio ofiziala nahiko baikorra izan dela adieraz daiteke. Esan da, krisi egoera, Durangoko Azokak, bai bisitari bai salmenta aldetik, bereari eutsi egin diola. Euskaltzaindiak ostera, salmenta aldetik gorakada nabarmena izan du. Ia % 50 gehiago saldu da. Hala ere, ez dugu baikorregiak izan nahi. Gure ustea da, zenbait argitalpen berri baditugu (*Euskal Izendegiaz* ari gara) eta beste batzuren kasuan, zabalkunderako denbora gehiago izanik (*Hiztegi Batua*, kasuko) emaitza hobek ateratzeko. Titulu batzuk aipatzearen, *Hiztegi Batua (2008)*, eta *Testu antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Jagon 7. Gainontzekoetatik, denetatik apur bat saldu da; eraman diren argitalpen ia guztietatik saldu dira ale bat edo beste.

Oro har jende ugari hurbildu da Azokara, batik bat larunbat eta igandean. 2008ko edizioan *Argizaiola* Juan Zelaiari eman zaio, euskal kultur gintzan egin duen isilpeko lana eskertu nahirik. Sari-emate ekitaldira ezin izan zuen etorri eta, ordezkotzat, Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak jaso zuen saria. Bestalde, berriki zendu den Gotzon Garate josulagun idazleari omenaldia egin zitzaion eta bertan Jabier Kartzakorta eta Juan Manuel Etxebarria euskaltzain urgazleek hartu zuten parte. Bernardo Atxaga euskaltzain osoak ere hitzaldia eman zuen Quim Monzó idazle kataluniarrarekin batera.

2008eko abenduaren 19an

Ricardo Badiola Uriarte,
argitalpen eragilea

Jon Artza Bikandi,
argitalpen banaketa arduraduna

EUSKALTZAINDIAK BERE WEBGUNEA BERRITU DU

2008ko abendutik, Euskaltzaindiaren webgunea baliabide berriak ditu. www.euskaltzaindia.net webgunea edukietan berritu zen, eta Web 2.0 teknologiara egokitu. Akademiaren Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) batzordeak burutu zuen lana. Batzorde hori 2007an eratu zen, eta besteak beste, Akademiaren webgunean jarri du arreta berezia. Izan ere, batzordea sortu zenetik hainbat baliabide berri erantsi zitzaizkion webguneari (arau-erabakien banaketa elektronikoa (e-AEB) kasu), eta 2008ko abenduan beste-lako edukiak gehitu dira www.euskaltzaindia.net webgunean.

Berritu ziren edukien artean, *Plazaberri* agerkari digitala dugu. 2006ko apirilean sortu zen eta denbora honetan, hainbat aldaketa ezagutu zituen Plazaberrik: hasieran hilabetekaria zena Akademiaren aktibitateak eskatzen zuen maiztasunez argitaratzen zen.

Hain zuzen ere, maiztasun horrek eraginda, eta guztion parte-hartzea bultzatze aldera, Plazaberri berritua sortu zen eta blog bihurtu zen. Blogak dituen ezaugarri guztiak ditu eta irakurleen iruzkinei ere irekita dago.

Euskaltzaindiaren webgunean (www.euskaltzaindia.net) irakurgai da eta RSS 2.0 eta Atom 1.0 bidezko harpidetza egin daiteke. Sistema honen bidez, argitaratutako artikulua banan-banan jasotzen dira, argitaratu bezain laster. Harpidetza hori egiteko RSS irakurgailua (Bloglines, Google Reader, Feed Reader, ...) instalatuta edo RSS jarioak jasotzeko gai den nabigatzailea (Firefox, adibidez) izan beharko du erabiltzaileak.

Edozein modutan, *Plazaberri* blogean kaleratzen diren izenburuen berri ematen zaie harpidedunei.

BILBOKO UDALAK EUSKALTZAINDIA OMENDU:

90. urteurrean

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunarekin, Bilboko Udalak Euskaltzaindia omendu zuen, Akademiaren sorreraren 90. urteurrenean. Omenaldian, Udalak Akademiari gorazarre-hitzak eskaini zizkion, «90 urtez Bilborekin izan duen harreman oparoa eta estua, euskararen bilakaeran garrantzia berezia hartu baitu gure hiriak Euskaltzaindiari esker».

Ekitaldian, Bilboko euskaltzainak ez ezik, Euskaltzaindiarekin urte luzez lotura estua izan duten beste pertsona batzuk –langileak eta euskaltzain oso, ohorezko, urgazleak– ere omenduak izan ziren, «haien lan baliotsuak berebiziko garrantzia izan baitu euskara sustatzeko eta normalizatzeko».

Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskara zinegotziak Bilboko Hiri Gutunaren euskarazko bertsioa eman zieten. Honela dio: «Jaungoikoaren eta Amabirjina dohatsuaren izenean beki jende orok, nik neuk, Bizkaiko jaun nauzuen Diego Lopez Harokoak, Lope Diaz nire semearekin batera, eta Bizkaitar guztion oniritziz, mila eta hirurehungarren urteko aroan Bilbon hiribildu herria sortu...» Euskararen Nazioarteko Eguna. 2008ko abenduaren 3a. Bilboko Udala. Euskaltzaindiaren omenez bere 90. urteurrenean.

Iñaki Azkuna alkatea eta Andres Urrutia euskaltzainburua mintzatu ziren ekitaldian. Euskaltzainburuak bi erakundeon arteko harremana goraiatu zuen, eta lankidetzahitzarmena sinatua dutela gogoratu. Bestetik, Euskaltzaindian gaur egun lan egiten duten guztien izenean eskertu zuen omenaldia, «eta eskertu behar diot ez bakarrik Udalari, baita gure aurrean izan zirenei ere, horiei esker gaudelako gu hemen, gerokoan ere beste batzuk egongo diren bexalaxe. Beti ere –nabarmendu zuen– euskara eta euskal kulturaren mesedetan».

Bestalde, Adolfo Arejita euskaltzain osoak Euskaltzaindiaren sorrera laburki azaldu zuen, eta hasiera-hasieratik bere egoitza Bilbon izan duela aipamarratu.

EUSKALTZAINDIAK, EUSKO IKASKUNTZAK ETA EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAK HENRIKE KNÖRR OMENDU

Abenduaren 2an, Henrike Knörr izena eman zitzaion Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak Gasteizen konpartitzen duten ekitaldi aretoari. Ekitaldian hiru erakundeotako kideek hartu zuten parte, eta guztion izenean honako hauek hitz egin zuten: Fernando Salazar Rodríguez de Mendarozqueta, Euskalerrriko Adiskideen Elkartearen Arabako batzordearen lehendakariak; Maria Nieves Urrutia Agorreta, Eusko Ikaskuntzaren Arabako lehendakariordeak; eta Manu Ruiz Urrestarazu, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariak.

Hitzen ostean, Armando Llanos Ortiz de Landalucek omenduari buruz egindako argazki-sorta ikusi zen, eta «Ariadna» korda taldeak musika emanaldia eman zuen. Azkenik, «Henrike Knörr Ekitaldi Aretoa» izena jartzen duen plaka agerian jarri zen. Txari Santiago Henrike Knörr zenaren emazteak eskerak eman zizkien bertan ziren pertsona guztiei.

Euskaltzaindiaren izenean, hauek izan ziren: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, *Jagon* sailburua; Adolfo Arejita, Patxi Goenaga, Joseba Lakarra, Miren Lourdes Oñederra eta Patxi Uribarren euskaltzain osoak; Manu Ruiz Urrestarazu, Arabako ordezkaria; Gorka Aulestia, Joakin Gorrotxategi, Pruden Gartzia eta Pello Telleria euskaltzain urgazleak.

GASTEIZKO URREZKO DOMINA HENRIKE KNÖRR-I

*Manu Ruiz Urrestarazu,
Arabako ordezkaria*

Gasteizko Udalak urtero eta Gasteizko zaindaria den Andre Maria Zuriaren egunean, abuztuaren 5ean, ageriko ekitaldi bat antolatzen du eta bertan hiriko alkateak iraganeko urtearen oroitzapena egiten du eta datorren aldirako aurrikuspena zabaltzen du, nahi egokiak eta proiektu nabarmenak agertuz. Udalaren bizitzaren osagarri eta hiri osoaren ohoragarri, urte horretarako lehendik Udalak izendatu duen hiriaren urrezko dominadun izateko pertsonari ematen dio domina.

Aurten, 2008an, bi pertsona izan ziren hautatu urrezko domina hartzeko gai: Henrike Knörr Borràs gure euskaltzaina, eta Amelia Baldeón Iñigo arkeologoa. Lehenengoa, gure Henrike maitea, hil ondorengoa.

Igarotako azken urteetan halako ekitaldia *Zulueta* jauregian egiten zen, Florida parkearen ondoan, hiri erdian, baina Gasteizko Udalak Salburuko «Ataria» deritzan naturaren interpretazio zentroa ezagutarazi nahi zuela-eta, «Ataria» delako horretara aldatu zuen ekitaldia.

«Ataria» interpretazio gune hori Salburuko aintziren iparraldean dago, hango hezeguneen gain-gainean eta ikusgarri gertatzen da benetan. Kanpotik datorren jendearentzat ere hara iristea eroso da. *Buesa Arenaren* ondoan aurkitzen da, hiriaren zirkunbalaziotik gertu, barruko alderantz.

Baina ez omen dago arrosa arantzarik gabe. Ekologia arauak agintzen duenez «Ataria»-k ez du aire egokiturik eta egia esan orain arteko ipar eta erdiko euskal hirietan soberan dago aire egokitua, baldin eta airea era naturalean berriztatzen bada.

Halabaina, eta ingurumenaren aldetik begiratuta gainera, egun egiten diren eraikin mordo batek aje komun bat badu. Eta da: leiho itxiak izatea, leihoak ezin zabaltzekoak. Eta eraikinaren frontisean leiho batzuk kenduz gero, horrelako itxitura gertatzen da «Ataria»ren barruan ere. Abuztuaren 5ean, 34 °C-ko beroa zela-eta, «Ataria»n bildu eta itxi ginenok hor murgildu ginen, atmosfera estu horretan, gure izerditan garunak egosten.

Patxi Lazcoz Baigorrik, Gasteizko alkate denak, hitzaldi oparoa eskaini zigun, hasieran euskaraz eta gero gaztelaniaz, hango tokian aproposa zen in-

gurumenari buruzko burutazio aberatsak opatuz. Behin Gasteizen igarotako urtean egindako lanak aipatuz eta hurrengo aldirako bete beharko ziren proiektuak plazaratuz, Gasteiz Euskadiko hiriburua zela gogoratu eta aldarrikatu zigun, Gasteizko Udalekoetatik aparte hor zeuden Euskadiko beste erakundeen ordezkariak ere kontuan izan zezaten. Lazcoz Baigorri jauna bere sorkuntzaz kaskagogorra zela ziurtatu zigun eta denok Euskadiko hiriburuaren zidor zintzotik joateko inbitatu gintuen.

Gero Alkateak berak omentzen genituen bi pertsonen *kurrikuluma* gorai-patu zuen eta hitza eman zien omendutakoei beren agerraldia bilduen aurrean egiteko.

Lehenbizikoa Henrikerena izan zen. Txari Santiago, beraren emazte maitea izan genuen gure aurrean. Orduan bertan harekin batera Henrikeren pertsona ikusten genuen arimaren begiekin. Ekitaldiaren momentu gogoangarriena izan zen hura. Txari Santiago, ahots gozo eta sentipenez beterik, Henrikeren nondik norakoaz mintzatu zitzaigun. Knörr-Santiago bikotearen duintasuna eta dotoretasunaren eredu gertatu zen hitzaldia. Henrike gizatasunean eta euskaltzaletasunean eredugarri genuenontzat hitzaldi sentibera eta betea. Hitzaldi mamitua eta ederra.

D-MAILAKO AGIRIAK

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Emate eguna: Bilbo, 2008-VII-18

- 7.062 – Kristina AGUERRE
- 7.063 – Maria Carmen AIZPIOLEA NARRASPE
- 7.064 – Bruno ALASTUEY
- 7.065 – Iban ALCHOURROUN PETRISSANS
- 7.066 – Elorri ALGALARRONDO
- 7.067 – Elorri ARIN ELIZAGOIEN
- 7.068 – Inge ARIN LARRAÑAGA
- 7.069 – Julen ARMENDARIZ LASSALLETTE
- 7.070 – Xabina BARBIER ERDOZAINTEZI
- 7.071 – Elai BERASATEGI
- 7.072 – Patxi BERHOUEY
- 7.073 – Bixintxo BILBAO TAPIA
- 7.074 – Txomin CASTEIGTS HARAN
- 7.075 – Naiara CHARRITTON
- 7.076 – Maina CHASSEVENT
- 7.077 – Sylvie CHENAL
- 7.078 – Txomin Auxtin DARRITCHON
- 7.079 – Maite DELIART
- 7.080 – Jon DUHALDE
- 7.081 – Iñigo ELIZEGI ERBITI
- 7.082 – Txomin ELIZONDO
- 7.083 – Maider FRANCHESSENA ETCHEMENDY
- 7.084 – Garai GARCIA CALVO
- 7.085 – Dominika GOÑI
- 7.086 – Itxaro GOYHENECE
- 7.087 – Elena GUERIN
- 7.088 – Antton GUICHANDUT
- 7.089 – Mikela IGLESIAS DUNATE
- 7.090 – Ihintza IRUNGARAY
- 7.091 – Andoni ITURRIRIA MATXINANDIARENA
- 7.092 – Eñaut JAUREGI MIKELARENA
- 7.093 – Asier KINTANA ZORROZUA
- 7.094 – Naroa LABEGUERIE
- 7.095 – Maia LACROIX

- 7.096 – Naia LACROIX ETXEBERRIA
- 7.097 – Txomin LANTARON ARANTZABAL
- 7.098 – Pierre LAPEYRADE
- 7.099 – Iban LARRABURU
- 7.100 – Maider LARRE
- 7.101 – Eztitxu LASCOR
- 7.102 – Mikel MANTEROLA EIZMENDI
- 7.103 – Maritxu NEGELUA
- 7.104 – Arantxa ORONoz
- 7.105 – Elena OTHONDO ETCHEGOIN
- 7.106 – Maialen SAGARDUY
- 7.107 – Isabelle SAINT-PIERRE
- 7.108 – Maika THICOIPE
- 7.109 – Elorri UHALDE
- 7.110 – Coline URCUN MARCO
- 7.111 – Maite ZELESTINO SANTAMARIA

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Ebate eguna: Bilbo, 2008-XI-28

- 7.112 – Amaia DUCLERCQ
- 7.113 – Iker IPARRAGIRRE GALARRAGA
- 7.114 – Ainara LARRETXEA BERROUET
- 7.115 – Oihana ZAMPONI GALÉ

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA, «D» MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA EMATEARI UZTEAN

Azken urte hauetan Euskaltzaindiak «D» Mailako Hizkuntza Gaitasun Agiria izeneko titulua eman izan die araberrako azterketa gairitzen zuten Iparraldeko biztanleei.

Hori dela eta, honako hauek adierazi nahi ditu Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak:

- A) Euskaltzaindiaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren barnean, Euskaltzaindiak lagundu dio Euskararen Erakunde Publikoari hizkuntza gaitasuna egiaztatuko duen agiri baten garatze-bidean.

Hortaz, Euskaltzaindiak «D» titulua emateko eskubideak gordez, ez du oraingoz beste deialdirik egingo «D» titulua eskuratzeko.

- B) Iparraldean, bistan denez, hizkuntza-gaitasuna froga zezakeen azterketa publikorik ez izanik, 2008 arte segitu du Akademiak «D» Mailako Hizkuntza Gaitasun Agiria banatzen azterketa gairitzen zuten Iparraldeko biztanleen artean.

Lurralde horretan euskara gaur egun ere ofiziala ez den arren, azken urte hauetan Euskararen Erakunde Publikoa pixkanaka indartuz joan da, eta 2009tik aitzina berak antolatuko ditu Iparraldean euskararen gaitasunari dagozkion beste titulu berriak.

- C) Euskaltzaindiak begi onez ikusten du Iparraldean agintari publikoek beren gain hartzea sail horri dagozkion erantzukizunak.

- D) Era berean, Euskaltzaindiak eginahalak egiten ditu, Euskararen Erakunde Publikoarekin solastatuz, Euskaltzaindiaren «D» tituluaren jabe direnek baliokidetzaz egokia aurki dezaten hemendik aitzina Iparraldean antolatuko diren gaitasun agiri berrietan.

- E) Bestaldetik ere, Euskaltzaindiak bere gain hartzen du, orain arte bezalaxe, Iparraldean eman dituen «D» Mailako Hizkuntza Gaitasuna Agiriaren eskuratzailerentzako zerbitzuak ematea, nola kopiak egitea hala bestelako premiei erantzutea (eskuratzaileen erregistroa eta abar).

Donostian, 2009ko otsailaren 13an.

**EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPEN
AURKEZPENAK**

JUAN MARI LEKUONA HURBILETIK (1927-2005)
Aurkezpena

Azaroaren 14an, *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)* liburua aurkeztu zen Donostian, Koldo Mitxelena Kulturunean. Liburua Oiartzungo Udalak eta Euskaltzaindiak argitaratu dute, Juan Mari Lekuona zenaren omenez.

Lourdes Otaegi Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeko idazkariak koordinatu duen liburu honetan, Juan Mari Lekuona ezagutu, maite eta mirestu duten hainbat idazle, poeta, abeslari eta euskaltzainek hartu dute parte, omenaldi gisa, liburu honetan idatziz.



Aurkezpena honako hauek egin zuten: Aitor Etxeberria Oiartzungo alkateak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Lourdes Otaegi Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeko idazkariak.

Liburuak hiru zati nagusi ditu: «Lekuona. Gertuko erretratuak»; «Lekuonaren bizitza ibilbidea iruditan (1927-2005)»; eta «Lekuona. Literatura ikerle eta poeta». Joan Mari Lekuoaren bizi-urratsak oroitzen ditu liburuak, bai euskal idazle ezagunen idatzizko lekukotzen bidez, bai eta senide eta lagunen eskuzabaltasunari esker osatu den argazki bilduma zabalaren bidez ere; era berean, haren ikerlanaren eta sorkuntza literarioaren azterketa baloratzaileri ere lotu zaizkio ikerketa batzordeko kideen lanek.

Hauek dira liburuaren egileak: Xabier Lete, Gorka Aulestia, Anjel Lertxundi, Pello Esnal, Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Jon Kortazar, Joxe Austin Arrieta eta Lourdes Otaegi.

Egun berean, azaroaren 14an, iluntzean, Oiartzungo herriarentzako aurkezpena egin zen, bertoko Udaletxeko areto nagusian. Aretoa beteta zegoela, hauek hitz egin zuten: Idurre Bera Kultura zinegotziak, Jean Haritschelhar Euskaltzaindiko Literatura batzordeko buruak eta Lourdes Otaegik Literatura Ikerketa batzordeko idazkariak.

**EUSKALTZAINDIA-BILBAO BIZKAIA
KUTXA FUNDAZIOA: LITERATURA SARIAK**

EUSKALTZAINDIA-BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA: LITERATURA SARIAK

2008ko abenduaren 16an, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzten literatura sari nagusiak jakinarazi ziren Sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan egin zen.

Honako hauek dira 2008ko deialdiko irabazleak, eta epaimahaikideak:

Txomin Agirre eleberrri-saria: Mikel Zubeldia. Lana: *Ekilibristaren polka*
Epaimahaikideak: Ur Apalategi, Karlos Otegi eta Iratxe Retolaza

Toribio Alzaga antzerki-saria: Pako Aristi. Lana: *Josu Dukatiren proposamena*

Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.


Felipe Arrese Beitia olerki-saria: Amaia Jauregizar. Lana: *Azazkalak jaten*
Epaimahaikideak: Mikel Lasa, Felipe Juaristi eta Lourdes Otaegi

Mikel Zarate saio-saria: eman gabe geratu da, lanik aurkeztu ez delako.

MIKEL ZUBELDIA
TXOMIN AGIRRE SARIA. ELEBERRIA

EKILIBRISTAREN POLKA

Elkarrekin lotuta diren bost narraziok osatzen dute *Ekilibristaren polka* eleberria. Óchreland izena duen probintzietako hiri grisean girotzen ditu autoreak narrazio gehienak. Jon Gallimore protagonistak, Margrit Makay aktore-sarenganako zentzurik gabeko ihesa planteatuko dio irakurleari. Bidaia alderrai honetan, oreka galduarekin polka dantzatzeko duten galtzaile jendearekin topo



egingo du: Muratori, iragan iluneko museoko kikeronearekin; Soeur Coraline, amodio eta luxuzko nobelak idazten dituen lekaiamearekin; Bérénice, camping batean bizi den *pied-noir* kantariarekin, edo Martin Gallimore, Radio Tirana irrati-kate komunistari esker bizitzari eusten dion langilearekin, besteak beste. Narrazioen joanean atmosfera estrainio bat, oso pertsonala, nagusituko da, irakurlea ezberrik gabe bertan murgiltzea helburu duena.

Identitateaz, pertsonen arteko gatazkez, maitasun lokaztuez, joandako XX. mendean eta beste hainbat gauzaz hitz egingo digu *Ekilibristaren polkak*. Betiere tonu umoretsua erabiliz.

Mikel Zubeldia

Donostian jaioa, 1972. urtean.

Enpresa zientzietan lizentziatua da eta kanpo merkataritzan aditua.

Aurrez, honako sariak eskuratu ditu:

- *Lutelestia*. 1994. urteko «Jorge Oteiza» Ipuin lehiaketan bigarren saria.
- *Zokaloak margotzeko eskailerak* (*Elkar* Argitaletxea - Debako Udala). 2001. urteko «Tene Mujika» narrazio lehiaketan hirugarren saria.
- *Manikien hilerria* (*Ereintza* Kultur Elkartea - Errenteriako Udala). 2002. urteko «Errenteria Hiria» ipuin lehiaketan lehen saria.
- *Manikien Galeria* (Euskaltzaindia – BBK). 2003. urteko Txomin Agirre saria.

PAKO ARISTI
TORIBIO ALTZAGA SARIA. ANTZERKIA

JOSU DUKATIREN PROPOSAMENA

Atxiloketa batekin hasten da obra: Ertzaintzak ETako buruzagi bat atzeman du. Galdeketa gelan dago, eta ertzain-burua datorkio galderak egitera. Bi gizonak, aurrez aurre, elkarri zorrotz begiratuko diote, aspaldiko ezagunak baitira: institutu garaian ikaskideak ziren, eta lagunak. Biak neska berberaz maiteminduta bazeuden ere. Institutua amaitutakoan haien bideak bereiztu egin ziren. Biek hartu zituzten armak: batek legearen alde, besteak legearen aurka.



Hogeita bost urte igaro dira, eta koartelean gertatzen dena ez da galdeketa soila izango, zerbait gehiago baizik: ertzain-buruak jartzen dizkion argazki batzuen bitartez euren bizitzak errepatatuko dituzte, Euskal Herriaren hogeita bost urteotako historiari errepataso sakona emanez. Amaieran ezuste bat baino gehiago deskubrituko du ikusleak. Euskal Herriak bizi duen egoera zakarraren aurrean irteera bat irudikatzen eta eskaintzen saiatzen da obra.

Pako Aristi

Urrestillan jaioa 1963an. Idazlea, gidoilaria, kazetaritza lizentziatua eta musika ikasketak eginak. 1985ean agertu zen euskal literaturaren panoraman, hiru liburuokin: *Kcappo* eleberria, *Martinellok ez du kukurik entzuten* haur literaturan eta *Euskal kantagintza berria* saiakera periodistikoan.

Geroztik liburu asko argitaratu ditu. *Urregilearen orduak* nobelarekin Espainiako Kritika saria jaso zuen 1999an. *Gauza txikien liburua* obrarekin, berriz, Beterriko Liburua saria 2005ean.

Poesia argitaratu du: *Castletown*, *Oherako hitzak* eta *Libreta horiko poemak*. Hainbat biografia ere idatzi ditu: *Gelatxo*, *Soinuaren bidaiak amaigabea*, *Nire uztapide* edota *Kontxu Odriozola*.

Bi aldiz jaso du Rikardo Arregi kazetaritza saria, 1992an eta 1993an, urteko erreportairik onenak baloratuz.

Mikel Markez kantariarekin batean hiru ikuskizun estreinatu ditu eta Euskal Herri osoan ibili da bere testuak irakurtzen.

AMAIA JAUREGIZAR
FELIPE ARRESE BEITIA SARIA. OLERKIA

AZAZKALAK JATEN

Egunek aurpegiak ugari izan ditzakete, egun horiek bizi dituztenek bezala. Aurpegiotako zenbait dira, besteak beste, poema-liburu honen ardatz.

Sarritan, begirada joandako egunetan dago. Aitzitik, begiak orainaldian daude.



Denbora, beraz, oso garrantzitsua da; bestela, nekez jakin edo erabaki baitaiteke zein den eguneroko istorioen amaiera.

Hiru ataletan banatuta dago. «Aduanazainaren ardurak» izenburupean dago lehenengoa. Bigarrena, «Oin-puntetan» deitzen da, eta hirugarren eta azkena «Egiak euritan». Poema oso labur zein luzeagoetan islatzen da hori guztia.

Amaia Jauregizar

Gernika-Lumon jaioa, 1985ean. Euskal filologoa.

Irakurtzeko eta idazteko zaletasuna gaztetarik datorkio. Behin baino gehiagotan parte hartu izan du literatur sariketetan. 2002an, R. Maria Azkue literatura sariketan, olerkiaren alorrean, 1.saria eskuratu zuen.

Matrakan eta *Busturialdeko Hitzan* azaldu dira bere artikuluak.

HIL BERRIAK

HENRIKE KNÖRR EUSKALTZAINDIAN

Azken aldi honetan joan zaizkigun Euskaltzaindiko sei kideren omenezko ospakizuna da gaur. Hainbeste izanik, txosten luze batzuren ordeztu, modu arinago baten aurkeztuko dugu. Horrela bedi, nahiz eta, gero, *Eusker*a gure agerkarian eranskin bibliografiko ahalik eta zehatzena argitaratu dezakegun. Kostako da, Henrikeren kasuan.

Henrike Knörr Euskaltzaindian jarri diot izenburua txosten honi, zeren eta beste erakunde, elkarte eta talde askotako partaidetza eta lankidetzaz ezingo baitut gaur azaldu, hots, Euskal Herriko Unibertsitatean eta beste zenbait unibertsitateetan, Sancho el Sabio erakundearen, Landazuri elkartearen, Eusko Ikaskuntzan, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-en eta abarretan. Beraz, hizkuntza Akademian egindakora mugatuko naiz. Gauza jakina duzue, bestalde, Tarragonan jaio zela, 1947ko martxoaren 2an.

Henrikeren ezagutza 1971n izango zela uste dut, oker ez banago Manu Ruiz Urrestarazuren bidez, zeren eta berau maiz ikusten nuen Iurreta-Durangoan, berak eta nire emazteak enpresa berean lan egiten baitzuten. Bestalde, Manu 1969tik ezagutzen nuen, Arabako Euskaltzaindiaren Ordezkaritzari lehen oinarriak jartzeko ahalgintetan aritu ginenetik, Gasteizko Institución Sancho el Sabiok Probintziako Plazan zuen egoitzan. Patxadaz mintzatzeko hitzordua finkatu genuen, Urkiolan, hain zuzen. Luze eta zabal aritu nintzaion Euskaltzaindiaren beharrez, batez ere, Araban. Ez daukat egun hori ahazteko, besteak beste, Henrikek agertu zuelako bere protestarako sena. Hain zuzen, pagope baten elkarren oharrak jasotzen geundela, kanpandoreko bozgorailua trikitrixa soinu eten gabe eta errime hasia baitzen eta ez zen isiltzen. Santutegiko erretoarengana joan eta hain paraje ederreko bakea hausteko eskubiderik ez zegoela esan zion.

Arabako hiriburuan Euskaltzaindiak bulego bat eraikitzea, ezinezkoa izango zen Manu eta bere partaidetzarik gabe. Sancho El Sabioko Jesus Olaizola liburutegi zuzendariaren laguntza ezinbestekoa suertatu zitzaigun. Zumaiar hau, oso integrista zen, beste euskaldun asko bezala, baina oso euskaltzalea ere, bere erara, noski. Gestio hauek gauzatu zirenean, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaritza taldeko idazkaria izendatua izan zen 1975.eko urriaren 31n, gero, beste bi aldiz kargu horretan errepikatuko zuelarik, Patxi Goenaga eta Manu Ruiz Urrestarazuk ere tartekatuz. Arabako Ordezkaritzaren historia ondo egiteko bi hauen laguntza ere nahiko nuke.

1973an estreinatu zen Henrike gure *Eusker*a agerkarian, hain zuzen, Gerardo López de Gereñuk, honen adiskide mina zen Juan San Martinen eraginez *Más voces alavesas* lanari eranskin bat egin baitzion Knörrek. Orrialdetxo bat, baina esanguratsua Arraia-Maetzu udalerriko XIX. mendearen hasierako euskararen lekukotasuna biltzen baitzuen. 1975eko uztailaren 17an Ulibarren omenez Okondoko herriaren Akademiak

egin zuen batzar irekian jaso zuen euskaltzain urgazletzako diploma. Ekainaren 27ko osoko bilkuran izendatua izan zen beste hamazazpi lagunekin batera, beraien artean gaur euskaltzain oso ditugun Patxi Zabaleta eta Joan Mari Torrealdaí eta Juanjo Zea-rreta gure kudeatzailea, besteak beste. Hala ere, ez zen esku hutsik joan Aiera eskualde hartara txosten interesgarri bat irakurri baitzuen. Hara zer dioen aktak:

H. Knörr jaunak, Okondo bere jaioterriari buruz Ulibarrik zer esan zuen azaldu zuen. Orduko giroa, euskerazko eskola, t.a.

Onomastikaz izan zen haren lehen txostena, ordea, berak, gero, bere bizitza guztian jorratuko zuen gaiaz, hain zuzen, 1974ko apirilaren 19ko osoko bilkuran bion artean idatzi genuena: «Herri eta herritarren izendegia» tituluduna. Bere bibliografia oparoan irakurriko duzue gai honen inguruan ikertu, idatzi eta argitaraturiko lan ugari. K. Mítxelena izan zen Onomastika batzordeburu eta bera kide batzordea sortu zenetik 1985. urtea hasi arte, orduan, Henrikek hartu zuelarik buruzagitza, ni biekin idazkari. Hamasei urte iraun zuen karguan, 2001ean, Andres Iñigok txanda hartu arte. Garai horretakoak eta kargu horri zuzenean dagozkionak dira, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko *Biztanle Entitateen Herri Izendegia*, Gasteiz, 1986; *Nafarroako Herri Izendegia*, Iruñea, 1990; *Euskal Deituren Izendegia / Nomenclátor de Apellidos Vascos*, Madril, 1998; eta hainbeste irizpen, txosten eta ikerketa. Orobat, onomastika alorreko Biltzar eta Jardunaldietan parte hartzea, asko Euskal Herritik kanpo, nazioarte mailakoak.

1977ko otsailaren 26an hautatu zuen Akademiak euskaltzain oso. Orduko euskaltzainburu zen A. Luis Villasantek Henrikeren sarrera hitzaldiko agurrean hau zioen:

Euskaltzaindiak, egia esan, beti ezagutu izan ditu arabarrak bere barnean, sortze egunetik beretik. Sortu zen garaian, euskaltzain osoak hamabi ziren, eta horien artean bazen arabar bat: Aita Olabide, Gasteizko semea. Orain ere ohorezko euskaltzainen artean hor da Odon Apraiz jauna. Eta euskaltzain urgazleen artean ez dira gutti...: Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Patxi Uribarren, Gerardo López de Gereñu, Peli Martín, Antonio Berrueta, etab. Baina hau ere aitortu beharra dago: hutsune ageri bat nabari zela aspaldidanik euskaltzain osoen artean. Euskal Herriko beste euskalki eta eskualde guztien beren ordezkaria edo mandatariak zituztelarik, Araba bat ere gabe zegoen, 1942an Aita Olabide Frantziako Tolosan hil zenetik... Eta hutsune hau bete-beharra zen. Hala ikusi eta aitortu zuen Euskaltzaindiak berak eta batzarre batean erabaki zuen lehen hutsartea gertatzen zenean, ahal baldin bazen behintzat, hutsarte hori arabar batekin hornitu behar zela. Eta hala egin ere du. Antonio Arrue euskaltzain jaunaren hutsartea betetzeko Enrique Knörr jaun arabarra hautatuz...

1978ko San Prudentzio egunean egin zuen sarrera, hitzaldiaren gaia, Akademiaren sorreratik euskaltzain urgazle izan zen beste arabar baten, Federiko Belaustegiogitia audioarraren, lanez. Erantzunean, Jose Mari Satrustegi aitapontekoak, jadanik, hain urte gutxitan, Henrikek euskalgintzan egindako lanen berri eman zigun. 1978ko *Euskera* agerkarian irakurri daitezke, hiruren hitzaldiak: Villasante, Satrustegi eta Knörrenak, alegia. Baita ere, Jean-Louis Davant sartze horren kariatara kantatzeko idatzi zituen bertso politikak: «Ziberotik Arabara». Ordutik iaz arte erakunde barruan egindako lan gehienak, agerkari horretan eta beste bildumetan ikus daitezke.

Diruzain kargua izan zuen 1983tik 1986 bitartean. Lau urte esanguratsuetan izan zuen kargua. Berak zeregin horretarako ez zela prestatua aitortzen bazuen ere, gobernamentu kargudun baten balioa izan zuen, alegia, «Ekonomia batzordea» sortu bai zuen, alegia, diruzaintza kudeaketan laguntzeko talde bat sortuz: Alberto Garate eta Miguel

Angel Redondo ekonomilariak, Juanjo Zearreta eta Xabier Gereño gure ekonomia eragile eta kontalariak, Federico González legelaria eta, ni neu, idazkariorde legez. Garai horretakoak dira Euskaltzaindiaren langilego plantillaren finkapena, Eusko Jaurlaritzako mailaketara eta Hitzarmenera egokituz. Herri Aginteekin Euskaltzaindiaren aurrekontuen lehen normalizazio saioa eta beste.

Jagon sailburutza, 1989-1994 bitartean eraman zuen. Ardura honetan, Itziar Rekalde Gasteizko Ordezkaritzako bulegariaren laguntzaz, erakunde publikoek euskararen sustapen arloan egiten zituzten, edota, ezin egin zituzten lanei buruzko jarraipenaz arduratu zen, prentsa dossier interesgarriak osatuz. Estatu Gobernuaren Ordezkaritzari aholkuak, irizpenak eta itzulpenak eginaz, hots, hauteskunde papereria, trafikoko dokumentazioa, NAN eta pasaporte inprimakiak, Justizia Ministeritzarakoa, etab. Arabako euskararen erabilera ofiziala eztabaidatzeko eta dudatan jartzeko asmoz, UAren eraginez, Batzar Nagusietan sortu zen ponentzian, bera aurrengo zela Jagon Sailak parte hartu zuen. Sailkide ginen Manu Ruiz Urrestarazu, Andres Urrutia eta lauok foru erakundeko batzordean txostenak aurkeztu genituen. Orobat, Arabako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazle guztiei Sailera deituz, lurralde historikoarekiko euskararen aldeko adierazpena bultzatuz. Azken aipamen bat, 1993koa hain zuzen, Urkiola mendateko Garaitorreko Bentan, bera sailburu eta hiru kide: gaur, euskaltzainburu dugun Andres Urrutia, Mikel Zalbide eta lauok bildu ginen. Lan gaia honako hau izan zen: Akademia bati dagokion hizkuntza normatibizazio egin-kizuna planifikatzea eta gauzatzea. Benta hartan prestatutako proposamena Bizkaiko Diputazio jauregian egindako osoko bilkuran aurkeztu eta onartu zen eta «Arau» mailadun erabakiak hartzen hasi, aurretiaz, Iker Saileko batzordeetan ikertuak eta landuak.



Idazkari akademiko kargua 1992tik 1996 bitartean eraman zuen, Jose Mariustrategik utzi ondoren. Jean Haritschelhar, euskaltzainburu; Juan Mari Lekuona, buruorde eta Jose Antonio Arana, diruzainarekin batera, Zuzendaritza taldeak ez zituzten erakundearen gobernamentuan lau urte errazak igaro, Herri Aginteetako kargudun batzuekin tentsio uneak barne eta 1995eko diru egoera larria tartean, Legutio-Larra-beako IX. Barne Jardunaldietan lehertuko zena. Zuzendaritzakideek, Henrikek barne, ez zuten zainbait euskaltzainek estutasunetik ateratzeko proposamena onartu, hots, Euskaltzaindiaren ordezkaritzak kentzea eta batzorde gehienak ezabatzea, salbu Hiztegitzta, Gramatika eta Onomastika.

1997-2004 bitartean, euskaltzainburuorde kargua izan zuen, Juan Mari Lekuona gipuzkoarraren segidan. Zortzi urtetan, Jean Haritschelharren eta Zuzendaritzaren errepresentazioa eraman zuen Arabako ordezkariek, ez bakarrik Hego Euskal Herrian,

baita Madrilan, Galizian, Katalunian eta atzerriko beste hainbat lekutan ere. Erakunde akademikoa ordezkapen eginkizunetarako gizon aproposa zen.

Azkenik, 2005-2008 agintaldian, Iker sailburu kargurako hautatua izan zen, buruordetza lapurtar batek, Beñat Oihartzabalek, hain zuzen, txandatu zuelako. Bai Argomaizen, XIV. Barne Jardunaldietan eta, baita ere, XV.etan, Etxalarren, ikerketa alorreko bere asmoak agertu zituen, besteak beste, iazko Pirinioetako hizkuntzei buruko Biltzarraren aurre-egitasmoa aurkeztu genuen, berak, ikerketa akademikoena, nik, apa-lagoa, antolaketakoa. Bizi izan balitz, datorren hilean, XVI. Barne Jardunaldietan, zerbait eginkizun berri aurkeztuko zizkigun, hain zuzen, duela 38 urte bion harremanak hasi genituen leku berean, Urkiolan. Tamalez, ezin, zeren eta, haren euskalgintzaren sasoirik hoberenean, «herioak erezan handik bi kilometrora hasten den euskal herrialdearen hiriburuan», Gasteizen, alegia, joan baitzaigu den apirilaren 30ean.

Donostian, 2009ko otsailaren 27an

Jose Luis Lizundia Askondo

IRATZEDER

«Itsas-portu eta herriko etxetik sar zaite elizako alderat karrika handian... Lehen etxe multzoa iragan-eta, baduzu ezkerretik karrika ttipi bat eta izkinean euskal-etxe bat behereko aldean goxotegi bat daukana. Han sortua naiz 1920ko urtarrilaren 4ean.

Orduan bazuen etxe horrek izen bat: Martikotenea. Behereko aldean dirutegi bat zagon eta nere aita zen hor buru. Bizitegiko atea karrika ttipirat zen zabaltzen; zer karrika! Gaineko aldetik itsasorat zoan, peko aldetik Larrun mendia zen ageri...» (*Biziaren olerkia*, 571. or.)

Itsasoa eta mendia Jean Diharce-n ingurumena bere haurtzaroan: maiz aipatu ditu bere olerkietan gogoan sartuak baitzituen errotik:

Larrungo mendia
Bazterez bazter nabilarik maiz zuri begira
(49. or.)

Egia da bere bizi guzian lilluraturik egon dela ikusiz itsasotik hain hurbil zen mendi kaskoa:

Oi! Larruneri egin diotan azken behatze beroa!
Bihotza pil pil hantxet ikusiz haren lillura-kaxkoa,
Hari so baitzait amets zabalez haurretik sutu gogoan.
(125. or.)

Mendia alde batetik, itsasoa bertzetik. Zoraturik zagon itsasoaren aurrean, neurri gabeko eremuari begira:

Oi! itsaso zabalaren zabalaren zabala!
Leiorretik maiz nindagon ezin asez hari so,
Maiz nindagon, amets zoroz irakitan odola,
Noiz ote nindoaken itsasoz itsaso.
(111. or.)

Bainan ez zen beti leihorrean egoiten. Bazoan ere bere anaiarekin, hain zuzen 1940an gerlan hil zen anaiarekin, itsasoz itsaso:

Itsasoa, itsasoa,
Uhain zabal zoroan,
Urrunerat itsasoa,
Zurekin maiz nindoan.

Ez zen han neurririk,
Ez zen han mugarik!
Zu kapitain, ni lemazain,

Ez zen han gu bezain
 Bihotzez alairik.
 (234. or.)

Gehiago zen Iratzeder-entzat itsasoa. Haren «zabalaren zabalaren zabala» bereganatuz bertze bide bat erakusten zion olerkariari:

Itsasoa!
 Zerk du ba zure baitan xoratzen gogoa?
 Zabal zabala zare, muga gabekoa:
 Gogoratzen dautazu gure Jaun Goikoa.
 (56. or.)

Ez zen osagarri onekoa Jean Diharce gaztea eta aldi bat baino gehiagotan utzi izan behar zituen estudioak, bai Uztaritzeko seminario ttipian, bai Baionako apeztegiagai handian, bai ere Beloken eta Afrikan egon zelarik 17 hilabetez. Halere beti erakutsi du bizitzeko nahia: Baiona utzirik 21 urte zituela, sartu zen Beloken eta han iragan bizi guzia, salbu Afrikako egonaldia. Beloken, apeztez gero 1945ean kargu bereziak ukan ditu Aita Xabier-ek izen berria hartuz, hala manatzen baitu beneditarren legeak, fraidegai berrien erakasle, ostalari gero, priore eta 1972tik 1987 arte komentuko Aita Abade.

Aspaldian ezagutua zen euskal letretan euskaltzain oso izendatua izan zelarik 1962ko uztailean. Egun berean biak izendatuak izan ginen, hura jadanik euskararen alde egina zuena gatik, ni, aldiz, Lafitte-k zionaz, euskararen alde eginen nuenarentzat. Orain dekanu gisa, gelditzen naiz bakarrik, umezurtz, Iratzeder euskaltzainkide zenaren oroitzapena eskainiz zuen guzien aitzinean.

Iratzeder zen Aita Xabier-en izen-ordea literaturan. Larrun mendiari begira, ikusi du urtez urte iratzea berdetzen udaberrian, horitzen uda minean eta gorritzen udazkenean, hain zuzen haize hegoak perekatzen zuelarik goxoki, dantzan sartuz harekin. Dantza horretan doala euskalduna bere euskararekin:

Iratze zabal hetarat goazen
 anaiak, bira ta bira.
 Ileak harro, irrintzinaka
 goazen Euskaldun mendira.
 Guziak betan, guziak dantzan,
 aitzeko deika ta pertsuz
 Har iratzean, har ostu bana
 bira ta bira airatuz.
 (89. or.)

Hola sar daiteke euskara, Bernat Etxepare-k amesten zuena, munduko hizkuntzen dantzan. Urte baten buruan, 1941an, berrikitan Beloken bere bizi guzirako sartu zelarik, idatzi zuen «Nahi nuen» olerkian:

Nahi nuen, bihotz osoz, nere Jainkoa maitatu
 Nahi nuen indar osoz Herriarentzat bermatu.
 (97. or.)

Bi neurtitz horietan datza bizi baten ametsa esaldi batean bildua: «Jaungoikoa maitetz, maite zuen Euskal Herria».

Nahi nuen bihotz osoz nere Jainkoa maitatu edo Jainkoa lehen

Jainkoaren zerbitzari umila izana da bere bizi guzian, ixiltasuna, gogoetak, otoitza zirela egunero lana Jainkoarekilako kantu, bertso eta solasetan. «Pindar eta lano», «Zeru menditik», «Argiz argi», «Uhaineri nausi» eta «Jaunaren hegala» olerki bildumek salatzen dute nola bere bizi guzian ibilia den Jainkoaren bila.

Urratsez urrats badoa, gazte gazterik hasia, hamazazpi urtetan Larresoron:

Lorietan dut gogoia;
Airez aire banoa...
Zorionez naiz zoroa;
Nerekin dut Jainkoa.
(55. or.)



Bainan ez dago beti zoriontsu; bere duda mudak ere baditu asmatzen duelarik Jainko bat osoki hartarik urrundu eta orduan oihuk, deiadarrak eta nigarrak dira nagusitzen:

Jainkoa, nere Jainkoa,
Zertako zaude nitarik urrun, zertako nauzu ahantzi?
Auhenez eta marrumaz nago, atsekabeak itoa,
Egunaz deika, gauaz oihuka, behar ote dut nik bizi?
Jainko, nere Jainkoa.
(103. or.)

Enetzat egiazko bihotz min oihua.

Nork uka dezake ez duela ezagutu San Juan de la Cruz-ek berak «La noche oscura del alma» deitzen zuen mistikoez pairatu dutena:

Bi gau, oi bi gau luze, nigarrez nagola,
Gainez gain, harat hunat oihuka nabila,
Nere Jaun maite hori suntsitu zaitala...
(138. or.)

Gau beltza nagusitu izana gatik, mistikoez daukate beti gogoan argi-zirrintaren esperantza. Hori gertatzen zaio aita Xabier-i:

Argia,
Jainkoaren dirdiraren ñir ñir zoragarria.
Argia,
Gau mendetan gure Aitek su-harritik jalia!
Zu bilatuz, zu hedatuz, pindarka dut begia...
Argia!
Dohakabe-artaldean ilunpeko lehia,
Gizon-minen ke saildua, zeruaren hazia,
Jainkoaren dirdiraren sekulako irria.
(206. or.)

Itsaso eta mendi. Donibane Lohizundarrak ez du sekulan baztertu itsasoa. Ikusi dugu nola zoraturik zagon haren aitzinean, nola gogoarazten zion Jaun Goikoa. Bere Jainkoaren ganako bidean uhainaren irudia hartuz, olerkaria sartuko da, emeki-emeki, Jainkoaren itsasoan:

Uhainez uhain eman naiz eman
Jainkoaren itsasoan
(369. or.)

lehenbiziko neurtitzak bere ots errepikekin *ain-ain/an-an* adierazten duela on-tziaren dantza itsaso zabalean.

Jainkoaz duen gose eta egarria izanen da gogoan daukan ametsa eta urtez urte lelo bera errepikatuko du:

Oi ene bihotz barneko
Jainko maite maitea,
Noiz izanen naiz betiko
Zutaz bete betea.

Ixilka, Jauna, nitan ar zaite
Zutaratuz urtez urte.
Noiz nauzu joanen bizi osoan
Zure dirdir itsasoan.
(400. or.)

Noiz dut Jainkoa
Goza beharra:
Duen gozoa,
Duen ederra.

Nere begia, nere begia,
Noiz ikusiko duk Jainkoa?

Nere buru, nere burua
Noiz gozatuko duk Zerua?

Nere beso, nere besoa
Noiz besarkatuko Jainkoa?
(439-440. orr.)

Galdera lehiatsu horietan (Noiz?) Jainkoarekilako gaiari osoki emana zaio gorpu-tzez (begi eta beso) eta arimaz (buru) betiereko gozamena amestuz.

Gertatu zaio joan den urriaren 12an Belokeko Aita Abade ohiak bere azken hatsa bota duelarik, bazuela jadanik zenbait urte ixiltasunean bizi zela.

Nahi nuen indar osoz Herriarentzat bermatu

Bihotz osoz Jainkoa, indar osoz Herria. Badakigu Herriarentzat ez bakarrik indar osoz jokatu dela bainan ere bihotz osoz. Ez ditu sekulan ahantzi euskaldunak, gogoan zituen beti, ez bakarrik otoitzetan baita ere ekintzetan:

«Beloken sartu-eta, Aita Lerchundik galdatu daut Kantika bere liburu haundian hutsak betetzeko kantika berrien egitea.

Salmoak fraidekin kantatuago eta handiago nuen bihotzean egarri mina: ai! otoi-tz hoik eta Liburu sainduetako erranak euskaraz adi-arazten ahal baniozkate herritarri...

1947an bezperetako salmoak eman nituen eta Mugerren kantarazi. Orduan ere egin nituen aita Lerchundirekin: Pasionea, Mortutik oihi eta bertze... 1956an Ezkila euskal liburutegia sortzen zen eta 54an Otoizlari aldizkaria. Gero bururatua baigintuen Salmoak, herrietako apez batzuekin lan eta lan egin dugu liturgia berriari buruz». (575. or.)

Hala, xumeki kondatua, zer izan den Aita Xabier-ek Euskal Herriari eta euskaldunei egin dien emaitza. Batzutan bakarrik, hala nola Salmoen itzulpenak, hautatuz 9 silabako neurtitza bere etenarekin bosgarren silabaren ondotik (5+4), halakoak ere kantika zaharretan, hala nola:

Hor zaude Jesus, / aldarean:
Nahi zintuzket / bihotzean

Iratzeder-ek egin duena da garatu duela 9 silabako neurtitza gehituz 5 silabakoa lehen neurtitzean (5+5+4) eta 14 silabako neurtitza sortuz. Bi neurtitzeko ahapaldiak hiru moldetan ager daitezke.

1. Lehen neurtitza 14 silabakoa (5+5+4), bigarrena 9 silabakoa (5+4):

Zeru zeruek / aipatzen dute / Jainko Jauna,
Izartegiak / Haren lana
(18. salmoa)

2. Lehen neurtitza 9 silabakoa (5+4), bigarrena 14 silabakoa (5+5+4):

Urrikal zaite / nitaz Jauna:
Hoin duzu-eta / neurrigabeko / bihotz ona
(50. salmoa)

3. Bi neurtitzak 14 silabakoak (5+5+4)

Orkatzak udan / iturriraino / zer lehia!
Zu ganat Jauna / nik ere dudan / egarria
(41. salmoa)

Horiek kantatzen dira orain, igandero, Iparraldeko elizetan.

Gogoan atxik dezagun ere Vatikanoko II. Kontzilioaren ondotik meza-bezperak euskaraz eman direla –nahiz orain bezpera guti– eta apez multzo batek aita Xabier eta hemen dagoen apez ixil batzu barne. Behar zen orduko prest zuten lana, egun berean euskaldunek frantsesek eta espainiarrek bezala liturgia berria abesten zutela. Euskaldun girstinoen eskerrak merezi ditu delako apez multzo horrek.

Iratzeder-ek ez du sekulan ahantzi aitzak ihardetsi ziona erran ziolarik apeztu nahi zuela: «*Hi apez? Euskal Herrian apez? ez dakik-eta hortarakotz euskararik aski.*» (573. or.) Zinez, barna harturik eta euskarari loturik, emaitza ederra egin dio euskal literatu-

rari. Egia da, garai haietan eta Donibane Lohizunen erdara nagusitzen ari zela eta galtzera zoala euskara. Iratzeder-ek berak garbiki erraiten digu zer gertatu zaion:

«Euskaldun berria ote naiz? Ez: Euskaldun berritua. Haur-haurretik euskalduna nintzen, gero eskolan ta karrikan erdaldundu, euskal mintzairan arrotzeraino.

Erakasleek ez emana, bazterretik ikasi dut; eskoletan aintzinaturik ere, ez naiz bakarrik euskaldun gelditu, bainan gero-ta euskaldunago bilakatu». (605. or.)

Ez du bakarrik euskara maitatu, kantatu du ere bere olerkietan. Gogoan zuelarik Etxepareren oihua: «*Euskara, jalgi hadi kanpora*» bera ere XX. mendeko oihua botatzen du: euskara ilunpetik jalgi hadi.

Ez egon ilunpean, zato jauntziketa,
Urrez eta iduzkiz beztiko baitzitut.
Ager zaite, Euskara, xuti-ordu baita
(11. or.)

euskara berria, oraiko jauntziekin emana:

Ager zaite, Euskara, utz pilda zaharrak;
Emazu ba, soinean jauntzi kartsu hori,
Gaindi egiten baitaut nere gazte karrak
(12. or.)

Bordeleko unibertsitatean sortu zelarik lehenbiziko euskal katedra, René Lafon jaun erakasleari eskaini zion olerki bat. Hastapenetik toka mintzatu zaio euskarari, erakusten duela harentzat daukan atxikimendua:

Berriz ere pertsu-kantuz heldu nitzai, Euskara;
Hire suzko ele hoitan zirimolan aitzera...
(219. or.)

Bukatzen du olerkia egiazko fedezko akta batekin:

Bai, bizi haiz ta biziko, denen gatik, Euskara,
Euskal-hitzak helaraziz Goikoaren Mintzora.
Bai, bizi haiz ta biziko betiere Euskara,
Munduz mundu kar ixuriz mendieri behera.
(221. or.)

«*Hori dut beraz*» deitu olerkian, erakusten du bere kezka Beloke erdaltzen ari baita:

Hori dut beraz, Jauna, nere kurutzeta:
Belokeren erdaltzea.
(416. or.)

Bi besoak zabalik hartzen ditu fraide berriak, bihotz kartsuak direla... nahiz mihiz erdaldunak diren eta ahapaldi sarkor batean salatzen zein barna bere baitan sartua zaion euskara:

Gau batez balin banaiz hiltzen kurutzean
Aurkituko dukete zaurien artean
Jainkoa euskal-kantuz nere bihotzean.
(417. or.)

Halere etsipenetik urrun dago Iratzeder ikusten baitu elizak Vatikanon II. Kontzilioaren ondotik eman diola euskarari bertze hizkuntzek daukaten tokia Euskal Herrian, liturgia euskaratuz eta ere ikastolek ukan dezaketen eragina:

Ez, ez da hilen euskaldungoa;
Elizetarik gaur deika doa
Kristo Jaunaren euskal-mintzoa

Ez, ez da hilen euskaldungoa;
Ikastolekin pizterat doa
Haurretan dugu euskal-geroa.
(458. or.)

Uztaritzeko seminarioan segitzen zituen estudioak gerla zibila hasi zelarik Hegoaldean. Kondatzen du orduko giroa:

«Hainbertzenarekin, Espainiako gerla piztu zen. Erakasle eta ikasleak oro (Lafitte salbu, erran gabe doa) Franco-ren alde ziren. Zazkiten guziak Franco-tarren ikusmoldean ikasten eta ikusten zituzten.

Xarriton eta ni ginen bakarrik, agerian eta goraki, abertzaleen alde. Xarriton «adimendua» zela zioten eta ni «bihotza!». (604. or.)

Orduan idatzi ditu zenbait olerki Hegoaldeko giro ikaragarria, euskaldunen arteko guduka, Aitzol eta bertze apez batzuen tirokatzea:

Jainkoaren amodioz jazartzerat apezkeri (25. or.),

auhenka aipatuz «*Zorigaitzeko Euskadi*», bai eta ere «*Gernika*», hiri suntsitua, gorai-patuz orduko gizonak, Basarri bertsolaria, Aitzol, Eizagirre eta Monzon, «*Zer gizonak!*»

Kantatuko ditu bere «sort herria» eta Euskal Herria bere osotasunean, Lazkaoko egonaldia eginen duelarik Alemaniara ez joaiteko «*Haitz pea*» deritzan olerkian argi eta garbi aitortzen du zer den bere aberria:

Euskal Herria, nun nahi, bihotzean dugula
Eta usu ezpainetan «Gernikako arbola».
Euskal-seme bakotzak bi Herri dituela
Lehenik Euskal Herria eta... Mundu zabala.
(231. or.)

Euskal Herria eta Mundu zabala: Bi begirada, lehena hurbileko lurrari, bertzea besarkatuz anaitasun haundienean mundu osoa. Zangoak finkatuak euskal lurrian, izpiritua zabalduz orokortasunera:

Jainkoa maitez maite zuen Euskal Herria.

Biak elgari lotuak direla argi eta garbi dago Iratzeder-ek berak kantatzen duen bezala «*Munduan iragan da*» olerkian:

Munduan badabila Jainkoaren soa:
Hargatik zaiku eder geroko geroa,
Geroko Euskal Herri betierekoa.
Guri so iragan da Jainkoaren soa.
(235. or.)

Joan zaigu Iratzeder olerkaria, Belokeko Aita Abade ohia, Jainkoaren, euskararen eta Euskal Herriaren zerbitzari umila. Ba ote da xede edo helburu ederragorik? *Biziarren olerkia* liburua eskaini didalarik hauxe idatzi zuen: «Nere pindarrak bihotz zonbeitetan pindar piztuko duelako esperantzan.» Halakoa zen Iratzeder eta Lafitte-k idatzi zuen bezala:

Bertzek jo dezatela hil-zeinua goizetik arrats, on bazaiote. Iratzeder-ek Bazko ez-kila joiten dauku, mundu huntako argietarik bertzeko argietarat geramatzala, argiz-argi. (5. or.)

Ene otoitz xumea: betiereko argian dagoela!

Donostian, 2009/02/27an

Jean Haritschelhar

KARMELO ETXENAGUSIA (1932-2008)

Elizgizona eta euskaltzale handia, gotzaina eta irakaslea, idazlea eta sermoilaria, ertz eta ezpal asko dituen gizona, biografia txosten labur baten nekez jaso daitekeen bizitza oparo baten jabe. Baina beronen bizitzako alderdi marduletariako bat berak erraztu digu hartan ere, *Euskerea nire bizitzan* (2003) azken liburuaz. Obra honek, arterago onduak eta hor-hemen argitaratuak zituen idatzi laburrez gain, liburuari izenburua damaion sarrera-atal luze bat dakar (27-110. orr.), zeinetan txikitatik gehiago euskararekin izan duen harreman luzea lehen pertsonan, barne gogoz, garatzen digun.

Karmelo Etxenagusia Iurretako herriko elizatean jaio zen, 1932ko apirilaren 24an. Urte batzuk lehenagotik (1926) Iurreta Durangoko udalbarrutiaren barruan zegoen, eta halaxe irauin dute hiri-elizateok udal bat direla orain urte batzuk arte (1990), herritarrik gehienek eskariz atzera bere udala izatea eskuratu zuten arte. Batze-banatze gertaeron gainera, *Idxorretako semetzat* eduki du beti bere burua Don Karmelok –gainerako herritar gehienak legez–. *Ertzilbengoa* baserri-etxean bizi zen familia. Hiru bizitzako etxea ei zen Bilbotik Donostiarako errepide kontran dagoen etxe hori. Guraso biak ere iurretarrak izan zituen. Euskaldun huts-hutsak. Erdara ulertu eta jakin ere bai, baina euren artean zein umeeekin beti euskara. Aita, Durangoko lantegi bateko langilea, gazte samar hil zitzairen, 54 urteko zela.

1937an, gerrate denboran –Karmelo 5 urteko mutikotxoa oraindino–, ebakuazioa gertatu zenean, Etxebarri Urubekora joan zen familia osoa, amaren neba baten etxera, «ganadu ta guzti» diosku berak. Huraxe izan zuen gaztelaniarekiko lehen harreman hurbila. Polito ikasi ei zuen gaztelania hango egotaldian, baina atzera Iurretara itzuli zirenean berriro zabartu. Gerotxoago, sei urte t'erdiko zela, hasi zen eskolara, Iurretako Herriko Eskolara, lehen ikasketak egitera. Artean etxean ikasita ei zekizkien zenbaketa, irakurtzen eta gehiago ere. Eskola erdara hutsean jaso zuen; maisu guztiak ere erdaldunak eta erdaltzaleak. Maisu euskaldun bakarra, Nikolas Zuazo herriko semea izan zuen. Elizan ikasten zuen dotrina izan zen aldi hartan euskaraz hartzen zuen gai nagusia, arrosario eta beste elizkizun batzuetan entzuten zuenaz ostean.

Hamaika urtegaz joan zen Seminariora «abade egiteko», orduan esaten zen moduan. «Ordurako Kristau Ikasbideko hiru mailak buruz ikasita neukazan» diosku¹. *Kristau Ikasbidearen* hiru mailak izan ziren, bada, Karmelok euskaraz irakurritako lehen liburua. Aldi horretan don Domingo Zuluaga ibarrangelutarra zegoen Iurretan abade, 29 urteko apaiz gaztea bera ere, eta haren bitartez sortu ei zitzaion abadetzarako

¹Karmelo Etxenagusia (2003), *Euskerea nire bizitzan*. Sutondoan sorta. Labayru Ikastegia & BBK Fundazioa, Bilbao, 36. or.

gogoia. Don Domingo abade edadetua oraintsu argitara berri duen liburu baten² eskainzen digu gertaera horren lekukotasun zuzen eta bizia:

On Karmelo hamaika urteko mutiltxoia zala ezagutu neban. Iurretako parrokiaren abade nengoan eta goiz argitsu baten eleiza aurreko enparantzan eskola-umeak olgetan ebilzan, ni han ondoan egoan iturri baten aldean begira. Honetan, bat-batean eta gehiagoko barik, mutiltxo bat hurreratu jatan esanez: «Nik abade ixen gurot». Zerbait harrituta, honela erantzun neutsan: «Abade? Abade izan nahi dozu?» Eta berak: «Bai». «Ba, abade izango zara, lagunduko deusgu izaten, zure etxeokaz egongo naz, zure amagaz berba egingo dot, egon trankil. Bihar be etorri, eta zerbait egiten hasiko gara». Salto bat eginagaz football-ean eabilen.

Karmelo hil den arteino iraun du apaiz bion arteko adiskidetasun sakonak. Gerran euskal artzainen omenez 2007an egin zen omenaldian gertatu zien biok eta oroipen monolitoaren ondoan argazkia elkarrekin atera (*Ibarrangelu*, 76). Karmeloren Mezaberrian eta abadetzako urrezko ezteietan ere aldamenean izan zuen. Eta Karmelo bera zen Zuluaga abadearen, Ibarrangeluren, gaineko liburuaren sarrera egiteko, artean ustebako heriotzeak eroan ez balu.

Harira bihurturik, K. Etxenagusiak bere lehen abade ikasketak –orduan Seminario Txikia zeritzanaren lehen urtea–, Gordexolan egin zuen (1943-1944), hango «Preceptoría»n. Enkantarriko herri dotore horretan orduan erdara baino ez zen entzuten, eta «Preceptoría» barruko giroa ere guztiz erdalduna ei zen, nahiz apaizgaietarik hirutik bat euskaldun hutsak izan. Apaizak guztiak erdaldunak. Hurrengo ikasturte biak (1945-1946) Arratiako Artean igaro zituen ikasle. Bizkaitik abade zihozenak Gaztelu-Elexabeitira bidaltzen zituzten, eta Karmelo ere hara joan zen. Baina ikasturtea, urrian hasi beharrekoa, hurrengo urtarilaren azkenera arte ezin izan zuten hasi, harik eta gerran kalte handiekin gertatu zen Seminario Txikiko eraikina konpondu zen arte. Bizkaiko ibarririk euskaldunenetariko baten bihotzean egonagatik, euskararen usainik ez ei zuen asmatu Seminario barruan: guztia erdaraz, nahiz hizkuntza-ikasteari ahalegin handia opatzen zitzaion ikas egitarauan: latina eta batez ere gaztelania ikasi zituen, baina baita grekoa eta frantsesa ere. Irakaslerik erdiak euskaldunak ei ziren, M. Estomba, J.M. Iruretagoiena eta S. Duo beste batzuen artean; lehen biak gudu aurreko Gas-teizko Seminarioan M. Lekuonak zuzentzen zuen Kardaberaz bazkuneko kide izanak.

Urte bi han igaro ondoren, Gasteizera joan zen 1946an, hango Seminario Nagusira: «Hamalau urteko mutil bardingoa nintzan» diosku. Filosofia hastearrekin, hizkuntzei dagokienez, gaztelania eta latineko literaturetan murgildu ei zen buru-belarri, grekoa eta frantsesa hobeto lantzen saiatu, eta hizkuntza berri bi ikasten hasi: italianoa eta ingelesa. Erbeste-hizkuntzok gerora, nagusitan, bere kontura ugaritu eta landu ei zituen polito eta ez mesede makala egin gerora. Beraren hitzetan: «Inglesak, frantsesak eta italianoak ez deuste giti lagundu munduan zehar ibilteko:» (*ENB*, 46). Santos Teodoro Rekalde durangarra izan zen ingelesera zaletu zuena, orduko aldiaren oraindik horren ohiko ez zen hizkuntza. Abadegai hau –gerora abade eta idazle bihurtuko zena–, baina ikasketetan urtebete aurreragokoa bakarrik. Apaiztu ondoren Ameriketako euskal artzainekin urte luzeak igaro zituen eta hango oroitzapenekin *Deunor* elaberria ondu³, zeinen kapitulu bat Karmelok *Euskal Idazleak Bizkaieraz* antologian jasorik dakarren (266-268), gomuta eta gorazare modura ziurrenik. Abadegai berau izan zen euskal literaturara zaletu zuena ere.

²Domingo Zuluaga (2009): *Ibarrangelu kantu eta kontu*. Labayru Ikastegia & BBK Fundazioa, Bilbao, 29. or.

³*Deunor*, Kulixka Sorta 76, Zarautz, 1973.

Honek eskuratu zizkion Paulo Zamarriparen euskarra errazeko liburu batzuk: *Kili-Kili*, *Firi-Firi*, *Zaparradak-eta* hizlaurkoak eta *Gora begira* poema liburua. Eurokin abiatu zen Karmelo euskal literaturaren alorrean. Zamarriparen «Iketzako abade zarra» pasadizua sartu zuen bere *Euskal-Idazleen Lorategia (Bizkaieraz – hitzlauz)* delakoan (1965, 32) eta geroago *Euskal Idazleak Bizkaieraz* delakoan «Bakea dala bake» idatzia (1980, 160-161), baina egia esatera literatura aldeetik ez zuen meritu handiegikotzat: gatz gutxiko umorea zuela zeritzan eta haren idatziak gutxi erabiltzen zituen bere eskoletan. Hori bai, herri euskara oso ondo menderatzen zuela aitortzen zuen. Karmelo gramatizale baino literaturazaleago zenez, haren *Gramática Vasca* edo *Manual del vascófilo* ez zituen erabiltzen irakaste-jardunean.



Karmelo, behin euskararen harrak jo zuelarik, euskal literaturarik ederrenean murgiltzen hasi zen: Lizardiren *Biotz-begietan* irakurri zuen, neke handiz eta erdal itzulpenaz lagundurik. Handik urte luzeetara Derion Filosofia kurtsoetan bere ikasle ginenok sakonkiro aztertuko genuen obra (1970-1971), gudu osteko beste poeta ospetsu batzuekin batera. Lizardiren poemak irakurtzean «euskerara be goi mailako edertasuna adierazoteko gauza badala ikusi neban», aitortuko digu (*ENB* 49).

Gasteizko Seminarioan bete zituen apaizgo ikasketa guztiak: Filosofiako hiru ikasturteak lehenik eta 1951etik aurrera Teologiako laurak. Filosofian «greko biblikoa» eta hebreoa ere ikasi zituen. Euskara lagunarte harremanetara mugatzen zen, koruaren euskal kantaren batzuk eta Mezatako eliz kantaren bat kenduta. Bere kontura irakurtzen zuen, ordea, euskal literatura: Domingo Agirrerren *Garoa* eta Orixeren *Euskaldunak* poema luzea, besteak beste. *Garoa* horretatik hainbat txatal hautatuko zituen gerora bere lorategietarako: «Inaxio Marirrentzat andregaiak aukeratzea», «Ana Joseparen diru-zaletasuna» eta «Malentxoren azken agurra bere baserriari» batez ere. Orixeren *Euskaldunak*, hizkeraz urrunagoa eta neurtitzez jasoagoa eta trinkoagoa izanik, neke gehiagoz menderatu zuen. Gerora, hirurogeitaka urteetan, Derioko Seminario Nagusian euskara irakasten zuelarik, apaizgai euskaldunekin landuko zuen berriz obra hau, eta ez irakurri eta aztertu bakarrik, baita ere kantatu eta buruz ikasi ere hango poemak eskoletan, doinuz hornituak izaki. Orixeren lanetan, hitz lauz maiteago zuen *Santa Kruz: apaiza* elaberria. Horretarako «Aramaiotik ere igesi» atala berarekin landuko genuen geroago Derioko Seminario Txikian (1968-1969), *Euskal Idazleen Lorategia [itz. lauz] II. Gipuzkeraz* aztertzen genuelarik. Filosofia ikasle zela hil zitzaion aita 1950ean «ia bapatean» eta handik gutxira «nire anaia bakarra soldadu eroan eben Donostiara», ama alarguna bakardade handian utzirik. Gertaera latz horrek etxera ekarri zuen tristezia arintzeko asmoz edo, astero amari euskaraz gutuna bidaltzen hasi zitzaion. Horretxetara «normaldu» zuen idatziz amarekin eta etxeokekin berbaz euskara hutsean beti izan zuen hartu-eman. Euskara bera lantzeko bidea zen hori, eta ahozko erregistroari idatzizko bidea urratzea ere bai aldi berean. Gerora Bizkaiko gotzain izango zen Koldobika Mirena Larrea abadearekiko harremana ere orduantxe hasi zuen. Larrea gotzain egin zelarik, Karmelo izan zuen luzaroan haren euskarazko idatzien zuzentzaile eta txukuntzaile.

Hemeretzi urteko zela hasi zituen Teologia ikasketak, lau urte iraungo zutenak (1951-1955). Eta orduantxe hasi zituen beste apaizgai batzuekin batera euskara eskolak:

«euskal abadegei batzuk, geu hasi ginan alkarregaz asteen behin batu, eta alkarri euskera apur bat irakasten» diosku (ENB 54). Martin Olazar, Julian Olazabalaga eta Txomin Artetxe izan ei ziren euskara-taldetxo horren eragileak. Eta minpeko barik aitortzen digu eurok izan zirela gerraostean Gasteizko Seminarioan euskara lantzen hasi ziren lehenak, 1951. inguruko urte horretan edo, Juan Mari Lekuona eta beste apaizgai gipuzkoar batzuk ere aldi beretsuan hasi ei ziren taldean euskara lantzen. Seminarioko Erretore zen Felipe Ugalde urretxuarraren isil-baimen batekin hasi ziren euskarazko talde-jardun horiekin. Urte horietan hasi zen Seminarioko ikasle zen Juan Mari Lekuona ere bere lehen lantxoak *Egan*-era bidaltzen, Pablo Bilbao Aristegik zirikatirik. Julian Olazabalaga aipatzen du euskara kontuetan bere lehen maisutzat, taldetxo horren buru bera izan baitzen. Gerora, euskararen suspertzaile eta beste ekimen askoren sortzaile eta eragile legez agertu du burua gehiago abade izan den herri eta inguruetan, ibiltari handia izateaz gain.

Baina Filosofian bezala Teologian ere bere kontura euskarazko literatura irakurtzeari gogotik ekin zion. Bizitza guztian otoitz eta euskara kontuetan gidabide izango zuen liburu bat orduan ezagutu zuen: Orixek latinetik euskaraturiko *Eguneroko meza-bezperak*, argitaratu zenetik, 50 eta 60ko hamarkadetan batez ere, beste apaiz euskaltzale askoren esku-liburu ere bihurtuko zen esku-liburua. Karmelok ikara barik aitortzen digu: «nire bizi guztian euskal arloan mesederik gehien egin deustan liburua hauxe izan dot» (ENB 60). Euskara eskoletan maiz aipatzen zuen Orixe –eta honek atonduriko euskal literaturaren atze laburra erabili ere bai- eta arreta bereziz *meza-bezperen* liburua. Teologiako meza denbora guztietan liburu horretako txatalak irakurtzen zituen: «Lau urtetan goizero, egunean orduerdi, euskeraz irakurtea, badakizu zer dan? Urtearen azkenerako zenbat ordu diran?» (ENB 61). Ondorioz gogo-bizitza guztia euskaraz ausnartzen hasi zen: «Lehen latinez buruz nekizan otoitzak, salmoak, antifonak, eleiz kantak... orain euskeraz hausnartzea harrigarri eta zoragarri egin jatan» (ENB 61). Santi Onaindiaren *Milla euskal olerki eder* poesia bilduma hanpatua ere Teologiaren azkenerantz zuzendu eta irakurri zuen.

1955.ean abadetutako zen, San Pedro egunez, Begoñako basilikan, eta Meza berria urte berean esan Mikel deunaren egunez bere jaioterrian. Latinez Meza, orduan ohi zenez, eta sermoia euskaraz, bera Seminarioa eroan zuen Don Domingo Zuluaga, gorago aipatua dugunak eskainia. Abadetzako lehen hogeitaz egunak Lanestosan igaro ondoren, Derioko Seminario Txikira bidali zuten, abadegai gaztetxoaren hezitzaile eta irakasle izatera. Han, beste ekimen batzuen artean, apaizgai ikasleen artean dantzariak ere bazirela eta, dantzari taldetxoa eratzea erabaki zuten. Iurretako semeak ere euskal dantzen sena barruan izan! Lorentzo Zugazaga zen apaizgai dantzari horietako bat, gerora euskara eta literatura gaietan gailenduko zena, Seminario Nagusian Karmeloren eskutik eskolak hartuz eta 1970az geroz, Derioko Udako Euskal Ikastaroa sortu zelarik, luzaroko urteetan hango irakasle eta material-sortzaile izango zena. Eta Elizbarrutiko euskarazko idatzen ontzaile eta zuzentzaile, Karmelo bera bezala. 1956-57 ikasturtean etorri ziren Gasteizko Seminarioko abadegaiak Derioko Seminarioa, euskal dantzek indar handia hartzen zutela.

Derioko Seminarioa gertatu zen, bada, Karmeloren irakaste-jardunaren lehen esperientzia. Seminario Txikiko hezitzaile-irakasle zen aldetik, askotariko gaiak ematen zituen: «latina eta gaztelania lehenengo urtekoei, gaztelaniazko literatura hirugarren eta laugarren kurtsokoei, solfeo apur bat be bai hasibarriei» bere hitzez esanda. Orduerik nabari da letretarata joera: hizkuntzetara eta batez ere literaturara, musika ahaztu gabe.

Ikasturte horrextan edo hurrengoan hasi zen Karmelo euskara eskolak Seminario Nagusiko apaizgai euskaldunei ematen. Teologiako ikasleak ziren, handik lasterrera herritarra apaiz joango zirenak. Lehenagotik ere hasita zeuden euskara eskolak Seminarioan, era apalez bazen ere. Astean eskola bat. Gramatika ikasteari barik idazte-jardunari eskaini zion lehenengotatik lehenasuna. Hona bere metodologia: «Euskeraz irakurri, euskeraz idatzi, idatzitakoa aztertu ta zuzendu: horra hor gure orduko ikasbide urria...».

Ordukoexa da Karmeloren lehen euskal liburua, itzulpenezkoa eta euskara-ikasleon laguntzaz burutua: *Lagunarteko Meza Orienteko Kristiñauen eraz* (Bilbao, 1959). Ekialdeko liturgiak onartzen zuen orduan herri-hizkuntzetan Meza ematea eta bazen Derion abade bat, don Francisco Vallester Viu, horretarako baimena zuena, eta euskararik jakin ez arren, beronen eskariz eta borondatez egin zen liturgia-euskaratze hori. Erromako Elizak Vatikanon II. Kontzilia arte ez zuen horretarako biderik irekiko.

Derion hiru urte egin ondoren, Comillas-era bidali zuen apezpikuak, «Jus Canonium» ikastera. Ez ei zuen eliza lege eta kanonen mundua guztiz bere gogoko, baina aginduari men egin eta Comillasen dugu goi ikasketen ikasle (1958). Seminario eta Unibertsitate zen ikastegi ospetsu horretan giro guztiz erdalduna idoro zuen, bertako ikasleak estatu guztitik etorriak baitziren.

Gudu aurrean han egonak ziren, hala ere, euskaltzale ezagun batzuk: Orixe eta Nemesio Etxaniz idazleak eta Antonio Zaldua gorliztarra, hau ere euskaltzale handia eta gerratean atzerria ezagutu zuena. Baina esan dugunez, gerraosteko giro ilun hartan nekez arnas zitekeen euskaltzale sundarik han: Juan Bizente Gallastegi durangoarra, gerora abade eta euskaltzale ageria izango zena zen horietariko bat. Berbaz ia ezin eta, irakurtze bidez jagoten saiatu zen jatorrizko bere euskara: gipuzkerazko liburuska bat, *Kristoren Antz-bidea* erabiltzen zuen maizenik otoitz egiteko. Barne gogoeta eta ezagun-adiskideei bidalitzen zizkien gutunak ziren euskara lantzeko beste bere bideak. Han ikasturte bi egin (1958-1960) eta Zuzenbide Kanonikoan agiriaren jabe egin ondoren, Derioko Seminarioa dator atzera hurrengo ikasturterako, baina oraingoan Seminario Nagusira teologoen arduradun eta irakasle. Irakasgaiak oraingoan: «Jus Publicum Ecclesiasticum» eta euskara –izen horren barruan doa euskal literatura ere- izango ditu. 1960-61 ikasturtean, euskarazko eskolak atondu behar eta, euskal idazleak gehiago eta hobeto ikasten hasi zen, garaikide zituen euskal idazle batzuk ezagutzen ere bai, eta orduantxe hasi zen, hain zuzen, gerora izena eman dioten euskal idazleen lorategiak, antologiak prestatzen. Gramatika ere irakatsi behar zuen, hala ere. Eta horretan lagungarri berebizikoak izan zituen Joseba Intxaustiren *Euskal Aditza* (1960)⁴ eta Sebero Altuberen *Erderismos*, hau gudu aurreko lana (1929). Eta hauekin batera, bai eskoletarako eta bai lasterrera onduko zituen lorategietarako argibide eta aitzindari izan zuen orduantxe aurretxoan Iñazio Omaetxebarriak eta Luis Villasantek atera zuten *Euskera* (1959) ikasbidea, non lehenak gramatika atala eta bigarrenak euskal testuen antologia lantzen baitzuten⁵.

Karmeloren kezka, hasiera bertatik, euskara irakasbidea bere ikasleen premietara egokitzea zen, eta horretan datza arrazoia, batetik Altuberen *Erderismos* liburuaren laburpen egokitu bat atontzea eta ikasleen beharren arabera irakurgai egokien bila

⁴Joseba Intxausti (1960). *Euskal-aditza. Gipuzko-bizkaierak. Paradigmas verbales y método racional para su estudio*. Zarauz, Icharopena.

⁵Omaetxebarria, Ignacio (1959): *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*. Zarauz, Ed. Icharopena.

hastea. Beraren berbaz esanda: «Handik urte batzuetara, gure Udako Ikataroak [Deriokoak] bere ikurtzat hartuko eban bide zuhur horretatik eroatea ikasleak: «Dakigunetik ez dakigunera...» (ENB 71). Bera bezala Durangerriko seme izan zen Kirikiñoren idatzietatik abiatu zen horretara. «Kirikiñoren irakurgai errez atsegin mordo bat eskainitakoan, beste idazle batzuen zatiak be sartzen hasi nintzan eta holan, igarri be egin barik, Bizkaiko idazle asko agertzen dira hor. Azkenean, polikopiaz banan-banan argitara emoniko orriak batu... eta horra hor nire lehenengo antologia» (ENB 71).

Eskolak ematen jardun eta bostgarren urtera ateratu zuten ziklostil sistemaz, eskola-apunte itxuraz, baina txukuntasun eta liburu inprimatu baten metodologia osoaz –prologoa, idazle bakoitzaren aurkezpen laburra, idatzi hautatuak ondoan datozela, bilabideak idazleka eta aurkibide orokorra– bere lehen antologia: *Euskal Idazleen Lorategia. Itz-lauz. Bizkaieraz*. 1965. Ateraldi mugatua izango zuen, baina orduko Seminarioan, bai Nagusian, bai Txikian, ondoko hainbat urtetan izan zen euskara-ikasle talde askoren ikasbide liburua, eta hartan oinarrituko zen ere batipat Euskal Literatura gaiaren irakaskuntza urte batzuetara eratuko zen Derioko Udako Euskal Ikastaro barruan (1970az geroz).

Euskal literatura irakasteko Orixeren aspalditxoko sintesi-lantxo bat ere erabili zuten eskoletan, berberak polikopiazko ateraldi berezi bat eginik: *Euskal literaturaren atze edo kondaira laburra* izenekoa. Eta lehen lorategiaren ondoren, handik urte bira, bigarren antologia bat ateratu zuten, oraingoa gipuzkerazko idazleei eskainia: *Euskal Idazleen Lorategia: itz-lauz. II. Gipuzkeraz*. 1967. Hau ere aurrekoaren sistema berezuz, baina metodologiak zehatzago eta osoago, inprimatuz txukunago eta batez ere edukiz ugariago. Honen hartzaileak ere Seminarioko bere ikasleak zituen: lehen ikasturtean bizkaierazko testuak landu zituzten apaizgaiek hurrengo urtean gipuzkerazko literatura hautatua lantzea zuten bidea. Lorategi biok izan ziren Derioko Seminarioan, bai Nagusian, eta bai Txikian Karmeloren ikasle ginenontzat, euskara ikasteko bitarteko oinarritzaileak, bata bestearen hurrengo. Literatura bidez landu eta gozatu genuen euskara, gramatika agorragoaren bidez barik. Eta literaturazko bide horrek, irakasleak gaiari ematen zion gozotasunaz eta sentiberatasunaz, gozagarri eta liluragarri bihurtzen zituen gure euskara eskolak. Handik urte luzeetara ere iritzi eta hots bera entzun zaie Derioko Udako Ikastaroan haren eskolak jaso dituztenei.

Aurreko lorategi biotan oinarriturik 1969an, oraingoa inprimategian, hirugarren antologia bat argitaratu zuten: *Euskal Idazleen Lorategia (itz-lauz)*.⁶ Labur beharrez, bizirik zeuden idazleen lanak bazter utzi behar izan zituen.

Seminario Nagusian ikasle izan zituen apaizgaien artean gerora ezagun egin ziren ikasleak izan zituen, X. Amuritzak, G. Garitaonandia, J. J. Pujana, A. Muniategi, L. Zugazaga... Batzuk kantari onak ere bazirela eta, ikasleei kantarazi zizkien S. Mitxelena *Arantzazuko 20 kanta*, Orixeren *Euskaldunak* poemaren gehigarriko kantak eta beste herri kanta asko, batez ere literatura balio apartekoa zutenak. Kanta grabatuok literatura eskoletan erabiltzen zituen aringarri gisa, eskolak atseginago eta edukia erakargarriago bihurtu zedin. Bai jadetse ere.

Goi literaturako obrarik bikainenekin hirugarren ikas egitarau bat ere garatu zuten Derion Seminario Nagusiko Filosofiako ikasleei zuzendua: euskal literatura jasoeneko lanak, batez ere poesia, sakon eta era monografikoaz aztertzea. Eskolak baino mintegi

⁶ Inaki Beobide jaunak argitaratu zuen Donostian 1969an.

ziren gehiago, eta ikasleok ere lanak egin behar genituen. Gudu aurreko eta gudu osteko sorkuntzarik ederrenak hautatu zizkigun eta aztergai zuen idazle bakoitzeko apunte idatzi luzeak paratu eta banatzen zizkigun: Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Salvatore Mitxelena, eta uholde berriko batzuk: Gabriel Aresti, Bitoriano Gandiaga, Joxe Azurmendi eta Xabier Lete besteak beste. Gu izan ginen, oker ez banago, ikastaro horren azken hartzaileak Derioko Seminario Nagusian, 1971-1972 ikasturtean. Hurrengo ikasturtean, 1972-73koan, Lorentzo Zugazagaren gidaritzapean, Mogelen *Peru Abarka* aztertu genuen gai, estilo eta hizkera aldetik. Asteango saioak izaten ziren. Handik aurrera, bai Karmelo, bai Mikel Zarate, eta aipatu berri dugun Lorentzo batez ere, Seminario Txikiko euskara eskolekin jardungo zuten urte batzuetan.

Artean, Ander Manterolaren ardurapean, Derioko Udako Euskal Ikastaroa sortu zen 1970eko udan, urtez urte mailarik maila garatzen eta goratzen joango zena, goiz eta arratsaldeko ikastaro trinkoaren egitura hartzen zuela. Karmelo eta Mikel izan ziren hasiera horretako irakasleak, euren ikasleak gehienbat abade, fraide eta monjak zirela. Ondoko urteetan mailaz maila garatzen eta goratzen joango zen, eta irakasle berriak hartzen: L. Zugazaga eta J. M. Irazola lehenengoetarikoak eta gerora gure belaunaldiko eta ondokoetakoak, batez ere Ikastaroan bertan ikasle izan zirenak.

Karmeloren lana, hor ere, idazkuntza eta literaturara zuzendu zen gero eta argiago, eta literaturaren barruan, lehenengo bizkaierazkora, ondoren gipuzkera eta gaurreringo literatura, eta azkenik Iparraldekoa, Ikastaroa mailetan hazi ahala.

Hasieran Ikastaro bakoitzean eman beharreko edukiak aldeztu aurretik prestatu eta karpitetan polikopia sistemaz banatzen ziren. Karmelo ere hala hasi zen literaturakoe-kin. Haien lehen fruitu izango dira hurrengo antologia biak. 1980an argitaratuko da *Euskal Idazleak bizkaieraz* izeneko, Jon Kortazar eta Aitor Etxebarria ere egilekide direla: Karmelorenak dira testu-hautaketa, idazleen aurkezpenak eta testuen ohar-rrak, eta orduko laguntzaile bienak testuen gaineko ariketak eta azterbideak. Aurreko lorategietatik bereziak ziren testuak hautatu zituen beren-beregi, eta herri literaturari ere aparteko tokia eskaini. Antologia hau berak ia ez zuen erabiliko 80ko hamarkadako eskoletan, zeren ordurako Udako Ikastaroko goi mailetan Iparraldeko literatura irakasten baitzuen. Ikastaroko behegoko mailetako irakasle gazteagoak izango ziren liburu horrezaz baliatuko zirenak, eta ordurako Derion bertan zegoen «Begoñako Andra Mari» Irakasle Eskolan ere erabiltzen zen ikasle euskaldunekin.

Hurrengo urtean, 1981ean, *Iparraldeko Euskal Idazleak* izeneko antologia plaza-ratu zuen, aurrerago, 1988an, erantsi eta zuzenketa berriekin bigarren argitaraldi bat ezagutuko zuena. Derioko Ikastaroan luzaz erabili zen liburu hori 5. mailako eskoletan, eta Iparraldean bertan ere erabilia izan zen hango zenbait ikastarotan.

Baina aipatu bilera horretan tartetxo bat eskatu nuen adiskide honi eskaini zitzaion *Omenaldi liburuaz* zerbait idazteko eta erreseina hau nik egitea baietsi zen. Eta labur baino ez bada ere, liburuaren iruzkin bibliografikotik aparte, sentimendu pertsonalak nahiko nituzke azaleratu, oso hunkitua geratu nintzelako ez heriotzagatik bakarrik, 1980.eko urrian sendaezinezko gaixotasuna pairatzen hasi ondoren paregabeko gizon jakintsua galtzen hasi ginelako baizik.

Aspalditik ezagutzen nuen. Bergara eta Gasteizko seminarioetan ezagutu nuen (1940-1947), nik erdal ikastegi hura utzi eta gero berak Erromako Gregoriar Unibertsitateko bidea hartu zuenean (1951). Donostiako seminarioan liburuzaina izan zen (1956-66) ni hamahiru urte geroago lan eta ardura berbera hartu nuela. Horregatik, eta sarritan berarekin honetaz eta hartaz hitz egin nuelako apalki eredu eta ispilu gisa hartu nuen nire lanetarako. Eta adiskidetasun seinale, *Omenaldi liburuan* ikerlan bat eskaini nion (1983).

Duela 25 urte argitaratu zen liburu hori, edo hobeto esateko, bi liburukitan batu ziren ikasle, adiskide, zientzialari eta abarrek prestatutako 80 ikerlanak. Eduardo Txillidak ilustratua du azala, Donostiako Doctor Camino Taldeak argitaratua, talde horren zuzendaria izan baizen Telletxea Idigoras bizitzako azken urteetan. Lehen liburukiak 528 orrialde ditu, eta bigarrenak bezala 24 x 15,5 zentimetro. Bigarrenak 614 orrialde, hots, guztira 1.143 orrialdeko argitalpena.

Lehen liburukian datoz: Aurkezpenak, Omenezko hitzak, Biografia (Juan Antonio Garmendia) eta 1983. arte argitaratutako Bibliografia, omenduak berak prestatua. Eta gero hasten dira lankidetzak, hiru kapitulutan: I, Etnografia eta Artea; II, Erdi Aroa; eta III, Aro Berria. Euskaltzaindiari dagokionetik lehen eta bigarren kapituluetan idazten dute euskaraz Manuel Lekuonak eta Jose Migel Barandiaranek. Hirugarrenean, gaztelaniaz, Jose Mari Satrustegik.

Bigarren liburukian dena agertzen da gaztelaniaz, Luis Villasanterena izan ezik. Lehendabiziko liburukian hasia den Aro Berriak jarraitzen du eta hemen daude argitaratuak Apezetxea eta San Martinen lanak. IV. Kapituluak, eta euskaltzainak baino ez aipatzearren, agertzen dira nire lana eta lehen esandako Aita Villasanterena. Azken V. kapituluak azaltzen dira Lekukotasunak edo zenbait lagunak agurrak.

Gasteizko Seminarioko «Gráficas Eset»-ek inprimatu zuen liburua. Irudi batzuk ere baditu. Eta ez nuke amaitu nahi zera esan gabe, nirekin sentimentuz lotzen zuena: musikazalea zela gure omendua. Parisko Biblioteka Nazionalean aurkitu zituen Santes-teban donostiarraren musika-lan batzuk. Baina dena laburtu nahiez gero, atxiki behar zaio lan ugari eta baliotsuen artean hiru nabarmentzen direla: Larramendi, Loiolako Inazio eta Bartolomé de Carranza nafarra.

Jose Antonio Arana Martixa

JACQUES ISIDORE ETCHEVERRY UNANUE (1921-XII-16) – (2006-III-22)

ETXEKOAK ETA HAURTZAROA

Jacques Isidore Etcheverry Unanue Lapurdiko Donibane Lohizunen sortu zen, 1921-eko abenduaren 16an; aita Jean Baptiste Etcheverry Bidartetik zetorren eta ama Dominika Unanue, berriz, Gipuzkoa, andoaindarra, beste gipuzkoar gazte asko bezala lapurtar lagunarekin Donibanen ezkondua. Bost seme eta bi alaba izan zituen Etcheverry Unanue familiak eta Jakes, bigarren semea izan zen, baina badakigu 2008ko martxoaren 22an hil zaigula gure laguna Baionako ospitalean eta gero haurride-adiskidek Donibaneko elizan egin dizkiogula ehortzetak martxoaren 26an.

Nola bera joan baino lehen zenduak baitziren bi burasoak eta hiru anaia, orain gelditzen zaizkigu anaia gazteena, Ernest Etcheverry, Senperen dagoena, eta bi arrebak, Aline Etcheverry, Iturria batekin Donibanen berean familiatua, eta Marguerite Etcheverry, ezkongabea eta 7 haurridetarik gazteena.

Xehetasun hauek oro Etcheverry bi ahizpen ganik ditudala bildu, ez dut erraite beharrik, nahiz Donibane Lohizune eta Hazparne eta Bidaxune eta Peirohade, Lapurdiko itsas bazterreraino, 1914-ko gerla aitzin elkarretarik hurbildu behar zituen treinbideari uko egina zioten, «Gerla Handi» hura irabazi omen zuten gure buruzagiek, Jakesek eta nihonek gaztedanik aski ongi elkar ezagutu genuen, gaztaroko urteetan.

GAZTAROA SORTERRIAN

Ustegabeko bigarren mundu gerlaren bezperetan, Lapurdi leihorreko donibandar eta barnealdeko hazpandar mutil gazte askok bat egiten zuten alabaina, elkarretarik biderditan, Uztaritzeko gaintto batean eraiki berria zen San Frantzese Xabierreko seminarioan. Jakizue bada hango hazpandar buruzagi eta hain gizon ona zen Garat kalonjea lauzkatzen zuten hogeitaz apez irakasle ezberdinen artean, ikasle bakoitzak hauta zezakeela bere gogoko zuen gidaria. Nahiz ez zuten oraino funts handirik gutarteko eztabaidetik, gure ustez elkarren bete baitziren, bai kiroletan, bai elizkizunetan, bai politikan, Etcheverry, Diharce, Mourguy, Solaberrieta donibandarrak eta Carçabal, Challet, Charritton, Duhour, hazpandarrak.

Laster ordea, hots 1936eko udaminetik hara, Lapurdi aldetik beretik ozen genituen Irun eta mugaldeko gerla hotsak eta ondorioz gure irakasleen artean sendi genituen su horrek piztu alderdikeriak. Ez zituzten alabaina aburu berak, Uztaritzeko buruzagi ohi Clément Mathieu apezpikuaren ildotik zebiltzan Pierre Lafitte eta Etienne Salaberry gure irakaslek eta bestalde *Le Figaro* edo *Je suis partout* egunero hartzen zuten Bis-



ikastola liburutegia



LAPURDI

ITSAS-HEGIA

5

quey eta Dourisboure apezek edo hauen kideko *Eskualduna* astekariaren Ybarnegaray-zale amorratuek.

Baina Espainiako gerla bururatu orduko, hasi zen Frantziakoa eta orduan gure irakasle zenbait ikusi genituen, berek nahi ala ez, gerlari bihurtzen. Eta, harrigarriago oraino, aste guti barne, Hegoaldeko ihesliarren ondotik Iparraldeko euskaldunek ikusi genituen Belgikako, Frantziako gudaoste «ezingaraituen!» hondakin herrestak gure mendietaraino heltzen, Alemanak Hendaian sartu aitzin, Donibane Lohizuneko portutik Londresera urruntzeko gisan, poloniarren azken itsasontziakin.

Gogoratzen zait, hain zuzen, Jakesek eta nihonek eta Uztaritzeko lagunak, baxilergoako bigarren mailaren probak Baionako lizeoan gaintu genituela, Pétain marexal zaharrak Hitler garhaileari menia eskatu zion egunetan eta de Gaulle jeneral ezezagun gaztea jazarri zitzaion 1940eko ekainaren 18an.

Dena dela, Uztaritzeko seminariotik lekora eta ondoko udazkenean berean, gutarteko ikaskide anitzen bideak elkarretarik urrundu ziren:lagun gehienak Baionako Seminario Nagusira sartu ginen, bi urtez Filosofia ikasketak egiteko, nahiz gure bizitegiaren erdian soldadu alemanak bizikide izan. Jakes Etcheverry aldiz irakaslegoari lotu zitzaion berehala Donibane Lohizuneko Santa Maria ikastegian.

1943ko abuztuan ordea, adineko herritar zenbait bezala, gure laguna ere Bordeleko alderat deitua izan zen, sei zazpi hilabetez, Akitaniako «maquisards» edo *sasipetarren aurka*, baina armarik gabe, burdinbideen zaintzeko. Eta gero, Frantziako gerla bururatu artean, sorterriko irakaslegoara itzuli zen.

Bizkitartean, Amerikanoek eta Errusok amore emanerazi zitelarik Alemani eta Japoniarrei, hots 1945eko udamian, Frantzesek uste izan zuten berreskuratuko zutela, Asian edo Afrikan galdua zuten inperioa, eta de Gaulle jeneralak dei egin zion Frantziako gazteruari sail berri horri lot zedin. Badakigu nola galdu den azkenean, eta zenbat odol isuririk, Indotxinan lehenik, gero Afrika Iparralde ta Mendebaldean, de Gaulle jeneralaren eta bere lagunak ametsa.

Baina sasoi hartan Jacques Etcheverryk ere etxetik urrundu nahi izan zuen eta Bordelen, Anguleman, Ipar Afrikako Oranen gainti ibili zen, sei hilabetez soldaduzka bete arte eta gero, 1946etik 1948ko ikasturterarte San Bernateko salletarren ikastegian Baionan zeraman irakaslegoa utzirik, Iparraldeko gazte anitzek bezala, hartu zuen Pariseko trenbidea.

PARISEKO URTEAK (1948-1962)

Gure adiskide lapurtarrak bere 26-27 urteekin, Sorbonara buruz jo zuen lehenik, filosofiako, psikologiako eta soziologiako azterketen prestatzeko xedetan eta 1955ean lizentzia horiek ardietsi zituen.

Baina nihonek ere, bizpalau urte geroago, Baionako Seminariotik landa, Erroman teologia puska bat eginik, eta Hazpamen eta Maulen irakaslegoa apur bat dastaturik, Pierre Narbaitz kalonjearen eskaintza bati esker, Jakesek nik baino lehen hartua zuen bide bera egin nuen. Horra nola 1953eko ikasturtean Sorbona barneko eta auzoko geletan ala liburutegietan nentzen ni ere. Jakesek bezala, filosofia, psikologia edo soziologia irakasle bertsuak entzun nituen eta azterketak ere araberakoak iragan.

Orduz geroz bada, ene Euskal herriko herritar gazte ala zahar askorekin ezagutzak egin ditugu, ene bizibide luzean, hiru bider bederen, bi urteko egonaldiak eginik bainago Parisen, zergatik ez aitor ordea Jakesek eta nik ez dugula behinere han elkar topatu? – Egia da ez garela orain hemen Piarresen itzulginguruez behar ari, Jakesen ibilaldiez baizik.

Badakigu menturaz anitzek Pariseko erdi erdian, eta Matignoneko harresien bestaldean aurkitzen dela, egundainotik Asiako misiolari euskaldunen aterpe izana dela, eta gaurregun oraino aita Etxarren Irulegiko semea horko buruzagia dela. «*Missions Etrangères de Paris*» deitu etxe famatuan ibilia zen Jakes Etcheverry eta eza-gutu zuen han berean *aita Chabagno*, Albert Chabagno gure ikaskide ohiaren osaba misionesta eta haren inguramenean zebiltzan Pariseko euskaltzale eta euskal ikasle asko aurkitu zuen.

Erran behar dut bestalde, aita Piarres Lafitte gure ezinahantzizko irakasle zenaren gutundegi osoa, Piarres Andiazabal kalonjeak ximenki zaindu duena gaur arte, digitalizatu berri duelarik Euskaltzaindiak, eskuratu dugula 1951eko martxoaren 21 ean, Baionako *Herria* astekariaren Zuzendariari, hots, Pierre Lafitte jaunari berari, Jacques Lafitte karrikako bulegora igorri zion 4 orrialdeko gutuna, I. Etcheberryk sinatua, Piarre V.eko Quatrefages karrikako 4.eko bulegoan.


1951ko gutun mamitsu horrek ordea argi bat piztu du ene memorian: Piarres Lafittek oraino, lehen bezala gaur ere, Lukianos deitu grekozko idazle zorrotzaren «bizilagun izanik, hilak direnen arteko elkarrizketari berriz lotu behar bagenu bezala,» erran nezake menturaz *Galdegaia* orduan frantzesez «*le Terme Requis*» gure gramatikari maite zenak deitzen zuena, ez ote genuen hori baizik eskas, Jakesek eta Piarresek, aita Lafitten bi ikaskide ohiek, Pariseko karriketean elkar hatzemaiteko?

Bospasei urte barne Pariseko Hiriburuan sartu ginen bi lagunek, bi mundu ezberdinetan erortzeko zortea izan genuen alabaina, batek ez besteak ez genuen sorteria ukatu eta gure irakaslek gaztaroan, grekoz, latinez, ala euskaraz erakatsi filosofiaren ondorioak ateratzen saiatu ginen: hau da «*Primum vivere deinde philosophare*», Bizi doia lehen, Filosofoa ondotik, latinetik ikasia, Bécas Ainhoar apez bertsolariak hain polliki itzulia Martin Koxeren kantuan:

Martin Koxek ez ditu eskolak kurrirtu;
Hala ere badaki zer den apetittu;
Haren filosofiak hiru punttu dittu:
Ongi jan, ongi edan, ase-ta geldittu.

Gaur konturatzen naiz, Jakes adiskidea filosofia horrek berak, bere 1951eko gutun hartan erraiten diolarik bere irakasle maite ohiari, nola bere ixtudiant lagunekin konturatu diren, bazter guztietarik Pariseratzen diren ixtudiantak, *biriketako gaitzak* jotzen dituela, adin bereko beste gazte mota guztiak baino gehiago; hor daude zenbakiak lekuko. Gaitz berak jotzen ditu berdin Euskal Herrietako ixtudiantek. *Herria* astekariak jakinen du beraz «Euskal Ixtudianten elkarte berezia» sortu behar litekeela.

Bestalde Arcachonen eginen da, ondoko hilabetetan, Frantzia guziko ixtudianten «Mutuelaren Biltzar Nagusia», gero Legebiltzarrak klase apaletako seme-alaben eskolatzeko dirulaguntzak aitzina ditzan. Horra beraz nolaz eta zertako Jakes Etcheverry bilakatu zen *Mutuelle Nationale des Etudiants de France, M.N.F.* Erakunde garrantzitsuaren «Buru orde» 1952 an, eta «Burulehen» gero, 1955.arte.



Sail beretik Parise Hiriko Gazteriaren eta Kirolarien Zuzendaritzaren Aholkulari izendatu zuten orduan Jakes Etcheverry eta, nahiz bazuen bestalde Frantziako hiri nagusian, Euskal Herriaz edo Euskarazko ikastaldiez zer egin, 1962 ko abenduan hartu zuen bizkitartean, Euskal Herrira itzultzeko xedea.

BAIONAKO LANTEGIAK (1962-1993)

Baionara itzuli orduko aurkitu zuen Komertzio Ganberan bere lantegia, etxe horretako aldizkariaren arduradun bezala eta, 7 urtez, hau da 1962tik 1969ko abendu arte, hilero agertarazi zuen *Activités en Pays Basque* deitu frantsezko aldizkaria. So bat eginez geroz konturatzen gara urte haietan susperraldi bat gaitza egin zuela Lapurdi leihorraldeko ekonomiak; orduantxe baitira estrenatzen Biarritze Parmako aireportua eta inguruko lantegiak.

Komunikazio gizon gisa, altxatu berri diren mugaren bi aldeetako *Irrati Telebistetan* parte hartzen du gure lagunak eta entzun daitezke Jakes Etcheverryren *euskarazko kronikak* eta *Herria*, *Gure Herria* edo *Basque Eclair* elebidun egunkarian zabaltzen dira gure adiskidearen *euskarazko artikulak*.

1965eko azaroaren 24ean, Euskaltzaindia ohartu baita badukeela Etcheverry bezalako lankide suhar baten laguntzaren beharra, eskaintzen dio berari urgazleen zerrendan sartzea. Ez baita geroztik karguaren gatik loakartzekoa.

1968ko maiatzaren karietara, Frantziako irakaskuntzaren legeak ere apur bat malgutzera doazelakoan naski, *Baionako Erakustokian* euskarazko ikasgaiak eskaintzen

hasia den Pariseko euskal irakasle ohiak, hasiko ditu *Baionako Lizeoan*, Frantziako Administrazioak ordaindurik, Euskal Eskolak batxilergoaraino emanen dituen Iparraldeko lehen euskal ikasgaiak.

Lan bera egingen du Jakesek «*Villa Pia*» deitzen den, Baionako *Lizeo pribatuan*, eta arratsez errepikatuko, ikasle helduentzat Erakustokian. Etxe honetako liburutegian utzi ditu azkenean bere paper eta liburu guztiak irakaskuntzatik erretiratzean 1987an.

Bainan geroztik, Harambillet deitzen den Baionako Zaharretxean sartuz geroz 1993an, ez du igande bat huts egin Donibane Lohizuneko haurrideen eta iloben etxeko itzulia egin gabe.

Ikus arte Jakes! eta hire argazkirik ez baitiguk nahi izan gure lerro hauen airestatzeko gisan, haizu izanen ahal zaiok hire aspaldiko adiskide Jose Luis Lizundiari Donostiako Gordailu editoreak, lehen Euskal Herri osoko ikastolentzat prestatu zuen esku liburu sortari edekitzea hirekin egin zuen 5. liburuari, *Lapurdi Itsas-hegia*-ren itxura!

Donostian 2009ko otsailaren 27an

Piarres Xarriton Zabaltzagarai

MILAGROS BIDEGAIN (1922-2006)

Arratsaldeon gutioi. Mila esker Milagrosen familikoiei eman didaten informazio guztiagatik, eta familikoak ez diren beste guztiei.

Familiakoak: Maritxu Bidegain, lehengusua, José Antonio Bidegain, iloba.

Familiakoak ez direnak: Arantxa Perez Gaztelu, Errenteriako andereñoa Milagrosen ikasle izana. Maritxu Ayerza, Magisterioko irakaslea, Fernando Viñuela eta Jokin Mujika Diputazioan Bibliotekan Milagrosekin lan egin dutenak, Koro Zumalabe Diputazioako langilea, Patri Urkizu Milagrosen ikasle izana E.U.T.G.en Historiako arloan eta azkenik Luis M^a Bereziartua irratian Milagrosekin lan egin zuena. Bestalde, Joseba Sarasolari, OARSO, Errenterian ateratzen den aldizkarian Milagrosen hilberri idazkia egin zuelako. Honetaz baliatu naiz berri batzuk emateko,

Milagros Bidegain Barkaiztegi Errenterian jaio zen 1922ko ekainaren 6an Kapitanekea kalean, 8.zenbakian; geroago Beheko kalean bizi izan ziren eta azkenik Santxoenea 9an zegoen etxera aldatu ziren, bere amonaren etxera. Donostian hil zen 2006ko abenduaren 23an 84 urte zituela, kultura mundura murgildutako bizitza luze baten ondoren. Milagrosek bizi guztia Errenterian eman zuen, azken hiru urteak izan ezik. Hauek Donostian Aldamar kalean egin zituen gaixorik, erortze bat zela medio ezin mogiturik gelditu zelako.

FAMILIA ETA BERTAKO GIROA

Gurasoak: Ama Dorotea Baztarrika Esnal, Pasai San Pedrokoa, aita Severiano Bidegain Urigoitia Errenterikoa, harakina. Bost seme-alaba ekarri zituzten mundura, hiru mutil: Estanis, Jose Mari eta Ignazio, bi neska: Milagros eta Loli bikiak, hauek txikiak ziren. Loli, bere ahizpa bikia, 30 urte zituela hil zen, giltzurrintetako gaixotasunak jota, Milagrosek oso gaizki pasatu omen zuen garai honetan.

Ama Doroteak, harategian lan egiten zuen, bikiak hazitzeko Mariaren laguntza izan zuen, Maria hau, ezkongabea, aldi berean 17 urte zituela haur bat izan zuen, bere alaba hazi eta titia ematen zien baita ere bikiei Milagros eta Loliri. Garai hartako giro sozialaren eraginez, Mariaren alaba hori bere benetazko ama, hau da Maria, izeba zelako ustetan hazia izan omen zen. 17 urte zituela etorri zen Milagrosen etxera eta bertan bizi izan zen 93 urterekin hil zen arte. Oso maitatua eta aintzat hartua izan omen zen, etxeakoandre lanak eginez.

IKASKETAK

Lehenengo ikasketak Erreterian bertan egin zituen, Hijas de la Cruz ikastetxean, ondorengoak honela agertzen dira Diputazioko agirietan; goi mailako batxilerra 7 urte Donostian Instituto Peñafloridan; Donostian Magisterio Eskolan Maistra; Filosofia eta Letretan lizentziatua: Historia arloan 5 urte, arruntak Oviedon, espezialitatea Zaragozan. Honaino Diputazioko agiriak dioena.

Donostiako Magisterio Eskolako agirietan 256. expedientean, Milagrosek 18 urte zituela, hauxe aurkitu dugu: goi mailako batxilergoa ziurtatzen duen agiria eta 1940-1941eko kurtsuan, *Complemento al Bachiller*, urte bateko ikasketak egina, horixe zen denbora hartako plana maistra izateko eta izena *Complemento al Bachiller* zuen

Expediente berean, 1940. urtean, maistra izateko matrikulatu zenean, portaera ona zuela baieztatzen duten dokumentuak daude Magisterio Eskolan, gaur parregurea eragiten diguten agiriak, Milagrosi eskatu zizkietenak: Erretereriako erretorearena, alkatearena, eta falangeko arduradunarena¹.

1. Erretereriako Asunción Parrokiako abadeak sinatua, 1940ko urriaren 10ean.:

- ...es de una conducta ejemplar en su vida religiosa y moral, perteneciendo a la Congregación de Hijas de María, frecuentando lo santos sacramentos, mostrándose como verdadera católica práctica.

2. Erretereriako alkatearena, Pedro Albisu Arroate:

- Certifico: Que de los antecedentes oficiales consultados y datos facilitados por los agentes de la Autoridad ... ha observado una intachable conducta.

3. Falange Española Tradicionalistakoa, Jefe Local de Rentería de F.E.T. y de las J.O.N.S., D. José Imaz Fernandez:

- Milagros Bidegain de 18 años de edad ha observado buena conducta y adhesión al Glorioso Movimiento. 10 de octubre de 1940. ¡Arriba España! ¡Viva España!

Hauk guztiek adierazten digute Milagrosek ikasketa garaian, 18 urteko neska gaztea zelarik, jasaten zuen zama soziala.

Joseba Sarasolak, *OARSO*, Erreterian ateratzen den aldizkarian, 2007-07-22an 42. zenbakian, 37-38. orrialdeetan, Milagrosen hil-berria idazten du eta honela dio:

- Milagrosek, garai hartan harrigarria zena, batxilergoa egin ondoren, Filosofia eta Letrak ikasketak prestatzeari ekin zion. Latinean espezializatu zen etxean ikasten zuen, unibertsitatera joan gabe, azterketak egitera izan ezean, ikasketa garai horretan, D. Francisco Yarzak bideratu zuen eta baita laguntza handia eman ere. Valladoliden egiten zituen azterketak eta bertan eskuratu zuen titulua.

Diputazioko agirietan irakurri duguna eta *OARSO* aldizkariak diona ez datoz bat, zeren Historiako espezialitatea egin zuen Oviedon eta Zaragozan eta Joseba Sarasolak

¹Bukaeran ikus dokumentuak.

dio *Latinean espezializatua*. Behar bada autodidakta izanen zen latinean. Valladoliden ateratako titulua batxilerrekoa behar zuen izan.

Nolanahi ere, ez dira emakume asko aurkitzen bere belaunaldikoen artean, Milagrosen neurrira iritsitakoak. Goi mailako ikasketak egin ondoren, nolabaiteko arrakasta soziala lortzen du. Hauek egiten dute berezi Milagros Bidegain, batez ere garai haiek 1922.an jaioa eta emakumea zela gogoan hartzen badugu. Dena dela lorpen hori ez zitzaion nekerik gabe iritsi eta lana gogotik egin behar izan zuen, aurrerago ikusiko dugun moduan.

1967ko urtarrilaren 27an Euskaltzaindiko urgazle izendatua izan zen.

ARGITALPENAK²

Sociedad Vasca Amigos del Pais-eko boletinean argitaratu zituen lan hauek:

- 1954 *Los escritos apócrifos de Andramendi* Koldo Mitxelenarekin batera
- 1955 *Nombres vascos de plantas* Salamancan ateratako liburu honi aipamen txiki bat egiten dio.
- 1955 *Bibliografía* bilduma bat Milagros Bidegain, Koldo Mitxelena eta Fausto Arocena, elkar lanean.
- 1967 «Textos vascos antiguos» *Anuario de Filología Vascan* «Julio de Urquijo».
- 1969 *Guipúzcoa* liburua Kutzak Donostian argitaratua, Xabier de Aramburuk zuzendua. Historiako datuen babesa Milagros Bidegain dakar.

LANAK

Hauek izan ziren Milagrosen lan tokiak: Erreterian, Hijas de la Cruz Ikastetxean; Zarautzen, Santa Ana Ikastetxean; Irunen, Akademian eta Donostian, Institutuan, E.U.T.G.en Historiako arloan eta Diputazioan. Hasierako lana irakasle izan zuen Milagrosek, Literatura, Latina eta Historia ematen zituen. Azken hogeit hamar urteak Diputazioan Biblioteka eta Artxiboko arduraduna.

IRUNGO AKADEMIA

Titulua lortu ondoren, *Fuertes* abizeneko lagunarekin batera, garai hartan sona handikoa izan zen akademia bat ireki zuten Irunen, *Chantre* etxean, *Paseo Colon* kalean. Hemen ematen zituen klaseak Koldo Mitxelenak, kartzelatik irten berria eta langabezia zegoenak, bertan aurkitu zuen gerra ondorengo bere lehen ogibidea. Nahiz eta osasunez gaizki ibili, bizi beharrak eraginda hemen lan egiten zuen.

² *Bukaeran xehetasun gehiago.*

DIPUTAZIOKO LANA

Oposizioak egin ondoren Diputazioan Bibliotekako eta Artxiboko arduraduna hautatua izan zen 1967-12-01 sartu eta 1987-04-06 jubilatua, 65 urte zituela, beraz 20 urtez izan zen Diputazioko lan horretan.

Lehen aipatu dugun *OARSO* Erreterian ateratzen den aldizkarian, honela dio Joseba Sarasolak:

(2007-07-22an 42.zenbakian 37-38. orrialdeetan Milagrosen hil-berria idazten du):

- Irakaskintza lanetan jarraitu zuen Donostiako Institutuan, beti ere latineko irakasle bezala, baina ez zituen inoiz oposaketak prestatu eta ez zen plazaren jabe izatera iritsi. Inguruko lagunek eta Koldok ere, ahaleginak egin zituzten oposaketara aurkez zedin, baina ez zuten lortu. Nonbait, Milagrosek erakusten zuen azal gogor haren azpian zalantza betetako pertsona izkutatzen zuen.

Gurutzearen Alaben ikastetxean ere latinezko klaseak eman zituen hainbat urtetan. Batxilergoa ezartzen hasiak ziren Erreterian, baina ez zuten gai hori eman zezakeen irakaslerik eta, laguntza moduan, Milagros prestatu zen klase horiek ematera. Gero Donostiara esamintzera joango ziren neskak, haren etxera joaten ziren latina ikastera. Hori bai, Milagrosek jartzen zuen klase horien ordutegia, bere ordu librean arabera. Askotan ez orduak gertatzen ziren, igande goizetan, adibidez.

Bere bizitzan izan zituen Milagrosek hain ezagunak ez diren jarduerak eta nahiko isilik pasa direnak: urtetan adibidez «Irun Hiriko» sari literarioen epaimahaikide izan genuen, Gipuzkoako gizon ilustratuenekin batera.

Baina dudarik gabe, Milagros ezaguna zaigu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegiko liburuzaina izan zelako eta, postua lortu zuen modua ikusirik, izatera iritsi zelako. Oposaketara aurkeztu zenean bere arerioak, ingelesaren ezaguera handia zuen arren, euskararik batere ez omen zekien. Eta hor, gure Milagrosek aurrea nabarmen hartzen zion. Eztabaida gogorrek gertatu omen ziren epaimahaian, baina azkenean Milagrosek eskuratu zuen plaza hori. Gauza ez omen zen hor gelditu eta arazoa auzietara eraman zuten. Sententziak berretsi zuen epaimahaiaren erabakia. Eta hor dugu Milagros, Latineko lizentziatua, liburuzain eta artxibari bihurtua.

Bertan aritu zitzaigun lanean, 65 urterekin jubilazioa iritsi zitzaion arte. Baina ez omen zitzaion gustuko gertatu bizimodu berria hartu beharra eta gogoz kontra hartu behar izan zuen.

Honaino *OARSO* aldizkariak dioena.

* * *

Maritxu haren lehengusuak adierazi digunez, Mitxelenak euskara zekien norbait Diputazioko Bibliotekan sartzeari nahi zuen eta halaxe gertatu zen, baina ez musu-truk, ederki samar kostatako oposaketa istiluren ondoren hartu zuen Milagrosek postua.

Donostian, Biblioteka Muzipala zegoen, baina hemengo arduradunak ez zekien euskaraz, ingelesean iaioa izan arren. Diputazioan sartzeko Muzipalekoa eta Milagros biak ibili omen ziren lehian kargu hori lortzeko, azkenean Milagrosek lortu zuen, baina ederki kostata, Joseba Sarasolak *OARSO* aldizkarian dioenez, sententzia eta guzti. Kontuan eduki behar dugu frankismoaren garaia zela 1967. urtea, istilu horiek gertatu zirenean.

SOZIALKI ERRETERIAN ZEGOEN GIROA

Lehen aipatu dugu, nekerik gabe ez zela iritsi Milagros ailegatu zen mailara. Kontuan hartzen badugu bizi izan zuen giro soziala, are arrigarriagoa egiten zaigu bere ibilbidea. 1936. urtean, gerra zibilaren hasieran, 14 urte zituen, batxilergoa egiten ari zela buru belarri joenezake. Zer baldintzetan? Ez dugu lekukorik aurkitu hau zehatz-mehatz jakiteko zeren bere adinekoak joanak dira, baina orduko egoerak ez zuen ikasteko giroa gozatuko. Erreterian, bere herrian, karlistak eta liberalak borrokan, euskal munduan zalaparta, gerrako tximista suntsizailearen danbadak non nahi. Horixe zen orduko giroa, Milagros neska gazteak, familia bertatik bizi izan zuena, zeren bere aita eta Maritxu Bidegainen aita, bi anaiak, Erreteriako «Circulo Liberal» etxearen sortzaileetakoak ziren, Maritxu Bidegainen bere lehengusuak esan digunez.



GERRA ONDORENGO URTEAK

Guerra ondorengo urteak ere eragozpenez beteak izanen ziren Milagrosentzat. Ez dugu topatu xehetasun gehiago baina pentsa genezake ez zirela patxadazkoak izanen inguruan zegoen istilu gorriak eta triskantzak gogoan izanik.

Geroago Frankismoaren laino zorigaitzokoa zeukan gainean eta hemen ikusten dugu Milagros euskarazko klaseak ematen. Honela dio Joseba Sarasolak *OARSO* aldizkarian:

- Ezagutzen eta onartzen ez zaizkion jardueren artean, Milagrosek euskararen alde egindako lana koka genezake. Urteetan, garai garratz haietan, arratsaldez eta eginbidea amaitu ondoren, euskarazko klaseak ematen zituen Foru Aldundiaren egoitzan inongo ordainsaririk gabe. Irratiz ere baserritarrei irratsaioa urtetan mantendu zuen bizirik.

El Pais aldizkarian 1999-11-12 «Baserri» hil zenean egindako idazkian hauxe irakurri genezake, Jose M^a Iriondok esandakoaz ari da artikulugilea:

- Hedabideetan Basarrik eginiko lanaz «aintzindari» izan zen. Artetxe, Lujanbio, edota Arrueren eskutik hasi ziren M^a Dolores Agirre, Milagros Bidegain, Jose M^a Etxebeste eta Basarri irratian lanean.

Luis M^a Bereziartuak, Milagrosekin batera irratian ibilia, hauxe adierazi digu:

Baserrik egiten zuen emanaldia *La voz de Guipuzcoa* zen, Milagros ez zen hemen ibili «Radio San Sebastián» izenekoan baizik.

Radio San Sebastián honetan José de Artetxe eta Luis M^a Bereziartuak egiten zuten saioa «Charlas con los baserritarras» izenekoa, gaztelaniaz eta euskaraz, dena idatzita edukitzen zuten alde zurretik, zentsura Gobierno Civilean pasa behar zelako. José de Artetxe hil zenean, Milagrosek eta Luis M^a Bereziartuak egiten zuten saioa. Eguneroko pasakizunak, baserriko gaiak, eguraldia...eta abar izaten zituzten hizpide.

DIPUTAZIOKO GIROA

Diputazioan bertan ez dut uste Milagrosek euskal giro atsegina aurkituko zuenik, bere oposaketa dugu lekuko alde batetik eta bestetik, garai hartan bizitutako eta adierazle diren bi pasarte, aipatuko ditut, nik bizitutakoak:

1. Euskaltzaindiko idazpurua paretatik kendu zutenekoa: Bibliotekako solairura pasatzeko ate nagusi bat zegoen eta bi idazpuru, ederki adierazten zutenak barrengo edukia, batek Biblioteka zioen eta besteak Euskaltzaindia, marmolezkoak, Diputazioko ikurrarekin paretan oso gogor josiak. Egun batetik bestera Euskaltzaindikoa desagertu zen, kendu zuten.
2. Eta bigarrena: Diputazioko sail desberdinetako langileak biltzen ziren fotokopiak ateratzeko gelan. Behin baino gehiagotan entzun nuen «Zu ez zara Diputaziokoa». Barrengo jende batzuk ez zuten begi onez ikusten euskal mundua. Ez denak noski, zorionez, zeren hemen ginen etxe honetan. Nik beti erantzuten nien: Euskaltzaindia, 1918an Diputazioek sortutako erakundea zela. Nire baitan nahiko eskubide neukala iduritzen zitzaidan.

Diputazioan, Euskaltzaindiko langile moduan, 1968. urtean sartu nintzen, Arantzazuko biltzarra baino lehen. Ordurako hor zegoen Milagros, baina Pedro Berrondoren aginduetara nengoenez, Diputazioko harreman eta bestelakoak bere esku zeuden. Toki dotorean, hori bai, lehenengo solairuan Elkanoren gela apainean geunden. Hemendik bigarren solairura pasa ginen, Eusko trena zegoen bulegoaren alboan. Ondoren hirugarren solairura, Biblioteka zegoen esparruan kokatu ginen, Ikertzaileentzat gordetako toki bereziaren alboan. Erdia Ikertzaileentzat eta beste erdia Euskaltzaindiarentzat banatu zuten. Denbora luzean hemen egin zituen Euskaltzaindiak hilero osokoen bilkurak. Gero Biblioteka esparrutik atera eta beste bi bulego gehiago izan genituen 3. solairu honetan, Txurruka kalera pasa aurretik, azkenik Hernani kalean kokatu ginen eta gaur badirudi nahiko finkaturik dagoela hor.

Euskaltzaindiak jasan zituen, aipatutako toki aldaketak, zegoen giroaren adierazgarri dira. Euskaltzaindia, Diputazioan 1968. urtean hasi zen lanean, Milagrosen sarrera 1967. urtean gertatu ziren istiluetatik urte bat geroago, bost bulego desberdin izan zituen Euskaltzaindiak etxe honetan, edo izan genituen. Nik nire burua katuak katakumeak erabiltzen dituen moduan ikusten nuen, toki batetik bestera trasteak eta liburuak garraiatzen. Halere eskertzekoak dira giro horretan hemen egoteko ahaleginak egin zituzten guztiak.

Hirugarren solairuan Biblioteka, Ikertzaileen tokia eta Euskaltzaindia, zati hau guztia Milagrosen ardurapean zegoen eta giltzaz ixten zuen Milagrosek Bibliotekako aretora, bere bulegora, Euskaltzaindiarenera eta Ikertzaileenera pasatzeko zegoen ate nagusia, ordu bietan lana uzten zutelako. Bera baino beranduago ateratzen baldin baginen, giltza uzten zigun. Milagrosen jarrera hau benetan eskertzekoa zen, egiten zigun mesedeagatik eta eskaintzen zigun konfiantzagatik, Bibliotekan, liburuetan zegoen altxor kulturala gogoan izanik.

Astero Carlos Santamaria, Joxe Migel Zumalabe, Aingeru Irigaray eta Xalbador Garmendia biltzen ginen, *Zortzi urteko ikastola hiztegia* eta beste egiten aritu ginenean. Berdin geroxeago matematika hiztegia egiteko asmotan Mikel Zalbide eta Jesus M^a Goñi gehitu zirenean, bilera hauek zirela eta uzten zigun giltza. Benetan borondate

oneko jendea biltzen zen bilera hauetara, beti musu-truk, euskal munduak, ikastolak eta abarrek zuten premia nolabait betetzeko. Ni izanen nintzen zerbait kobratzen zuen bakarra, seguro sozial eta deus gabe. Orduan, euskal munduko giroa horrelakoa zen, ez nintzen ni salbuespen bakarra.

Hamazazpi urte pasatu nituen Diputazioan, (1968-1985), batez ere fotokopiak atera behar nituenean sumatzen nuen zegoen giroa. *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* egiteko, bagenituen 15-20 aholkulari, Carlos Santamariak prestatutako erdal zerrendari, euskal ordaina jar zezaten, bidaltzen genizkienak.

Hau guztia jarri dut, hobekiago ulertzeko orduko giroa, zeren Milagrosek ere ez zuen izanen giro egokia euskal ikuspegitik begiratuta. Ez nuen sekulan Milagrosekin gauza hauetaz hitzegin baina berez adierazten dute orduko egoera Diputazioan.

Diputaziotik kanpo zegoen zurrnbitoak ere ez zion asko lagunduko Milagrosi, zeren 1976an ondoan zeukan pertsona eta buru egiten zuena, Juan M^a Araluze Villar, Diputatu Nagusia, ETAk hil zuen. Euskaltzaindia ere garai horretan Diputazioan zegoen.

Milagrosek ere jasan zuen toki aldaketa, Bibliotekako zerbitzu hobeak eman nahiez jakina, baina ez zen atsegina izanen beretzako 1978.urtean Diputazioan 3.solairutik behokora biblioteka aldatu zenean.

Franco hil ondoren (1975.an Franco hil zen) politikaren egoera aldatu eta beste aro bat hasi zen Diputatu Nagusi berriak sartu zirenean.

MILAGROSEN EUSKAL KUTSUA

Euskal kutsua Milagrosek batez ere familiaratik jaso zuen. Euskara maite zuen eta Koldo Mitxelenaren laguntza izan zuen horretarako.

Baina berriro diot 1922.urtean jaioa, goi mailako batxillerra eta karrera egina, emakumea izanik iritsi zen mailara ikusiaz ez da ahuntzaren gauerdiko eztula alajainena! Dagoen tokian, hemen aurkitu ez zuen laguntza eta patxada izan dezala.

* * *

(1) DOKUMENTUAK

Benito Uteaga Otegui, Coadjutor
de la Parroquia de Nra. Sra. de la
Asunción de Rentería, por ausencia
legítima del Sr. Párroco

Certifico: que S. María Milagru
Bidegami Barcaistegui, feligresa de
esta parroquia, según consta en el
libro de Matrícula de la misma,
es de una conducta ejemplar en
su vida religiosa y moral, pertenecien-
do a la Congregación de Hijas de
María, frecuentando los Santos Sacra-
mentos, mostrándose como verdadera
católica práctica

Y para que conste firmo
y sello la presente



Rentería 1.º Octubre 1940

Benito Uteaga



Don PEDRO ALZISU ARRARTE _____

accidental
Alcalde Constitucional de Rentería

CERTIFICO: Que de los antecedentes oficiales consultados y datos facilitados por los agentes de la Autoridad, resulta que D. Maria Milagros Bidegain Bereaitegui _____ natural de Rentería _____ y domiciliado en la calle de Sanchoses 9 _____ de esta localidad, ha observado una intachable conducta _____

Para que conste a petición de _____ la interesada _____ expido la presente que firmo y sello con el de esta Alcaldía en Rentería a once _____ de octubre _____ de mil novecientos cuarenta _____



Pedro Arrarte



FALANGE ESPAÑOLA
TRADICIONALISTA Y DE LAS J. O. N. S.

TELÉFONO 85-79
JEFATURA DE RENTERIA



Dn. José Imaz Fernandez, Jefe Local en funciones de F.E.T. y de las J.O.N.S. de Rentería.

CERTIFICO: Que Maria Milagros Bideg in Barcaiztegui, de 18 años de edad, vecina de esta Villa, ha observado buena conducta y adhesión al Glorioso Movimiento Nacional.

Y para que conste donde convenga expido el presente certificado en Rentería a diez de Octubre de mil noventa y cuatro.



José Imaz

¡Arriba España!

¡Viva España!



Serie A N.º 266639 *

Certificado Médico Oficial

Colegio de Guipúzcoa

D. Jesús M. Aguirre Becerra Dr.
 en Medicina y Cirugía, con residencia en Orreaga inscripto
 con el número 228 en el Colegio Oficial de Médicos de esta Provincia.

CERTIFICO: Que Maria Milagros Bidegain
Barraintegui se halla reconvalecida,
no padece enfermedad contagiosa, ni
depone sobre alguno, y goza de buena
salud.

Y para que así conste donde convenga y a instancia de la interesada
se da expido el presente certificado en Orreaga a
diez de abril de mil novecientos cuarenta
Aguirre

OTA.—Ningún Certificado Médico será válido si no se extiende en esta imprenta editada por el Consejo General de los Colegios Oficiales de Médicos, debiendo además llevar consigo el sello del Colegio Médico Provincial en que este Certificado sea extendido.

(2) MILAGROSEN ARGITALPEN ZERRENDA

- 1954: Koldo Mitxelenaekin batera BSVAP X,171-190 «Las escrituras apócrifas de Andramendi» baita ere urte berean *Anuario de Filología Vascan* I, 5-24.
- 1955: BSVAP XI, 117 eta *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, Bouda, K; Baumgartl, D *Nombres vascos de plantas*. Salamancan 1955. urtean argitaratutako liburu honen aipamen txiki bat dakar.
- 1955: *Bibliografía*. Egileak: Bidegain Milagros, Mitxelena Koldo, Arocena Fausto.
Edukia: Bibliografia aipamenak, periodikuetako artikulua.
BSVAP Año 11, Cuaderno 1, 117-128.
- 1967: «Textos vascos antiguos. Crónicas», *Anuario del Seminario de Filología Vasca* I, 179-195.
- 1969: BSVAP XXV, 454-455 «Algo acerca de Pérez Galdós», Gutun baten aipamen txiki bat dator B. Perez Galdosen familiako batek, Guillermo Camacho y Perez Galdosek bidalitakoa.
- 1969 *Guipúzcoa: Ilustraciones Victor Charola, asesoramiento histórico*, Milagros Bidegain, coordinación y dirección Jabier de Aramburu.
Editor: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa (Donostia).

Donostian, Diputazioan, 2009-II-27

Maria Pilar Lasarte

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX

2008

ALEMAN ASTITZ, Sagrario:	
– Berdetik horira. Sarrera-hitzaldia	15
– Euskaraz mintzatzen da	873
ANGUERA, Jordi:	
– Drets lingüísticos dels consumidors i usuaris	929
ARANA MARTIXA, Jose Antonio:	
– Telletxea Idigorasi omenaldi liburua	1107
ARBELBIDE, Xipri:	
– William Levi D’Abartiague eta <i>le Pays Basque-Eskual Herria</i>	449
AREJITA, Adolfo:	
– Karmelo Etxenagusia	1097
ARELLANO, Unai:	
– <i>Nafarroa Oinez</i> , 2008	813
ARKOTXA MORTALENA, Aurelia:	
– Bazterrez. Sarrera-hitzaldia	49
ARTZA BIKANDI, Jon:	
– Durangoko 43. Euskal Azokarekiko kontu-errendapena	1051
BADIOLA URIARTE, Ricardo:	
– Durangoko 43. Euskal Azokarekiko kontu-errendapena	1051
BARAIAZARRA, Luis:	
– Literatura terminoen hiztegia	549
BATTITTU COYOS, Jean-Baptiste:	
– Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntzaz Ipar Euskal Herrian: adibide batzuk	873

BAXOK, Erramun:	
– XIII. <i>Jagon</i> Jardunaldiak: kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak. Kontsumoa, hizkuntza gutxiagotuen indarberri- tzearen perspektibatik	829
BAZTARRIKA, Javier:	
– Ongietorri	811
BIJUESCA, K. Josu:	
– Literatura terminoen hiztegia	555
DE ANDRÉS, Ramón:	
– El eusquera y las jergas gremiales de Asturias	419
ELOSEGI, Lourdes:	
– Euskararen erabiltzaile estrategikoa: helduen euskalduntze eta alfabetatzearen helburu	513
ENCINAR, Kristina:	
– Lapurdiko Aturriko euskara: Bardozko <i>ü</i> bokalaz.	383
EPALTZA, Aingeru:	
– Nola konspirazioa garaitu genuen (Nafarroako euskal literatura garaikideaz)	815
ERDOZIA, Jose Luis:	
– Sakanako lexikoaren inguruan	313
ESNAL, Pello:	
– Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. Liburuaren aurkez- pena	467
ETXEBARRIA, Jose Ramon:	
– Magnitude eta unitate fisikoen nazioarteko sinboloak euskarazko diskurtsoan txertatzean sortzen diren arazoei buruzko zenbait go- goeta	411
EUSKALTZAINDIA:	
– Ageriko bilkura	95
– Bilbon, 2008ko urtarrilaren 25ean.	97
– Bilbon, 2008ko otsailaren 29an.	101
– Ageriko bilkura	105
– Bilbon, 2008ko apirilaren 4an	109
– Donostian, 2008ko apirilaren 25ean	113
– Iruñean, 2008ko maiatzaren 30ean	117
– Ageriko bilkura	121

	1141
– Bilbon, 2008ko ekainaren 27an	125
– Hendaian, 2008ko uztailaren 18an	129
– Ageriko bilkura	131
– Euskaltzaindiaren ARAUAK:	139
• 153. <i>Araua</i> : hiztegi batua: G letra.	141
• 154. <i>Araua</i> : Europako eskualde historiko-politiko nagusiak	173
• 155. Nafarroako udal izendegia	993
• 156. Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema	1013
• 157. Europako hiriak.	1027
– Bilbon, 2008ko irailaren 26an	967
– Iruñean, 2008ko urriaren 6an	969
– Donostian, 2008ko urriaren 31	971
– Bilbon, 2008ko azaroaren 28an.	973
– Pasaian, 2008ko abenduaren 19an.	975
FACENDA, Juan Manuel:	
– Amaiera hitzak.	41
GALÉ, Patxi:	
– Toponimia ikerketen oinarri teorikoak	601
– <i>Bermeoko toponimia</i> lanaren azterketa kritikoa	727
GARTZIA TRUJILLO, Sebastián:	
– Bilboko Liburu Azoka: 2008: <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i>	237
GOENAGA, Patxi:	
– Rudolf P. G. de Rijk, <i>Standard Basque: a progressive grammar</i>	571
GOIKOETXEA, Juan Luis:	
– Testu-antolatzaileak gazteriaren idazkerarako argitasuna eta garbitasuna.	485
GORROTXATEGI NIETO, Mikel:	
– Irizpenak	73
– Toponimia ikerketak: prozedura eta urratsak	663
– Kale izendegiak. Izenak hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko arauak.	695
– Irizpenak	705
HARITSCHELHAR, Jean:	
– Iratzeder.	1089
IBISATE, Ángel:	
– <i>¿Ergoienak alavesas? La Hergoiena salvaterrana. Las Ergoienas de Salvatierra. Nueva luz sobre un texto del P. Kardaberaz.</i>	281

INTXAUSTI, Joseba:	
– Jose Ignazio Telletxea Idigoras (1928-2008)	1107
IÑIGO, Andres:	
– Bera herri izenaz txosten osagarria	75
– Euskaltzaindia eta onomastika	613
– Aurkezpena	827
IRIBARREN, Maria Antonia:	
– Ongietorria.	11
JUARISTI, Patxi:	
– Zer gertatu da euskal kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideekin azken 120 urteotan?.	841
LASARTE, Maria Pilar:	
– Milagros Bidegain (1922-2006)	1127
LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis:	
– Legedia, eskumen eta administrazio prozedurak	655
– Henrike Knörr Euskaltzaindian	1069
MORVAN, Michel:	
– Le basque, langue eurasiennne	85
MUGURUTZA MONTALBAN, Felix:	
– Toponimia gizarteratzeko bideak. Erabilera administrazioetan	633
OIHARTZABAL, Beñat:	
– Aurelia Arkotxaren sarrera-hitzaldiari egin ihardespena.	61
ONOMASTIKA BATZORDEA:	
– Legutio	81
– Arkaia	707
– Olabarri	709
– Egileta	713
OSA, Erramun:	
– EAEko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen 123/2008 Dekretua. Zer-tarakoa, aldekoak eta kontrakoak	883
PEILLEN, Txomin:	
– Asto laster berria: ehizlariak eta ekologistak (Südür gorriak eta üzkü berdeak)	345
PERURENA, Patziku:	
– Pio gazte bizkor berekoi hura (Aquel niño que nunca fue),	297

RUIZ URRESTARAZU, Manuel M.:	
– <i>Acer</i> espezieen euskal izenak	397
– <i>Quercus</i> espezieen euskal izenak	405
– Gasteizko urrezko domina Henrike Knörr-i	1059
SALABERRI ZARATIEGI, Patxi:	
– Gorritik horira. Erantzuna	35
– Sobre el topónimo mayor Zúñiga	715
– En torno al origen y denominación vasca de Juslapeña	721
SALLABERRY, Jean-Baptiste:	
– Ongietorria.	45
URRUTIA, Andres:	
– Agurra	13
– Agurra	47
– Legeen eta Administrazioaren hizkera, testu-antolatzaileen ikuspegitik	525
– Valérie Dullion, Traduire les lois (Un éclairage culturel). La traduction en français des codes civils allemand et suisse autour de 1900.	559
– Narciso M. Contreras Izquierdo, El diccionario de lengua y el conocimiento especializado en la sociedad actual	563
– Jean-François Courouau, Moun lengatge bèl. Les choix linguistiques minoritaires en France (1490-1660)	567
– Agurra	809
– Kontsumoaren araubide linguistiko berria, zuzenbidearen ikuspuntutik: 123/2008 Dekretuaren nondik norakoak	907
XARRITTON ZABALTZAGARAI, Piarres:	
– Jacques Isidore Etcheverry Unanue (1921-XII-16) – (2006-III-22)	1121
ZUBIMENDI, Joxe Ramon:	
– <i>Jagonet</i> : 2008.urteko emaitzak	961

Jagon Saila XIII. Jardunaldiak

Agiriak



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Gaia: Euskara, kontsumoa eta hizkuntza